# V. ERANSKINA
# ARAUDI EZARGARRIA

DATU PERTSONALEN BABESAren

**arloko Jardunbide Egokien Eskuliburua Euskal Autonomia Erkidegoko toki erakundeetarako**

**Jardunbide Egokien Eskuliburu** hau egiten parte hartu dute:

Ana Novoa Carbarllido, Vitoria-Gasteizko Udala
Enrique Pascual Antxia, Basauriko Udala
José Antonio Fernández Celada, Ermuko Udala
Javier Aramberri Miranda, Getxoko Udala
José Luis Irigoien Martínez, Eibarko Udala
Julen Urteaga Legarra, Beasaingo Udala
Iñaki Galdeano Larizgoitia, EUDEL
Ignacio Alonso Errazti, EUDEL
Pedro Alberto González González, DBEB
Pablo Lakuntza Amiano, DBEB
Edurne Barañano Etxebarria, DBEB
Aintzane Osa Alberdi, euskarazko iztulpena,DBEB
Simón Mesanza Legarda, DBEB

## AURKIBIDEA


| | | |
|---|---|---|
| N1. | 95/46/CE Zuzentaraua, datu pertsonalen tratamenduaren arloan | 5-32 |
| N2. | Espainiako Konstituzioaren 18.4 artikulua | 33 |
| N3. | Datu Pertsonalak Babesteari buruzko 15/1999 Lege Organikoa | 34-58 |
| N4. | Datuak Babesteko Euskal Bulegoa Sortzeari buruzko 2/2004 Legea | 59-73 |
| N5. | DBLO garatzeko Erregelamendua onartzen duen 1720/2007 Errege Dekretua | 74-147 |
| N6. | 2/2004 Legea garatzen duen 308/2005 Dekretua | 148-156 |
| N7. | DBEBren Estatutua onartzen duen urriare 18ko 309/2005 Dekretua | 157-164 |
| N8. | Eredu normalizatuak ezartzen dituen uztailaren 21eko Ebazpena | 165-195 |
| N9. | DBEBren egitura organikoa garatzen duen 2005eko azaroaren 28ko Ebazpena | 196-202 |
| N10. | Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legea | 203-273 |
| N11. | Informazio gizartearen zerbitzuei eta merkataritza elektronikoari buruzko uztailaren 34/2002 Legea | 274 |
| N12. | Telekomunikazioei buruzko 32/2003 Lege Orokorra | 275 |
| N13. | Hiritarrak elektronikaren bidez Zerbitzu Publikoetara heltzeari buruzko 11/2007 Legea | 276 |

# ERANSKINA V

# ARAUDI EZARGARRIA

**95/46/EE Zuzentaraua, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena 1995eko urriaren 24koa, pertsona fisikoak babesteari buruzkoa, pertsonen datuak tratatzeko erari eta datu horiek askatasunez zirkulatzeari dagokienez**

## EUROPAKO PARLAMENTUAK ETA EUROPAR BATASUNEKO KONTSEILUAK

Europako Erkidegoa eratzeko Tratatua ikusi da, eta, batez ere, bere 100. A artikulua.
Batzordearen proposamena ikusi da.
Ekonomia eta Gizarte Komitearen irizpena ikusi da.
Tratatuaren 189 B artikuluan ezarritako prozedurari jarraituz.

**(1)** Kontuan hartu da, Tratatuan ezarritakoaren arabera, eta Europar Batasunaren Tratatuak eraldatu zuenez, Erkidegoaren helburuak honako hauek direla: Europako herriak gero eta batuago egon daitezen lortzea; Erkidegoko estatu kideen artean gero eta harreman estuagoak ezartzea; ekonomian eta gizartean aurrera egitea, ekintza erkideen bitartez eta Europa zatikatzen duten mugak kenduta; Europako herrien bizimodua hobetzea eten gabe; bakea eta askatasuna sendotzea eta zaintzea; eta demokrazia sustatzea, Giza Eskubideak eta Oinarrizko Askatasunak Babesteko Europako Hitzarmenean eta estatu kideetako konstituzioetan zein legeetan aitortutako oinarrizko eskubideak oinarri hartuta.

**(2)** Kontuan hartu da datuak tratatzeko sistemak gizakiaren zerbitzurako daudela, eta sistema horiek, pertsona fisikoen nazionalitatea edo bizilekua edozein dela ere, pertsona fisikoen oinarrizko askatasunak eta eskubideak errespetatu behar dituztela, eta, zehazki, intimitate-eskubidea; eta ekonomia- eta gizarte-arloetan aurrerabidea ekartzen, eta elkartrukea garatzen eta gizakien ongizatea lortzen lagundu behar dutela.

**(3)** Kontuan hartu da barruko merkatuaren ezarpenak eta funtzionamenduak beren baitan bermatuta dutela, Tratatuaren 7 A artikuluaren arabera, pertsonen, zerbitzuen, salgaien eta kapitalen zirkulazio askea, eta, beraz, estatu kide batetik bestera datu pertsonalak askatasunez zirkulatzeko aukeraz gainera, pertsonen oinarrizko eskubideak babestea ere beharrezko egiten dutela.

**(4)** Kontuan hartu da Erkidegoan ekonomia- eta gizarte-jardueretako sektore gehienetan gero eta gehiago erabiltzen dela datu pertsonalen tratamendua; eta informazio-teknologiek asko egin dutela aurrera, eta datu horiek tratatzea eta elkartrukatzea asko erraztu dela.

**(5)** Kontuan hartu da barruko merkatuaren ezarpenak edo funtzionamenduak ekonomia- eta gizarte-arloetan dakarten integrazioa, Tratatuaren 7 A artikuluan zehaztutakoaren arabera, eta horrek, nahitaez, mugaz gaindiko datu pertsonalen joan-etorria nabarmen handitzea eragingo duela, estatu kideek ekonomia- eta gizarte-arloetan dituzten eragile publiko zein pribatu guztien artean; kontuan hartu da estatu kide batean zein bestean ezarritako enpresen artean datu pertsonalak elkartrukatzeko joera garatu egingo dela; kontuan hartu da estatu kideetako administrazio orokorrek, Erkidegoko Zuzenbidea aplikatuta, datu pertsonalen elkartrukea eta elkarlana sustatu behar dutela, beren betekizunak gauzatzeko eta beste estatu kide batzuen administrazioen kontura zereginak betetzeko, barne-merkatua osatzeko mugarik gabeko esparruan.

**(6)** Kontuan hartu da, gainera, lankidetza zientifikoa eta teknikoa indartu denez, eta Erkidegoan telekomunikazio-sare berriak hedatu direnez, datu pertsonalak mugaz gaindi zirkulatzeko beharra dagoela eta batetik bestera ibiltzea errazagoa dela.

**(7)** Kontuan hartu da pertsonen oinarrizko askatasunak eta eskubideak, eta, zehazki, intimitate-eskubidea, babesteko mailak ezberdinak direla estatu kide batetik bestera, datu pertsonalak tratatzeko erari dagokionez, eta horrek eragotzi egin dezakeela datu horiek estatu kide batetik bestera transmititzeko zeregina; kontuan hartu da, beraz, ezberdintasun horiek oztopo izan daitezkeela zenbait jarduera ekonomiko erkidego osoan burutzeko, edo lehia faltsutu dezaketela, edo eragotzi egin dezaketela Erkidegoko Zuzenbidearen arabera administrazioek bete beharreko betekizunak bete ditzaten; kontuan hartu da estatu kideetako lege-, arau-, eta administrazio-xedapenen artean dauden aldeak eta gorabeherak direla-eta gertatzen dela gero babes-maila ezberdinak egotea.

**(8)** Kontuan hartu da, datu pertsonalen zirkulazioan oztopoak kendu ahal izateko, datu horien tratamenduari dagokionez, pertsonen askatasunen eta eskubideen babes-mailak berbera izan behar duela estatu kide guztietan; kontuan hartu da helburu hori, barne-merkatura iristeko ezinbestekoa izanik, estatu kideen jarduera hutsarekin ezin dela lortu, jakinda, batez ere, arlo honetan aplikatzekoak diren estatu-legeen artean gaur egun oso alde handiak daudela batetik bestera, eta, horrenbestez, kontuan hartu da estatu kideetako legediak koordinatzea beharrezkoa dela, datu pertsonalen mugaz gaindiko joan-etorriak egokiro araututa egon daitezen, koherentziaz eta Tratatuaren 7 A artikuluan zehaztutako barne-merkatuaren helburuarekin bat etorrita; kontuan hartu da, beraz, beharrezkoa dela Erkidegoak parte har dezan bateko zein besteko legeak elkarri hurbiltzeko.

**(9)** Kontuan hartu da, estatuetako legediak elkarri hurbilduta sortuko den babes-maila berdintsua lortuta, estatu kideek ezin izango dutela euren artean datu pertsonalen zirkulazio askea eragotzi, pertsona fisikoen oinarrizko askatasunak eta eskubideak, eta, zehazki, intimitate-eskubidea, babesteko arrazoiak direla-eta; kontuan hartu da estatu kideek maniobratzeko tarte bat ere izango dutela, eta, zuzentarau hau aplikatzeko testuinguruan, ekonomia- eta gizarte-arloetako bitartekariek tarte hori baliatu ahal izango dutela; kontuan hartu da estatu kideek, beraz, bakoitzaren estatu-zuzenbidean zehaztu ahal izango dutela datu-tratamendua zilegia izateko baldintza orokorrak zeintzuk diren; kontuan hartu da, horrela jardunda, estatu kideek, nork bere legedian, egun ematen duten babesa hobetzen ahaleginduko direla; kontuan hartu da, maniobra-tarte horien barruan eta Erkidegoko Zuzenbidearekin bat, zuzentarau hau aplikatzeko orduan ezadostasunak agertu ahal izango direla hala ere, eta horrek ere eraginak izango dituela datuen zirkulazioan, bai estatu kideetako bakoitzaren barruan, bai Erkidego osoan ere.

**(10)** Kontuan hartu da datu pertsonalen tratamenduari buruzko estatu-legediek oinarrizko askatasunak eta eskubideak errespeta daitezen bermatzea dutela helburu, batez ere, norberaren bizitza pribatua izateko eskubidea errespeta dadin, halaxe baitago aitortuta Giza Eskubideak eta Oinarrizko Askatasunak Babesteko Europako Hitzarmenaren 8. artikuluan, bai eta Erkidegoko Zuzenbidearen printzipio orokorretan ere; eta kontuan hartu da, beraz, legediak elkarri hurbiltzeak ez duela ekarri behar bermatu beharreko babesa gutxitzea, kontrakoa baizik, Erkide barruan oso babes-maila handia bermatzeko helburua izatea, alegia.

**(11)** Kontuan hartu da, pertsonen askatasunak eta eskubideak direla-eta, zehazki, intimitate-eskubidea dela-eta, zuzentarau honetan jasota dauden babes-printzipioek zehaztu eta zabaldu egin dutela datuen trataera automatizatuari dagokionez pertsonak babesteko Europako Kontseiluak 1981eko urtarrilaren 28an sinatutako Hitzarmena.

**(12)** Kontuan hartu da datuak babesteko printzipioak datu pertsonalen tratamendu guztietan aplikatu behar direla, baldin eta tratamenduaren erantzulearen jarduerak Erkidegoko

Zuzenbidearen aplikazio-eremuan sartzen badira; kontuan hartu da, era berean, kanpoan utzi behar dela pertsona fisiko batek bere jardun pertsonal hutsean edo etxeko kontuetan egindako datu-tratamendua, hala nola, posta erabiltzea eta helbide-zerrenda bat izatea.

**(13)** Kontuan hartu da, batetik, Europar Batasunaren Tratatuko V. eta VI. tituluetan jasotako jardunak, segurtasun publikoari, defentsari, estatu-segurtasunari buruzkoak, eta, bestetik, estatuak arlo penalean burutzen dituen jardunak, ez daudela Erkidegoko Zuzenbidearen aplikazio-eremuaren barruan, betiere, Tratatuaren 56. artikuluko 2. paragrafoan eta 57. eta 100 A artikuluetan ezarritakoaren arabera estatu kideei dagozkien betekizunei kalte egin gabe; modu berean, kontuan hartu da datu pertsonalen tratamendua, baldin eta estatuaren ongizatea bermatzeko beharrezkoa bada, ez dela sartuko zuzentarau honen aplikazioak hartzen duen eremuaren barruan, tratamendu horrek estatuaren segurtasunarekin zerikusia duen kasu guztietan.

**(14)** Kontuan hartu da, informazioaren gizartearen esparruan, soinuz zein irudiz osatutako datuak, pertsona fisikoei dagozkienak, jasotzeko, transmititzeko, erabiltzeko, erregistratzeko, gordetzeko edo jakinarazteko teknikak gaur egun gero eta gehiago garatzen ari direla-eta, honako zuzentarau hau datu horiek erabiltzeko tratamenduetan aplikatu beharko dela.

**(15)** Kontuan hartu da datu horiei dagozkien tratamenduak zuzentarau honen babespean egongo direla, soil-soilik, automatizatuta daudenean, edota erabilitako datu horiek pertsonei buruzko irizpide jakin eta konkretu batzuen arabera egituratutako artxibo batean gordeta daudenean, edo horrelako artxibo batean gordetzeko sortu direnean, izaera pertsonala duten datu horiek erraz eskuratzeko moduan egon daitezen.

**(16)** Kontuan hartu da soinuz edo irudiz osatutako datuen tratamenduak, bideokameraz egindako zaintzan jasotakoenak, esaterako, ez direla sartuko zuzentarau honen aplikazio-eremuaren barruan, baldin eta segurtasun publikoari, defentsari, estatu-segurtasunari buruzkoak badira, edo baldin eta estatuak Zuzenbide Penaleko arloei lotutako jardunak burutzen baditu, edo Erkidegoko Zuzenbidearen aplikazio-eremuan sartzen ez diren beste jardun batzuk burutu behar badira.

**(17)** Kontuan hartu da, soinuaren eta irudiaren tratamenduari dagokionez, kazetaritzan edo literaturan zein bestelako arte-adierazpenetan, batez ere, ikus-entzunezko arloetan, zuzentarau honetako printzipioak modu mugatuan aplikatuko direla 9. artikuluan ezarritakoaren arabera.

**(18)** Kontuan hartu da zuzentarau honek bermatutako babes horretatik inor kanpoan geratzeko arriskurik egon ez dadin, beharrezkoa dela Erkidegoan egindako datu pertsonalen tratamendu guztiek errespeta dezaten estatu kideetako baten legedia; eta, era berean, kontuan hartu da, horri dagokionez, komenigarria dela edozein pertsonak, estatu kide batean datu-tratamenduaren erantzulearen agintepean dihარduenean, egiten dituen datu-tratamendu guztiak estatu horren legediaren mendean jartzea.

**(19)** Kontuan hartu da, estatu kide bateko lurraldean enpresaren bat ezarriz gero, horrek eskatzen duela egoitza egonkorra izatea eta benetan jardun erreala burutzea; kontuan hartu da enpresaren ezarpen horren izaera juridikoa nolakoa den, sukurtsal hutsa izan, zein nortasun juridikoa duen enpresa filiala izan, ez dela horri dagokionez faktore erabakigarria; kontuan hartu da, erantzule bera, batez ere enpresa filial baten bitartez, estatu kide batean baino gehiagotan ezarrita dagoenean, orduan, erantzule horrek bermatu behar duela ezarpen horietako bakoitzak

dagokion estatuan jarduera horietarako aplikatzekoa den Zuzenbidearen araberako betekizunak bete ditzan.

**(20)** Kontuan hartu da, datuen tratamendurako erantzulea hirugarren herrialde batean ezarrita egon arren, horrek ez duela eragozpen izan behar, pertsonek zuzentarau honetan jasotako babesa izan dezaten; kontuan hartu da, horrelako kasuetan, erabilitako bitartekoak zein estatutakoak diren, estatu kide horretako legediaren arabera arautu behar dela datuen tratamendua, eta hartu beharreko neurriak hartu behar direla zuzentarau honetan jasotako eskubideak eta betebeharrak praktikan bermatuta egon daitezen.

**(21)** Kontuan hartu da zuzentarau honek ez duela eraginik izango arlo penalean aplikatzekoak diren lurraldetasun-arauetan.

**(22)** Kontuan hartu da estatu kideek beren legedian edo zuzentarau honi lotuta onartutako xedapenak aplikatzerakoan zehaztu egin behar dituztela datuen tratamenduak zilegizkoak diren ala ez jakiteko baldintza orokorrak; kontuan hartu da, zehazki, 5. artikuluak, 7. eta 8. artikuluei lotuta, arau orokorrez gainera, datuak tratatzeko baldintza bereziak ezartzeko aukera ematen diela estatu kideei, bai arlo jakin berezietan, baita 8. artikuluan adierazitako datu-kategorietan ere.

**(23)** Kontuan hartu da estatu kideek pertsonen babesa bermatzeko ahalmena dutela, eta, izaera pertsonala duten datuen tratamenduari dagokienez, pertsonak babesteko lege orokorra erabil dezaketela, edo, horrez gainera, arlokako legeak ere erabil ditzaketela, estatistika-institutuei buruzkoak, kasu.

**(24)** Kontuan hartu da ez direla zuzentarau honen xede pertsona juridikoak arlo honetan babesteari buruzko legediak, alegia, bakoitzaren datuen tratamenduari dagokionez pertsona juridikoak babesteari buruzkoak.

**(25)** Kontuan hartu da babes-printzipioek honako hauek dituztela oinarri: alde batetik, pertsonak, herri-agintariak, enpresak, agentziak edo bestelako organismo batzuk datu-tratamenduan ari direla, zein eratako betekizunak dituzten, batez ere, datuen kalitatea, segurtasun teknikoa, kontrol-agintarientzako jakinarazpenak, tratamendua burutu ahal izateko egoerak direla-eta, eta, beste alde batetik, pertsona guztiek, beren datuak erabiltzen direnean, eskubideak dituztela, beren datuen tratamenduaren berri izateko, datuak jakiteko, datuak zuzentzeko, edo, nahi izanez gero, baita egoera batzuetan beren datuak horrelako tratamenduetan erabil ez daitezen eskatzeko ere.

**(26)** Kontuan hartu da datuak babesteko printzipioak noiz aplikatu behar diren, alegia, identifikatuta dagoen pertsona bati buruzko edo identifikatzeko modukoa den pertsona bati buruzko edozein informazio erabiltzen denean; pertsona bat identifikatzeko modukoa den ala ez jakiteko, tratamenduaren erantzuleak edo beste edozeinek, arrazoizko modu batean, pertsona hori identifikatu ahal izateko erabil ditzakeen bitartekoen multzoa hartu behar da aintzakotzat; babes-printzipioak ez dira aplikatuko datuak anonimoak direnean, alegia, interesduna identifikatzea ezinezko denean; 27. artikuluaren araberako jokabide-kodeak lagungarri gerta daitezke, horien bitartez, datuak anonimo bihurtzeko jarraibideak eskuratu, eta, interesduna identifikatzea ezinezko izanik, datuak kontserbatzeko modua uzten duelako.

**(27)** Kontuan hartu da pertsonak babestu behar direla bai datuen tratamendua automatikoa denean bai datuak eskuz tratatzen direnean ere; babes horren irispena ezin dela, azken finean,

erabilitako tekniken mendean egon, bestela, babesa horren araberakoa balitz, horri zirkin egiteko arrisku larria egongo litzatekeelako; dena dela, kontuan hartu da, datuak eskuz tratatzen direnerako, zuzentarau honek fitxategiak jasotzen dituela bakarrik, eta egituratu gabeko karpetak ez dituela hartzen; zehatz esanda, fitxategi baten edukia pertsonei dagozkien irizpide jakinen arabera egituratu behar dela, era horretara, erraz eskuratu ahal izateko gero datu pertsonalak; 2. artikuluaren c) idatz-zatian jasotako definizioaren arabera, estatu kideetako bakoitzak ezarri ahal izango ditu izaera pertsonala duten datuen multzo egituratuaren osagaiak zehaztu ahal izateko irizpideak, eta datu-multzo horretara nola iritsi arautzeko irizpideak; ondo zehaztutako irizpide jakinen arabera egituratuta ez dauden karpetak eta karpeta-multzoak, baita beren azal-orriak ere, ez daude inola ere zuzentarau honen aplikazio-eremuaren barruan sartuta.

**(28)** Kontuan hartu da datu pertsonalen tratamendu oro legearen barruan burutu behar dela eta interesatuarekiko leial jardunda; horrekin batera, datu horiek egokiak, beharrezkoak eta neurrikoak izan beharko dute, lortu nahi den helburuarekin alderatuta. Gainera, helburu horiek zehatzak eta zilegiak ere izan beharko dute, eta datuak eskuratzeko unean aipatutakoak, eta datuak eskuratu eta gerora izango diren tratamenduen helburuak ezin izango dute hasieran zehaztu ziren helburuekiko bateraezinak izan.

**(29)** Kontuan hartu da datu pertsonalak gerora beste zerbaitetan erabiltzea, dela helburu historikoekin, estatistikoekin edo zientifikoekin, ez dela, orokorrean, bateraezintzat hartuko hasieran izan zuten helburuekiko, betiere, baldin eta estatu kideek behar besteko bermeak ezartzen baldin badituzte; berme horien bidez datu horiek edozein pertsonaren aurkako neurriak edo erabakiak hartzeko ez direla erabiliko bermatu beharko da.

**(30)** Kontuan hartu da datu pertsonalen tratamendua zilegia izateko, interesatuak horretarako baimena eman behar duela edo beharrezkoa izan behar dela datuok eskuratzea interesatua zerbaitetara behartzen duen kontratu bat izenpetzeko, edo legezko betebeharren bat betetzeko, interes publikoko misioren bat aurrera eramateko, aginte publikoa gauzatzeko, edo baita pertsona baten interes zilegia betetzeko ere, non eta ez diren interesatuaren interesak nahiz eskubide eta askatasunak gailentzen. Horrekin batera, kontuan hartu da, zehazki, eta tartean diren interesen oreka ziurtatzeko, eta aldi berean lehia eraginkorra bermatzeko, estatu kideek aldez aurretik baldintzak jarri ahal izango dituztela datu pertsonalak hirugarrenei zein baldintzatan eman dakizkiekeen jakiteko, betiere, merkataritzako prospekzioen arloan nahiz erakunde benefiko edo beste elkarte edo fundazio batzuek egindako prospekzioen arloan (esate baterako, politikan). Dena den, interesatuek horren aurka agertzeko duten eskubidea baimentzen duten xedapenak errespetatu beharko dira, hau da, interesatuek arrazoirik eman gabe eta ezer ordaindu gabe, berei buruzko datuen tratamenduaren aurka agertzeko duten eskubidea errespetatu egin beharko da.

**(31)** Kontuan hartu da datu pertsonalen tratamendua bidezkoa izango dela tratamendu horren helburua interesatuaren bizitzaren aldeko oinarrizko interesa babestea bada.

**(32)** Kontuan hartu da estatu bakoitzeko legeriari dagokiola interes publikoko misioa duen edo botere publikoa gauzatzearekin zerikusia duen tratamendu baten erantzulea administrazio publikoa edo zuzenbide publiko edo pribatuko beste pertsona bat izango den zehaztea, esate baterako elkargo profesional bat izan daitekeen zehaztea.

**(33)** Kontuan hartu da beren ezaugarriengatik oinarrizko askatasunen edo intimitatearen aurkakoak izan daitezkeen datuak ezin izango direla inolako tratamendutan erabili, non eta

interesatuak ez duen horretarako berariazko baimena eman; horrekin batera, zehazki jasota eduki beharko dira debeku horrek izango dituen salbuespenak premia zehatzen kasuan, konkretuki datu horiek osasunarekin zerikusia duten helburuekin erabili dituztenean, baina sekretu profesionala gordetzeko legezko betebeharra duten pertsona fisikoek; edo datu horiek bidezko jardueretarako erabiltzen dituztenean zenbait elkarte edo fundaziok, horien helburua oinarrizko eskubideak gauzatzea denean.

**(34)** Kontuan hartu da estatu kideei baimena eman beharko zaiela, interes publikoko arrazoi garrantzitsuek zuritzen dutenean, salbuespenak egin ahal izateko osasun publiko eta babes sozialaren arloan gaur egun dagoen debekuan, orain ezin baitira arlo horietako datu sentsibleak tratatu; beraz, eta kalitatea eta errentagarritasuna bermatzeak eskatzen dutenean, salbuespenak egin ahal izango dira. Horrekin batera, osasun arloko aseguruaren, ikerketa zientifikoen eta estatistika publikoen arloan jasotako zerbitzuak direla eta erreklamazioak izaten direnean, erreklamaziook ebazteko prozedurak ere zehaztu beharko dituzte estatuek. Izan ere, estatuei dagokie beharrezko berme egokiak aurreikustea pertsonen oinarrizko eskubideak eta bizitza pribatua babesteko.

**(35)** Kontuan hartu da, gainera, zuzenbide konstituzionalean edo nazioarteko zuzenbide publikoan zehaztutako helburuekin aginte publikoek ofizialki aitortutako erlijio-elkarteentzako xedez datu pertsonalak tratatzea interes publikoko arrazoi garrantzitsutzat jo dela.

**(36)** Kontuan hartu da hauteskundeekin zerikusia duten jardueretan estatu kide batzuen sistema demokratikoaren funtzionamenduak eskatzen duela alderdi politikoek herritarren ideologia politikoari buruzko datuak eskuratzea, eta hori dela eta, datu horiek tratatzea interes publikoko arrazoi garrantzitsutzat hartuko da, betiere, berme egokiak jartzen baldin badira.

**(37)** Kontuan hartu da kazetaritzarekin edo adierazpen artistikoarekin edo literaturarekin zerikusia duten helburuetarako datu pertsonalak erabiltzeko, batez ere ikus-entzunezkoen arloan, salbuespenak edo mugak jarri beharko direla zuzentarau honetan jasotako zenbait xedapenetan, betiere, salbuespenok beharrezkoak baldin badira pertsonaren oinarrizko eskubideak eta adierazpen-askatasuna ere bateragarri egiteko, eta bereziki informazioa jaso eta komunikatzeko eskubidea, hain zuzen ere Giza Eskubideak eta Oinarrizko Askatasunak Babesteko Europako Hitzarmeneko 10. artikuluan bermatuta dagoen moduan. Hori dela eta, oinarrizko eskubide horiek orekatzeko, estatu kideek izango dute eskumena beharrezko salbuespen eta mugak jartzeko ondorengo arloetan: datuen tratamenduen legezkotasunari buruzko neurri orokorrak, datuak hirugarren herrialdeetara eskualdatzeko neurriak, eta kontrolerako erakundeek izango dituzten eskumenak. Horrek ez du esan nahi, dena den, tratamenduaren segurtasuna bermatuko duten neurrietan salbuespenik egin behar dutenik estatu kideek. Horrekin batera, arlo horretako kontroleko ahalmenak dituen agintaritzari zenbait eskumen eman beharko litzaizkioke a posteriori, esate baterako gaiaren inguruko txosten bat argitaratzea aldian behin, edo agintari judizialen aurrean lege-prozedurei hasiera ematea.

**(38)** Kontuan hartu da datuak modu zilegian tratatzeak esan nahi duela interesatuak tratamenduen berri izateko modua eduki behar duela, eta datu horiek interesatuak berak emanda eskuratzen direnean, informazio osoa eta zehatza eman beharko zaiola datu horiek nola eskuratu diren jakiteko.

**(39)** Kontuan hartu da zenbait tratamendu ez direla erantzuleak zuzenean interesatuarengandik jasotako datuen ondoriozkoak; bestetik, bidezkoa izan daiteke datuak hirugarren bati komunikatzea, nahiz eta interesatuari datuak eskatu zitzaizkionean aukera hori aurreikusi gabe

egon. Kasu horietan guztietan, egindakoaren berri eman beharko zaio interesatuari datuak erregistratzerakoan, edo asko jota, datuak lehenbiziko aldiz hirugarren bati komunikatzerakoan.

**(40)** Kontuan hartu da, hala ere, ez dela beharrezkoa azkeneko betebehar hori ezartzea interesatuak dagoeneko horren berri baldin badu, edo erregistroa edo komunikazioa berariaz legean jasota baldin badaude edo ezinezkoa baldin bada informazio hori ematea, edo horretarako proportzioz gaindiko ahalegina egin behar bada; azken hori gertatzen da, hain justu ere, helburu historiko, estatistiko edo zientifikoa duten tratamenduen kasuan. Kasu horietan, interesatuen kopurua, datuen antzinatasuna eta izan litezkeen neurri konpentsatzaileak hartu beharko dira kontuan.

**(41)** Kontuan hartu da edozein pertsonak izan behar duela berari buruzko datuetara iristeko eskubidea, horiekin tratamenduren bat baldin badago, bereziki datu horiek zehatzak direla eta bidezko zerbaitetan erabiliko direla ziurtatzeko. Horrekin batera, eta arrazoi beragatik, edozein pertsonak izango du berari buruzko datuen tratamendu automatizatuan zein logika jarraitzen den jakiteko eskubidea, gutxienez 15. artikuluko 1. paragrafoan aipatzen diren erabaki automatizatuen kasuan. Eskubide horrek ezin du negozioen isilpekotasuna ez eta jabego intelektuala urratu, bereziki programa informatikoa babesten duen egile-eskubidea. Dena den, horrek ez du esan nahi interesatuari edozein informazio ematea ukatuko zaionik.

**(42)** Kontuan hartu da kasuan kasuko interesatuaren asmoen alde eta hirugarrenen eskubide eta askatasunak babesteko, estatu kideek datuetara iristeko eta informazioa jasotzeko eskubidea mugatu ahal izango dutela; esate baterako, osasunarekin zerikusia duten datuetara iristeko, nahitaez medikuntzako profesional baten bitartekaritza behar dela zehaztu ahal izango dute.

**(43)** Kontuan hartu da estatu kideek mugak ezarri ahal izango dituztela datuetara eta informaziora iristeko eskubidean eta baita tratamenduko erantzulearen zenbait betebeharretan ere, baldin eta hori egitea guztiz ezinbestekoa baldin bada esate baterako estatuaren segurtasuna babesteko, defentsarako, segurtasun publikorako, estatu kide baten edo Batasuneko estatu baten interes ekonomiko edo finantziero garrantzitsuak babesteko, edo, esate baterako, ikerketak aurrera eraman eta prozedura penalei ekiteko nahiz arau deontologikoak hautsi izanari aurre egiteko hori araututa duten lanbideetan; horrekin batera, salbuespen eta mugatzeei begira, kontrol-, ikuskatze- edo arautze-lanak zerrendatu beharra dago gorago aipatutako azkeneko hiru sektoreetan, hau da, segurtasun publikoaren, interes ekonomiko nahiz finantzieroen eta errepresio penalaren arloan. Dena den, aipatutako hiru sektore horietako eginkizunen zerrendatze horrek ez die legitimitatetik kentzen estatuaren segurtasunagatik edo defentsagatik ezarritako salbuespen eta murrizketei.

**(44)** Kontuan hartu da estatu kideek, Erkidegoko Zuzenbideko xedapenek hartaratuta, gorago aipatutako helburuetako batzuk bermatzearren, beharbada salbuespenak ezarri beharko dituztela nahitaez zuzentarau honetako xedapen batzuetan, hain zuzen ere, datuetara iristeko eskubideaz, pertsonei buruzko informazioaz eta datuen kalitateaz diharduten xedapenetan.

**(45)** Kontuan hartu da gerta daitekeela era zilegian datuak tratatzea, interes publikoko arrazoiak daudelako edo aginte publikoa erabiltzeak hala eskatzen duelako edo pertsona fisiko baten bidezko interesak hala eskatzen dutelako, baina hori gertatzen bada, edozein pertsonak izango du berari buruzko datuak ez tratatzeko eskatzeko, bere egoera jakinak horrela egiteko arrazoi legitimoak daudela erakusten badu. Hori guztia hala izanik ere, estatu kideek horrekin bat ez datozen xedapen nazionalak ezartzeko aukera izango dute.

**(46)** Kontuan hartu da datu pertsonalen tratamenduaren inguruan interesatuen eskubide eta askatasunak babesteak neurri tekniko eta antolakuntzako neurri egokiak hartzea eskatzen duela, bai tratamenduko sistema bera sortzen den unean baita tratamenduak aplikatzerakoan ere, eta hori guztia segurtasuna bermatzeko eta, horren bidez, baimendu gabeko tratamenduak galarazteko. Horrekin batera, estatu kideen eginkizuna izango da tratamenduen erantzuleak neurri horiek beteko dituztela ziurtatzea. Bestetik, segurtasun maila egokia bermatu beharko dute neurri horiek, teknikaren egoera zein den kontuan eta aplikazioaren kostua zein den kontuan izanda, betiere, tratamenduarekin sor daitekeen arriskuaren arabera eta babestu beharreko datuek dituzten ezaugarrien arabera.

**(47)** Kontuan hartu da datu pertsonalak dituen mezu bat telekomunikazioen edo posta elektronikoko zerbitzu baten bidez transmititzen denean, eta helburu bakarra era horretako mezuak transmititzea baldin bada, mezuan ageri diren datu pertsonalen tratamenduaren erantzule, normalean, mezua igorri duen pertsona izango dela, eta ez transmisioa egiteko zerbitzua eskaini duena. Hori hala izanik ere, zerbitzu horiek eskaintzen dituzten pertsonak normalean erantzule izango dira zerbitzuak funtzionatzeko behar dituen datu pertsonal osagarriei dagokienez.

**(48)** Kontuan hartu da kontroleko agintaritzari jakinarazteko prozedurek duten helburua ondorengoa dela, alegia, tratamenduen helburua zein den eta tratamendu horien ezaugarri nagusiak denen jakinekoak izatea, era horretan zuzentarau hau aplikatuz estatuetan onartuko diren xedapenen bidez kontrolatu ahal izateko.

**(49)** Kontuan hartu da beharrezkoak ez diren administrazioko izapideak saihesteko, estatu kideek jakinarazpenetan salbuespenak edo sinplifikazioak ezarri ahal izango dituztela interesatuen eskubide eta askatasunen aurka jotzen ez duten tratamenduen kasuan, betiere, mugak norainokoak izango diren esaten duen estatu horren egintza batekin bat baldin badatoz salbuespen eta sinplifikazio horiek. Horrekin batera, estatu kideek salbuespenak eta sinplifikazioak ezarri ahal izango dituzte, tratamenduaren erantzuleak izendatutako arduradun batek ziurtatzen badu egindako tratamenduek ezin dutela jo interesatuen eskubide eta interesen aurka. Gainera, kontuan hartu da datuak babesteko ardura duen pertsonak, datuen tratamenduaren erantzukizuna duen pertsonaren menpeko langilea izan edo izan gabe ere, erabateko independentziaz eraman beharko duela aurrera bere lana.

**(50)** Kontuan hartu da salbuespenak edo sinplifikazioak ezarri ahal izango direla zenbait tratamenduren kasuan, baldin eta tratamendu horiek duten helburu bakarra jendeari informazioa emateko erregistroak mantentzea bada, estatu kideko zuzenbide nazionalaz bat, eta herritar guztiek nahiz bidezko interesa frogatzen duen edozein pertsonak kontsultatzeko modukoak baldin badira.

**(51)** Kontuan hartu da, hala ere, jakinarazteko obligazioan sinplifikazioak egiteak edo horretatik salbuetsita egoteak ez diola tratamenduaren erantzuleari zuzentarau honetan aipatzen diren gainontzeko betebeharretako bat ere kentzen.

**(52)** Kontuan hartu da, aipatzen ari garen kontestuan, aginpidea duten erakundeek gerora egingo duten kontrola, orokorrean, nahikoa izango dela.

**(53)** Kontuan hartu da, hala ere, zenbait tratamenduk arrisku berezia sor dezaketela interesatuen eskubide eta askatasunei dagokienez, bai tratamendu horien ezaugarri, norainoko eta helburuagatik, esate baterako interesatuak eskubide bat jaso ahal izatetik, laguntza batetik

edo kontratu batetik salbuestea, baita teknologia berri bat modu jakin batean erabiltzeagatik. Kasu horietan, estatu kideek, hala nahi baldin badute, eskumena izango dute arrisku horien berri emateko beren legeetan.

**(54)** Kontuan hartu da gizartean aurrera eramandako tratamendu guztiak aztertuta arrisku berezi horiek dituztenen kopurua oso txikia dela; horrekin batera, estatu kideek tratamendu horiei dagokienez aldez aurretiko azterketa bat egitea aurreikusi beharko dute, eta azterketa hori kontrol-aginpidea duen erakundeak edo datu-babesaren arduradunak egin beharko du aurreko erakunde horrekin elkarlanean. Aldez aurretiko kontrol hori egin ostean, kontrol-aginpidea duen erakundeak, bere estatuko zuzenbidean esaten denaren arabera, ebazpen bat eman edo datuak tratatzea baimendu ahal izango du. Aldez aurretiko azterketa hori estatuko parlamentuak onartutako legegintzako neurri bat lantzen ari diren artean ere egin ahal izango da, edo neurri horretan oinarritutako beste bat lantzen ari diren artean, hain zuzen ere tratamendua nolakoa den zehaztu eta beharreko bermeak zehazten dituena.

**(55)** Kontuan hartu da estatuetako legebiltzarrek errekurtso judizial bat aurreikusi beharra dutela datuen tratamenduen erantzuleak interesatuen eskubideak errespetatzen ez dituen kasuetarako. Gainera, legez kanpoko tratamendu bat dela eta pertsonek izan ditzaketen kalteak datuen tratamenduaren erantzuleak konpondu beharko ditu, eta erantzukizunik ez duela esaten badu, gertakari kaltegarria berari egozterik ez dagoela frogatu beharko du, batez ere erantzukizuna interesatuarena dela erakutsita edo ezinbesteko gertakaria izan dela erakutsita. Esandakoaz gain, pertsona guztiei jarriko zaizkie zehapenak, bai zuzenbide pribatukoei zein zuzenbide publikokoei, zuzentarau hau ezarritakoan estatuetan onartutako xedapenak errespetatzen ez badituzte.

**(56)** Kontuan hartu da mugaz gaindiko datu pertsonalen joan-etorria beharrezkoa dela nazioarteko merkataritza garatzeko, eta zuzentarau honen bidez Batasuneko pertsonak babesten badira ere, horrek ez duela esan nahi hirugarren herrialdeetara datu pertsonalak igortzea ukatzen denik, herrialde horietan babes-maila egokia eskaintzen baldin bada. Hirugarren herrialde batek eskaintzen duen babes-maila egokia den edo ez erabakitzeko, transferentziarekin edo transferentzia-kategoriarekin zerikusia duten inguruabar guztiak hartu beharko dira kontuan.

**(57)** Kontuan hartu da, bestetik, hirugarren herrialde batek ez baldin badu babes-maila egokia eskaintzen, debekatu egin beharko dela herrialde horretara datu pertsonalak transferitzea.

**(58)** Kontuan hartu da debeku horretan salbuespenak jarri behar direla zenbait kasutan, hau da, interesatuak baimena eman duenean, transferentzia beharrezkoa denean kontratu bat dela eta edo ekintza judizial bat dela-eta, hala eskatzen baldin badu interes publiko garrantzitsu bat babesteak, esate baterako datuen nazioarteko transferentzia administrazio fiskal edo mugako administrazioen artean edo gizarte segurantzako eskumenak dituzten zerbitzuen artean, edo transferentzia legerian aurreikusitako erregistro batetik egiten denean, eta erregistro hori edonorentzako edo bidezko interesa dutenentzako irekita badago. Kasu horretan, transferentziak ez die eragingo aipatutako erregistro horrek dituen datu guztiei edo datuen kategoria guztiei. Bestetik, erregistro baten helburua bidezko interesa duten pertsonek kontsultatu ahal izatea denean, transferentzia pertsona horiek eskatuta egin ahal izateko modua zehaztu beharko litzateke, edo hartzaileak pertsona horiek direnean egiteko modua.

**(59)** Kontuan hartu da neurri bereziak hartu ahal izango direla hirugarren herrialde batek datuak babesteko mailan dituen hutsuneak arindu ahal izateko, baldin eta tratamenduaren erantzuleak

berme egokiak eskaintzen baldin baditu. Gainontzean, negoziazio-prozedurak zehaztu beharko dira Batasunaren eta kasuan kasuko hirugarren herrialdeen artean.

**(60)** Kontuan hartu da hirugarren herrialdeetara datuak transferitu ahal izateko, edozein kasutan, erabat errespetatu beharko direla estatu kideek zuzentarau hau ezartzeko onartu dituzten xedapen guztiak, eta bereziki zuzentarau honen 8. artikulua.

**(61)** Kontuan hartu da estatu kideek eta Batzordeak, bakoitzak bere eskumenen esparruan, sektore profesionalak animatu behar dituztela jarrera-kodeak idatz ditzaten, zenbait sektoretan egiten diren datu-tratamenduen ezaugarri bereziak direla-eta zuzentarau honetan esaten direnak betearaztea errazagoa izan dadin, betiere, zuzentaraua ezartzeko estatu bakoitzean onartutako xedapenak kontuan izanda.

**(62)** Kontuan hartu da estatu kide bakoitzean bere eginkizunak erabateko independentziaz aurrera eramango dituen kontrol-agintaritza bat sortzea oinarrizko tresna dela datu pertsonalen tratamenduaren arloan pertsonak babesteari dagokionez.

**(63)** Kontuan hartu da agintaritza horrek behar beste baliabide izan beharko dituela bere eginkizunak aurrera eramateko, ikertzeko edo jarduteko boterearen arloan, eta bereziki agintaritzari aurkezten zaizkion erreklamazioen kasuan edo epaiketetan agertu beharreko kasuan; agintaritza horrek dagokion estatuan egindako datuen tratamenduak gardenak izaten lagundu beharko du.

**(64)** Kontuan hartu da estatu kide bakoitzean dauden era bateko edo besteko agintaritzek elkarri lagundu beharko diotela beren eginkizunak aurrera eramateko orduan, horrela Batasun osoan babesaren arloko neurriak erabat beteko direla bermatzeko.

**(65)** Kontuan hartu da datu pertsonalen tratamendua dela eta pertsonak babesteko Erkidego mailako talde bat sortu beharko dela, eta talde horrek erabateko independentziarekin jardungo duela. Talde hori berezia izango denez, Batzordeari aholkularitza eskainiko dio, eta, bereziki, zuzentarau hau ezartzeko estatu kide bakoitzean onartutako neurriak modu bateratuan ezartzen lagunduko du.

**(66)** Kontuan hartu da datuak hirugarren herrialdeetara igortzeari dagokionez zuzentarau hau ezartzeak Batzordeari betearazteko eskumenak ematea eskatzen duela, eta prozedura jakin bat sortu beharra ere badagoela, Kontseiluaren 87/373/EEE Erabakian (1) ezarritako aukerekin bat.

**(67)** Kontuan hartu da 1994ko abenduaren 20an akordioa lortu zela Europako Parlamentuaren, Kontseiluaren eta Batzordearen artean, hiru erakunde horien arteko modus vivendi deiturikoa zehazteko, hain zuzen ere Europako Konstituzioaren Tratatuaren 189 B artikuluan ezarritako prozedurarekin bat onartutako akordioak ezartzeko neurriei buruz.

**(68)** Kontuan hartu da pertsonen eskubide eta askatasunak babesteari buruzko printzipioak, eta, zehazki, zuzentarau honetan mintzagai den datu pertsonalen tratamenduan intimitatea errespetatzea, gehiago osatu edo zehaztu ahal izango direla, batez ere zenbait sektoretan, printzipio horiekin bat datozen neurri zehatzen bidez.

**(69)** Kontuan hartu da komenigarria ikusten dela estatu kideei hiru urtetik gorakoa izango ez den epea ematea zuzentarau hau estatuetara egokitzeko neurri nazionalak indarrean sartzen

direnetik zenbatzen hasita, aipatutako xedapen nazional berri horiek gutxika-gutxika dagoeneko badiren datuen tratamendu guztietan ezartzeko. Kostuaren eta eraginkortasunaren arteko oreka egokia izango duen aplikazioa errazteko asmoz, estatu kideei beste denbora-tarte osagarri bat ere eskainiko zaie, hain zuzen ere zuzentarau hau onartu eta hamabi urte baino lehen amaituko dena, une horretan oraindik ere badiren fitxategi manualak zuzentarauan jasotzen diren xedapenetara egokitzeko. Bestetik, fitxategi horietan jasotako datuak benetan eskuz tratatzen baldin badira luzatutako igaroaldiko denbora tarte horretan, aipatutako xedapenek esaten dutenera egokitu beharko dira tratamendua egiten denean.

**(70)** Kontuan hartu da ez dagokiola interesatuari berriz ere baimena ematea erantzuleak datu sentsibleen tratamenduarekin jarraitzeko modua izan dezan, zuzentarau honen arabera estatuetan onartutako xedapenak indarrean sartu ostean, betiere, tratamendu hori beharrezkoa baldin bada kontratuak betearazi ahal izateko, eta kontratu horiek askatasunez eta informazioa jasota egin badira aipatutako xedapenak indarrean sartu aurretik.

**(71)** Kontuan hartu da zuzentarau honek ez duela oztoporik jartzen estatu kide batek merkataritzako prospekzioak egiteko jarduerak arautu ahal izateko, prospekzio horiek estatu kide horretan bizi diren kontsumitzaileei buruzkoak badira, eta, betiere, arautze horrek ez baldin badio pertsonen babesari eragiten datu pertsonalen tratamenduaren arloan.

**(72)** Kontuan hartu da zuzentarau honek baimena ematen duela herritarrek agiri ofizialetara iristeko printzipioa kontuan hartzeko, hain zuzen ere zuzentarauan bertan azaldu diren printzipioak ezartzeko orduan. HONAKO ZUZENTARAU HAU ONARTU DUTE:

## I. Kapitulua. Xedapen orokorrak

### 1. Artikulua. Zuzentarauaren xedea

**1.** Estatu kideek bermatu egin behar dute, honako zuzentarau honen xedapenen arabera, pertsona fisikoen oinarrizko askatasunak eta eskubideak babestuko direla, eta, zehazki, intimitate-eskubidea, datu pertsonalak tratatzeko erari dagokionez.

**2.** Estatu kideek ezin izango dute estatu kideen arteko datu pertsonalen zirkulazio askea murriztu edo debekatu 1. paragrafoaren arabera bermatutako babesari lotutako arrazoiak direla-eta.

### 2. Artikulua. Definizioak

Zuzentarau honen ondorioetarako, honako definizioak hartuko dira kontuan:

> **a) «Datu pertsonalak»:** identifikatuta dagoen edo identifikatu daitekeen pertsona fisiko («interesdun») bati buruzko datu guztiak; pertsona bat identifikatzeko modukoa dela esango da, zuzenean zein zeharka, bere identitatea zehaztu daitekeenean, eta, batez ere, identifikazio-zenbaki baten bitartez edo pertsona horren berariazko ezaugarri baten edo batzuen bitartez, bere identitate fisikoa, fisiologikoa, psikikoa, ekonomikoa, kulturala edo soziala agerian gera daitekeenean;
>
> **b) «Datu pertsonalen tratamendua»** («tratamendua»): Datu pertsonalak baliatuz, prozedura automatizatua erabili zein ez, egindako edozein eragiketa edo edozein eragite-multzo, hala nola, datu pertsonalak bildu, jaso, erregistratu, antolatu, gorde, landu edo

moldatu, aukeratu, kontsultatu, erabili, transmisioz komunikatu, hedatu edo datu horiek hartu ahal izateko beste edozein bide eman, datuak alderatu edo interkonektatu, blokeatu, ezabatu edo suntsitu;

**c) «Datu pertsonalen fitxategia**» («fitxategia»): datu pertsonalen multzo egituratua, irizpide jakin batzuen arabera atzitzeko modukoa; multzo hori zentralizatuta egon daiteke, edo deszentralizatuta, edo funtzioen edo geografiaren arabera banatuta;

**d) «Tratamenduaren erantzulea»:** pertsona fisikoa edo juridikoa, agintaritza publikoa, zerbitzua edo beste edozein erakunde izan daiteke, eta, berak bakarrik edo beste batzuekin batera, datu pertsonalak tratatzeko xedeak eta bitartekoak zehaztu behar ditu; estatuetako zein Erkidegoko legegintzako edo erregelamenduko xedapenen bitartez, tratamendurako xedeak eta bitartekoak aurretik zehaztuta badaude, tratamenduaren erantzulea edo erantzule hori izendatzeko irizpide konkretuak estatuko zein Erkidegoko Zuzenbideak finkatu ahal izango ditu;

**e) «Tratamenduaren arduraduna»:** pertsona fisikoa edo juridikoa, agintaritza publikoa, zerbitzua edo beste edozein erakunde izan daiteke, eta, berak bakarrik edo beste batzuekin batera, datu pertsonalak tratatzen ditu tratamenduaren erantzulearen aginduz;

**f) «Hirugarrena»:** pertsona fisikoa edo juridikoa, agintaritza publikoa, zerbitzua edo beste edozein erakunde izan daiteke, baina ezin da izan ez interesduna, ez tratamenduaren erantzulea, ez tratamenduaren arduraduna, ezta datuak tratatzeko baimena duen beste inor ere, tratamenduaren erantzulearen edo tratamenduaren arduradunaren aginduak jasotzen baditu zuzenean;

**g) «Jasotzailea»:** pertsona fisikoa edo juridikoa, agintaritza publikoa, zerbitzua edo beste edozein erakunde izan daiteke jasotzailea, baldin eta, hirugarrena izan zein ez, datuen jakinarazpena jasotzen badu. Dena dela, agintaritzak ez dira jasotzailetzat hartuko, baldin eta datu-jakinarazpen hori ikerketa jakin bati lotutako eremu barruan jasotzen badute;

**h) «Interesdunaren oniritzia»:** interesdunak berari dagozkion datu pertsonalak tratatzeari baiezkoa ematea, berariaz, bere borondatez, askatasunez, eta jakinaren gainean egonda.

### 3. Artikulua. Aplikazio-eremua

**1.** Zuzentarau honetako xedapenak aplikatuko dira datu pertsonalen tratamendua erabat edo zati batean automatizatuta denean, baita, tratamendua automatizatua ez izan arren, datu pertsonalak fitxategi batean sartuta daudenean edo sartzekotan direnean.

**2.** Zuzentarau honetako xedapenak ez dira aplikatuko honako baldintza hauek tartean direla:

- Ez dira aplikatuko baldin eta datu pertsonalen tratamendua Erkidegoko Zuzenbidearen esparrukoak ez diren jarduerak direla-eta egin bada, hala nola, Europar Batasunaren Tratatuko V. eta VI. tituluetako xedapenetan jasotako jarduerak direla-eta, eta, egoera edozein dela ere, datu pertsonalen tratamenduaren xedea hauetakoren bat bada: segurtasun publikoa, defentsa, estatu-segurtasuna (estatuaren ongizate ekonomikoa ere barnean dela, datuen tratamendu horrek estatu-segurtasunarekin zerikusia duenean) eta estatuak arlo penalean egindako jarduerak.
- Ez dira aplikatuko baldin eta, lanbide-jarduera edo etxeko jarduera hutsean ari dela, datu pertsonalen tratamendua pertsona fisiko batek egindakoa bada.

### 4. Artikulua. Aplikatzekoa den estatu-zuzenbidea

**1.** Estatu kideetako bakoitzak zuzentarau hau aplikatzeko onartu dituen estatu-xedapenak aplikatuko ditu datu pertsonalen tratamendu guztietan, honako egoera hauetan:

**a)** Estatu kide bateko lurraldean datuen tratamenduaz erantzukizuna duen erantzulearen establezimendu bateko jarduera-esparruaren barruan egiten denean tratamendua. Tratamendu-erantzule bera estatu kide batean baino gehiagotan ezarrita dagoenean, orduan, erantzule horrek hartu behar diren neurriak hartu beharko ditu ezarpen horietako bakoitzak dagokion estatuan aplikatzekoa den Zuzenbidearen araberako betekizunak bete ditzan;

**b)** Tratamenduaren erantzulea, estatu kidearen lurraldearen barruan egon beharrean, nazioarteko Zuzenbide publikoaren eraginez, bere estatuko legedia aplikatzen deneko beste leku batean dagoenean;

**c)** Tratamenduaren erantzuleak, Erkidegoaren lurralde barruan ezarrita egon gabe, datu pertsonalak tratatzerakoan estatu kide horren lurralde barruan dauden baliabideak erabiltzen baditu, automatizatuak izan zein ez; salbuespen izango da, baliabide horiek iragapen-xede hutsez igarotzen direnean Europako Erkidegoaren lurraldean barrena.

**2.** Tratamenduaren erantzuleak, 1. paragrafoko **c)** idatz-zatian adierazitako egoera gertatzen denean, estatu kide horretan ezarrita dagoen ordezkari bat izendatu beharko du; dena den, hala dagokionean, tratamendu-erantzulearen aurkako ekintzak ere bideratu ahal izango dira.

## II. Kapitulua. Datu pertsonalen tratamendua zilegitasunez burutzeko baldintza orokorrak

### 5. Artikulua

Estatu kideek zehaztu behar dute, kapitulu honen xedapenek zedarritutako mugen barruan, zein baldintza errespetatu behar diren datu pertsonalen tratamendua zilegi izateko.

### I. ATALA. DATUEN KALITATEARI BURUZKO PRINTZIPIOAK

### 6. Artikulua.

**1.** Estatu kideek xede hauek ezarri behar dituzte xedapenen bitartez:

**a)** Datu pertsonalak leialtasunez eta zilegitasunez erabili behar dira.

**b)** Datu pertsonalak helburu jakin, zehatz eta zilegietarako bildu behar dira, eta, ez, ordea, horiekin bateragarri ez diren beste helburu batzuetarako; aurreko helburuekin bateragarritzat joko da datu horiek gero helburu historiko, estatistiko edo zientifikoetarako erabiltzea, betiere, estatu kideek datuak modu egokian erabiliko direla bermatzen badute.

**c)** Jasotako datu pertsonalek, helburua zein den, behar bestekoak, egokiak eta neurrikoak izan behar dute, eta helburu horretarako erabiliko dira gero.

**d)** Jasotako datu pertsonalak zehatzak izan behar dira, eta, beharrezko denean, eguneratu egin behar dira; datuen hasierako helburuekiko, edo, tratatu ondorengo helburuekiko, datu okerrak edo osagabeak badaude, arrazoizkoak diren neurri guztiak hartu behar dira horiek ezabatzeko edo zuzentzeko.

**e)** Datuak gorde egin behar dira interesdunak identifikatzeko modua egon dadin beharrezkoa den epe batean, ez luzeagoan, datu-bilketaren hasierako helburuak, edo, datuak tratatu ondorengoak zein diren kontuan izanda. Estatu kideek behar bezalako bermeak ezarriko dituzte, helburu historiko, estatistiko edo zientifikoak betetzearren, adierazitako epe horretatik aurrera artxibatuta jarraitu behar duten datu pertsonalak egokiro erabil daitezen.

**2.** Tratamenduaren erantzuleei dagokie lehen paragrafoan ezarritakoa beteko dela behar bezala bermatzea.

## II. ATALA. DATU TRATAMENDUA LEGITIMATZEKO PRINTZIPIOAK

### 7. Artikulua.

Estatu kideek xedatuko dute datu pertsonalen tratamendua bakarrik egingo dela:

**a)** Interesdunak argi eta garbi adierazten badu bere adostasuna.
**b)** Interesduna kontratu baten alderdi bat izanik, kontratua burutzeko beharrezkoa bada edo interesdunak berak eskatutako kontratu aurreko neurriak burutzeko beharrezkoa bada.
**c)** Tratamendu kontrolatzailearen legezko betebehar baterako beharrezkoa bada.
**d)** Interesdunaren berebiziko interes bat babesteko beharrezkoa bada.
**e)** Interes publikoko eginkizunen bat betetzeko beharrezkoa bada edo tratamendu kontrolatzailea edo datuak komunikatu zaizkion hirugarren bat haien dagokien agintaritza publikoez balia daitezen beharrezkoa bada.
**f)** Tratamendu kontrolatzailearen edo datuak komunikatu zaizkien hirugarrenen interes legitimo bat lortzeko beharrezkoa bada, eta beti ere tartean ez badaude pertsona fisikoen interesak edo oinarrizko askatasun eta eskubideak, Zuzentarau honetako 1. artikuluko 1. idatz-zatian xedatutakoaren arabera, babestu beharrekoak direnak.

## III. ATALA. TRATAMENDUEN SAILKAPEN BEREZIAK

### 8. Artikulua. Datu-sailkapen bereziak nola tratatu

**1.** Estatu kideek datu pertsonalen tratamendua debekatuko dute, baldin eta datu horien bidez jakinarazten bada pertsonaren arraza edo jatorri etnikoa, iritzi politikoak, pentsamolde erlijioso zein filosofikoak, sindikatu-bazkidetza, edo osasunari zein sexualitateari lotutako informazioa.

**2.** Egoera hauetan ez da 1. paragrafoan ezarritako hori aplikatuko:

**a)** Interesdunak berak bere datuak erabiltzeko baimena eman duenean berariaz; salbuespen izango da estatu kideko legeriak ezartzen badu 1. paragrafoan jasotako debekua ezin dela kendu, ezta interesdunak horretarako baimena emanda ere.
**b)** Laneko Zuzenbidearen arabera tratamendu-erantzuleak dituen berariazko betekizunak eta eskubideak errespetatzearren, datuak erabiltzea beharrezkoa denean, eta, betiere, legeriak horretarako baimena ematen badio eta berme egokiak ezartzen baditu.
**c)** Interesdunaren beraren zein beste inoren interes ezinbestekoak babesteko, datuak erabiltzea beharrezkoa denean, baldin eta interesdunak fisikoki zein juridikoki baimena emateko gaitasunik ez badu.
**d)** Irabazi-asmorik gabeko fundazio, elkarte edo beste era bateko erakunde batek, bere xedea politika, filosofia, erlijio edo sindikatu arloetakoa dela, zilegi zaizkion ekintzei lotuta eta behar bezalako bermeak jarrita, bere kideei eta bere kideei bakarrik dagozkien datuak tratatzen dituenean, edo, helburuak direla-eta, fundazio, elkarte edo erakundearekin aldiro-aldiro harremanak dituzten pertsonei dagozkienak tratatzen dituenean, betiere, interesdunen baimenik gabe datu horiek hirugarren batzuei jakinarazten ez bazaizkie.
**e)** Interesdunak berak jendaurrean jakinarazi dituen datuak tratatzen direnean, edo, eskubide bat aitortzeko, baliatzeko edo defenditzeko, prozedura judizial batean beharrezkoa denean.

**3.** Lehen paragrafoa ez da aplikatuko, datuak tratatzea beharrezkoa denean, bai prebentzio zein diagnostiko medikoak egiteko, bai laguntza sanitarioa emateko, bai tratamendu medikoak egiteko zein osasun-zerbitzuak kudeatzeko, betiere, bai estatuko legeriari jarraituz, bai eskumena duten estatu-agintaritzek ezarritako arauei jarraituz, datu-tratamendu hori lanbideko sekretua gorde behar duen profesional sanitario batek burutzen badu, edo, bestela, sekretua gordetzeko betekizun bera duen beste pertsona batek burutzen badu datu-tratamendua.

**4.** Estatu kideek, behar bezalako bermeak jarrita betiere, interes publikorako garrantzitsua denean, 2. paragrafoan jasotakoez gainera, beste salbuespen batzuk ere ezarri ahal izango dituzte, bai estatuko legeriaren bitartez, bai arlo horretan kontrola egin behar duen aginpideak halaxe erabakita.

**5.** Arau-hausteak, kondena penalak edo segurtasun-neurriak direla-eta, datuak tratatu behar direnean, agintaritza publikoak egon beharko du tratamendua kontrolatzen, edo egoera horrek estatuko Zuzenbidean berariaz ondo bermatuta egon behar du; estatu kideak ere salbuespenak ezarri ahal izango ditu, betiere, behar bezalako eta berariazko bermeak jasotzen dituzten estatu-xedapenetan oinarrituta. Dena dela, agintaritza publikoen kontrolpean baino ezin da zigor-arloko kondenak erabat erregistro batean jaso. Estatu kideek, era berean, administrazio-zehapenak edo prozesu zibilak direla-eta jasotako datuen tratamenduak agintaritza publikoen kontrolpean egon behar duela ezarri ahal izango dute.

**6.** Lehen paragrafoari dagokionez 4. eta 5. paragrafoetan ezartzen diren salbuespenak Batzordeari jakinarazi behar zaizkio.

**7.** Estatu kideek ezarri beharko dute zein baldintza bete behar diren estatuko identifikazio-zenbaki bat edo identifikaziorako orokorrean erabilitako beste edozein bide tratatu ahal izateko.

### 9. Artikulua. Datu pertsonalen tratamendua eta adierazpen-askatasuna

Kazetaritzan edo sorkuntza artistikoan zein literarioan, eta horretan bakarrik erabiltzekoak diren datu pertsonalak tratatu behar direnean, estatu kideek exentzioak eta salbuespenak ezarriko dituzte kapitulu honetako, IV. kapituluko eta VI. kapituluko xedapenei dagokienez, baina intimitaterako eskubidea eta adierazpen-askatasuna zuzentzen duten arauak elkarri uztartzeko beharrezko den neurrian bakar-bakarrik.

## IV. ATALA. INTERESDUNARENTZAKO INFORMAZIOA

### 10. Artikulua. Interesdunarengandik berarengandik jasotako datuak direnean eman beharreko informazioa

Estatu kideek xedatu behar dute tratamendu-erantzuleak edo bere ordezkariak, datuak nori dagozkion eta nori galdetu zaizkion, pertsona horrexeri jakinarazi beharko diola, gutxienez, ondorengo zerrendan jasotzen den informazioa, baldin eta interesdunak aldez aurretik horren berri ez badu behintzat:

**a)** Tratamendu-erantzulearen identitatea eta, hala badagokio, bere ordezkariarena.
**b)** Datuen tratamendu horrek dituen helburuak eta xedeak.
**c)** Bestelako informazioa, hala nola:

- Datuen jasotzaileak edo jasotzaile-kategoriak zein diren.

- Ea erantzuna ematea beharrezkoa den ala ez, eta, erantzuteari uko eginez gero, horrek interesdunari ekarriko lizkiokeen ondorioak zein diren.
- Ea interesdunari dagozkion datuak jakiteko eta zuzentzeko eskubiderik badagoen ala ez, betiere, datuak jasotzeko egoera jakin horiek nolakoak izan diren aintzakotzat hartuta, datuen tratamenduan interesdunarekin leial jokatuko dela bermatzeko, informazio osagarri hori izatea beharrezkoa den neurrian.

### 11. Artikulua. Datuak interesdunarengandik jaso ez direnean eman beharreko informazioa

**1.** Estatu kideek, datuak interesdunarengandik jaso ez direnean, xedatuko dute tratamendu-erantzuleak edo bere ordezkariak interesdunari jakinarazi beharko diola, baldin eta interesdunak aldez aurretik horren berri ez badu behintzat, ondorengo zerrendan jasotzen den informazioa gutxienez, betiere, datuak erregistroan sartzen diren unean bertan, edo, bestela, datu horiek hirugarren bati jakinarazteko asmoa izanez gero, datuak lehen aldiz jakinarazten diren unean, beranduenik ere:

**a)** Tratamendu-erantzulearen identitatea eta, hala badagokio, bere ordezkariarena.
**b)** Datuen tratamendu horrek dituen helburuak eta xedeak.
**c)** Bestelako informazioa, hala nola:

- Tratatutako datuen kategoriak zein diren.
- Datuen jasotzaileak edo jasotzaile-kategoriak zein diren.
- Ea interesdunari dagozkion datuak jakiteko eta zuzentzeko eskubiderik badagoen ala ez, betiere, datuak jasotzeko egoera jakin horiek nolakoak izan diren aintzakotzat hartuta, datuen tratamenduan interesdunarekin leial jokatuko dela bermatzeko, informazio osagarri hori izatea beharrezkoa den neurrian.

**2.** Lehen paragrafoan jasotako xedapenak ez dira aplikatuko, batez ere, estatistika-arloan edo ikerketa historiko zein zientifikoetan, baldin eta, interesdunari informazioa ematea ezinezkoa bada, edo neurriz kanpoko ahalegina egin behar bada, edo informazio hori jasotzea edo hirugarren bati jakinaraztea berariaz preskribituta badaude legez. Horrelako egoeretan, estatu kideek behar bezalako bermeak ezarriko dituzte.

## V. ATALA. INTERESDUNAK DATUAK JAKITEKO DUEN ESKUBIDEA

### 12. Artikulua. Atzipen-eskubidea

Estatu kideek interesdun guztien eskubide hauek bermatuko dituzte, tratamenduaren erantzulearengandik honako hauek lortzeko modua izan dezaten:

**a)** Interesdunek askatasunez eta aldiro-aldiro eska ditzakete, eta murrizketarik gabe eta gehiegi atzeratu eta ordaindu gabe jaso behar dute:

- Interesdunari dagokion datu-tratamendurik badagoen ala ez dagoen argitu behar diote, eta jakinarazi behar diote, gutxienez, datu-tratamendu horien helburuak zein diren, nolako datu-kategoriak tratatzen ari diren eta datu horien jasotzaileak edo jasotzaile-kategoriak zein diren.
- Interesdunari, argi ulertzeko moduan, jakinarazi behar diote zein datu ari diren tratatzen, eta datuen jatorriari buruz duten informazio guztia eman behar diote.

- Interesdunari dagozkion datuen tratamendu automatizatuetan erabiltzen den logikaren berri eman behar diote, gutxienez, erabaki automatizatuei buruz 15. artikuluko 1. paragrafoan jasotako egoerei dagokienez.

**b)** Hala dagokionean, datuak zuzendu, ezabatu edo geldiarazi egin beharko dira, baldin eta datu horien tratamendua zuzentarau honetako xedapenei egokitzen ez bazaie, batez ere, datuak osatu gabe edo zehaztasunik gabe ematen direnean.

**c)** Interesdunari buruzko okerreko datuak jaso dituzten hirugarrenei, **b)** idatz-zatiaren arabera datuak zuzendu, ezabatu edo geldiarazten direnean, jakinarazi egin behar zaie horren berri, hori egitea ezinezkoa edo neurriz kanpokoa ez bada, behintzat.

## VI. ATALA. SALBUESPENAK ETA MUGAK

### 13. Artikulua. Salbuespenak eta mugak

**1.** Estatu kideek lege aldetik hartu beharreko neurri guztiak hartu ahal izango dituzte, 6. artikuluko 1. paragrafoan, 10. artikuluan, 11. artikuluko 1. paragrafoan eta 12. eta 21. artikuluetan jasotako betekizun eta eskubideen irispena mugatzeko, baldin eta mugapen hori ezartzea beharrezkoa bada honako hauek babesteko:

**a)** Estatuaren segurtasuna.
**b)** Defentsa.
**c)** Segurtasun publikoa.
**d)** Zigor-arloan egindako arau-hausteak edo arautuko lanbideetako deontologian egindako arau-hausteak prebenitzea, ikertzea, antzematea eta zigortzea.
**e)** Estatu kide baten edo Europar Batasunaren ekonomia- eta finantza-arloko interes garrantzitsua, diru-, aurrekontu- eta zerga-gaiak ere barnean direla.
**f)** Kontrolatzeko, ikuskatzeko edo arautzeko funtzioak, baldin eta, aldian behingoa izanda ere, agintaritza publikoen zereginekin zerikusia badu, **c)**, **d)** eta **e)** idatz-zatietan jasotako egoerei dagokienez.
**g)** Interesduna bera edo beste pertsona batzuen eskubideak eta askatasunak babestea.

**2.** Legez dagozkion bermeei kalterik egin gabe, eta, zehazki, pertsona konkretuei buruzko neurriak edo erabakiak hartzeko helburuaz datuak erabiltzeko aukera kanpoan utzita, estatu kideek, baldin eta interesdunaren intimitatearen aurka jotzeko inolako arriskurik ez badago argi eta garbi, 12. artikuluan jasotako eskubideak mugatu ahal izango dituzte legezko xedapen baten bidez, datuak ikerketa zientifikoak egiteko helburuaz erabiltzen direnean soil-soilik edo datuak izaera pertsonaleko artxibo modura gordetzen direnean, betiere, helburu bakarra estatistikak egitea izanik eta horretarako beharrezko den epea gainditu gabe.

## VII. ATALA. INTERESDUNAK DATUAK AURKATZEKO DUEN ESKUBIDEA

### 14. Artikulua. Interesdunak aurkatzeko duen eskubidea.

Estatu kideek eskubide hauek aitortu behar dizkiote interesunari:

**a)** Interesdunaren beraren egoera partikularra dela-eta zilegi diren arrazoiak aintzat hartuta, edozein unetan aurka egiteko eskubidea, 7. artikuluko e) eta f) idatz-zatietan jasotako egoeretan behinik behin, berari dagozkion datuak inongo tratamendutan erabil ez daitezen, estatuko legeriak bestelakorik ezartzen ez bada, behintzat. Aurka egiteko egintza

arrazoizkoa denean, tratamendu-erantzuleak ezin izango du aurrerantzean datu horiek erabili tratamenduetan.

**b)** Interesdunak, aldez aurretik eskaera eginda eta ezer ordaindu gabe, aurka egiteko eskubidea du, berari dagozkion datu pertsonalak, erantzulearen arabera, prospekziorako tratamenduetan erabiltzekoak badira; era berean, eskubidea du datuak lehen aldiz hirugarren batzuei jakinarazi aurretik edo hirugarren horien izenean datuak prospekzioetan erabili aurretik, horren berri eman diezaioten, eta eskubidea du jakinarazpen edo erabilpen horren aurka egiteko bidea berariaz eman diezaioten, ezer ordaindu gabe.

Estatu kideek hartu behar diren neurri guztiak hartu beharko dituzte ondo bermatuta gera dadin interesdunek badutela **b)** idatz-zatiko lehen lerrokadan jasotako eskubide horren berri.

### 15. Artikulua. Banakako erabaki automatizatuak

**1.** Estatu kideek eskubidea aitortuko diete pertsonei, eurengan ondorio juridikoak izango dituen erabakirik edo modu nabarmenean eurengan eragina izango duen erabakirik inoiz ez baita hartuko, baldin eta erabaki hori datuen tratamendu automatizatu hutsean oinarrituta badago, eta jendearen nortasunaren alderdi jakinak ebaluatzen baditu, hala nola, laneko errendimendua, kredituak, fidagarritasuna, jokabideak, etab.

**2.** Estatu kideek, zuzentarau honetako gainerako artikuluetan ezarritakoari kalterik egin gabe, utzi dezakete pertsona bat 1. paragrafoan jasotako erabakietako baten menpe jar dezaten, ondoren aipatutako egoera hauetan:

**a)** Erabaki hori kontratu bat egiteko edo burutzeko esparru batean hartu denean, betiere, baldin eta interesdunak aurkeztutako kontratua egiteko edo burutzeko eskaera bete bada, edo interesdunak zilegi duen interesa babesteko neurri egokiak badaude, hala nola, bere ikuspuntua defendatzeko aukera ematea.

**b)** Interesdunak zilegi duen interesa bermatzeko neurriak ezarrita, lege batek baimendu duen erabakia denean.

## VIII. ATALA. TRATAMENDUAREN ISILPEKOTASUNA ETA SEGURTASUNA

### 16. Artikulua. Tratamenduaren isilpekotasuna

Tratamenduaren erantzulearen edo arduradunaren agintepean diharduten pertsonek, arduraduna bera ere barnean dela, tratamenduaren erantzuleak halaxe agintzen dienean, edo legez halaxe agintzen zaienean, orduantxe bakarrik tratatu ahal izango dituzte eskuragarri dituzten datu pertsonalak.

### 17. Artikulua. Tratamenduaren segurtasuna

**1.** Estatu kideek antolaketa-arloan eta arlo teknikoan neurri egokiak aplikatzeko betekizuna ezarriko diote tratamenduaren erantzuleari datu pertsonalak babestearren, datuak, halabeharrez zein bidegabe, suntsi ez daitezen, edo ustekabean gal ez daitezen, edo baimenik gabe aldaraz, jakinaraz edo erabil ez daitezen (batez ere, tratamenduak bere baitan sare barruko datu-transmisioa hartzen duenean), edo datu pertsonalak zilegi ez den beste edozein tratamendutan erabil ez daitezen.

Neurri horien bidez, gaur egun jakintza tekniko handiak daudenez horretarako, bermatuta egongo da segurtasun-maila egokia erabiliko dela, betiere, tratamenduak izan ditzakeen arriskuen arabera, eta babestu beharreko datuak nolakoak diren aintzakotzat hartuta.

**2.** Estatu kideek ezarriko dutenez, tratamenduaren erantzuleak, tratamendua berak bere kontura egin behar duenean, berme nahikoa emango duen tratamendu-arduraduna aukeratu beharko du, segurtasun teknikoaren arloan hartu beharreko neurriak hartzeari begira eta egin beharreko tratamenduak antolatzeari begira, eta neurri horiek behar bezala betetzen ari direla ziurtatu beharko du.

**3.** Tratamenduak enkarguz egin behar izanez gero, kontratua edo beste egintza juridikoren bat egin beharko da lan hori arautzeko, horrela, tratamenduaren erantzulea eta tratamendu-arduraduna legez lotuta egon daitezen, bereziki hauek xedatuta:

- Tratamendu-arduradunak beti jardun beharko du tratamenduaren erantzuleak emandako jarraibideak beteta, eta horrela bakarrik.
- Tratamendu-erantzuleak 1. paragrafoan ezarrita dituen betekizunak ere bete beharko ditu, arduraduna zein estatu kidetan dagoen, horko legeriak zehaztutako moduan.

**4.** Froga modura gordeta gera dadin, kontratuaren edo egintza juridikoaren zati batzuk, datuak babesteari buruzkoak eta 1. paragrafoan ezarritako neurriei lotutako betekizunei buruzkoak behintzat, idatziz jaso beharko dira edo horren baliokide den beste modu batean.

## IX. ATALA. JAKINARAZPENA

### 18. Artikulua. Kontrol-agintaritzari jakinarazteko betebeharra

**1.** Estatu kideek, 28. artikuluan ezarritakoari jarraituz, xedatuko dute tratamendu-erantzuleak, edo, hala badagokio, bere ordezkariak, tratamendua edo tratamendu-multzoa egin aurretik kontrol-agintaritzari jakinarazi beharko diola horren berri, baldin eta, osorik edo zati batean automatizatuta egonda, xede bat edo elkarri lotutako xede batzuk lortzera bideratuta badaude.

**2.** Estatu kideek jakinarazpen hori modu laburragoan egitea edo jakinarazpenik ez egitea xedatu ahal izango dute, honako egoera eta baldintza hauetan:

- Baldin eta, estatu kideek, tratamenduan erabilitako datuak nolakoak diren, interesdunen eskubide eta askatasunetan eragina izateko arriskurik ez dagoela ikusirik, tratamendu horietarako aurretiaz zehaztuta badituzte tratamenduen xedeak, erabilitako datuak edo datu-kategoriak, interesdunen kategoria(k), datuak jakinarazteko jasotzaileak edo jasotzaile-kategoriak, eta datuak gordeta edukitzeko epea; eta/edo
- Baldin eta, barneko esparruan, modu independentean, zuzentarau honi jarraituz onartutako estatu-xedapenak aplikarazten badira:

  - Baldin eta tratamendu-erantzuleak egindako tratamenduak erregistroan jasotzen badira, bertan 21. artikuluko 2. paragrafoan zerrendako informazioa bilduta dagoela, era horretara, datuen tratamenduak interesdunen eskubideak eta askatasunak murrizteko biderik emango ez duela bermatuta egon dadin.

**3.** Estatu kideek xeda dezakete 1. paragrafoa aplika ez dakien erregistroa osatzeko bestelako helbururik ez duten tratamenduei, betiere, legezko zein erregelamenduzko xedapenen bitartez, erregistro hori jendeari informazioa emateko sortua bada, eta jendeak oro har, edo bidezkoa

den interesen bat erakusten duen beste edozein pertsonak kontsultak egiteko moduan zabalik badago erregistroa.

**4.** Estatu kideek erabaki ahal izango dute jakinarazpena egiteko betebehar horretatik salbuestea edo jakinarazpena modu laburragoan egiteko aukera ematea, 8. artikuluko 2. paragrafoko d) idatz-zatian aipatutako tratamenduei dagokienez.

**5.** Estatu kideek xedatu ahal izango dute, datu pertsonalak modu ez-automatizatuan erabiltzen dituzten tratamenduak izanda ere, edo horietako batzuetan behintzat, inoiz modu laburrean jakinarazpena egin dezaten.

### 19. Artikulua. Jakinarazpenaren edukiak

**1.** Estatu kideek zehaztuko dute jakinarazpenean zein informazio sartu behar den, gutxienez, argibide hauek eskatuta:

- **a)** Tratamendu-erantzulearen izena eta helbidea, eta, hala badagokio, bere ordezkariarenak.
- **b)** Tratamenduaren helburua edo helburuak.
- **c)** Interesdunen kategoria edo kategoriak, eta tratamenduan erabilitako datuak edo datuen kategoriak deskribatuta.
- **d)** Datuak jakinarazterakoan hartzaile izan daitezkeen jasotzaileak edo jasotzaile-kategoriak.
- **e)** Hirugarren herrialdeetara egitekoak diren datu-transferentziak.
- **f)** Azalpen edo deskribapen orokorra, aurretiaz ikusteko eta ebaluatzeko ea 17. artikulua aplikatuz hartutako neurriak tratamenduaren segurtasuna bermatzeko egokiak diren ala ez.

**2.** Estatu kideek zehaztu beharko dute zein prozedura erabili behar den 1. paragrafoan adierazitako informazioari dagokionez gertatzen diren aldaketak kontrol-agintaritzari jakinarazteko.

### 20. Artikulua. Aurretiaz egin beharreko kontrolak

**1.** Estatu kideek zehaztuko dute zein tratamenduk ekar diezaiekeen berariaz arriskua interesdunen eskubide eta askatasunei, eta tratamendu horiek hasi aurretik ondo azter ditzaten jagongo dute.

**2.** Aldez aurretik egingo diren egiaztapen horiek kontrol-agintaritzak egingo ditu, tratamenduaren erantzuleak bidalitako jakinarazpena jasotakoan, edo, bestela, datuak babesteko arduradunak egingo ditu egiaztapenak, eta, zalantzarik izanez gero, kontrol-agintaritzari galdetu beharko dio.

**3.** Estatu kideek ere egin ahal izango dute egiaztapen hori, betiere, tratamenduak nolakoa izan behar duen definitzeko eta behar bezalako bermeak ezartzeko, Parlamentuak onartu beharreko arau bat osatzeko esparru barruan edo arau horretan oinarrituta.

### 21. Artikulua. Tratamenduen publikotasuna

**1.** Estatu kideek hartu behar diren neurri guztiak hartuko dituzte tratamenduen publikotasuna bermatuta egon dadin.

**2.** Estatu kideek ezarri behar dute kontrol-agintaritzak erregistroa osatu behar duela, 18. artikuluaren arabera jakinarazitako tratamendu guztiak jasota egon daitezen. Erregistroan, gutxienez, 19. artikuluko 1. paragrafoko **a)** idatz-zatitik **e)** idatz-zatira bitartekoetan eskatutako informazioak jaso beharko dira.
Erregistroa edozein pertsonak kontsultatu ahal izango du.

**3.** Estatu kideek ezarriko dute, jakinarazpen-betebeharrik ez duten tratamenduei dagokienez, tratamenduaren erantzuleek edo estatu kideek izendatutako beste erakunde batek hala eskatzen duen edozein pertsonari jakinarazi behar dizkiotela, modu egokian, 19. artikuluko 1. paragrafoko a) idatz-zatitik e) idatz-zatira bitartekoetan eskatutako informazioak, gutxienez. Estatu kideek erabaki dezakete xedapen hau aplika ez dakien erregistroa osatzeko bestelako helbururik ez duten tratamenduei, betiere, legezko zein erregelamenduzko xedapenen bitartez, erregistro horren helburua jendeari informazioa ematea bada, eta jendeak oro har edo bidezkoa den interesen bat erakusten duen beste edozein pertsonak kontsultatzeko moduan zabalik badago erregistroa.

## III. Kapitulua. Errekurtso judizialak, erantzukizuna eta zehapenak

### 22. Artikulua. Errekurtsoak

Arlo honetan administrazio-errekurtsoa jar daiteke, eta, batez ere, 28. artikuluan azaldutako kontrol-agintaritzari jar dakioke administrazio-errekurtsoa; horri kalterik egin gabe, estatu kideek ezarriko dute pertsona guztiek izan behar dutela errekurtso judiziala jartzeko modua, dena delako tratamenduan aplikatzekoak diren Zuzenbideko estatu-xedapenen bidez bermatutako eskubideak urratuta ikusiz gero.

### 23. Artikulua. Erantzukizuna

**1.** Estatu kideek ezarriko dute, zilegi ez den tratamendu bat dela-eta, edo zuzentarau hau aplikatzearren estatuan onartu diren xedapenekin bateragarri ez den ekintzaren bat dela-eta, kalteren bat jasan duten pertsona guztiek eskubidea izango dutela, tratamenduaren erantzulearen eskutik kaltea konpontzeko ordaina jaso dezaten.

**2.** Tratamenduaren erantzulea erantzukizunetatik salbuetsita geratu ahal izango da, zati batean edo osorik, baldin eta kaltea eragin duen egintza ezin zaiola egotzi frogatzen badu.

### 24. Artikulua. Zehapenak

Estatu kideek egoki diren neurri guztiak hartuko dituzte ondo bermatuta gera dadin zuzentarau honetako xedapenak erabat beteko direla, eta, zehazki, estatu kideek zehaztu egin beharko dituzte zuzentarau hau betetzeko onartutako xedapenak ez betetzeagatik ezarri beharko diren zehapenak ere.

## IV. Kapitulua. Datu pertsonalak hirugarren herrialdeetara igortzea

### 25. Artikulua. Printzipioak

**1.** Estatu kideek xedatuko dute, datu pertsonalak hirugarren herrialde batera igortzeko transferentzia egin ahal izateko, baldin eta datu horiek tratatuta badaude edo transferentziaren ondoren geroago tratatzekoak badira, hirugarren herrialde horrek datuak babesteko segurtasun-maila egokia bermatu beharko du nahitaez, betiere, zuzentarau honen gainerako xedapenekin bat estatuko Zuzenbidean onartu diren xedapenak betetzeko aginduei kalte egin gabe.

**2.** Hirugarren herrialde horrek datuak babesteko eman dezakeen segurtasun-maila egokia denentz ebaluatzerakoan, datuen transferentzia batean edo transferentzia-kategoria batean bildu litezkeen gorabehera guztiak hartuko dira kontuan; batez ere, honako hauek: datuen nolakotasuna, egitekoak diren tratamenduen xedea eta iraupena, jatorrizko herrialdea eta xede den herrialdea, hirugarren herrialde horretan indarrean diren Zuzenbideko arauak, orokorrak zein arlokakoak, baita herrialde horretan indarrean dauden lanbideetako araubideak eta segurtasun-neurriak ere.

**3.** Estatu kideek eta Batzordeak elkarri jakinaraziko diote, 2. paragrafoaren arabera hirugarren herrialde batek datuak babesteko segurtasun-maila egokirik bermatzen ez duela uste izanez gero.

**4.** Batzordeak, 31. artikuluaren 2. paragrafoan ezarritako prozedurari jarraituz, egiaztatzen duenean, artikulu honetako 2. paragrafoaren arabera hirugarren herrialde batek datuak babesteko segurtasun-maila egokirik bermatzen ez duela, estatu kideek hartu behar diren neurri guztiak hartu beharko dituzte datu pertsonalak hirugarren herrialde horretara igortzeko transferentzia eragozteko.

**5.** Batzordeak egin beharreko negoziazioak egingo ditu dagokion unean, herrialde horren berme faltaren berri jakin eta egiaztatutakoan, 4. paragrafoa aplikatuta sortuko den egoera konpontzeko.

**6.** Batzordeak jaso ahal izango du, 31. artikuluko 2. paragrafoan jasotako prozedurarekin bat etorriz, hirugarren herrialde batek artikulu honetako 2. paragrafoaren arabera datuak babesteko segurtasun-maila egokia bermatzen duela, herrialde horren barne-legeriari begiratuta edota nazioartean dituen konpromisoak nolakoak diren ikusita, eta, batez ere, bizitza pribatua edo pertsonen oinarrizko eskubideak eta askatasunak babestearren, 5. paragrafoan aipatutako negoziazioen ondotik izenpetutako konpromisoak aintzat hartuta.
Estatu kideek hartu behar diren neurri guztiak hartu beharko dituzte Batzordeak hartutako erabakiari egokitzeko.

### 26. Artikulua. Salbuespenak

**1.** Estatu kideek, 25. artikuluan xedatutakoa xedatuta dagoela ere, eta egoera partikularrak arautzeko estatuko Zuzenbidean bestelako xedapenik ez badago, nahiz eta, 25. artikuluko 2. paragrafoan ezarritakoa bete gabe, datuak babesteko segurtasun-maila egokia ez bermatu, datu pertsonalak hirugarren herrialde batera igortzeko transferentzia egin ahal izango dela xedatuko dute, baldin eta:

**a)** Interesdunak berak, argi eta garbi, aipatutako transferentzia hori egiteko baimena eman badu.

**b)** Transferentzia hori egitea beharrezkoa bada, interesdunaren eta tratamendu-erantzulearen arteko kontraturen bat burutzeko, edo interesdunak berak eskatutako kontratu aurreko neurriak burutzeko.

**c)** Transferentzia hori egitea beharrezkoa bada, interesdunaren beraren intereserako izanik, tratamendu-erantzulearen eta hirugarren baten artean egin den edo egitekoa den kontraturen baterako, edo

**d)** Transferentzia hori egitea beharrezkoa edo legez egin beharrekoa bada, interes publiko garrantzitsua babesteko, edo, prozedura judizial batean, eskubide bat aitortzeko, baliatzeko edo defenditzeko, edo

**e)** Transferentzia hori egitea beharrezkoa bada interesdunaren beraren interes ezinbestekoak babesteko, edo

**f)** Transferentzia hori erregistro publiko batetik egiten bada; erregistro horrek, betiere, legeak kontsultak egiteko ezartzen dituen baldintzak kasu konkretuetako bakoitzean beteta, legezko zein erregelamenduzko xedapenen bitartez, jendeari informazioa emateko sortua izan behar du, eta jendeak oro har, edo bidezkoa den interesen bat erakusten duen beste edozein pertsonak kontsultak egiteko moduan zabalik egon behar du.

**2.** Estatu kideek, 1. paragrafoan xedatutakoari kalte egin gabe, nahiz eta, 25. artikuluko 2. paragrafoan ezarritakoa bete gabe, datuak babesteko segurtasun-maila egokia ez bermatu, datu pertsonalak hirugarren herrialde batera igortzeko transferentzia bat edo transferentzia-multzo bat egin ahal izango dela xedatu ahal izango dute, baldin eta tratamenduaren erantzuleak ondo ziurtatzen badu bizitza pribatua eta pertsonen oinarrizko eskubideak eta askatasunak babestuko direla; berme horiek kontratuan berariaz horretarako sortutako klausuletan jaso litezke.

**3.** Estatu kideek, 2. paragrafoaren arabera horrelako baimenak emanez gero, Batzordeari eta gainerako estatu kideei jakinaraziko diete horren berri.
Beste estatu kide batek edo Batzordeak, bizitza pribatua eta pertsonen oinarrizko eskubideak eta askatasunak babesteko betebeharrari lotutako arrazoiak direla-eta, transferentzia baten aurka azaldu eta jarrera hori behar bezala justifikatuz gero, Batzordeak, 31. artikuluaren 2. paragrafoan ezarritako prozedurari jarraituz, hartu beharreko neurriak hartuko ditu.
Estatu kideek hartu behar diren neurri guztiak hartu beharko dituzte Batzordeak hartutako erabakiari egokitzeko.

**4.** Batzordeak erabakitzen badu, 31. artikuluaren 2. paragrafoan ezarritako prozedurari jarraituz, kontratuetarako klausula-eredu jakin batzuk erabilita, 2. paragrafoan ezarritako bermeak behar bezala errespetatzen direla, orduan, estatu kideek hartu behar diren neurri guztiak hartu beharko dituzte Batzordeak hartutako erabakiari egokitzeko.

## V. Kapitulua. Jokabide-kodeak

### 27. Artikulua.

**1.** Estatu kideek eta Batzordeak jokabide-kodeak egin daitezen sustatuko dute, horien bitartez, arloetako bakoitzak dituen ezaugarriak aintzakotzat hartuta, zuzentarau hau betetzeko estatu kideek beren esparruetan onartu dituzten xedapenak modu egokian aplikatzen laguntzearren.

**2.** Estatu kideek ezarriko dute, lanbide-elkarteek eta tratamendu-erantzuleen beste kategoria batzuen ordezkari diren gainerako elkarteek, estatu barruan jokabide-kodeak egiteko proiektuak egin badituzte, edo estatuan indarrean dauden kodeak aldatzeko edo luzatzeko asmoa badute, estatuan estatuko agintaritzen ikuskaritza-lanaz baliatzeko aukera izango dutela.
Estatu kideek ezarriko dutenez, estatuko agintaritzak jagon beharko du, besteak beste, bere ikuskaritzapean izandako proiektu horietan ezarritakoa bat datorrela zuzentarau hau aplikatzearren estatuan onartu diren xedapenekin. Agintaritzak, egoki dela iritziz gero, interesdunen edo beren ordezkarien oharrak eta iradokizunak jasoko ditu.

**3.** Erkidegoko jokabide-kodeak egiteko proiektuak, baita Erkidegoan indarrean dauden kodeak aldatzeko edo luzatzeko proiektuak ere, 29. artikuluan adierazitako taldearen esku utz daitezke, ikuskatu eta azter ditzan. Talde horrek erabakiko du, besteak beste, beren ikuskaritzapean izandako proiektu horietan ezarritakoa ea bat datorren zuzentarau hau aplikatzearren estatuan onartu diren xedapenekin. Taldeak, egoki dela iritziz gero, interesdunen edo beren ordezkarien oharrak eta iradokizunak jasoko ditu. Batzordeak behar bezalako publikotasuna eman ahal izango du, taldeak aldeko irizpenaz onartutako kode horien berri jendeari jakinarazteko.

## VI. Kapitulua. Kontrol-agintaritzak eta, datu pertsonalak tratatzeari dagokionez, pertsonak babesteko taldea

### 28. Artikulua. Kontrol-agintaritza

**1.** Estatu kideek, beren lurraldean zuzentarau honen itzalpean hartzen dituzten xedapenak betetzen ote diren zaintzearren, agintaritza publiko bat edo batzuk egongo direla ezarriko dute.
Agintaritza horiek askatasun osoz eta inongo loturarik gabe beteko dituzte agindu zaizkien eginkizunak.

**2.** Estatu kideek ezarriko dute kontrol-agintaritzei kontsulta egin beharko zaiela, datu pertsonalen tratamenduari dagokionez, pertsonen askatasunak eta eskubideak babesteko arloari lotuta, erregelamendu-neurriak edo administrazio-neurriak egiterakoan.

**3.** Kontrol-agintaritzak ahalmen hauek izango ditu, bereziki:

- Ikerketak egiteko ahalmena du; hala nola, tratatzen ari diren datuak ikusteko eskubidea izango du, eta kontrol-betekizuna betetzearren beharrezko duen informazio guztia eskuratzeko eskubidea ere bai.
- Zuzenean esku-hartzeko ahalmena du; esaterako, 20. artikuluaren arabera, tratamenduak egin aurretik irizpenak eman ditzake, eta irizpen horiek behar bezala argitaratuko direla

berma dezake, edo datuak geldiarazteko, kentzeko edo suntsitzeko agindua eman dezake, tratamendua debekatu dezake behin-behinean zein behin betiko, tratamendu-erantzuleari zentzarazpena edo ohartarazpena egin diezaioke, edo parlamentuetan edo estatuetako beste erakunde politikoetan jar dezake auzia.

- Gaitasun prozesala du, zuzentarau hau betetzearren estatuetan onartu dituzten xedapenei dagokienez arau-hausteak gertatzen direnean, edo arau-hauste horien berri eman diezaioke agintari judizialei.

Kontrol-agintaritzak hartutako erabakiren batek eskubideak murriztuz gero, errekurtso jurisdikzionala ezarri ahal izango da horren kontra.

**4.** Kontrol-agintaritza guztiek erantzun beharko diete edozein pertsonak edo ordezkari den edozein elkartek, datu pertsonalen tratamenduari dagokionez dituen eskubideak eta askatasunak babesteari lotuta, egin ditzakeen eskabideei. Pertsona horrek bere eskaera zertan den jakin behar du.

Kontrol-agintaritza guztiek aztertuko dituzte, bereziki, datuen tratamenduak zilegizkoak diren ala ez begiratzeko eta egiaztatzeko edozein pertsonak egindako eskaerak, zuzentarau honen 13. artikuluari lotuta estatuan onartutako xedapenak aplikatu behar direnean. Pertsona horri kasu guztietan jakinaraziko zaio egiaztatze bat izan dela.

**5.** Kontroleko agintaritza guztiek aurrera eramandako jarduerei buruzko txostena aurkeztuko dute aldian-aldian. Txosten hori argitaratu egingo da.

**6.** Kontroleko agintaritza orok eskumena izango du, kasuan kasuko tratamenduan ezartzekoak diren zuzenbide nazionaleko xedapenak dena delakoak izanik ere, dagokion estatu kidearen lurraldean artikulu honetako 3. paragrafoan eman zaizkion botereak gauzatzeko. Agintaritza horri dituen botereak gauzatzeko beste estatu kide bateko agintaritzak ere eskatu ahal izango dio.

Kontroleko agintaritzek elkarrekin elkarlanean jardungo dute beharrezkoa den guztian, beren egitekoa aurrera eraman ahal izateko, batez ere elkarri egokia iruditzen zaien informazioa emanda.

**7.** Kontrol-agintaritzetako kideek eta agenteek, beren eginkizunak alde batera utzi eta gero ere, irismenean izan dituzten isilpeko informazioei buruzko lanbideko sekretua gorde beharko dutela xedatuko dute estatu kideek.

### 29. Artikulua. Pertsonak babesteko taldea, datu pertsonalen tratamenduari dagokionez

**1.** Pertsonak babesteko taldea sortuko da, datu pertsonalen tratamenduari dagokionez, eta, aurrerantzean, “Taldea” deituko diogu.

Talde hori aholku-emailea izango da, eta askatasun osoz jardungo du.

**2.** Taldea ondorengoek osatuko dute: estatu kide bakoitzak izendatutako kontroleko agintaritzaren edo agintaritzen ordezkari batek, Erkidegoko erakundeek sortutako agintaritzaren edo agintaritzen ordezkari batek eta Batzordearen ordezkari batek.

Taldeko kide bakoitza kide horrek ordezkatzen duen erakundeak, agintaritzak edo agintaritzek izendatuko dute.

Estatu kideren batek kontroleko hainbat agintaritza izendatu baldin baditu, agintaritzok guztien ordezkaria izango den ordezkari bat hautatuko dute.

Beste horrenbeste egingo dute Erkidegoko erakundeek sortutako agintaritzek.

**3.** Taldeak, erabakiak hartu ahal izateko, kontroleko agintaritzen ordezkarien gehiengo soila behar izango du.

**4.** Taldeak taldeko lehendakaria aukeratuko du. Lehendakariaren agintaldia bi urtekoa izango da. Agintaldi horretan berriz ere jardun ahal izango da.

**5.** Batzordeak taldeko idazkaritza-lanak eramango ditu aurrera.
**6.** Taldeak bere barne-erregelamendua onartuko du.

**7.** Lehendakariak gai-zerrendan jarritako gaiak aztertuko ditu taldeak; gaiok lehendakariaren ekimenez, kontroleko agintaritzen ordezkariak aldez aurretik eskatuta edo Batzordeak eskatuta agertuko dira gai-zerrendan.

### 30. Artikulua.

**1.** Taldeak eginkizun hauek izango ditu:

**a)** Zuzentarau hau estatuetan ezartzeko asmoz hartutako xedapenen inguruan sortutako galdera guztiak aztertzea, aplikazioa ahalik eta homogeneoena izan dadin laguntzeko.
**b)** Batzordearentzat irizpen bat idaztea, Batasunaren baitan eta hirugarren herrialdeetan zenbateko babes-maila dagoen jakiteko.
**c)** Batzordeari aholkularitza ematea ondorengo gaien inguruan: zuzentarau hau aldatzeko edozein proiekturen inguruan, datu pertsonalen tratamendua dela-eta pertsona fisikoen eskubide eta askatasunak zaintzeko bestelako neurri osagarri edo zehatzagoak hartzeko edozein proiekturen inguruan, eta eskubide eta askatasun horiei eragiten dieten Batasuneko neurrien beste edozein proiekturen inguruan.
**d)** Irizpena ematea Batasun osorako idatzitako jarrera-kodeen inguruan.

**2.** Taldeak egiaztatuko balu estatu kideetako legediak dioenaren eta praktikan gertatzen denaren artean aldeak daudela, eta horrek Batasunean datu pertsonalen tratamenduari dagokionez pertsonek duten babesean baliokidetasunik ez dagoela erakutsiko balu, horren berri eman beharko lioke Batzordeari.

**3.** Bere ekimenez, taldeak gomendioak egin ahal izango ditu datu pertsonalen tratamenduarekin zerikusia duen edozein gairen inguruan, eta horrek Batasuneko pertsonen segurtasunean izan dezakeen eraginaren inguruan.

**4.** Taldearen irizpen eta gomendioak Batzordera eta 31. artikuluan aurreikusten den Komitera igorriko dira.

**5.** Irizpen eta gomendioekin zein bide hartu duen jakinaraziko dio Batzordeak Taldeari. Horretarako, txosten bat idatziko du, eta txosten hori Europako Parlamentura eta Kontseilura ere igorriko dute. Txosten hori argitaratu egingo da.

**6.** Taldeak urtero txosten bat idatziko du, Batasunean eta hirugarren herrialdeetan datu pertsonalen tratamendua dela-eta pertsona fisikoen babesa zein egoeratan dagoen azaltzeko, eta txosten hori Europako Parlamentura, Kontseilura eta Batzordera igorriko dute. Txosten hori argitaratu egingo da.

## VII. Kapitulua. Batasunean betearazteko neurriak

### 31. Artikulua. Komitea

**1.** Batzordeak Komite baten aholkularitza izango du, eta Komite hori estatu kideen ordezkariek osatua eta lehendakari Batzordearen ordezkaria duena izango da.

**2.** Batzordearen ordezkariak Komiteari hartu beharreko neurrien inguruko proiektu bat aurkeztuko dio. Komiteak proiektu horren inguruko irizpena eman beharko du lehendakariak zehaztutako epearen barruan. Epea zehazteko, kasuan kasuko gaiak zenbateko presa duen hartuko da kontuan.

Irizpena emateko orduan, Tratatuko 148. artikuluko 2. paragrafoan aurreikusitako gehiengoen arabera jardungo da. Komitean estatu kideen ordezkariek duten botoa goian aipatutako artikuluan zehazten den moduan ponderatuko da. Lehendakariak ez du bozketetan parte hartuko.

Batzordeak neurri horiek onartu eta berehala betearaztekoak izango dira. Hala ere, neurri horiek ez balira izango Komiteak emandako irizpenarekin bat datozenak, berehala horren berri eman beharko lioke Batzordeak Kontseiluari. Kasu horretan:

- Batzordeak atzeratu egingo du, hiru hilabetez, hartutako neurri horiek indarrean sartzea, komunikazioa jaso denetik zenbatzen hasita.
- Kontseiluak, gehiengo kualifikatuaren iritziaren arabera, beste erabaki bat hartu ahal izango du goiko gidoian zehaztu den epe horretan.

## AZKEN XEDAPENAK

### 32. Artikulua.

**1.** Estatu kideek beharrezko lege-xedapen, erregelamenduzko xedapen eta administrazio-xedapenak hartuko dituzte, zuzentarau honetan zehaztutakoa betetzeko, eta horretarako gehienez ere hiru urteko epea izango dute zuzentaraua onartzen denetik.

Estatu kideek xedapen horiek onartzerakoan, xedapenok zuzentarau honi egingo diote erreferentzia, edo erreferentzia hori ere agertuko da xedapenak ofizialki argitaratzean. Estatu kideek erreferentzia hori egiteko moduak zehaztuko dituzte.

**2.** Zuzentarau honen arabera zuzenbide nazionalean onartutako xedapenak indarrean sartzeko unean dagoeneko hasita dauden datuen tratamenduek xedapen horietan esaten dena betetzeko neurriak hartu beharko dituzte estatu kideek, eta tratamendu horiek horretarako hiru urteko epea izango dute.

Lehenengo paragrafoan xedatutakoa hala izanik ere, zuzentarau honen arabera zuzenbide nazionalean onartutako xedapenak indarrean sartzeko unean fitxategi manualetan dauden datuen tratamenduek 6, 7 eta 8. artikuluetan xedatutakoa bete dezatela erabaki ahal izango dute estatu kideek, eta betetze hori zuzentaraua onartu eta hamabi urte igaro baino lehen izan beharko da. Hala ere, estatu kideek interesatuari, aldez aurretik hala egitea eskatzen baldin badu, eta kontuan izanda datuetara iristeko duen eskubidea, aukera emango diote osorik ez dauden, oker dauden edo tratamenduaren erantzuleak zuen bidezko helburuarekin bateragarriak izan gabe gorde diren datuak zuzendu, bertan behera utzi edo blokeatzeko.

**3.** Bigarren paragrafoan xedatutakoa hala izanik ere, estatu kideek, beharrezko berme guztiak jarri ostean, xedatu ahal izango dute ikerketa historikoetarako baino gorde ez diren datuek ez izatea zuzentarau honen 6, 7 eta 8. artikuluetan xedatutakoa bete beharrik.

**4.** Estatu kideek Batzordeari jakinarazi beharko diote zuzentarau honek araututako eremuan estatu barruko zuzenbidean zein testu onartu dituzten.

### 33. Artikulua.

Aldian-aldian, eta lehenbiziko aldiz 32. artikuluko 1. paragrafoan aipatzen den egunetik hiru urte igaro baino lehen, Batzordeak txostena aurkeztu beharko die Kontseiluari eta Europako Parlamentuari, zuzentarau honen ezarpena zertan den erakusteko, eta beharrezkoa ikusiz gero, egin beharko liratekeen aldaketen proposamena ere jaso beharko litzateke txosten horretan. Txosten hori argitaratu egingo da.
Zehazki, zuzentarau hau pertsona fisikoei buruzko soinu eta irudiak dituzten datuen tratamenduan nola ezarri den aztertuko du Batzordeak, eta egoki iritzitako proposamenak egingo ditu, informazioaren teknologiek izandako aurrerakuntzen arabera beharrezkoak baldin badira eta informazioaren gizartean egin diren lanak kontuan izanda.

### 34. Artikulua.

Zuzentarau honen hartzaileak estatu kideak izango dira.

**1978ko abenduaren 27ko ESPAINIAKO KONSTITUZIOA**
(1978ko abenduak 29a, BOE- EAO)

## 18. Artikulua.

**1.** Ohore, norberaren eta senitarteko barrukotasuna eta bakoitzaren irudi eskubidea garantizatzen da.

**2.** Bizilekua sartezinezkoa da. Bertan jabearen edo epaile erabakiaren baimenik gabe ezin da sartu e zeta erregistratu ere, delito nabarian izan ezik.

**3.** Komunikapen sekretua garantizatzen da eta, bereziki, posta, telegrafo eta telefonoenak, epai erabakirik izan ezik.

**4.** Legeak informatizaren erabilera mugatuko du hiritargoaren ohore, norberaren eta senitarteko barrukotasuna eta berauen eskubideen ihardun osoa garantizatzeko.

**Datu Pertsonalak Babestea**

Abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoa, Izaera Pertsonaleko Datuak Babesteari buruzkoa

## I. TITULUA. XEDAPEN OROKORRAK

### 1. Artikulua. Objektua.

Lege organiko honen xedea da, datu pertsonalen tratamenduari dagokionez, pertsona fisikoen askatasun publikoak eta oinarrizko eskubideak bermatu eta babestea, eta, batez ere, norberaren zein familiaren ohorea eta intimitatea.

### 2. Artikulua. Aplikazio-esparrua.

**1.** Lege organiko hau aplikatuko zaie euskarri fisikoan jasotako izaera pertsonaleko datuei, baldin eta euskarri horrek ahalbidetzen badu datu horiek tratatzea, bai eta sektore publiko zein pribatuak datu horien gainean gerogarrenean egin dezakeen erabilera-modalitate orori ere.
Lege organiko honek arautuko ditu izaera pertsonaleko datuen tratamendu guztiak:

**a)** Tratamendua Espainiako lurraldean egiten denean, tratamenduaren gaineko erantzukizuna duenaren establezimendu baten jarduera-esparruan.
**b)** Espainiako lurraldean establezimendurik ez izan arren, tratamenduaren gaineko erantzukizuna duenari Espainiako legeria aplikatu behar zaionean, nazioarteko zuzenbide publikoko arauak aplikatzeagatik.
**c)** Europar Batasuneko lurraldean establezimendurik ez izan arren, tratamenduaren gaineko erantzukizuna duenak datuak tratatzeko Espainiako lurraldean kokatutako bideak erabiltzen dituenean, salbu eta bide horiek igarobide-xedeekin bakarrik erabiltzen direnean.

**2.** Lege organiko honetan ezarritako izaera pertsonaleko datuen babes-araubidea ez zaie aplikatuko:

**a)** Pertsona fisikoek dituzten fitxategiei, pertsona horiek norberaren edo etxeko jarduerak bakarrik gauzatzen dituztenean.
**b)** Sailkatutako gaien gaineko arautegiaren mende dauden fitxategiei.
**c)** Terrorismoa eta antolatutako delinkuentziaren agerpen arriskutsuak ikertzeko ezarritako fitxategiei. Hala ere, halako kasuetan, fitxategiaren arduradunak aurretiaz komunikatuko dizkio Datuak Babesteko Agentziari fitxategi hori badela eta fitxategi horrek dituen ezaugarri orokorrak eta xedea.

**3.** Xedapen bereziek eta, hala denean, lege organiko honek modu berezian jasotako xedapenek arautuko dituzte hurrengo datu pertsonalen tratamenduak:

**a)** Hauteskunde-araubidearen legeriak araututako fitxategiak.
**b)** Estatistika-xedeetarako bakarrik balio dutenak, estatistika-funtzio publikoari buruzko estatuko zein autonomia-erkidegoetako legeriak babestutakoak badira.
**c)** Indar Armatuetako kideen Araubideari buruzko legeriak aipatu kalifikazioko txosten pertsonaletan jasotako datuak biltegiratzeko xedea dutenak.

**d)** Erregistro Zibiletik eta zigortu eta auzi-iheslarien Erregistro Zentraletik ateratakoak.
**e)** Segurtasun-indar eta -kidegoek erabilitako bideokameren bidez lortutako irudi eta soinuetatik ateratakoak, gai horretako legeriarekin bat etorriz.

### 3. Artikulua. Definizioak.

Lege Organiko honen ondoreetarako, hurrengo hauei buruz ondoko hau ulertuko da:

**a) Izaera pertsonaleko datuak:** identifikatutako edo identifikatzeko moduko pertsona fisikoen gaineko edozein informazio.
**b) Fitxategia:** izaera pertsonaleko datuen inguruan antolatutako multzo oro, multzo hori sortu, biltegiratu, antolatu eta multzo horretara sartzeko modua edo modalitatea edozein dela ere.
**c) Datuak tratatzea:** automatizatutako edo automatizatu gabeko eragiketa eta prozedura teknikoak, komunikazio, kontsulta, interkonexio eta transferentzietatik ateratako datuak biltzea, grabatzea, gordetzea, prestatzea, eraldatzea, blokeatzea, ezereztea eta lagatzea ahalbidetzen dutenak.
**d) Fitxategiaren edo tratamenduaren arduraduna:** tratamenduaren helburu, eduki eta erabileraren gainean erabakiak hartzen dituen pertsona fisiko edo juridikoa, izaera publikoa zein pribatua duena, edo administrazio-organoa.
**e) Ukitua edo interesduna:** artikulu honen c) idatz-zatiak aipatu tratamenduaren objektu zein datu izan eta datu horien gaineko titulartasuna duen pertsona fisikoa.
**f) Disoziazio-prozedura:** datu pertsonalen tratamendu oro, baldin eta ezin badira uztartu lortutako informazioa eta identifikatutako edo identifikatzeko moduko pertsona.
**g) Tratamendu-eragilea:** tratamenduaren arduradunarentzat datu pertsonalak tratatzen dituen pertsona fisiko zein juridikoa, agintaritza publikoa, zerbitzua edo bakarrik nahiz beste batzuekin batera jardun dezakeen beste edozein erakunde.
**h) Interesdunaren adostasuna:** interesdunaren borondate-adierazpen aske, zalantzarik gabe, zehatz eta arrazoitua, bera ukitzen duten datu pertsonalak tratatzeko adostasuna emateko.
**i) Datuak lagatzea edo komunikatzea:** interesduna ez den beste pertsona bati datuen berri ematea.
**j) Jendearen esku dauden iturriak:** edozein pertsonak kontsulta ditzakeen fitxategiak, baldin eta arau murriztaileren batek hori eragozten ez badio, edo, hala denean, kontsulta egiteko betekizun bakar gisa ezarritako kontraprestazioa ordaintzen badu. Jendearen esku dauden iturri dira, soil-soilik, promozio-errolda, telefono-zerrendak, halakoen arautegi bereziak xedatutakoaren arabera, eta lanbide-taldeetara bildutako pertsonen zerrendak, baldin eta zerrenda horietan jasotzen diren datu bakarrak halako pertsonen izena, titulua, lanbidea, jarduera, ikasketa-maila, helbidea eta taldekide-izaeraren aipamena badira. Era berean, jendearen esku dauden iturri dira egunkari eta aldizkari ofizialak eta komunikabideak.

## II. TITULUA. DATUAK BABESTEARI BURUZKO PRINTZIPIOAK

### 4. Artikulua. Datuen kalitatea.

**1.** Izaera pertsonaleko datuak tratatzeko bil daitezke bakarrik, bai eta tratamendu horren mende jartzeko ere, datu horiek egoki eta bidezkoak izateaz gain, gehiegizkoak ez direnean,

datu horiek zein esparrutan eta zein xederekin lortu eta halakoei begira. Gainera, esparru eta xedeak zehatzak, argiak eta legitimoak izan beharko dira.

**2.** Tratatu beharreko izaera pertsonaleko datuak zein xederekin bildu eta ezin izango dira erabili xede horrekin bateraezinak diren xedeetarako. Ez da bateraezina izango datu horien gainean gerogarrenean egin daitekeen tratamendua, xede historiko, estatistiko edo zientifikoekin.

**3.** Izaera pertsonaleko datuak zehatzak eta eguneratuak izango dira, ukituak une bakoitzean duen egoerarekin benetan bat etor daitezen.

**4.** Erregistratutako izaera pertsonaleko datuak zehaztugabeak badira, oso-osoan zein zati batean, edo osagabeak, datu horiek ezereztu eta, ofizioz, halakoen ordez kasuan kasuko datuak erregistratuko dira, zuzenduta edo osatuta, 16. artikuluak ukituei aitortutako ahalmenei kalterik egin gabe.

**5.** Izaera pertsonaleko datuak ezereztu egingo dira, jaso edo erregistratu ziren xederako beharrezko edo egoki ez direnean. Ez dira gordeko, interesduna nor den jakitea ahalbidetzeko moduan, datu horiek jaso edo erregistratzeko xedeak zein izan eta xede horiek betetzeko behar den denbora baino gehiago. Erregelamendu bidez zehaztuko da, legeria bereziaren arabera balio historiko, estatistiko edo zientifikoak aintzat hartuta, salbuespenez datu horiek oso-osoan gordetzea erabakitzeko prozedura.

**6.** Izaera pertsonaleko datuak biltegiratuko dira datu horietan sartzeko eskubidea ahalbidetuz, salbu eta datu horiek legearen arabera ezerezten direnean.

**7.** Debekatuta dago lege-iruzurrean, legearen aurka edo zilegi ez den moduan datuak biltzea.

**5. Artikulua. Informazio-eskubidea datuak biltzean.**

**1.** Datu pertsonalak eskatzen zaizkien interesdunei aurretiaz eta esanbidez informazio zehatza eta zalantzarik gabea eman beharko zaie, ondoko hauen inguruan:

**a)** Izaera pertsonaleko datuen gaineko fitxategi edo tratamendua, bai eta datu horiek biltzeko xedea eta informazio horren jasotzaileak ere.
**b)** Egingo zaizkien galderei erantzutea nahitaezkoa edo borondatezkoa den.
**c)** Datuak lortzearen ondorioak edo datu horiek ez ematearen ondorioak.
**d)** Datuetan sartzeko, datuak zuzentzeko, datuak ezerezteko edo datuen aurka egiteko eskubideak egikaritzea.
**e)** Tratamenduaren arduradunaren identitatea eta helbidea edo, hala denean, arduradun horren ordezkariarenak.

Tratamenduaren arduradunak Europar Batasunean establezimendurik izan ez eta datuak tratatzean Espainiako lurraldean kokatutako bideak erabiltzen dituenean, ordezkari bat izendatu beharko du Espainian, salbu eta bide horiek igarobide-xedeekin erabiltzen direnean, tratamenduaren arduradunaren aurka jar daitezkeen akzioak gorabehera.

**2.** Datuak biltzeko galdera-sortak edo beste inprimaki batzuk erabiltzen badira, aurreko idatz-zatian aipatutako ohartarazpenak jasoko dira halakoetan, argiro irakurtzeko moduan jaso ere.

**3.** Ez da behar izango 1. idatz-zatiko **b), c)** eta **d)** letrek aipatu informazioa, eskatzen diren datu pertsonaletatik edo datu horiek jasotzen diren inguruabarretatik ondoriozta daitekeenean informazio horren edukia.

**4.** Izaera pertsonaleko datuak interesdunarengandik jaso ez direnean, fitxategiaren arduradunak edo horren ordezkariak esanbidez informazio zehatza eta zalantzarik gabea eman beharko dio interesdunari, datuak erregistratu eta hurrengo hiru hilabeteetan, tratamenduaren edukia, datuen jatorria eta artikulu honen 1. idatz-zatiko **a), d) eta e)** letretan jasotakoaren inguruan, salbu eta interesdunari aurretiaz eman zaionean horren gaineko informazioa.

**5.** Aurreko idatz-zatian xedatutakoa ez da aplikatuko, legeren batek esanbidez horixe ezartzen duenean, tratamenduak xede historiko, estatistiko edo zientifikoak dituenean, edo Datuak Babesteko Agentziaren zein horren pareko autonomia-erkidegoko erakundearen arabera ezinezkoa denean interesdunari informazioa ematea, edo neurriz kanpoko ahaleginak egin behar direnean, interesdunen kopurua, datuen antzinatasuna eta izan daitezkeen konpentsazio-neurriak kontuan hartuta.
Orobat, ez da aplikatuko aurreko idatz-zatian xedatutakoa, datuak jendearen esku dauden iturrietatik atera eta publizitate-jarduerarako zein merkatu-prospekziorako erabiltzen direnean. Halakoetan, interesdunari zuzendutako komunikazio bakoitzean datuen jatorriari eta tratamenduaren arduradunaren identitatearen zein interesdunak dituen eskubideen gaineko informazioa emango da.

### 6. Artikulua. Ukituaren adostasuna.

**1.** Izaera pertsonaleko datuak tratatzeko, ukituaren zalantzarik gabeko adostatuna beharko da, salbu eta legeak beste zerbait xedatzen duenean.

**2.** Ukituaren adostasunik ez da behar izango izaera pertsonaleko datuak Administrazio Publikoek euren eskumenen esparruan dagozkien eginkizunak gauzatzeko biltzen direnean; datuak negozio-, lan- edo administrazio-harremanen kontratu edo aurrekontratuetako alderdiei buruzkoak izan eta harreman horiei eusteko zein halako harremanak betetzeko beharrezkoak direnean; datu-tratamenduaren xedea interesdunaren berebiziko interesen bat babestea denean, lege honen 7. artikuluko 6. idatz-zatiaren arabera; edo datuak jendearen esku dauden iturrietara bilduta egon eta datu horien tratamendua beharrezkoa denean fitxategiaren arduradunaren edo datuak komunikatzen zaizkion hirugarrenaren interes legitimoa betetzeko, betiere, interesdunaren oinarrizko eskubide eta askatasunak urratu gabe.

**3.** Artikulu honek aipatu adostasuna ezezta daiteke horretarako arrazoi justifikatua izan eta ezeztatze horrek atzeraeraginezko ondorerik ez duenean.

**4.** Izaera pertsonaleko datuak tratatzeko ez denean behar ukituaren adostasunik, eta legeren batek aurkakorik ezarri ezean, interesdunak datu horiek tratatzearen aurka egin dezake, egoera pertsonal baten inguruan arrazoi oinarritu eta legitimoak daudenean. Halakoetan, fitxategiaren arduradunak tratamendutik kanpo utziko ditu ukituaren inguruko datuak.

### 7. Artikulua. Modu berezian babestutako datuak.

**1.** Konstituzioaren 16. artikuluko 2. idatz-zatian ezarritakoarekin bat etorriz, ezin izango da inor behartu bere ideologia, erlijio edo sinesmenei buruzko adierazpenak egitera.

Datu horiek direla eta, aurreko idatz-zatiak aipatu adostasuna eskatzen denean, interesdunari adostasun hori ez emateko duen eskubidea ohartaraziko zaio.

**2.** Ideologia, sindikatu-afiliazio, erlijio eta sinismenaren berri ematen duten izaera pertsonaleko datuak ukituaren esanbidezko eta idatzizko adostasunarekin bakarrik trata daitezke. Horren salbuespen dira politika-, filosofia-, erlijio- edo sindikatu-izaerako xedea duten alderdi politikoen, sindikatuen, konfesio edo erkidego erlijiosoen eta elkarteen, fundazioen nahiz irabazteko asmorik gabeko beste entitate batzuen fitxategiak, euren kideen inguruko datuei dagokienez; hala ere, datu horiek laga daitezen ukituak aurretiaz emandako adostasuna behar da beti.

**3.** Arrazari, osasunari eta sexu-bizitzari buruzko izaera pertsonaleko datuak bildu, tratatu eta laga daitezke, interes orokorreko arrazoiak direla bide, legeren batek halaxe xedatzen duenean edo ukituak esanbidez onartzen duenean hori.

**4.** Debekatuta daude ideologia, sindikatu-afiliazio, erlijio, sinesmen, arraza zein etnia, edota sexu-bizitzari buruzko izaera pertsonaleko datuak biltegiratzeko xedearekin sortutako fitxategiak.

**5.** Arau-hauste penal eta administratiboen inguruko izaera pertsonaleko datuak Administrazio Publiko eskudunen fitxategietan bakarrik jaso daitezke, kasuan kasuko arauetan ezarritako kasuetan.

**6.** Aurreko idatz-zatietan xedatutakoa gorabehera, artikulu honen 2 eta 3. idatz-zatiek aipatu izaera pertsonaleko datuak tratatzeko modukoak izan daitezke, datu horiek tratatzea beharrezkoa denean prebentziorako edo medikuaren diagnostikoarentzat, osasun-laguntza emateko edo tratamendu medikoentzat edo osasun-zerbitzuak kudeatzeko, baldin eta datu horiek tratatzen baditu lanbide-isiltasuna duen osasun-arloko profesional batek, edo lanbide-isiltasunaren pareko betebeharra duen beste pertsonaren batek.
Aurreko paragrafoak aipatzen dituen datuak tratatzeko modukoak izango dira, berebat, tratamendua beharrezkoa denean ukituaren edo beste pertsona baten berebiziko interesa babesteko, ukituak bere adostasuna emateko gaitasunik ez duenean arrazoi fisiko zein juridikoen ondorioz.

**8. Artikulua. Osasunaren inguruko datuak.**

Lagapenaren inguruan 11. artikuluak xedatutakoa gorabehera, erakunde eta osasun-zentro publiko zein pribatuek eta kasuan kasuko profesionalek eurengana jotzen duten pertsonen edo eurek tratatu behar dituzten pertsonen osasunari buruzko izaera pertsonaleko datuak trata ditzakete, estatuko edo kasuan kasuko autonomia-erkidegoko osasunari buruzko legerian xedatutakoaren arabera.

**9. Artikulua. Datuen ezaugarriak.**

**1.** Fitxategiaren arduradunak, eta, hala denean, tratamendu-eragileak, izaera pertsonsaleko datuen segurtasunaasuna bermatzeko eta baimenik gabe datu horiek aldatzea, galtzea, tratatzea edo horietan sartzea saihesteko beharrezko neurri teknikoak eta antolaketa-izaerakoak hartuko ditu, teknologia-egoera, biltegiratutako datuen izaera eta datu horiek dituzten arriskuak kontuan hartuta; arrisku horiek izan daitezke gizakiaren ekintzaren zein inguru fisiko edo naturalaren ondorio.

**2.** Izaera pertsonaleko datuak ez dira erregistratuko datuen osotasunari zein segurtasunari buruz eta tratamendu-zentro, lokal, ekipo, sistema eta programei buruz erregelamendu bidez ezarritako baldintzak betetzen ez dituzten fitxategietan.

**3.** Erregelamendu bidez ezarriko dira lege honen 7. artikuluak aipatu datuen tratamenduan parte hartzen duten fitxategiek eta pertsonek bete beharreko betekizunak eta baldintzak.

**10. Artikulua. Sekretu-eginbeharra.**

Fitxategiaren arduradunak eta izaera pertsonaleko datuen tratamenduaren edozein fasetan parte hartzen dutenek lanbide-sekretua izan behar dute nahitaez datu horien gainean, eta datu horiek gordetzeko eginbeharra ere izango dute. Betebehar horiek bere horretan iraungo dute, nahiz eta fitxategiaren titularrarekin edo, hala denean, arduradunarekin dituzten harremanak amaituta izan.

**11. Artikulua. Datuen komunikazioa.**

**1.** Tratamenduaren objektu diren izaera pertsonaleko datuak hirugarren bati komunika dakizkioke soil-soilik datu-lagatzailearen eta datu-hartzailearen eginkizun legitimoekin zuzeneko lotura duten xedeak betetzeko; interesdunak aurretiaz horren inguruko adostasuna eman beharko du.

**2.** Aurreko idatz-zatian ezarritako adostasuna ez da beharrezkoa izango:

**a)** Legeak baimentzen duenean lagapena.
**b)** Jendearen esku dauden iturrietatik jasotako datuak direnean.
**c)** Tratamendua askatasunez eta modu legitimoan onartutako harreman juridikoen ondorio izan eta harreman horiek garatzeko, betetzeko zein kontrolatzeko nahitaezkoa denean tratamendua hirugarrenen fitxategiekin konektatzea. Halako kasuetan, komunikazioa egitea zein xedek justifikatu eta xede hori betetzen duen heinean bakarrik izango da legitimoa.
**d)** Egin beharreko komunikazioaren jasotzailea herri-defentsaria, fiskaltza edo epaileak zein auzitegiak edo kontu-auzitegia direnean, halakoek dituzten eginkizunak gauzatzean. Modu berean, ez da behar izango adostasunik komunikazioaren jasotzailea herri-defentsariaren edo kontu-auzitegiaren antzeko eginkizunak dituzten autonomia-erkidegoetako erakundeak direnean.
**e)** Lagapena Administrazio Publikoen artean egin eta horren helburua gerogarrenean datuak tratatzea denean, xede historiko, estatistiko edo zientifikoekin.
**f)** Osasunari buruzko izaera pertsonaleko datuak lagatzea beharrezkoa denean, fitxategira jotzea eskatzen duen larrialdiari aurre egiteko edo ikerketa epidemiologikoak egiteko, estatuko zein autonomia-erkidegoetako osasunari buruzko legerian ezarritakoaren arabera.

**3.** Hirugarren bati izaera pertsonaleko datuak komunikatzeko adostasuna deuseza izango da, interesdunari ematen zaion informazioak ez duenean argi uzten baimendutako komunikaziora bildutako datuek zein xede izango duten edo datuak komunikatu nahi zaizkion subjektuak zein jarduera-mota duen.

**4.** Izaera pertsonaleko datuen komunikazioaren inguruko adostasuna, halaber, ezeztatzeko modukoa da.

**5.** Komunikazioa egon dagoenetik, izaera pertsonaleko datuak komunikatzen zaizkion subjektuak bere gain hartzen du lege honen xedapenak betetzeko betebeharra.

**6.** Komunikazioa egiten bada aurretiaz disoziazio-prozedura gauzatuta, ez da aplikatuko aurreko idatz-zatietan ezarritakoa.

**12. Artikulua. Datuetan hirugarrenen bidez sartzea.**

**1.** Ez da datuen komunikaziotzat joko hirugarren bat datuetara sartzea, hori beharrezkoa denean tratamenduaren arduradunari zerbitzu bat emateko.

**2.** Kontratuan arautu beharko da hirugarrenen bidez tratamenduak egiteko aukera; kontratu hori idatziz jaso beharko da, edo kontratua egin dela eta kontratu horren edukia egiaztatzen duen beste edozein forma erabilita. Esanbidez ezarri beharko da tratamendu-eragileak tratamenduaren arduradunak emandako jarraibideen arabera bakarrik tratatuko dituela datuak, datu horiek ez dituela aplikatu edo erabiliko kontratu horretan jaso gabeko xedeekin eta datu horiek ez dizkiela komunikatuko beste pertsona batzuei, ezta datuok gordetzeko ere. Kontratuan hizpatuko dira, berebat, lege honen 9. artikuluak aipatzen dituen segurtasun-neurriak. Tratamendu-eragileak nahitaez ezarri beharko ditu halakoak.

**3.** Behin kontratu-prestazioa beteta, izaera pertsonaleko datuak suntsitu edo tratamenduaren arduradunari itzuli beharko zaizkio. Beste horrenbeste egingo da edozelako euskarri edo agiririkin ere, halakoek tratamenduaren objektu izan den izaera pertsonaleko daturen bat jaso badute.

**4.** Tratamendu-eragileak datuak beste xede batekin erabiltzen baditu edo kontratuaren hizpaketak bete gabe komunikatu edo erabiltzen baditu, tratamendu-eragilea tratamenduaren arduradun gisa hartuko da, eta modu pertsonalean erantzungo du egin dituen arau-hausteen gainean.

## III. TITULUA. PERTSONEN ESKUBIDEAK

**13. Artikulua. Balorazioak aurkaratzea.**

**1.** Herritarrek eskubidea dute eurengan ondore juridikoak dituen edo eurak modu garrantzitsuan ukitzeko moduko ondore juridikoak dituen erabaki baten mende ez geratzeko, baldin eta erabaki hori soil-soilik oinarritzen bada herritarren nortasunaren alde batzuk ebaluatzeko erabili behar diren datuen tratamenduan.

**2.** Ukituak bere jokabidearen gaineko balorazioa jasotzen duten administrazio-egintzak edo erabaki pribatuak aurkara ditzake, baldin eta halakoen oinarri bakarra izaera pertsonaleko datuen tratamendua izan eta tratamendu horrek ukituaren ezaugarriak edo nortasuna definitzen baditu.

**3.** Kasu horretan, ukituak eskubidea izango du fitxategiaren arduradunak emandako informazioa jasotzeko. Informazio hori izango da ekintzaren oinarri den erabakia hartzeko tratamenduan erabilitako balorazio-irizpideen eta programaren gainekoa.

**4.** Datuen tratamenduan oinarritutako herritarren jokabidearen gaineko balorazioak froga-balioa izan dezake ukituak halaxe eskatzen duenean bakarrik.

**14. Artikulua. Datuak Babesteko Erregistro Nagusia kontsultatzeko eskubidea.**

Edozein pertsonak jakin dezake, horretarako Datuak Babesteko Erregistro Nagusitik kasuan kasuko informazioa jasota, izaera pertsonaleko datuen inguruko tratamendua dagoela, horren xedeak zein diren eta tratamenduaren arduradunaren identitatea zein den. Erregistro Nagusiaren kontsulta publikoa eta doakoa izango da.

**15. Artikulua. Datuetan sartzeko eskubidea.**

**1.** Interesdunak tratamendupean egon eta izaera pertsonaleko diren bere datuei, datu horien jatorriari eta halakoen inguruan egin edo egingo diren komunikazioei buruzko informazioa eskatzeko eta doan lortzeko eskubidea izango du.

**2.** Informazioa datuak kontsultatuta lor daiteke, datu horiek bistaratuta, edo tratamenduaren objektu diren datuak idazki, kopia, telekopia edo fotokopia ziurtatu zein ziurtatu gabearen bidez zehaztuta, irakurtzeko eta ulertzeko moduan, gailu mekaniko bereziak behar dituzten klabe edo kodeak erabili gabe.

**3.** Artikulu honek aipatu datuetan sartzeko eskubidea hamabi hilabetetik beherakoak ez diren denbora-tarteetan bakarrik egikari daiteke, salbu eta interesdunak ondore horretarako interes legitimoa egiaztatzen duenean; azken kasu horretan, lehenago egikari ahal izango da eskubide hori.

**16. Artikulua. Zuzentze- eta ezerezte-eskubidea.**

**1.** Tratamenduaren arduradunak interesdunak duen zuzentze- edo ezerezte-eskubidea eragingarri egiteko betebeharra izango du, hamar eguneko epean.

**2.** Hala denean, izaera pertsonaleko datuak zuzendu edo ezereztu egingo dira, halakoen tratamendua ez datorrenean bat lege honetan ezarritakoarekin eta, bereziki, datu horiek zehaztugabeak edo osagabeak direnean.

**3.** Ezerezteak datuak blokeatuko ditu, eta datu horiek administrazio publikoen, epaileen eta auzitegien esku bakarrik gordeko dira, tratamenduak erator ditzakeen erantzukizunei aurre egiteko, erantzukizun horien preskripzio-epeak iraun bitartean. Aipatu epea igaro ostean, datuak suntsitu egin beharko dira.

**4.** Zuzendu edo ezereztutako datuak aurretiaz komunikatu badira, tratamenduaren arduradunak komunikazioa egin zaionari zuzenketa edo ezereztea jakinarazi beharko dio, baldin eta horrek tratramenduari eutsi badio; azken horrek ere datuak ezereztu egin beharko ditu.

**5.** Izaera pertsonaleko datuak gorde beharko dira aplikatu beharreko xedapenetan edo, hala denean, tratamenduaren gaineko ardura duen pertsona edo entitatearen eta interesdunaren arteko kontratu-harremanetan ezarritako epeetan.

**17. Artikulua. Datuen aurka egiteko, datuetan sartzeko, datuak zuzentzeko edo datuak ezerezteko prozedura.**

**1.** Datuen aurka egiteko, datuetan sartzeko eta datuak zuzentzeko zein ezerezteko eskubidea egikaritzeko prozedurak erregelamendu bidez ezarriko dira.

**2.** Datuen aurka egiteko, datuetan sartzeko eta datuak zuzentzeko zein ezerezteko eskubidea egikaritzeagatik ez da kontraprestaziorik eskatuko.

**18. Artikulua. Eskubideak babestea.**

**1.** Interesdunek Datuak Babesteko Agentzian erreklamazioak egin ditzakete, lege honetan xedatutakoaren aurkako jardunei begira, erregelamendu bidez ezarritako moduan.

**2.** Interesdunari oso-osoan edo zati batean, datuen aurka egiteko, datuetan sartzeko eta datuak zuzentzeko zein ezerezteko eskubideak egikaritzea ukatzen bazaio, interesdunak horren berri eman diezaioke Datuak Babesteko Agentziari edo, hala denean, autonomia-erkidegoko erakunde eskudunari; azken horiek ukatzea bidezkoa edo bidegabea den ziurtatu beharko dute.

**3.** Eskubideak babesteko esanbidezko ebazpena emateko gehieneko epea sei hilabetekoa izango da.

**4.** Datuak Babesteko Agentziaren ebazpenen aurka administrazioarekiko auzibide-errekurtsoa jar daiteke.

**19. Artikulua. Kalte-ordainak jasotzeko eskubidea.**

**1.** Tratamenduaren arduradunak edo eragileak lege honetan ezarritakoa ez betetzearen ondorioz, ondasunetan edo eskubideetan kalteak jasaten dituzten interesdunek kalte-ordainak jasotzeko eskubidea izango dute.

**2.** Titulartasun publikoko fitxategien kasuan, Administrazio Publikoen erantzukizun-araubideari buruzko legeriarekin bat etorriz eskatuko da erantzukizuna.

**3.** Titulartasun pribatuko fitxategien kasuan, akzioa jurisdikzio arrunteko organoetan egikarituko da.

## IV. TITULUA. SEKTOREAN SEKTOREKO XEDAPENAK

### I. Kapitulua. Titulartasun publikoko fitxategiak

**20. Artikulua. Sortzea, eraldatzea edo ezabatzea.**

**1.** "Estatuko Aldizkari Ofizialean" edo kasuan kasuko egunkari ofizialean argitaratutako xedapen orokorraren bidez bakarrik sortu, eraldatu edo ezaba daitezke Administrazio Publikoetako fitxategiak.

**2.** Fitxategiak sortzeko edo eraldatzeko xedapenak zehaztu beharko dute:

**a)** Fitxategiaren xedea eta erabilerak.

**b)** Zein pertsona edo kolektiborengandik lortu nahi diren izaera pertsonaleko datuak edo pertsona edo kolektibo horietatik nork eman behar dituen datuak nahitaez.

**c)** Izaera pertsonaleko datuak biltzeko prozedura.

**d)** Fitxategiaren oinarrizko egitura eta horretara bildutako izaera pertsonaleko datu-moten deskripzioa.

**e)** Izaera pertsonaleko datuen lagapena eta, hala denean, hirugarren herrialdeetara egin daitezkeen transferentziak.

**f)** Fitxategiaren arduradun izango diren Administrazioen organoak.

**g)** Datuetan sartzeko, datuak zuzentzeko zein ezerezteko eta datuen aurka egiteko eskubideak zein zerbitzu edo unitatetan egikari daitezkeen.

**h)** Segurtasun-neurriak, halakoak oinarrizkoak, maila ertainekoak edo goi-mailakoak izan behar diren zehaztuta.

**3.** Fitxategiak ezabatzeko ematen diren xedapenetan fitxategi horien destinoa ezarriko da edo, hala denean, fitxategi hori suntsitzeko hartutako neurriak.

**21. Artikulua. Administrazio Publikoen arteko datuen komunikazioa.**

**1.** Administrazio Publikoek euren eginkizunak betetzeko bildu edo prestatutako izaera pertsonaleko datuak ez zaizkie komunikatuko beste Administrazio Publiko batzuei, eskumen desberdinak edo gai desberdinei buruzko eskumenak egikaritzeko, salbu eta fitxategia eratzeko xedapenek edo komunikazio horren erabilera arautzen duen lerrun handiagoko xedapenek agindu dutenean komunikazio hori, edo komunikazioaren helburua denean datuak gerogarrenean xede historiko, estatistiko edo zientifikoekin tratatzea.

**2.** Edozein kasutan ere, komunikazioaren objektu izan daitezke Administrazio Publiko batek beste batentzat lortu edo prestatutako izaera pertsonaleko datuak.

**3.** Lege honen 11.2.b) artikuluan ezarritakoa gorabehera, jendearen esku dauden iturrietatik bildutako datuak ezin izango zaizkie komunikatu titulartasun pribatuko fitxategiei, interesdunak horretarako adostasuna ematen duenean izan ezik edo legeren batek beste zerbait ezartzen duenean izan ezik.

**4.** Artikulu honen 1 eta 2. idatz-zatietan ezarritako kasuetan, ez da beharrezkoa izango lege honen 11. artikuluak aipatu ukituaren adostasuna.

**22. Artikulua. Segurtasun-indar eta -kidegoen fitxategiak.**

**1.** Segurtasun-indar eta -kidegoek eratutako fitxategiak lege honek ezarri araubide orokorraren mende izango dira, izaera pertsonaleko datuak administrazio-xedeetarako jaso badituzte eta, ondorenez, datu horiek erregistro iraunkorra izan behar badute.

**2.** Pertsona ukituen adostasunik gabe, segurtasun-indar eta -kidegoek polizia-xedeetarako bildu eta tratatutako izaera pertsonaleko datuek erabilera mugatua izango dute, segurtasun publikoarentzat benetako arriskua prebenitzeko edo arau-hauste penalak zigortzeko beharrezkoak diren datuen inguruko kasu eta kategoriei begira. Halako datuak ondore horietarako ezarri fitxategi berezietan biltegiratu beharko dira, eta fitxategiak kategorietan sailkatu beharko dira, fidagarritasun-mailaren arabera.

**3.** Segurtasun-indar eta -kidegoek 7. artikuluko 2 eta 3. idatz-zatiek aipatu datuak bildu eta trata ditzakete, halakoak ikerketa jakin baten xedeetarako guztiz beharrezkoak direnean bakarrik, eta jurisdikzio-organoek administrazio-jardunaren legezkotasun-kontrolaren gainean

edo, hala denean, interesdunek aurkeztutako uzien gainean ebazpena emateko duten betebeharrari kalterik egin gabe.

**4.** Polizia-xedeekin erregistratutako izaera pertsonaleko datuak ezereztu egingo dira, datu horiek beharrezkoak ez direnean halakoak biltegiratzea arrazoitu zuten ikerketak egiteko. Ondore horietarako, kontuan hartuko dira, bereziki, ukituaren adina eta biltegiratutako datuen izaera, ikerketa edo prozedura zehatza amaitu arte datuei eusteko beharrizana, ebazpen judizial irmoa, bereziki absolutorioa bada, indultua, errehabilitazioa eta erantzukizuna preskribatzea.

**23. Artikulua. Datuetan sartzeko, datuak zuzentzeko eta datuak ezerezteko eskubidei egindako salbuespenak.**

**1.** Aurreko artikuluko 2, 3 eta 4 idatz-zatiek aipatu datuak jaso dituzten fitxategien arduradunek datuetan sartzea, datuak zuzentzea edo datuak ezereztea uka dezakete, estatua edo segurtasun publikoa defendatzeko, hirugarrenen eskubide eta askatasunak babesteko edo gauzatzen ari diren ikerketen beharrizanetarako arriskuak aintzat hartuta.

**2.** Herri Ogasuneko fitxategien arduradunek uka dezakete, orobat, aurreko idatz-zatiak aipatu eskubideak egikaritzea, eskubide horiek egikarituta tributu-betebeharrak betetzea ziurtatzeko administrazio-jardunak oztopatzen direnean, eta ukitua ikuskatzailetza-jardunen mende dagoenean beti.

**3.** Aurreko idatz-zatietan aipatu eskubideak egikaritzea ukatzen zaion ukituak Datuak Babesteko Agentziaren zuzendariari eman diezaioke horren berri edota autonomia-erkidego bakoitzeko erakunde eskudunaren zuzendariari, baldin eta fitxategiak autonomia-erkidego horietako polizia-kidegoek edo tributu-administrazioek badituzte. Zuzendari horiek ukatzea bidezkoa edo bidegabea den ziurtatu beharko dute.

**24. Artikulua. Ukituen eskubideei egindako beste salbuespen batzuk.**

**1.** Lege honen 5. artikuluko 1 eta 2. idatz-zatietan xedatutakoa ez zaio aplikatuko datuak biltzeari, ukituari infomazioa emateak Administrazio Publikoen kontrol- eta egiaztatze-eginkizunak modu larrian eragotzi edo zailtzen dituenean, edo defentsa nazionalari, segurtasun publikoari edo arau-hauste penalen zein administratiboen jazarpenari kalte egiten dionean.

**2.** Lege honen 15. artikuluan eta 16. artikuluko 1. idatz-zatian ezarritakoa ez da aplikatuko, baldin eta, kasuan kasuko interesak haztatuta, ondorioztatzen bada manu horiek ukituari eratxiki dizkioten eskubideak galdu egin behar direla, interes publikoko arrazoien ondorioz edo babes gehiago merezi duten hirugarrenen interesen ondorioz. Fitxategiaren administrazio-organo arduradunak idatz-zati honetan ezarritakoa aipatzen badu, arrazoitutako ebazpena emango du, eta ukituari berez duen eskubidea azalduko dio, Datuak Babesteko Agentziaren zuzendariari edo, hala denean, autonomia-erkidegoetako pareko organoaren zuzendariari ezetzaren berri ema diezaion.

## II. Kapitulua. Titulartasun pribatuko fitxategiak

### 25. Artikulua. Sortzea.

**1.** Izaera pertsonaleko datuak jasotzen dituzten titulartasun pribatuko fitxategiak sor daitezke, euren titularra den pertsona, enpresa edo entitatearen jarduera edo xede legitimoak lortzeko beharrezkoa denean eta lege honek pertsonak babesteko ezarri bermeak errespetatzen direnean.

### 26. Artikulua. Erregistroko jakinarazpena eta inskripzioa.

**1.** Izaera pertsonaleko datuen fitxategiak eratzen dituen pertsona edo entitate orok aurretiaz horren gaineko jakinarazpena egingo dio Datuak Babesteko Agentziari.

**2.** Erregelamendu bidez zehatz-mehatz arautuko dira jakinarazpenak jaso beharreko aldeak. Halakoen artean nahitaez jasoko dira fitxategiaren arduraduna, fitxategiaren xedea, fitxategiaren kokalekua, izaera pertsonaleko datuak zein motatakoak diren, segurtasun-neurriak, halakoak oinarrizkoak, maila ertainekoak edo goi-mailakoak diren zehaztuta, eta ustez lagako diren izaera pertsonaleko datuak eta, hala denean, ustez hirugarren herrialdeetara transferituko diren datuak.

**3.** Datuak Babesteko Agentziari komunikatu beharko zaizkio automatizatutako fitxategiak izan ditzakeen aldaketak, xedeari, arduradunari eta kokalekuaren helbideari dagokienez.

**4.** Datuak Babesteko Erregistro Nagusiak fitxategia inskribatuko du, baldin eta jakinarazpena ezarritako betekizunekin bat badator. Bat etorri ezean, Erregistro Nagusiak eska dezake falta diren datuak osatzea edo datuak zuzentzea.

**5.** Inskripzio-eskabidea aurkeztu eta hilabete igaro ondoren Datuak Babesteko Erregistro Nagusiak ez badu ebazpenik eman, automatizatutako fitxategia inskribatuta dagoela ulertuko da ondore guztietarako.

### 27. Artikulua. Datuak lagatzearen inguruko komunikazioa.

**1.** Datuak lehendabiziko aldiz lagatzen direnean, fitxategiaren arduradunak horren berri eman beharko die ukituei. Halaber, ukituei zehaztuko die fitxategiaren xedea, laga diren datuen izaera eta lagapen-hartzailearen izena eta helbidea.
**2.** Ez da izango aurreko idatz-zatian ezarritako betebeharrik 11. artikuluko 2. idatz-zatiko c), d) eta e) letretan eta 6. idatz-zatian ezarritako kasuetan, ezta lagapena legeak agintzen duenean ere.

### 28. Artikulua. Jendearen esku dauden iturrietan jasotako datuak.

**1.** Lege honen 3.j) artikuluak aipatu promozio-erroldan edo lanbide-taldeetara bildutako pertsonen zerrendetan dauden datu pertsonalak izan beharko dira soil-soilik zerrenda bakoitzaren xedea betetzeko beste. Iturri horiek gordetzeko ardura duten entitateek datu gehiago sartu ahal izateko interesdunaren adostasuna beharko dute; gainera, adostasun hori edozein unetan ezezta daiteke.

**2.** Interesdunek eskubidea izango dute lanbide-elkargoetako zerrendak gordetzeko ardura duen entitateak doan adierazteko euren datu pertsonalak ezin direla erabili publizitate-xedeekin edo merkatu-prospekziorako. Interesdunek eskubidea izango dute iturri horien ardura duten entitateen ondorioz promozio-erroldan jasotako datu pertsonal guztiak kentzea doan eskatzeko. Alferrikako informazioa kentzeko edo datuak publizitatean edo urrutiko salmentan erabiltzea eragozteko eskabidea egin beharko da hamar eguneko epean, kontsulta edo komunikazio telematikoen bidez ematen diren informazioei dagokienez, eta zerrendaren hurrengo edizioan, zerrenda hori editatzeko erabilitako euskarria edozelakoa izanda ere.

**3.** Jendearen esku dauden iturriak liburuan edo beste euskarri fisikoren batean editatzen badira, jendearen esku dauden iturriaren izaera galduko dute argitaratutako edizio berriarekin. Modu telematikoan lortzen bada formatu elektronikoan dagoen zerrendaren kopia bat, zerrenda horrek urtebetean galduko du jendearen esku dagoen iturriaren izaera, zerrenda hori lortzen den unetik zenbatzen hasita.

**4.** Jendearen esku dauden telekomunikazioen zerbitzu-gidetan jasotako datuek arautegi berezia izango dute.

**29. Artikulua. Ondare-kaudimenari eta kredituari buruzko informazio-zerbitzuak ematea.**

**1.** Ondare-kaudimenari eta kredituari buruzko informazio-zerbitzuak ematen dituztenek ondore horietarako jendearen esku dagoen erregistro eta iturrietatik lortutako datuak edo interesdunak emandako informazioarekin zein interesdunaren adostasunarekin lortutako datuak bakarrik trata ditzakete.

**2.** Diruzko betebeharrak betetzearen edo ez betetzearen inguruan hartzekodunak edo haren izenean zein interesean jarduten duenak emandako izaera pertsonaleko datuak ere trata daitezke. Halakoetan, euren fitxategietan izaera pertsonaleko datuak erregistratu eta interesdun direnei, datuak erregistratu eta hogeita hamar eguneko epean, sartutako datuen erreferentzia jakinarazi eta datu guztien gaineko informazioa jasotzeko duten eskubidearen berri emango zaie, lege honek ezarritakoaren arabera. **3.** Aurreko bi idatz-zatiek aipatu kasuetan, interesdunak halaxe eskatzen duenean, tratamenduaren arduradunak datuak komunikatuko dizkio interesdunari, bai eta tratamenduaren inguruan azken sei hilabeteetan komunikatu diren ebaluazio eta balorazioak ere. Halaber, datuak zein pertsona edo entitateri eman eta horien izena eta helbidea komunikatuko dizkio.

**4.** Interesdunen ekonomia-kaudimenaren inguruan erabakitzeko oinarrizko diren izaera pertsonaleko datuak bakarrik erregistratu eta laga daitezke. Horrez gain, datu horiek ezin dira izan sei urtetik gorakoak, mesedegarri ez direnean. Edozein kasutan ere, datu horiek egiazkoak izan behar dira interesdunen egoerari dagokionez.

**30. Artikulua. Publizitate eta merkatu-prospekziorako xedeak dituzten tratamenduak.**

**1.** Helbideak jaso, agiriak banatu, publizitatea egin, urrutiko salmenta, merkatu-prospekzioa eta antzeko beste jarduera batzuk dituztenak, izenak eta helbideak edo izaera pertsonaleko beste datu batzuk erabiliko dituzte, halakoak jendearen esku dauden iturrietan jasotzen direnean edo halakoak interesdunek eman dituztenean edo interesdunen adostasunarekin lortu direnean.

**2.** Datuak jendearen esku dauden iturrietatik ateratzen direnean, lege honen 5.5 artikuluko bigarren lerrokadan ezarritakoarekin bat etorriz, interesdunari zuzendutako komunikazio

bakoitzean datuen jatorriari eta tratamenduaren arduradunaren identitateari buruzko informazioa emango da, bai eta interesdunak dituen eskubideen gaineko informazioa ere.

**3.** Datuetan sartzeko eskubidea egikaritzean, interesdunek euren izaera pertsonaleko datuen jatorria zein den jakiteko eskubidea izango dute, bai eta 15. artikuluak aipatzen duen osterantzeko informazioaren jatorria ere.

**4.** Interesdunek, aurretiaz eskabidea eginez eta gasturik gabe, euren inguruko tratamenduaren aurka egiteko eskubidea izango dute. Aurka eginez gero, tratamenduan baja emango zaie, eta, hala eskatuz gero, euren inguruan jasotako informazioak ezereztu egingo dira.

### 31. Artikulua. Ondare-errolda.

**1.** Modu iraunkorrean zein aldi baterako helbideak jaso, agiriak banatu, publizitatea egin, urrutiko salmenta, merkatu-prospekzioa eta antzeko beste jarduera batzuk egin nahi dituztenek, Estatistikako Institutu Nazionalari edo autonomia-erkidegoetako pareko organoei eska diezaiekete promozio-erroldaren kopia bat, hauteskunde-erroldan jasotako izen, abizen eta bizilekuaren inguruko datuekin osatuko dena.
**2.** Promozio-erroldako zerrenda bakoitzaren erabilerak urtebeteko indarraldia izango du.
Behin epe hori igarota, zerrendak galdu egingo du jendearen esku dagoen iturriaren izaera.

**3.** Interesdunek promozio-erroldan ez agertzeko eskabidea egin ahal izateko prozedurak erregelamendu bidez arautuko dira. Prozedura horiek doakoak izango dira interesdunentzat eta horien artean erroldatze-agiria jasoko da. Hiru hilerik behin promozio-erroldaren zerrenda eguneratua editatuko da, hala eskatu dutenen izenak eta bizilekuak kenduz.

**4.** Kontraprestazioa eska daiteke aipatu zerrenda euskarri informatikoan emateagatik.

### 32. Artikulua. Kode-ereduak.

**1.** Sektoreko akordio, administrazio-hitzarmen edo enpresako erabakien bidez, titulartasun publiko zein pribatuko tratamenduen arduradunek eta horiek biltzen dituzten erakundeek kode-ereduak egin ditzakete. Kode-eredu horiek ezarriko dituzte antolaketa-baldintzak, jardunbide-araubidea, aplikatu beharreko prozedurak, inguruaren segurtasunari buruzko arauak, programa edo ekipoak, tratamenduan parte hartzen dutenen betebeharrak, informazio pertsonalaren erabilera, bai eta, euren esparruan, pertsonen eskubideak egikaritzeko bermeak ere, lege honek eta lege hau garatzen duten arauek jaso printzipio eta xedapenak erabat errespetatuta.

**2.** Aipatutako kodeek sistema bakoitzaren inguruan eragiketak egiteko erregela zehatzak eta estandar tekniko aplikagarriak jaso ditzakete. Erregela edo estandar horiek zuzenean ez badira kodera biltzen, halakoak ezartzen dituzten jarraibide edo aginduek kodean jasotako printzipioak errespetatu beharko dituzte.

**3.** Kode-ereduek kode deontologikoen edo lanbide-eginera egokiaren izaera izango dute, eta Datuak Babesteko Erregistro Nagusian eta, hala denean, autonomia-erkidegoek ondore horietarako sortutako erregistroetan gordailutu edo inskribatuko dira, 41. artikuluarekin bat etorriz. Datuak Babesteko Erregistro Nagusiak inskripzioa uka dezake uste duenean hori ez datorrela bat gai horren inguruko lege- eta erregelamendu-xedapenekin. Halakoetan, Datuak Babesteko Agentziako zuzendariak eskatzaileei kasuan kasuko zuzenketak egitea eskatuko die.

# V. TITULUA. DATUEN MUGIMENDUA, NAZIOARTE MAILAN

### 33. Artikulua. Arau orokorra.

**1.** Ezin izango dira izaera pertsonaleko datuen behin-behineko zein behin betiko transferentziak egin, datu horiek tratatu edo tratatzeko bildu eta lege honek besteko babesik eskaintzen ez duten herrialdeetara bidaltzeko direnean. Datuak bidaltzeko, lege honetan ezarritakoa betetzeaz gain, Datuak Babesteko Agentziako zuzendariaren aurretiazko baimena lortu behar da; zuzendariak baimena eman dezake berme egokiak lortzen badira bakarrik.

**2.** Herrialde jasotzaileak duen babes-mailaren egokitasuna Datuak Babesteko Agentziak aztertuko du, datuen transferentzian edo transferentzia-kategorian dauden inguruabar guztiak aintzat hartuta. Bereziki, aintzat hartuko dira xede jakin baterako datuen izaera eta aurrez ikusitako tratamenduaren edo tratamenduen iraupena, datuak bidaltzen dituen herrialdea eta datuak jasotzen dituena, hirugarren estatuan indarrean dauden zuzenbideko arauak, orokorrak zein sektorekoak, Europar Batasuneko Batzordearen txostenen edukia eta herrialde horietan indarrean dauden lanbide-arauak zein segurtasun-neurriak.

### 34. Artikulua. Salbuespenak.

Aurreko artikuluan ezarritakoa ez da aplikatuko:

**a)** Izaera pertsonaleko datuen nazioarteko transferentzia Espania alderdi den tratatu edo hitzarmenak aplikatzearen ondorio denean.

**b)** Transferentzia nazioarteko laguntza judiziala emateko edo eskatzeko egiten nean.

**c)** Transferentzia beharrezkoa denean prebentzio edo diagnostiko medikoentzat, osasun-laguntza edo tratamendu medikoak emateko zein osasun-zerbitzuak kudeatzeko.

**d)** Diru-transferentziak egin behar direnean, halakoentzat ezarritako legeria bereziarekin bat etorrita.

**e)** Ukituak zalantzarik gabeko adostasuna eman duenean transferentziaren inguruan.

**f)** Transferentzia beharrezkoa denean ukituaren eta fitxategiaren arduradunaren arteko kontratu bat betearazteko edo ukituak hala eskatuta kontratua egin aurretik neurriak hartzeko.

**g)** Transferentzia beharrezkoa denean, kontratua egiteko zein egin den edo egiteko dagoen kontratua betearazteko, betiere fitxategiaren arduradunak eta hirugarren batek egiten dutela hori, ukituaren mesederako.

**h)** Transferentzia beharrezkoa denean edo legeak hori ezarri duenean interes publiko bat babesteko. Transferentziak izaera hori izango du zerga- edo aduana-administrazio batek eskatu duenean, bere eskumenak betetzeko.

**i)** Transferentzia beharrezkoa denean prozesu judizial batean eskubide bat aitortu, egikaritu edo defendatzeko.

**j)** Transferentzia erregistro publiko batetik egiten denean, interes legitimoa duen pertsona batek hala eskatuta, eta transferentzia hori bat datorrenean erregistro horren xedearekin.

**k)** Trasferentziaren helmuga Europar Batasuneko estatu kide bat denean, edo beste estatu bat, baldin eta Europako Erkidegoen Batzordeak, bere eskumenak egikaritzean, adierazi badu estatu horrek babes-maila egokia bermatzen duela.

# VI. TITULUA. DATUAK BABESTEKO AGENTZIA

**35. Artikulua. Izaera eta araubide juridikoa.**

**1.** Datuak Babesteko Agentzia zuzenbide publikoko erakundea da, berezko nortasun juridikoa eta gaitasun publiko zein pribatu osoa duena, eta bere eginkizunak gauzatzean independentzia osoaz jarduten duena Administrazio Publikoei dagokienez. Lege honetan eta Gobernuak onetsiko duen estatutu propio batean ezarritakoaren arabera arautuko da.

**2.** Datuak Babesteko Agentziak eginkizun publikoak gauzatzean, lege honek eta hori garatzen duten xedapenek ezarri gabeko aldeetan, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen arabera jardungo du. Ondare-eskuratze eta kontratazioetan Datuak Babesteko Agentzia zuzenbide pribatuaren mende izango da.

**3.** Datuak Babesteko Agentzia osatzen duten organoen eta zerbitzuen lanpostuak beteko dituzte Administrazio Publikoetako funtzionarioek eta horretarako kontratatutako pertsonek, lanpostu bakoitzari eratxikitako eginkizunen izaera kontuan hartuta. Langile horiek euren eginkizunak gauzatzean ezagutzen dituzten izaera pertsonaleko datuak isilpean gordetzeko betebeharra dute.

**4.** Datuak Babesteko Agentziak ondoko ondasun eta ekonomia-baliabide hauek izango ditu, bere xedeak betetzeko:

**a)** Estatuko Aurrekontu Orokorretan urtero esleitutako diru-kopuruak.
**b)** Agentziaren ondarea osatzen duten ondasun eta baloreak, bai eta ondare horren ekoizkin eta errentak ere.
**c)** Legez eratxiki dakizkiokeenetatik beste edozein.

**5.** Datuak Babesteko Agentziak urtero egin zein onetsiko du aurrekontuaren aurreproiektua, eta gobernuari igorriko dio hori, Estatuko Aurrekontu Orokorretan modu independentean jaso dadin.

**36. Artikulua. Zuzendaria.**

**1.** Datuak Babesteko Agentziaren zuzendariak Agentzia zuzendu eta ordezkatzen du. Kontseilu aholkularia osatzen dutenen artetik izendatuko da, errege-dekretu bidez, lau urterako.

**2.** Erabateko independentziaz eta objektibotasunez gauzatuko ditu bere eginkizunak, eta ez da egongo inolako jarraibideren mende. Edozein kasutan ere, zuzendariak kontseilu aholkularia entzun beharko du, kontseilu horrek bere eginkizunak gauzatzean egiten dizkion proposamenei dagokienez.

**3.** Datuak Babesteko Agentziako zuzendariak kargua utziko du soil-soilik 1. idatz-zatiak aipatu aldia amaitu baino lehenago, berak hala eskatuta edo gobernuak kargutik kentze erabaki duelako, dagozkion betebeharrak modu larrian ez betetzeagatik, bere eginkizunak gauzatzeko bat-bateko ezgaitasunagatik, bateraezintasunagatik edo doloko delituaren ondoriozko kondenagatik. Aldez aurretik espedientea egingo da, eta espediente horretan nahitaez entzungo da kontseilu aholkulariaren osterantzeko kideek esan beharrekoa.

**4.** Datuak Babesteko Agentziako zuzendaria goi-kargua izango da eta zerbitzu berezien egoeran geratuko da aurretiaz funtzio publikoan aritu bada. Orobat, kargua betetzeko karrera judizialeko zein fiskaleko kideren bat izendatzen bada, zerbitzu berezien administrazio-egoerara igaroko da.

**37. Artikulua. Eginkizunak.**

**1.** Datuak Babesteko Agentziaren eginkizunak dira:

**a)** Datuak babesteko legeria betetzen dela jagotea eta legeria horren aplikazioa kontrolatzea, bereziki datuen gaineko informazioa jasotzeko, datuetan sartzeko, datuak zuzentzeko, datuen aurka egiteko eta datuak ezerezteko eskubideei dagokienez.
**b)** Legean edo horren erregelamendu-xedapenetan ezarritako baimenak ematea.
**c)** Hala denean, eta beste organo batzuen eskumenei kalterik egin gabe, jarraibideak ematea, tratamenduak lege honen printzipioetara egokitzeko.
**d)** Pertsona ukituek aurkeztutako eskabide eta erreklamazioei erantzutea.
**e)** Pertsonei informazioa ematea, izaera pertsonaleko datuak tratatzearen inguruko gaian dituzten eskubideei buruz.
**f)** Tratamenduen arduradun eta eragileei, aldez aurretik horiek esan beharrekoa entzunda, beharrezko neurriak har ditzaten eskatzea, datuen tratamendua lege honen xedapenetara egokitzeko eta, hala denean, tratamenduak bertan behera utz dezaten eta fitxategiak ezerez ditzaten agintzea, horiek lege honen xedapenekin bat ez datozenean.
**g)** Zehatzeko ahalmena egikaritzea lege honen VII. tituluan jasotakoaren arabera.
**h)** Aginduzko izaerarekin informatzea lege hau garatzen duten xedapen orokorren proiektuak.
**i)** Fitxategien arduradunengandik behar besteko laguntza eta informazioa lortzea, euren eginkizunak gauzatzeko.
**j)** Izaera pertsonaleko datuen fitxategiak egon badaudela iragartzen dela jagotea. Horretarako, aldian-aldian argitaratuko du halako fitxategien zerrenda, Agentziako zuzendariak zehaztutako informazio gehigarriarekin.
**k)** Urteko oroitidazkia idaztea eta Justiziako Ministeriora bidaltzea.
**l)** Datuen mugimendua nazioartean kontrolatzea eta horren inguruan bidezkoak diren baimenak ematea, bai eta izaera pertsonaleko datuak babesteko gaian nazioarteko lankidetza-eginkizunak gauzatzea ere.
**m)** Estatistika-funtzio Publikoaren Legeak estatistika-datuak biltzeari eta estatistika-sekretuari dagokienez ezarri xedapenak betetzen direla jagotea, eta beharrezko jarraibideak ematea, estatistika-xedeekin bakarrik eratutako fitxategien segurtasun-baldintzei buruzko irizpenak ematea eta 46. artikuluak aipatu ahalmena egikaritzea.
**n)** Lege- zein erregelamendu-xedapenek eratxikitako beste eginkizun guztiak.

**2.** Datuak Babesteko Espainiako Agentziaren ebazpenak argitaratuko dira interesdunei jakinarazi eta gero. Argitalpena, batez ere, bide informatiko eta telematikoak erabilita egingo da. Erregelamendu bidez ezar daiteke aipatu ebazpenak zer-nola argitaratuko diren. Aurreko paragrafoetan jasotakoa ez zaie aplikatuko fitxategi edo tratamendu bat Datuak Babesteko Erregistro Nagusian inskribatzearen inguruko ebazpenei, ezta lege organiko honen 32. artikuluan arautako kode-ereduak Erregistro horretan inskribatzearen inguruko ebazpenei ere.

### 38. Artikulua. Kontseilu aholkularia.

**1.** Kontseilu Aholkulariak aholkuak emango dizkio Datuak Babesteko Agentziako zuzendariari. Kontseilu hori hurrengo kide hauek osatuko dute:

- Diputatuen Kongresuak izendatutako diputatu batek.
- Senatuak izendatutako senatari batek.
- Gobernuak izendatuko duen administrazio zentraleko ordezkari batek.
- Espainiako Probintzien eta Udalerrien Federazioak proposatutako toki-administrazioko ordezkari batek.
- Historiako Errege Akademiaren kide batek, Akademia horrek proposatuta.
- Gaian aditu den pertsona batek, Unibertsitateetako Kontseilu Nagusiak proposatuta.
- Erregelamendu bidez ezarritakoaren arabera hautatuko den erabiltzaile eta kontsumitzaileen ordezkari batek.
- Datuak babesteko agentzia sortu duen autonomia-erkidego bakoitzeko ordezkari batek, kasuan kasuko autonomia-erkidegoak ezarritako prozeduraren arabera proposatuta.
- Fitxategi pribatuen sektoreko ordezkari batek. Ordezkari hori proposatzeko erregelamendu bidez arautuko den prozedura hartuko da kontuan.
- Kontseilu Aholkulariaren jardunbidea horretarako ezarriko diren erregelamenduek arautuko dute.

### 39. Artikulua. Datuak Babesteko Erregistro Nagusia.

**1.** Datuak Babesteko Erregistro Nagusia Datuak Babesteko Agentziara bildutako organoa da.

**2.** Datuak Babesteko Erregistro Nagusian inskribatuko dira:

**a)** Administrazio Publikoaren titulartasunpekoak diren fitxategiak.
**b)** Titulartasun pribatuko fitxategiak.
**c)** Lege honek aipatzen dituen baimenak.
**d)** Lege honen 32. artikuluak aipatzen dituen kode-ereduak.
**e)** Datuen gaineko informazioa jasotzeko, datuetan sartzeko, datuak zuzentzeko, datuak ezerezteko eta datuen aurka egiteko eskubideak egikaritzeko beharrezkoak diren fitxategien inguruko datuak.

**3.** Erregelamendu bidez arautuko dira titulartasun publikoko zein pribatuko fitxategiak Datuak Babesteko Erregistro Nagusian inskribatzeko prozedura, inskripzioaren edukia, inskripzioa eraldatzea, inskripzioa ezereztea, kasuan kasuko ebazpenen aurkako erreklamazio eta errekurtsoak, eta gainerako inguruabarrak.

### 40. Artikulua. Ikuskatzeko ahalmena.

**1.** Kontrol-agintariek lege honek aipatutako fitxategiak ikuska ditzake, xede horietarako behar dituzten informazioak bilduta. Ondore horretarako, agiriak eta datuak erakustea edo bidaltzea eska dezakete; agiri eta datu horiek azter ditzakete halakoak gordailututa dauden tokian; eta datuak tratatzeko erabilitako ekipo fisiko zein logikoak ikuska ditzakete, halakoak instalatuta dauden lokaletan sartuta.

**2.** Aurreko idatz-zatiak aipatu ikuskatzea egiten duten funtzionarioak agintari publikoak izango dira euren eginkizunak gauzatzean. Eginkizun horiek gauzatzean ezagutzen dituzten informazioak isilpean gordetzeko betebeharra izango dute, baita eginkizun horiek gauzatzeari utzi ondoren ere.

**41. Artikulua. Autonomia-erkidegoetako kasuan kasuko organoak.**

**1.** Lege honen 37. artikuluan —artikulu horretako **j), k) eta l)** idatz-zatiak eta, datuen nazioarteko transferentziei dagokienez, **f) eta g)** idatz-zatiak izan ezik— eta 46 eta 49. artikuluetan araututako Datuak Babesteko Agentziaren eginkizunak autonomia-erkidegoek eta horren lurralde-esparruko toki-administrazioek sortu edo kudeatutako izaera pertsonaleko datuen fitxategien gainekoak direnean, euren eskumenen esparruan, autonomia-erkidego bakoitzeko organoek beteko dituzte eginkizun horiek. Organo horiek kontrol-agintariak izango dira eta organo horiei euren eginkizunak betetzean erabateko independentzia eta objektibotasuna bermatuko zaie.

**2.** Autonomia-erkidegoek euren fitxategien erregistroak sor ditzakete eta horiei eutsi diezaiekete, erregistro horien inguruan aitortu zaizkien eskumenak egikaritzeko.

**3.** Datuak Babesteko Agentziako zuzendariak ohikotasunez egin diezaieke deialdia autonomia-erkidegoetako kasuan kasuko organoei, erakundeen arteko lankidetzan aritzeko eta jardute-irizpide zein -prozedurak koordinatzeko. Datuak Babesteko Agentziako zuzendariak eta autonomia-erkidegoetako kasuan kasuko organoek elkarri eska diezaiokete euren eginkizunak betetzeko behar duten informazioa.

**42. Artikulua. Autonomia-erkidegoen fitxategiak euren eskumen esklusiboko gaian.**

**1.** Datuak Babesteko Agentziako zuzendariak jakin badakienean autonomia-erkidegoetako fitxategi jakin bati eustea edo fitxategi horren erabilera lege honen manuren baten aurka doala, lege honen eskumen esklusiboko gai batean, zuzendariak kasuan kasuko administrazioari agin diezaioke horren inguruan zehaztutako neurri zuzentzaileak hartzea agindeian esanbidez ezarritako epean.

**2.** Kasuan kasuko Administrazio Publikoak ez badu egindako agindeia betetzen, Datuak Babesteko Agentziako zuzendariak Administrazio horrek emandako ebazpena aurkara dezake.

## VII. TITULUA. ARAU-HAUSTEAK ETA ZEHAPENAK

**43. Artikulua. Erantzuleak.**

**1.** Fitxategien arduradunak eta tratamendu-eragileak lege honetan ezarritako araubide zehatzailearen mende egongo dira.

**2.** Administrazio Publikoak arduradun diren fitxategien kasuan, 46. artikuluko 2. idatz-zatian ezarritakoa hartuko da kontuan, prozedurari eta zehapenei dagokienez.

**44. Artikulua. Arau-hauste motak.**

**1.** Ara-hausteak arin, astun edo oso astun gisa kalifikatuko dira.

**2.** Arau-hauste arinak dira:

**a)** Formazko arrazoiak direla bide, tratamenduaren objektu diren datuak zuzentzeko edo ezerezteko interesdunak egindako eskabideari jaramonik ez egitea, eskabide hori bidezkoa denean legearen arabera.
**b)** Datuak Babesteko Agentziak legearen arabera eratxikita dituen eskumenak egikaritzean eskatutako informazioa ez ematea, datuak babestearen inguruan oinarrizkoak ez diren inguruabarrei dagokienez.
**c)** Izaera pertsonaleko datuen fitxategia Datuak Babesteko Erregistro Nagusian inskribatzea ez eskatzea, horrek arau-hauste astunik ez dakarrenean.
**d)** Izaera pertsonaleko datuak ukituengandik jasotzea, ukituei lege honen 5. artikuluak aipatutako informaziorik eman gabe.
**e)** Lege honen 10. artikuluan ezarri sekretu-eginbeharra ez betetzea, horrek arau-hauste astuna dakarrenean izan ezik.

**3.** Arau-hauste astunak dira:

**a)** Titulartasun publikoko fitxategiak sortzea edo fitxategi horientzako izaera pertsonaleko datuak biltzen hastea, “Estatuko Aldizkari Ofizialean” edo kasuan kasuko egunkari ofizialean argitaratutako xedapen orokorrak hori baimendu gabe.
**b)** Titulartasun pribatuko fitxategiak sortzea edo fitxategi horientzako izaera pertsonaleko datuak biltzen hastea, enpresaren edo erakundearen objektu legitimo ez diren xedeetarako.
**c)** Izaera pertsonaleko datuak biltzea pertsona ukituen esanbidezko adostasunik gabe, adostasun hori nahitaezkoa denean.
**d)** Izaera pertsonaleko datuak tratatzea edo gerogarrenean erabiltzea lege honetan ezarritako printzipioak eta bermeak urratuta edo lege hau garatzeko erregelamenduek ezarri babes-manuak bete gabe, horrek arau-hauste oso astunik ez dakarrenean.
**e)** Datuetan sartzeko eta datuen aurka egiteko eskubideak egikaritzea eragoztea edo oztopatzea, eta eskatutako informazioa ez ematea.
**f)** Zuzenak ez diren izaera pertsonaleko datuei eustea edo datu horien gainean legearen arabera bidezkoak diren zuzenketak edo ezerezteak ez egitea, lege honek babestutako pertsonen eskubideak ukitzen direnean.
**g)** Arau-hauste administratibo eta penalak egitearen inguruko datuak, Herri Ogasunaren datuak, finantza-zerbitzuen datuak eta ondare-kaudimenaren eta kredituaren zerbitzuak ematearen inguruko datu pertsonalak jaso dituzten fitxategietara nahiz norbanakoaren nortasuna aztertzeko adina datu-multzoa duten fitxategietara bildutako izaera pertsonaleko datuak isilpean gordetzeko eginbeharra urratzea.
**h)** Izaera pertsonaleko datuak dituzten fitxategi, lokal, programa edo ekipoak erregelamendu bidez ezarritako segurtasun-baldintzarik gabe artatzea.
**i)** Datuak Babesteko Agentziari lege honetan edo hori garatzen duten xedapenetan ezarritako jakinarazpenak ez egitea, eta ondore horietarako jaso behar dituen edo hala eskatzen dituen agiri eta informazio guztiak epean ez ematea.
**j)** Ikuskatze-eginkizuna gauzatzeari oztopoak jartzea.
**k)** Izaera pertsonaleko datuen fitxategia Datuak Babesteko Erregistro Nagusian ez inskribatzea, inskripzio hori Datuak Babesteko Agentziako zuzendariak eskatu duenean.

**l)** Lege honen 5, 28 eta 29. artikuluetan ezarri informazio-eginbeharra ez betetzea, ukitua ez den beste pertsona batengandik jaso direnean datuak.

**4.** Arau-hauste oso astunak dira:

**a)** Datuak engainuaren bidez eta iruzurra eginez biltzea.
**b)** Izaera pertsonaleko datuak komunikatu edo lagatzea, hori onartzen den kasuetatik kanpo.
**c)** Lege honen 7. artikuluko 2. idatz-zatiak aipatu izaera pertsonaleko datuak bildu eta tratatzea, ukituaren esanbidezko adostasunik ez dagoenean; lege honen 7. artikuluko 3. idatz-zatian aipatutako datuak bildu eta tratatzea, legeren batek hori xedatu ez duenean edo ukituak hori ez duenean esanbidez onartu, edo lege honen 7. artikuluko 4. idatz-zatian jasotako debekua urratzea.
**d)** Izaera pertsonaleko datuen tratamendua zilegi ez den moduan erabiltzeari ez uztea, Datuak Babesteko Agentziako zuzendariak edo datuetan sartzeko eskubidearen titularrek erabilera hori uztea eskatu dutenean.
**e)** Tratamenduaren objektu izan diren edo tratamenduaren objektu izateko bildu diren izaera pertsonaleko datuak aldi baterako zein behin betiko transferitzea, horrenbesteko babesik eskaintzen ez duten herrialdeetara, Datuak Babesteko Agentziako zuzendariaren baimenik gabe.
**f)** Izaera pertsonaleko datuak zilegi ez den moduan tratatzea edo datu horiei aplikatu behar zaizkien printzipio eta bermeak gutxiestea, horrekin oinarrizko eskubideak egikaritzea eragotzi edo oinarrizko eskubideak egikaritzearen aurka egiten denean.
**g)** Lege honen 7. artikuluko 2 eta 3. idatz-zatiek aipatu izaera pertsonaleko datuak eta pertsona ukituen adostasunik gabe polizia-xedeetarako bildutako datuak isilpean gordetzeko eginbeharra urratzea.
**h)** Datuetan sartzeko, datuak zuzentzeko, datuak ezerezteko edo datuen aurka egiteko eskubideak kontuan ez hartzea edo behin eta berriro oztopatzea eskubide horiek egikaritzea.
**i)** Izaera pertsonaleko datuak fitxategi batera bildu izana jakinarazteko legezko eginbeharra behin eta berriro ez betetzea.

**45. Artikulua. Arau-hauste motak.**

**1.** Arau-hauste arinak 601,01 eurotik 60.101,21 eurorainoko isunarekin zehatuko dira.

**2.** Arau-hauste astunak 60.101,21 eurotik 300.506,05 eurorainoko isunarekin zehatuko dira.

**3.** Arau-hauste oso astunak 300.506,05 eurotik 601.012,10 eurorainoko isunarekin zehatuko dira.

**4.** Zehapenen zenbatekoa mailakatuko da aintzat hartuta ukitutako eskubide pertsonalen izaera, egindako tratamendu-kopurua, lortutako onurak, asmokotasuna, berrerortzea, interesdun eta hirugarrenei eragindako kalte-galerak, eta jardun arau-hauslearen zuzenbidekontrakotasun- eta erruduntasun-gradua zehazteko garrantzitsua den beste edozein inguruabar.

**5.** Kasuan kasuko inguruabarren arabera, egotziaren erruduntasuna edo egitatearen zuzenbidekontrakotasuna nabarmen gutxitu dela antzemanez gero, organo zehatzaileak

zehapenaren zenbatekoa ezarriko du kasuaren araberako arau-haustea zein eskalatara bildu eta astuntasun gutxiagoko arau-hauste motaren eskala aplikatuta.

**6.** Zehatu nahi den arau-haustea zein arau-hauste motatara bildu eta inola ere ezin izango da ezarri arau-hauste mota horrentzat ezarritako zehapena baino astunagorik.

**7.** Gobernuak aldian-aldian eguneratuko du zehapenen zenbatekoa, prezioen indizeek dituzten aldaketen arabera.

**46. Artikulua. Administrazio Publikoen arau-hausteak.**

**1.** Lege honen 44. artikuluak aipatu arau-hausteak Administrazio Publikoen ardurapeko fitxategietan egin badira, Datuak Babesteko Agentziako zuzendariak ebazpena emango du, arau-haustearen ondoreak geldiarazteko edo zuzentzeko bidezkoak diren neurriak hartzea ezarriz. Ebazpen hori jakinaraziko zaie fitxategiaren arduradunari, hierarkian gorago dagoen organoari eta, halakorik egonez gero, ukituei ere.

**2.** Agentziako zuzendariak proposa dezake, berebat, diziplinako jardunak hastea, halakoak bidezkoak izanez gero. Aplikatu beharreko prozedura eta zehapenak izango dira Administrazio Publikoen diziplina-araubideari buruzko legerian ezarritakoak.

**3.** Agentziari komunikatu beharko zaizkio aurreko idatz-zatiek aipatu neurrien eta jardunen inguruan emandako ebazpenak.

**4.** Agentziako zuzendariak herri-defentsariari komunikatuko dizkio aurreko idatz-zatien babespean egiten dituen jardunak eta ematen dituen ebazpenak.

**47. Artikulua. Preskripzioa.**

**1.** Arau-hauste oso astunak hiru urtera preskribatuko dira, astunak bi urtera eta arinak urtebetera.

**2.** Preskripzio-epea zenbatzen hasiko da arau-haustea egin den egunetik.

**3.** Prozedura zehatzailearen hasierak geldiarazi egingo du preskripzioa, baldin eta interesdunak prozedura hasi dela badaki. Preskipzio-epea berriro zenbatzen hasiko da, prozedura zehatzailea sei hilabetez geldi badago, ustezko arau-hausleari egotzi ezin zaion arrazoiaren ondorioz.

**4.** Falta oso astunen ondorioz ezarritako zehapenak hiru urtera preskribatuko dira, falta astunen ondorioz ezarritakoak bi urtera, eta falta arinen ondorioz ezarritakoak urtebetera.

**5.** Zehapenen preskripzio-epea zenbatzen hasiko da zehapena ezartzen duen ebazpena irmo bihurtu eta hurrengo egunetik aurrera.

**6.** Preskripzioa geldiarazi egingo da betearazpen-prozedura hasi eta interesdunak hori jakin badaki. Epea sei hilabete baino gehiagoz geldi badago, arau-hausleari egotzi ezin zaion arrazoiaren ondorioz, berriro oso-osorik igaro beharko da.

**48. Artikulua. Prozedura zehatzailea.**

**1.** Erregelamendu bidez ezarriko da titulu honek aipatu arau-hausteak zehazteko eta zehapenak ezartzeko prozedura.

**2.** Datuak Babesteko Agentziaren edo kasuan kasuko autonomia-erkidegoko organoaren ebazpenek amaitu egiten dute administrazio-bidea.
Lege honek edo beste lege batzuek eratxikitako ahalmenak egikaritzean, azaroaren 3ko 32/2003 Telekomunikazioen Lege Orokorraren arau-hausteen inguruko ahalmenak kenduta, Datuak Babesteko Espainiako Agentziak gauzatutako prozedura zehatzaileek gehienez sei aste iraungo dute.

**49. Artikulua. Fitxategiak gerarazteko ahalmena.**

Izaera pertsonaleko datuak modu ez zilegian erabili eta lagatzeak arau-hauste oso astuna dakarrenean, Konstituzioak eta legeek bermatu dituzten herritarren eskubideak egikaritzea eta nortasuna askatasunez garatzea modu larrian eragozteagatik edo horien aurka modu larrian egiteagatik, Datuak Babesteko Agentziaren zuzendariak zehatzeko ahalmena egikaritzeaz gain, izaera pertsonaleko datuen fitxategietako arduradunei agin diezaieke datuak zilegi ez den moduan erabiltzeari edo lagatzeari uztea, fitxategiak titulartasun publikokoak zein pribatukoak izan. Agindeiari jaramonik egiten ez bazaio, Datuak Babesteko Agentziak, arrazoitutako ebazpenaren bidez, fitxategi horiek geraraz ditzake, pertsona ukituen eskubideak berrezartzeko.

## XEDAPEN GEHIGARRIAK

**Lehenengoa. Aurretiaz zeuden fitxategiak.**

Automatizatutako fitxategi edo tratamenduak, Datuak Babesteko Erregistro Nagusian inskribatuta egon ala ez, lege organiko honetara egokitu beharko dira hiru urteko epean, lege organiko hau indarrean jarri zenetik zenbatzen hasita. Epe horretan, titulartasun pribatuko fitxategiak Datuak Babesteko Agentziari komunikatu beharko zaizkio, eta titulartasun publikoko fitxategien arduradun diren Administrazio Publikoek fitxategia arautzeko xedapen egokia onetsi beharko dute, edo aurretik zegoena egokitu.
Automatizatu gabeko fitxategi eta tratamenduen kasuan, aurreko lerrokadan ezarri lege organiko honetara egokitzea eta betebeharra hamabi urteko epean gauzatu beharko dira, 1995eko urriaren 24tik zenbatzen hasita, ukituek datuetan sartzeko, datuak zuzentzeko eta datuak ezerezteko dituzten eskubideei kalterik egin gabe.

**Bigarrena. Administrazio Publikoen populazioaren fitxategiak eta erregistroa.**

**1.** Estatuaren Administrazio Orokorrak eta autonomia-erkidegoetako administrazioek, interesdunaren adostasunik gabe, Estatistikako Institutu Nazionalari eska diezaiokete, euren eskumenak egikaritzen dituzten lurraldeetako biztanleen udal-erroldetan eta hauteskunde-erroldan jasotako izen, abizen, bizileku, sexu eta jaiotza-dataren inguruko datuekin osatutako fitxategiaren kopia eguneratua, populazioaren fitxategi edo erregistroak sortzeko.

**2.** Populazioaren fitxategi eta erregistroen xedea izango da Administrazio Publiko bakoitzaren organoak eta kasuan kasuko lurraldeetan bizi diren interesdunak komunikatzea, Administrazio

Publiko bakoitzaren eskumenek eratorri harreman juridiko administratiboei dagokienez.
Hirugarrena. Indargabetutako Alferren eta Gaizkileen Legeen eta Arriskugarritasunaren eta Gizarte-errehabilitazioaren Legeen espedienteen tratamendua.
Indargabetutako Alferren eta Gaizkileen Legeen eta Arriskugarritasunaren eta Gizarte-errehabilitazioaren Legeen babesean beren beregi egindako espedienteak ezin izango dira kontsultatu ukituen esanbidezko adostasunik gabe edo espediente horien datatik 50 urte igaro gabe, baldin eta espediente horiek pertsonen segurtasuna, ohorea, intimitatea edo irudia ukitzeko moduko edozein datu jasotzen badute. Espedienteen datatik 50 urte igaro ez badira, Estatuko Administrazio Orokorrak eskatzailearen esku utziko ditu agiriak, salbu eta gauza jakina denean ukituak hilda daudela, eta agiri horietatik aurreko lerrokadan aipatu datuak kenduko ditu, kasu bakoitzean egoki diren prozedura teknikoak erabilita.

**Laugarrena. Tributuen Lege Orokorraren 112.4 artikulua eraldatzea.**

Tributuen Lege Orokorraren 112. artikuluko laugarren idatz-zatiak aurrerantzean hurrengo idazketa hau izango du:

«4. Lege honen 111. artikuluan, artikulu honen aurreko idatz-zatietan edo lege lerruneko beste edozein arautan ezarritakoaren arabera tratamenduaren objektu diren izaera pertsonaleko datuen gainean tributu-administrazioari egin beharreko lagapenak ez du behar izango ukituaren adostasunik. Halaber, esparru honetan ez da aplikatuko Izaera Pertsonaleko Datuak Babesteko Lege Organikoaren 21. artikuluko 1. idatz-zatiak ezarritakoa Administrazio Publikoei dagokienez.»

**Bosgarrena. Herri-defentsariaren eta autonomia-erkidegoetako antzeko organoen eskumenak.**

Lege organiko honetan ezarritakoak ez die kalterik egingo herri-defentsariaren eta autonomia-erkidegoetako antzeko organoen eskumenei.

**Seigarrena. Aseguru Pribatuak Antolatu eta Gainbegiratzeko Legearen 24.3 artikulua eraldatzea.**

Eraldatu egiten da Aseguru Pribatuak Antolatu eta Gainbegiratzeko azaroaren 8ko 30/1995 Legearen 24.3 artikuluko 2. paragrafoa. Aurrerantzean ondoko idazketa hau izango du:

«Aseguru-erakundeek ezbeharrak likidatzeko eta lankidetza estatistiko eta aktuarialerako izaera pertsonaleko datuak dituzten fitxategi erkideak ezar ditzakete, arriskuen tarifazio zein hautaketa eta aseguru-teknikako ikerketak egitea ahalbidetzeko. Aipatutako fitxategi horiei datuak lagatzeko ez da behar izango ukituaren aurretiazko adostasunik, baina ukituari komunikatu beharko zaio bere datu pertsonalak fitxategi erkideei laga dakizkiekela aipatu xedeetarako. Kasu horretan, esanbidez aipatuko da nor den arduraduna, legean ezarri datuetan sartzeko, datuak zuzentzeko eta datuak ezerezteko eskubideak egikari ahal izateko. Era berean, ukituaren adostasunik gabe, fitxategi erkideak ezar daitezke aseguruan egon daitekeen iruzurra prebenitzeko. Hala ere, halako kasuetan, ukituari nahitaez komunikatu beharko zaio, ukituaren datuak lehendabiziko aldiz sartzen direnean, fitxategiaren arduraduna nor den eta datuetan sartzeko, datuak zuzentzeko eta datuak ezerezteko eskubideak egikaritzeko moduak zein diren. Edozein kasutan ere, osasunaren inguruko datuak ukituaren adostasunarekin bakarrik trata daitezke.»

## XEDAPEN IRAGANKORRAK

**Lehenengoa. Nazioarteko hitzarmenek sortutako tratamenduak.**

Datuak Babesteko Agentzia izango da izaera pertsonaleko datuen tratamenduaren inguruan pertsona fisikoak babesteko erakunde eskuduna, Espainia alderdi den nazioarteko edozein hitzarmenek ezarritako tratamenduei dagokienez, baldin eta halako hitzarmenek kontrol-agintaritza nazional bati eratxiki badiote eskumen hori. Horrela izango da hitzarmen horiek garatzearen ondorioz eginkizun horretarako beste agintaritzaren bat sortzen ez den bitartean.

**Bigarrena. Promozio-erroldaren erabilera.**

Erregelamendu bidez garatuko dira promozio-errolda sortzeko, errolda horretan agertzeari uko egiteko, errolda eskatzaileen esku uzteko eta zabaldutako zerrendak kontrolatzeko prozedurak. Erregelamenduak ezarriko ditu promozio-errolda jardunbidean hasteko epeak.

**Hirugarrena. Aurretik zeuden arauek irautea.**

Lege honen Azken Xedapenetatik Lehenengoak ezarritakoa gauzatu arte, indarrean izango dira, dagokien lerrunarekin, aurretik zeuden erregelamenduak eta, bereziki, martxoaren 26ko 428/1993, ekainaren 20ko 1332/1994 eta ekainaren 11ko 994/1999 errede-dekretuak, lege honen aurka ez doazen neurrian.

## XEDAPEN AZKENTZAILEA

**Bakarra.**

Indargabetua geratzen da izaera pertsonaleko datuen tratamendu automatizatua arautzeko urriaren 29ko 5/1992 Lege Organikoa.

## AZKEN XEDAPENAK

**Lehenengoa. Erregelamendu bidez garatzeko baimena.**

Gobernuak lege hau aplikatu eta garatzeko behar diren erregelamendu-xedapenak onetsi edo eraldatuko ditu.

**Bigarrena. Lege arruntaren izaera duten manuak.**

Lege honen IV tituluak, VI. tituluak, 36. artikuluko 4. paragrafoaren azken tartekadurak izan ezik, Xedapen Gehigarrietatik Laugarrenak, Xedapen Iragankorretatik Lehenengoak eta Azken Xedapenetatik Lehenengoak lege arruntaren izaera dute.

**Hirugarrena. Indarrean jartzea.**

Lege hau hilabeteko epean jarriko da indarrean, Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik zenbatzen hasita.

# OTSAILAREN 25EKO 2/2004 LEGEA, DATU PERTSONALETARAKO JABETZA PUBLIKOKO FITXATEGIEI ETA DATUAK BABESTEKO EUSKAL BULEGOA SORTZEARI BURUZKOA

(EHAA 44zk.,2004ko Martxoaren 4koa)

## ZIOEN ADIERAZPENA

Teknikaren aurrerabidea bizkortu egin da azken aldi honetan. Gaur egun, informatika erabiliz, pertsona fisikoei buruzko hainbat eta hainbat datu trata dezakegu, eta baliteke intimitatea urratzen duen hainbat gauza ezagutzea pertsona horiei buruz. Baliteke teknologiak eskaintzen dizkigun aukerak maltzurkeriaz erabiltzea baten batek, bakoitzaren intimitaterako gorde beharreko esparruen kaltetan, eta ordenamendu juridikoek ezin dute ezikusia egin.

Teknologiaren, batez ere informatikaren, eta pertsonen intimitatearen arteko tentsio horrek legearen eskuhartzea eskatzen du, bi ondasun horien artean oreka asegarria lortzeko, biak baitira legez babestea merezi dutenak. Alde batetik, garapen teknologikoari galga emateak ez dio gizarteari onik egiten, teknologiak aukera mugagabeak eskaintzen baititu, gizartearen ongizatea hobetu behar dutenak; baina, beste alde batetik, herritarrek beren intimitate pertsonala babesturik ikusteko eskubidea dute, eta gaur egungo teknologia informatikoak eskaintzen dituen aukerek ez dute intimitate hori nahi baino gehiago murriztu behar. Horretarako, informatika erabiltzeari mugak jarri behar, eta, horrela, herritarrei ohorea eta intimitatea, pertsonala eta etxekoa, eta eskubideen bete-beteko erabilera bermatu. Konstituzioak hala egiteko agintzen dio legegileari, 18.4 artikuluan, eta hark agindu hori jaso egin du Datu Pertsonalak Babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan.

Herritarren intimitate pertsonala eta etxeko intimitatea babesteko kezka horrek –informatika halakoetan noiz-nola erabili mugatu behar horretarako– ez da Estatuko legegilearen kontua soilik. Europar Batasuneko erakundeek ere badakite zer den hori, eta halaxe adierazi izan dute.

Europako Erkidegoa eratzeko itunak gaur egun daukan 286. artikulua Amsterdamgo Itunak ekarria da (1997ko ekainaren 17koa da Amsterdamgo itun hori), eta, hor agindurik dagoenez, datu pertsonalen tratamendua edo zirkulazio askea dela-eta pertsonak babestearren ezer erabakitzen badu Batasunak, Batasuneko erakundeek eta organismoek ere bete behar dituzte erabaki horiek. Lehenagotik ere, Europako Legebiltzarrak eta Kontseiluak emana zuten 1995eko urriaren 24ko 95/46/EE Zuzentaraua, datu pertsonalen tratamendua eta zirkulazio askea dela-eta pertsona fisikoak babesteari buruzkoa. Eta, printzipio modura, zuzentarau horretan jasota dago datuak tratatzeko sistemak gizon-emakumeon zerbitzura daudela, eta derrigor zaindu behar dituztela pertsona fisikoen oinarrizko askatasunak eta eskubideak, intimitatea batez ere, eta ekonomia eta gizartea garatzen, elkartrukeak garatzen eta norbanakoon ongizatea areagotzen lagundu behar dutela.

Zuzentarau horren arabera, estatuek datu pertsonalen tratamenduari buruz dituzten legeek eskubide eta askatasun horien errespetua bermatzea dute helburu, bizitza pribatua errespetatzeko eskubidea bereziki, hala aitorturik baitago Giza Eskubideak eta Oinarrizko Askatasunak Babesteko Europako Hitzarmeneko 8. artikuluan eta Batasuneko zuzenbideko printzipio orokorretan, eta, legedi horiek bata bestera hurbiltzekotan, kontu horiei babes handia emateko izan behar du.

Zuzentarau horren arabera –eta datu pertsonalak babesteaz ari gara orain–, kontroleko aginte bat sortzea da pertsonek behar duten babesaren funtsezko osagai bat. Batasuneko estatu bakoitzean aritu beharko du aginte horrek, inongo loturarik gabe, eta bere lana egiteko behar

dituen baliabide guztiak izan beharko ditu, berdin dio zer edo zer ikertzeko izan edo inon esku hartzeko izan.
Zuzentarau horretan jasota dagoenez, Batasuneko estatuek hiru urteko epea dute zuzentaraua betetzeko beharrezko xedapenak emateko, dela legez, dela erregelamenduz edo dela administrazio-mailan.

Datuak babestearren Batasuneko erakundeak ez dira, besterik gabe, erkidegoko estatuetarako zuzentarausail bat sortzera mugatu. Datu pertsonalen tratamenduari dagokionez, Batasuneko erakundeetan ere, pertsona fisikoak babesteko hainbat neurri hartu dute. Horretarako onartu zuten Europako Legebiltzarrak eta Kontseiluak, 2000.eko abenduaren 18an, 45/2001 (EE) Erregelamendua, eta kontroleko aginte aske bat ere sortu zuen erregelamendu horrek (Datuak Babesteko Ikuskatzaile Europarra).

Itxura denez, datu pertsonalak eta intimitatea ondo babestu beharra bide-argi moduko bat da Batasunaren arauetarako, eta justu datu pertsonalen babesa arautzeko ez diren beste zuzentarau-proposamen batzuk ere hartzen ditu itzalpean behar horrek, hala nola komunikazio elektronikoetarako sare eta zerbitzuak arautzeko esparru erkide bati buruz Europako Legebiltzarrak eta Kontseiluak egin zuten zuzentarau-proposamena (Aldizkari Ofiziala, C 365 E, 2000/12/19koa).

Barruko zuzenbidean, berriz –lehenago ere esan dugu–, datu pertsonalak babesteko lege organikoan dago arauturik datu pertsonalen babesa (15/1999 Lege Organikoan, abenduaren 13koan). Lege horretan daude arauturik Datuak Babesteko Bulegoaren araubide juridikoaren oinarrizko alderdiak, Konstituzioko 18.4 artikuluan aipaturiko oinarrizko eskubidearekin zerikusia duten beste gai batzuekin batera. Bulego horrek beteko du 95/46/EE Zuzentarauan aipaturiko kontrolaginte askearen lana.

Lege organiko horretan agindurik dagoenez, autonomia- erkidegoek edo erkidego horietako tokiko administrazioek datu pertsonaletarako sorturiko edo kudeaturiko fitxategiekin baldin badute zerikusia bulego horretako zereginek, erkidego bakoitzeko organoek beteko dituzte eginkizun horietako gehienak. Halakoetan, organo horiek izango dira kontroleko aginteak, eta lanerako erabateko objektibitatea eta independentzia bermatu behar zaie. Legezko irizpide hori 95/46/EE Zuzentarauko 28. artikuluarekin bat dator; artikulu horretan jartzen duenez, Batasuneko estatuek, zuzentarau horren itzalpean hartzen dituzten xedapenak betetzen ote diren zaintzearren beren lurraldean, aginte publiko bat edo gehiago izango dute hartara jarria; eta beste gauza bat ere gehitzen du: aginte horiek inongo loturarik gabe beteko dituztela agintzen dizkieten eginkizunak.

Eta nola antolaturik dagoen bada kontua, legeak hiru titulu ditu:

I. tituluan xedapen orokorrak jaso ditugu. Hor daude zehazturik legearen xedea eta aplikazio-eremua, eta hor dago zedarriturik zein fitxategi geratu den legearen araupean, sortu dituen edo kudeatzen dituen herriadministrazio, erakunde edo korporazioaren arabera. Zedarritze hori osatze aldera, legea zein fitxategitan ez den aplikatuko eta, araubide bereziren bat dutela-eta, zeinetan aplikatuko den ere zehazten da. Definizio-zerrenda bat ere badakar, erabilgarria oso, arautu dugun gai honetako terminologia berezia zehaztu eta bateratzeko; beste hainbat konturen inguruko hainbeste alderdi ere badakar arauturik, esate baterako fitxategiak sortzea, aldatzea edo ezabatzea, datu pertsonalak biltzeko mugak, interesdunentzako informazioa, datu-fitxategien segurtasuna, bai eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoan erreklamazioak nola jarri ere. Titulu beharrezkoa, inondik ere, legeari koherentzia sistematikoa eta osotasuna emateko, gero garatu egin beharko dena.

II. tituluan, berriz, Datuak Babesteko Euskal Bulegoa sortu, eta hango araubide juridikoaren funtsezko alderdiak arautu ditugu. Bertako langileen erregimena dela, baliabide ekonomikoak direla, aurrekontu-sistema dela, gobernu-organoak direla, eginkizunak direla edo aginpideak direla, horri denari buruzko hainbat agindu dakar. Datuak Babesteko Erregistroaren sorrera dakarrela ere aipatu behar, bulegoak bai baitu haren beharra.

Zehatzeko araubiderako utzi dugu III. titulua. Erantzuleak nor diren, arau-hausteen tipifikazioa eta dagozkien zigorrak datoz jasota. 45/2001 (EE) Erregelamenduan jartzen duenez –lehen ere aipatu dugu–, datu pertsonalak babesteko sistemak ezinbestekoa du eskubide- betebeharrak zehaztea, baina baita arau-hausleentzako modu-moduko zigorrak ere. Gure honetan, berriz, fitxategien titularrak nor diren ikusita, titular bereziak baitira, administrazio, erakunde eta korporazioetako langileen arau-hausteak hartu ditugu, batez ere, kontuan, halakoen fitxategietan aplikatu behar denez legea.

Lege honek hiru xedapen gehigarri ditu. Fitxategien berri Datuak Babesteko Euskal Bulegoari eman beharraz da bat; Autonomia Administrazioak eta foru-administrazioek, beren aginpideak betetze aldera, udalerrolda nola erabili behar duten dakar bigarrenak; eta Arartekoaren eta Datuak Babesteko Estatuko Bulegoaren aginpideak babestu beharraz da hirugarrena.

Amaitzeko, azken xedapenean, legea garatzeko eta aplikatzeko baimena ematen zaio Eusko Jaurlaritzari.

## I. TITULUA. XEDAPEN OROKORRAK

### 1. Artikulua. Xedea

Hauxe da lege honen xedea:

**1.** Euskal Autonomia Erkidegoak, lurralde historikoetako foru-erakundeek eta Euskal Autonomia Erkidegoko toki-erakundeek datu pertsonaletarako sorturiko edo kudeaturiko fitxategiak arautzea.

**2.** Datuak Babesteko Euskal Bulegoa sortzea eta arautzea.

### 2. Artikulua. Aplikazio-eremua

**1.** Datu pertsonaletarako fitxategietan aplika daiteke lege hau. Zuzenbide publikoko ahalak gauzatzeko sortu edo kudeatuak behar dute izan fitxategi horiek; honako hauek sortuak edo kudeatuak:

> **a)** Autonomia Erkidegoko Administrazio orokorrak, lurralde historikoetako foru-organoek, Euskal Autonomia Erkidego barruko toki-administrazioek eta, zuzenbide publikoko ahalak gauzatzeko sortu bazituzten, herri-administrazioen menpeko edo haietara loturiko edonolako erakunde publikoek.
> **b)** Eusko Legebiltzarrak.
> **c)** Herri Kontuen Euskal Epaitegiak.
> **d)** Arartekoak.
> **e)** Lan Harremanen Kontseiluak.
> **f)** Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak.

**g)** Kooperatiben Goren Kontseiluak.
**h)** Datuak Babesteko Euskal Bulegoak.
**i)** Ebazpen Batzordeak.
**j)** Interes ekonomiko eta profesionalak ordezkatzen dituzten Euskal Autonomia Erkidegoko zuzenbide publikoko korporazioek.
**k)** Eusko Legebiltzarrak lege bidez sorturiko beste edozein organismo edo erakundek –berdin dio nortasun jurdikoa duen edo ez–, lege horrek bestelakorik xedatzen ez badu.

**2.** Aurreko zenbaki horretan jarrita dagoena jarrita dagoela ere, honako fitxategi hauetan ez da aplikatuko lege hau:

**a)** Sekretutzat jotako gaietarako babes-arauen pean dauden fitxategietan.
**b)** Terrorismoa eta delinkuentzia-modu antolatu larriak ikertzeko dauden fitxategietan.
**c)** Hauteskunde-araubideko legeek arauturikoetan.
**d)** Euskadiko poliziek bideokamera bidez lorturiko irudi eta hotsetatik sorturiko fitxategietan, gai horri buruzko legeen arabera.

**3.** Estatistiketarako besterik ez badira eta funtzio estatistiko publikoari buruzko legeen babesean badaude, datu pertsonalak tratatzeko, hartarako berariazko xedapenak eta –halako ezer xedatzen badu– lege honetan bereziki xedaturikoa bete beharko dira.

**4.** Osasuneko erakunde eta zentro publikoek eta hor lan egiten duten profesionalek osasun-arloko legeetan xedaturik dagoenaren arabera tratatu ahal izango dituzte etortzen zaizkien gaixoen edo bertan tratatu behar dituzten gaixoen osasunari buruzko datu pertsonalak. Hala ere, lege horiekin bateraezina ez den guztirako, lege honetan xedaturikoa ere bete beharko da.

**5.** Euskadiko poliziek datu pertsonaletarako sortu edo kudeatzen dituzten fitxategietan ere –artikulu honetako 2. zenbakian agertzen direnen artean ez badaude– lege honetan xedaturikoa aplikatu beharko da, araubide juridikoan dituzten berezitasunak zainduta. Hemen daude berezitasun horiek: Datu Pertsonalak Babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan eta Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziari buruzko uztailaren 17ko 4/1992 Legean.

### 3. Artikulua. Definizioak

Lege honen ondorioetarako, hona hemen definizio batzuk:

**a) Datu pertsonalak:** identifikatutako edo identifika daitezkeen pertsona fisikoen gaineko edozein informazio.
Zuzenean edo zeharka nor den jakiteko moduko edonor da identifikagarria, eta, bereziki, nortasunzenbaki baten bidez edo ezaugarri baten edo batzuen bidez identifika daitekeen edonor, berdin dio ezaugarri horiek fisikoak, fisiologikoak, psikikoak, ekonomikoak, kulturakoak edo sozialak izan.
**b) Fitxategia:** datu pertsonalen multzo antolatu oro, datu-multzoa sortu, jaso, antolatu eta eskuratzeko modua edozein dela ere.
**c) Datuen tratamendua:** eragiketa eta prozedura teknikoak dira –batzuetan automatizatuak beste batzuetan ez–, eta datuak bildu, grabatu, gorde, landu, aldatu, blokeatu eta indarrik gabe uzteko aukera ematen dute. Komunikazio, kontsulta, elkarkonexio eta transferentzien eraginez datuak uztea ere datuak tratatzea da.
**d) Fitxategiaren edo tratamenduaren erantzulea:** pertsona, erakunde, entitate, korporazio edo administrazio- organoren bat izango da, hari atxikita egongo da fitxategia,

eta hark erabakiko du tratamendua zertarako den, zein eduki duen eta nola egin behar den. Fitxategia sortzen duen xedapenean zehaztuko da nor den erantzulea. Segurtasuneko agirian zehazturikoak izango dira erantzulearen eginkizunak.

**e) Tartekoa edo interesduna:** tratatu beharreko datuen titularra den pertsona fisikoa. Artikulu honetako c) letran dago zehazturik tratatze hori.

**f) Tratamenduaren arduraduna:** pertsona fisikoa edo juridikoa, aginte publikoa, zerbitzua edo beste edozein erakunde izan daiteke, eta hark tratatzen ditu, arduradunaren aginduz, berak bakarrik edo beste batzuekin batera, datu pertsonalak.

**g) Interesdunaren adostasuna:** interesdunak baiezkoa ematea bere datu pertsonalak tratatzeari; inork inola estutu gabe, zalantzarako biderik eman gabe, berariaz eta zer egiten duen jakinda egin beharko du.

**h) Datuak uztea edo jakinaraztea:** interesduna ez den beste pertsona bati datuak erakustea.

### 4. Artikulua. Fitxategiak sortzea, aldatzea eta ezabatzea

**1.** Autonomia Erkidegoko Administrazioko fitxategiak sortzeko, aldatzeko eta ezabatzeko, dena delako fitxategia atxikita dagoen saileko titularraren agindu bidez egin beharko da. Indarrean dauden legeek eskatutako aipamen guztiak jaso beharko ditu agindu horrek, eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu beharko da. Agindu hori egiteko prozedura xedapen orokorrak egiteko erabakita dagoen berbera izango da.

**2.** Datu pertsonalen fitxategiak beste administrazio, erakunde edo korporazio batzuetakoak badira, berriz, hura sortu, aldatu edo ezabatzeko erabakiak edo xedapenak derrigorrezko aipamen guztiak jaso beharko ditu eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian edo lurralde historikoko aldizkarian argitaratuko da, fitxategia duenaren eginkizun edo aginpideak zein lurralde- eremutara iristen diren kontuan hartuta.

### 5. Artikulua. Datu pertsonalak biltzea

Lege honetako 2.1 artikuluan aipaturik dauden herri- administrazioek eta gainerako erakunde, korporazio eta entitateek beren aginpideak gauzatzeko egokiak, beharrezkoak eta neurrikoak dituztenean baino ezin ditzakete bildu, tratatzeko asmoz, datu pertsonalak. Legez bestelakorik agintzen ez bada behinik behin, datu horiek biltzeko ez da tartean direnen adostasuna eskatu behar, baina biltzerakoan datu horiek zituzten helburu jakin, zehatz eta zilegietarako bakarrik erabili behar dituzte, nahiz eta gero helburu historiko, estatistiko edo zientifikoetarako erabil daitezkeen, aplikatu beharreko legeen arabera.

### 6. Artikulua. Interesdunei eman beharreko informazioa

Interesdunei datu pertsonalik eskatzera, jakin beharrekoak azaldu behar zaizkie aurretiaz, halako datuak babesteko legeen arabera. Baina datu horiek ez badituzte interesdunarengandik berarengandik jaso, eta ezinezkoa bada hari informazioa ematea edo informazioa emate horrek neurrigabeko ahaleginak egin beharra eskatzen badu interesdunak asko direlako, datuak zaharrak direlako edo ordaina eman beharra legokeelako, halakoetan Datuak
Babesteko Euskal Bulegoko zuzendariak, aipatutako legeekin bat eginik, fitxategiaren erantzulea interesdunei informazioa eman behar horretatik libre utz daiteke.

### 7. Artikulua. Segurtasuneko agiriaren gutxieneko edukia onartzea

Lege honetako 2.1 artikuluan aipaturik dauden herri- administrazioetako, erakundeetako eta korporazioetako gobernu-organoek, beren buruak antolatzeko ahalmenaz baliatuz, segurtasuneko agiriaren gutxieneko edukia onar dezakete, datuen segurtasunari buruzko aginduak betetzearren eta dena delako administrazio, erakunde edo korporazio hori titular duten fitxategi guztietan edo fitxategi horietako batzuetan aplikatzeko asmoz. Edonola ere, segurtasuneko agiri hori fitxategiko arduradunek egin eta ezarri behar dute, fitxategi horietako datu pertsonalen segurtasuna bermatzeko.

### 8. Artikulua. Interesduenen eskubideak erabiltzeko prozedura

**1.** Datuen aurka egiteko, datuetara iristeko, datu horiek zuzentzeko, indarrik gabe uzteko eta legeak onarturiko beste edozertarako eskubidea izango dute interesdunek. Legean zehazturikoa izango da eskubide horien edukia.

**2.** Aurreko zenbakian zehazturiko eskubideak erabiltzeko prozedura administrazio, erakunde edo korporazio bakoitzak arautuko du, erregelamendu bidez, lege hau bete behar duten beren fitxategietarako. Horregatik ez dute inolako ordainik eskatuko.

### 9. Artikulua. Datuak Babesteko Euskal Bulegoan erreklamazioak aurkeztea

**1.** Lege honetan xedaturikoaren aurka ezer egiten badu inork, interesdunek Datuak Babesteko Euskal Bulegoan erreklama dezakete. Erregelamendu bidez zehaztuko da nola.

**2.** Interesdunen bati ez badiote uzten datuen aurka egiteko, datuetara iristeko, datuak zuzentzeko, indarrik gabe uzteko edo legeetan –datu pertsonalak babesteko legeetan– aitorturiko beste edozertarako eskubidea erabiltzen, Datuak Babesteko Euskal Bulegoari jakinarazteko aukera izango du, eta hark, orduan, ezezko hori bidezkoa den edo ez ikusi beharko du.

**3.** Gehienez ere sei hilabeteko epea dago eskubideak ziurtatzeko berariazko ebazpena emateko eta jakinarazteko, eta administrazio-isiltasunak, halakoetan, eskatutako ziurtatze horri ezezkoa eman diotela esan nahiko du.

**4.** Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jar daiteke Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren ebazpenen aurka. Nahi izanez gero, aurretiaz, berraztertzeko errekurtsoa jar daiteke.

## II. TITULUA. DATUAK BABESTEKO EUSKAL BULEGOA

### 10. Artikulua. Sorrera eta araubide juridikoa

**1.** Datuak Babesteko Euskal Bulegoa sortzen da. Zuzenbide publikoko entea izango da, nortasun juridiko propioa eta gaitasun publiko eta pribatu erabatekoa izango ditu, eta herri-administrazioekiko inongo loturarik gabe beteko ditu bere eginkizunak. Lege honetan eta bere estatutuan xedatutakoaren arabera jardungo du; estatutu hori Eusko Jaurlaritzaren dekretu baten bidez onartu beharko da, Lehendakariordetzak proposaturik.

**2.** Administrazioaren ahalak gauzatu behar dituenean, Datuak Babesteko Euskal Bulegoak azaroaren 26ko 30/1992 Legea bete beharko du, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legea. Gainerako jardunean, Datu Pertsonalak Babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoa, lege hau eta lege horiek garatzeko xedapenak bete beharko ditu.

**3.** Ondarerik eskuratzeko edo ezer kontratatzeko, indarrean dagoen zuzenbide publikoa bete beharko du Datuak Babesteko Euskal Bulegoak. Bulegoaren ondasun eta eskubideak Euskal Autonomia Erkidegoaren ondarekoak izango dira.

**4.** Auzibidean jardun beharra badago, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko zerbitzu juridikoen ardura izango da Datuak Babesteko Euskal Bulegoa ordezkatzea eta defendatzea, arauetan xedaturik daukatenaren arabera.

### 11. Artikulua. Langileak

**1.** Lege honetako 2.1 artikuluan aipaturik datozen herri-administrazioetako eta erakundeetako funtzionarioek eta propio kontratatuiko langileek beteko dituzte Datuak Babesteko Euskal Bulegoko lanpostuak, lanpostu bakoitzak dituen eginkizunen arabera. Beren lanean ezagutzen dituzten datu pertsonalak isilpean gorde beharko dituzte langile horiek, derrigor.

**2.** Datuak Babesteko Euskal Bulegoko langileak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio orokorreko funtzio publikoko arauen pean egongo dira. Arau horiekin bat, Datuak Babesteko Euskal Bulegoari dagokio lanpostuak eskuratzeko sistema erabakitzea, baldintzak eta hautaproben ezaugarriak zehaztea, bai eta lanpostuak betetzeko eta laneko sustapeneko prozeduretako deialdiak egitea eta prozedura horiek kudeatzea eta ebaztea ere.

**3.** Ahal publikoak erabili beharra daukaten lanpostuak funtzionarioentzat gordeta egongo dira.

### 12. Artikulua. Baliabideak

Datuak Babesteko Euskal Bulegoak honako ondasun eta baliabide hauek izango ditu bere eginkizuna betetzeko:

- **a)** Autonomia Erkidegoko Aurrenkontu Orokorretan urtero izendatuko zaion diru-kopurua.
- **b)** Ematen dizkioten diru-laguntzak eta egiten dizkioten ekarpenak.
- **c)** Bere jardunak ematen dizkion diru-sarrerak, ohikoak nahiz ohiz kanpokoak.
- **d)** Ondarekoak dituen ondasunak eta baloreak, eta haiek ematen dituzten produktu eta errentak.
- **e)** Legez ematen dioten beste edozein ondasun edo baliabide.

### 13. Artikulua. Aurrekontua

Datuak Babesteko Euskal Bulegoak urtero-urtero aurrekontu-aurregitasmoa egin eta onartu beharko du. Gero, Eusko Jaurlaritzara bidali beharko du, han, behar bezain ondo bereizita, Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorretan sar dezaten, Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu-sistema arautzen duten legeen arabera. Lege horiek bete beharko ditu bere aurrekontua aldatzeko, gauzatzeko eta kitatzeko araubideari dagokionez. Horretarako, kontuan hartu beharko du erakundearen izaera, kontabilitate publikoaren araubidea eta Autonomia Erkidegoko Administrazioko Ogasun eta Herri Administrazio Sailaren ekonomia, finantza eta

kudeaketa arloko kontrola; horrek denak ez du esan nahi ekonomia eta finantzetako eta kontularitzako jarduerak Herri Kontuen Euskal Epaitegiak kontrolatuko ez dizkionik.

**14. Artikulua. Gobernu-organoak**

Zuzendaria, Kontseilu Aholku-emailea eta bere estatutuan zehazturik dituenak dira Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren gobernu-organoak.

**15. Artikulua. Zuzendaria**

**1.** Zuzendariak zuzentzen eta ordezkatzen du Datuak Babesteko Euskal Bulegoa. Eusko Jaurlaritzaren dekretu baten bidez izendatuko dute, lau urterako.

**2.** Inolako loturarik gabe eta objektibotasunez beteko ditu bere zereginak, eta ez du inolako jarraibiderik bete beharrik izango. Baina Kontseilu Aholkuemaileak, bere zereginak betetzean, ezer proposatzen badio, zuzendariak entzun egin beharko dio.

**3.** Datuak Babesteko Euskal Bulegoko zuzendariak kargua epea amaitu baino lehenago uztekotan, honako arrazoi hauetakoren batengatik utziko du:

> **a)** Berak eskaturik.
> **b)** Gobernu Kontseiluak kargutik kentzea erabakita, arrazoi hauetakoren bat dela eta: betebehar larriak bete ez dituelako, bere lana egin ezina etorri zaiolako, bateraezintasunen bat dela-eta edo dolozko delituren batengatik epaia jaso duelako. Halakoetan, espedientea egin beharko da aurretiaz, eta Kontseilu Aholku-emaileari entzun beharko zaio, derrigor, espediente horretan.

**4.** Datuak Babesteko Euskal Bulegoko zuzendaria goi-kargua izango da, aurretik eginkizun publikoren bat betetzen bazuen zerbitzu berezietan geratuko da, eta Autonomia Erkidegoko administrazioko goikarguen bateraezintasun-sistemaren pean egongo da.

**16. Artikulua. Kontseilu Aholku-emailea**

**1.** Datuak Babesteko Euskal Bulegoak Kontseilu Aholku-emaile bat izango du, aholkuak emateko. Honako kide hauek izango ditu:

> **a)** Eusko Legebiltzarreko ordezkari bat, Legebiltzarrak berak izendaturik.
> **b)** Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko ordezkari bat, Gobernu Kontseiluak izendaturik.
> **c)** Lurralde historikoen ordezkari bat, lurralde horiek batera izendaturik.
> **d)** Euskal Autonomia Erkidegoko lurraldeko tokierakundeetako ordezkari bat, lurralde horretan erakunde horien ordezkaritza handiena duen elkarteak izendaturik.
> **e)** Bi aditu, bata informatikakoa eta bestea oinarrizko eskubideetakoa, Euskal Herriko Unibertsitateak izendaturik Euskal Autonomia Erkidegoko zuzenbide publikoko korporazioei galdetu ondoren.

**2.** Kontseilu Aholku-emaileak berak onartuko ditu bere antolaketako eta funtzionamenduko arauak. Lehendakari- kargua eta idazkari-kargua egongo dira arau horietan aurreikusita, eta nola aukeratu edo izendatu behar diren ere bai.

### 17. Artikulua. Zereginak

**1.** Lege honetako 2.1 artikuluan aipaturik datozen fitxategiak direla-eta, eta Euskal Autonomia Erkidegoaren aginpideen eremuan, hona hemen Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren eginkizunak:

**a)** Datuak babesteko legeak bete daitezen zaintzea eta nola aplikatzen diren kontrolatzea, batez ere informaziorako eskubideari eta datuetara iristeko, datuak zuzentzeko, datuen aurka egiteko eta datuak indarrik gabe uzteko eskubideari dagokienez.

**b)** Lege eta erregelamenduetan zehazturik dauden baimenak ematea.

**c)** Beharrezkoa bada, datuen tratamendua datuak babesteko indarrean dagoen legediko printzipioetara egokitzeko beharrezko jarraibideak ematea, beste erakunde batzuen aginpideei ezer kendu gabe.

**d)** Tartean direnen eskariei eta erreklamazioei kasu egitea.

**e)** Datu pertsonalak tratatzea dela-eta dituzten eskubideei buruzko informazioa ematea pertsonei.

**f)** Tratamenduen erantzule eta arduradunei, esateko dutena entzun eta gero, datu-tratamendua indarrean dauden legeetara egokitzeko beharrezko neurriak hartzeko eskatzea, eta, beharrezkoa bada, ez badituzte lege horiek betetzen, tratamendua gelditzeko eta fitxategiak indarrik gabe uzteko agintzea, salbu datuen nazioarteko transferentziei buruzkoan.

**g)** Zehatzeko ahalmena erabiltzea, eta, beharrezkoa izanez gero, bere iritziz lege honetako 22. artikuluan tipifikaturiko arau-hausteen erantzuleak direnen aurka diziplinazko prozedura hasteko proposatzea, eta hartu beharreko zuhurtziako neurriak hartzea, salbu datuen nazioarteko transferentziei buruzkoan. Hori guztia lege honetan zehazturik dagoen moduan.

**h)** Lege hau garatzeko xedapen orokorretako egitasmoei buruzko txostenak egitea, derrigor.

**i)** Bere lana egiteko beharrezkoa duen laguntza eta informazio guztia eskatzea fitxategien erantzuleei.

**j)** Datu pertsonalen fitxategiak badirela gauza jakinekoa izan dadin zaintzea. Horretarako, urtero-urtero, fitxategi horien zerrenda bat argitaratuko du, beste hainbat informazio osagarrirekin. Datuak Babesteko Euskal Bulegoko zuzendariak erabakiko du zein informazio osagarri eman.

**k)** Urteko txostena idatzi, eta Eusko Jaurlaritzako Lehendakariordetzara bidali.

**l)** Funtzio estatistiko publikoari buruzko legeek estatistikako datuen bilketari buruz eta estatistikako isilpekotasunari buruz dakartzaten xedapenak bete daitezen zaintzea, beharrezko jarraibideak ematea, estatistikarako bakarrik sortutako fitxategien segurtasun-baldintzei buruzko irizpenak ematea eta 24. artikuluan aipaturiko ahalmena erabiltzea.

**m)** Datu pertsonalen fitxategien segurtasuna eta herritarrek fitxategi horiei buruz dituzten eskubideak hobeto babeste aldera, Datuak Babesteko Estatuko Bulegoarekin eta beste autonomia-erkidego batzuetako antzeko erakundeekin lankidetzan aritzea hartarako beharrezkoak diren jarduera guztietan.

**n)** Lege honetako 2.1 artikuluko herri-administrazioek, erakundeek eta korporazioek datu pertsonalen babesari buruz egiten dizkioten galderei erantzutea, eta lege honen aplikazioaren pean dauden datu pertsonalen tratamenduari buruz beste pertsona fisiko edo juridiko batzuek egiten dizkioten galderei erantzutea.

**o)** Lege eta erregelamenduetan emandako beste eginkizun oro.

**2.** Aurreko zenbakian zehaztu diren eginkizunak direla-eta, Datuak Babesteko Euskal Bulegoa kontroleko agintetzat hartuko da, eta lan horretan erabateko independentzia eta objektibotasuna izango du, legeak bermaturik.

### 18. Artikulua. Datuak Babesteko Erregistroa

**1.** Datuak Babesteko Erregistroa sortzen da. Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren barruan egongo da organo hori, bulegoaren estatutuetan zehazturiko moduan.

**2.** Datuak Babesteko Erregistroan honako gauza hauek inskribatu beharko dira:

**a)** Lege honetako 2.1 artikuluan zehazturiko fitxategiak.
**b)** Datu pertsonalak babesteko abenduaren 13ko 15/1999 lege organikoan zehazturiko baimenak.
**c)** Inskribaturiko fitxategiei dagozkien ereduzko kodeak.
**d)** Inskribaturiko fitxategiei buruzko datu hauek: informazio- eskubidea, datuetara iristeko eskubidea, datuak zuzentzeko eskubidea, datuak indarrik gabe uzteko eskubidea eta aurka egiteko eskubidea erabiltzeko behar direnak.

**3.** Baten batek inskribatzeko eskatu, baina Datuak Babesteko Erregistroak uste badu eskabide hori ez dela zuzenbidearen araberakoa, ezezkoa erantzun dezake erregistroak. Halakoetan, Datuak Babesteko Euskal Bulegoko zuzendariak eskari-egileari beharrezko zuzenketak egiteko eskatu beharko dio.

**4.** Lege honetako 2.1 artikuluan aipatutako fitxategiak Datuak Babesteko Erregistroan nola inskribatu behar diren, inskripzioen edukia, nola aldatu, indarrik gabe nola utzi, ebazpenen aurkako erreklamazioak eta errekurtsoak nola aurkeztu eta halako gainerako gorabeherak erregelamendu bidez arautuko dira.

**5.** Edonork kontsulta dezake, dohainik, Datuak Babesteko Erregistroa. Behar duen informazioa erregistro horretan eskatuz, edonork jakin dezake datu pertsonalik tratatzen ari ote diren, zertarako ari diren hori egiten eta nor den arduraduna.

### 19. Artikulua. Ikuskapen-ahalmena

**1.** Datuak Babesteko Euskal Bulegoak, kontroleko agintea denez, bere esku izango du lege honetako 2.1 artikuluan aipaturik dauden fitxategiak ikuskatzea. Bere lana egiteko behar duen informazio guztia bilduko du halakoetan. Horretarako, nahi badu, agiriak erakusteko edo bidaltzeko eska dezake, eta dauden tokian aztertu, eta datuak tratatzeko erabilitako tresna fisikoak eta logikoak ere azter ditzake, instalaturik dauden lokaletara joanda.

**2.** Aurreko zenbakian aipatzen den ikuskatze-lana egiten duten funtzionarioak aginte publikotzat joko dira lan horretan ari direla; eta beren zereginak betetzen dihardutenean jakiten dutena isilpean gorde beharko dute derrigor, baita lan hori utzi eta gero ere.

### 20. Artikulua. Fitxategien titularrei errekerimendua egitea

Datuak Babesteko Euskal Bulegoko zuzendariak ikusten badu lege honen aplikaziopean dagoen halako fitxategi bat mantendu eta erabiltzeko modua lege honen beraren aginduren baten edo legea garatzen duen xedapenen baten aurkakoa dela, fitxategiaren titularra den

herri-administrazio, erakunde edo korporaziora jo ahal izango du, errekerimendu bidez, eta zer zuzendu adierazi ahal izango dio, eta halako epetan zuzentzeko adierazi, gainera, berariaz. Errekerimendua jaso duen administrazioak ez baldin badu eskaturikoa betetzen, Datuak Babesteko Euskal Bulegoko zuzendariak administrazio horren ebazpen edo ezezko jarreraren aurkako errekurtsoa jarri ahal izango du, eta, halakoetan, interesduna izango da. Horrek ez du esan nahi lege honetako 17.f) artikuluaren arabera beste neurririk hartu ezin duenik.

## III. TITULUA. ZEHATZEKO ARAUBIDEA

### 21. Artikulua. Erantzuleak

Lege honetako 2.1 artikuluan aipaturik datozen fitxategien erantzuleak eta fitxategi horietako tratamenduen arduradunak lege honetan arau-hauste eta zehapenetarako zehazturik dauden arauen pean egongo dira.

### 22. Artikulua. Arau-hauste motak

**1.** Arau-hausteak arinak, larriak edo oso larriak izango dira.

**2.** Hauek dira arau-hauste arinak:

**a)** Interesdunak eskatzen badu tratatzen ari diren datu pertsonalak zuzentzeko edo indarrik gabe uzteko, eta legez hala egin behar bada, eskari horri kasurik ez egitea forma-arrazoiengatik.
**b)** Datuen babesarekin zerikusi funtsezkoa ez duten gauzetan, Datuak Babesteko Euskal Bulegoak halako informazio bat eskatzen duenean legez dagozkion aginpideak bete beharrez, informazio hori ez ematea.
**c)** Datu pertsonalen fitxategia Datuak Babesteko Erregistroan inskribatzeko eskaria ez egitea, non eta ez den arau-hauste larria.
**d)** Tartean direnengandik, legez eman beharreko informazioa eman gabe jasotzea zuzenean datu pertsonalak.
**e)** Isilpekotasuna, legezko betebeharra baita, apurtzea, non eta ez den arau-hauste larria.

**3.** Hauek dira arau-hauste larriak:

**a)** Fitxategiak sortzen edo fitxategi horietarako datu pertsonalak biltzen hastea, xedapen orokor bidezko baimenik gabe. Xedapen horrek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian edo dena delako lurralde historikoan argitaraturik agertu beharko du.
**b)** Datu pertsonalak biltzen hastea, tartean direnen oniritzi berariazkoa eskatu gabe, oniritzi hori beharrezkoa denetan.
**c)** Legezko printzipio eta bermeak urraturik edo garapeneko erregelamenduetan datozen babes-aginduak bete gabe tratatzea, edo erabiltzea gero, datu pertsonalak, non eta ez den oso arau-hauste larria.
**d)** Datuetara iristeko eta datuen aurka egiteko eskubideari bidea ixtea edo oztopoak jartzea eta eskatutako informazioa emateari uko egitea.
**e)** Datu pertsonalak babesteko legeen babespean diren pertsonen eskubideei erasaten bazaie, erabat zuzenak ez diren datu pertsonalak mantentzea edo datu horiek direla-eta legez egin beharreko zuzenketak edo indargabetzeak ez egitea.

**f)** Fitxategietan jasotako datu pertsonalak isilpean gorde beharra ez betetzea administrazio- edo zigor-arloko arau-hausteei buruzko datuak badira, edo herriogasunari buruzkoak badira, bai eta inoren izaerari antzemateko behar beste datu pertsonal duen beste edozein fitxategitako datuak badira ere.

**g)** Datu pertsonalak dauzkaten fitxategiak, lokalak, programak edo ekipoak beharrezko segurtasun-neurririk gabe edukitzea.

**h)** Lege eta erregelamenduetan zehazturiko komunikazioak Datuak Babesteko Euskal Bulegora ez bidaltzea, eta jaso behar dituen edo eskatzen dituen agiri eta informazioak ez ematea.

**i)** Ikuskatze-lanei oztopoak jartzea.

**j)** Datu pertsonalen fitxategia ez inskribatzea Datuak Babesteko Erregistroan, Datuak Babesteko Euskal Bulegoko zuzendariak hala eskatu badu.

**k)** Datuak beste batengandik jaso badira, tartean dagoena ez den beste batengandik, legez eman beharreko informazioa ez ematea.

**4.** Hauek dira oso arau-hauste larriak:

**a)** Datuak engainu edo iruzur bidez biltzea.

**b)** Datu pertsonalak inori jakinaraztea edo uztea, hartarako baimenik ez dagoenean.

**c)** Tartean denak hartarako oniritzirik eman ez badu berariaz, ideologiaren, sindikatu-bazkidetzaren, erlijioaren edo sineskeren berri ematen duten datu pertsonalak biltzea eta tratatzea.

**d)** Legez hala egin behar ez bada edo tartean denak hartarako oniritzirik eman ez badu berariaz, arrazari, osasunari edo bizimodu sexualari buruzko datuak biltzea eta tratatzea.

**e)** Ideologia, sindikatu-bazkidetza, erlijioa, sineskerak, arraza, etnia edo bizimodu sexuala adierazten duten datu pertsonalak jasotzeko bakarrik sortzea fitxategiak.

**f)** Datuak Babesteko Euskal Bulegoko zuzendariak edo datuetara iristeko eskubidearen titularrak eskatu arren ez jarraitzeko horrela, datu pertsonalei legez kanpoko tratamendua ematen jarraitzea.

**g)** Oinarrizko eskubideak erabiltzea galarazten edo oztopatzen bada horrela, datu pertsonalak lege onez ez tratatzea edo aplikatu behar zaizkien printzipio eta bermeei muzin eginda tratatzea.

**h)** Paragrafo honetako bertako **e)** letran zehazturiko datu pertsonalak edo tartean denak oniritzia eman gabe polizia-lanerako bildu direnak isilpean gorde beharra urratzea.

**i)** Datuetara iristeko, datuak zuzentzeko, indarrik gabe uzteko eta datuen aurka egiteko eskubideak behin eta berriz aintzakotzat ez hartzea edo oztopatzea.

**j)** Inoren datu pertsonalak fitxategi batean sartzerakoan, legearen arabera egin beharreko jakinarazpena sistemaz ez egitea.

**5.** Artikulu honetan egin den arau-hausteen tipifikazioa gorabehera, Euskal Autonomia Erkidegoak aginpiderik ez duen gaietan datuen babesari buruzko Estatuko legeetako tipifikazioek bere hartan irauten dute.

### 23. Artikulua. Zigor-motak

**1.** 601,01 eta 60.101,21 euro bitarteko isuna arau-hauste arinengatik.

**2.** 60.101,21 eta 300.506,05 euro bitarteko isuna arau-hauste larriengatik.

**3.** 300.506,05 eta 601.012,1 euro bitarteko isuna oso arau-hauste larriengatik.

**4.** Zigorren zenbatekoa zehazteko, honako gauza hauek hartuko dira kontuan: erasandako eskubide pertsonalak nolakoak diren, tratamenduen zenbatekoa, lortutako irabaziak, arau-hausteak zenbateraino diren nahita egindakoak, behin baino gehiagotan egin ote diren, interesdunei eta beste batzuei (hirugarrenei) eragindako kalte-galerak eta dena delako arau-haustea zenbateraino den legez kanpokoa zehazteko eta zenbaterainoko erruduntasuna dagoen zehazteko garrantzitsua den beste edozein gorabehera.

**5.** Tartean diren gorabeherak gogoan harturik, ikusten bada inputatuaren errua uste baino dezente txikiagoa dela edo arau-hausteak dezente gutxiago urratzen dituela legeak, berez legokiokeen arau-hauste motako eskala baino justu arau-hauste arinagoen motako eskala aplikatuz zehaztuko du zigorraren zenbatekoa erakunde zigortzaileak.

**6.** Ezin da, inola ere ez, zigortu nahi den arauhauste motari legez dagokion zigorra baino larriagorik jarri.

**7.** Eusko Jaurlaritzak, aldika-aldika, zigorren zenbatekoa eguneratu egingo du, prezioen indizeen aldaketen arabera.

### 24. Artikulua. Herri-administrazioek, erakundeek eta Zuzenbide publikoko korporazioek egindako arau-hausteak

**1.** Dagokion prozedura-instrukzioa egin, eta aurreko artikuluko arau-hausteetakoren bat edo batzuk gertatu direla ikusiz gero ondorio modura –lege honetako 2.1 artikuluko fitxategiei dagokienez–, Datuak Babesteko Euskal Bulegoko zuzendariak, ebazpen bidez, arau-haustearen ondorioak gerarazteko edo zuzentzeko beharrezko neurriak aginduko ditu. Ebazpen hori fitxategiaren erantzuleari, hierarkiaz gainetik duen erakundeari eta –halakorik baldin badago– tartean dii) renei jakinarazi behar zaie, eta ebazpen horrek amaitzen du administrazio-bidea.

**2.** Datuak Babesteko Euskal Bulegoko zuzendariak, diziplinazko bidetik jotzeko ere proposa dezake, hala badagokio. Herri-administrazioetan eta lege honetako 2.1 artikuluan aipatutako erakunde eta korporazioetan lan egiten duten funtzionarioen eta langileen diziplina-araubidea zehazten duten legeetan ezarritakoak izango dira erabili beharreko prozedura eta jarri beharreko zigorrak. Ondorio horietarako, lege honetan tipifikaturiko arau-hausteak aplikatu beharreko diziplina- araubidearen osagarri izango dira.

**3**. Zigor-prozedurarik behar izanez gero, Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Administrazioen Zigortzeko Ahalmenari buruzko otsailaren 20ko 2/1998 Legean jartzen duena bete beharko da.

**4.** Aurreko puntuetan aipatzen diren neurri eta jarduerak direla-eta ematen diren ebazpenak Datuak Babesteko Euskal Bulegoari jakianarazi beharko zaizkio.

**5.** Datuak Babesteko Euskal Bulegoko zuzendariak Arartekoari jakinarazi beharko dizkio aurreko puntu horietaz baliatuz egiten dituen jarduerak eta ematen dituen ebazpenak.

### 25. Atala. Fitxategiak geldiaraztea

Inork beste inoren datu pertsonalak legez kanpo erabiltzen edo uzten baditu, oso arau-hauste larria egiteko moduan, eta, horrenbestez, jokaera horrek traba eta eragozpen larriak badakartza herritarren eskubideen erabilerarako eta nortasuna askatasunez garatzeko –bai Konstituzioan bai legeetan bermaturik daude erabilera eta garapen horiek–, Datuak Babesteko Euskal

Bulegoko zuzendariak datu pertsonalen fitxategien erantzuleei eska diezaieke aurrerantzean daturik ez erabiltzeko edo uzteko legez kanpo. Ez baldin badiote errekerimenduari kasu egiten, fitxategi horiek geldirazi egin ditzake ebazpen arrazoitu bidez, tartean direnen eskubideak atzera ezartzeko, eta horretarako bakarrik.

## XEDAPEN GEHIGARRIAK

### Lehena. Fitxategien berri Datuak Babesteko Euskal Bulegoari ematea

Lege honetako 2.1) artikuluan aipaturik dauden herri- administrazioek, erakundeek eta korporazioek, agindu horretan aipaturiko fitxategien titular badira, Datuak Babesteko Euskal Bulegoari eman beharko diote haren berri, lege hau indarrean jarri eta hiru hilabeteko epean. Hori baino lehenago, kasuan kasuko fitxategia arautzeko xedapena onarturik eta argitaraturik izan behar dute.

### Bigarrena. Erroldako datuak jakinaraztea

**1.** Datu Pertsonalak Babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoko bigarren xedapen gehigarrian eta Toki Jaurbidearen Oinarriak Arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 17.3 artikuluan zehazturik dagoen moduan,Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio orokorrak eta foru-administrazioek, biztanleen fitxategiak edo erregistroak sortze aldera, Euskal Estatistika Erakundeari aginpideak dauzkaten lurraldeetako biztanleen udal-erroldetan dauden fitxategien kopia eguneratu bat eska diezaiokete, interesdunaren oniritziaren beharrik gabe, honako datu hauek eskuratzeko: izena, abizenak, helbidea, sexua eta jaiotzeeguna. Komunikaziorako balioko dute biztanleen fitxategi edo erregistro horiek, hau da, herri-administrazio bakoitzeko organoen eta dagokien lurraldean bizi diren interesdunen arteko komunikaziorako, herri-administrazio bakoitzaren aginpideetatik datozen harreman juridiko-administratiboei dagokionez.

**2.** Aurreko paragrafoan xedaturikoaren ondorioetarako, Euskal Autonomia Erkidegoko Estatistikari buruzko apirilaren 28ko 4/1986 Legeko 29. artikulua aldatu, eta honela gelditzen da: agindu horren gaur egungo idazkera aginduaren 1. zenbakia izango da aurrerantzean, eta honako 2. zenbaki hau gehitzen zaio:

“2. Euskal Estatistika Erakundeak Euskal Autonomia Erkidegoko udalerri guztietako udal-errolden kopien gordetzaile-lana ere egingo du, eta, horretarako, udalerriek administrazio-erregistro horien kopiak bidali beharko dizkiote erregelamendu bidez zehaztutako moduan”.

### Hirugarrena. Arartekoaren eta Datuak Babesteko Estatuko Bulegoaren aginpideak

Lege honetan xedaturikoa gorabehera Arartekoaren eta Datuak Babesteko Estatuko Bulegoaren aginpideek bere hartan diraute.

## AZKEN XEDAPENA

### Nola garatu eta aplikatu

**1.** Lege honetan xedaturikoa garatzeko eta aplikatzeko baimena du Eusko Jaurlaritzak.

**2.** Beharrezko aurrekontu-atala sortzeko eta, Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu-araubidea antolatzen duten legeekin bat, aurrekontua lege honetan xedaturikoa aplikatzeko behar beste aldatzeko baimena du Ogasun eta Herri Administrazio Sailak.

Beraz, Lege honi men egiteko eta men eginarazteko agintzen diet, norbanako zein agintari direla, Euskadiko herritar guztiei.

Vitoria-Gasteiz, 2004ko otsailaren 26a.

Lehendakaria, JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

**Abenduaren 21eko 1720/2007 Errege Dekretua, Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoa garatuko duen erregelamendua onartzen duena**

Gaur egun indarrean den abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoak, Datu Pertsonalak Babesteari buruzkoak, gure ordenamendua Europako Legebiltzarraren eta Kontseiluaren 1995eko urriaren 24ko 95/46/CE Direktiban xedatutakora egokitu zuen (direktiba hori pertsona fisikoen datu pertsonalak tratatzeari eta datu horien zirkulazio askeari buruzkoa zen), eta horrekin batera, ordura arte indarrean egon zen urriaren 29ko 5/1992 Lege Organikoa, Datu Pertsonalen Tratamendu Automatizatua arautzen zuena, indarrik gabe utzi zuen.
Lege berriak gaia osotasunean biltzeko asmoa du, eta ondorengoa dio 1. artikuluan: Lege organiko honen xedea da, datu pertsonalen tratamenduari dagokionez, pertsona fisikoen askatasun publikoak eta oinarrizko eskubideak bermatu eta babestea, eta, batez ere, norberaren zein familiaren ohorea eta intimitatea”. Beraz, horren barruan sartzen da datu pertsonalen tratamendu automatizatua eta baita automatizatua ez dena ere.
Datuak babestearen gaia oso arlo sentibera da, oinarrizko eskubideak babestearekin zerikusia duelako, eta hori hala izanik, arlo horretan behar den segurtasun juridikoa bermatzeko asmoz, legegileek adierazi zuten indarrean jarraituko zutela orduan baziren erregelamendu mailako arauek, eta bereziki ondorengoek: martxoaren 26ko 428/1993 errege-dekretuak, Datuak Babesteko Bulegoaren Estatutuak onartzen dituena; ekainaren 20ko 1332/1994 errege-dekretuak, urriaren 29ko 5/1992 Lege Organikoaren zenbait kontu garatzen dituena (lege organiko hori datu pertsonalen tratamendu automatizatua arautzen duena da); eta indarrean jarraituko zuen, era berean, ekainaren 11ko 994/1999 errege-dekretuak ere, datu pertsonalak dituzten fitxategi automatizatuen segurtasun-neurrien araudia onesten duenak. Esandakoaz gainera, legegileek eskumena eman zioten Gobernuari erregelamenduetan egin beharreko aldaketa guztiak egin zitzan edo onartu beharrekoak onar zitzan, 15/1999 Lege Organikoa betearazi eta garatu ahal izateko. Bestalde, Informazio eta Merkataritza Elektronikoaren Sozietatearen Zerbitzuei buruzko uztailaren 11ko 34/2002 Legeak eta Telekomunikazioei buruzko azaroaren 3ko 32/2003 Lege Orokorrak Datuak Babesteko Espainiako Bulegoari eskumenak eman dizkiote, zehapenen arloan. Lege horiek erregelamendu bidez garatu beharrekoak dira, eta ezaugarri berezi bat daukate, izan ere, ez dituzte soilik pertsona fisikoen eskubideak babesten, baita pertsona juridikoenak ere.

## II

Erregelamendu honek lege organikoak duen helburu bera dauka, hau da, datu pertsonalak bildu eta tratatzeak pertsonen eskubideei eragin diezazkiekeen arriskuei aurre egitea. Hori dela eta, azpimarratu beharrekoa da erregelamendu mailako arau honetan ez dagoela goragoko mailakoa den legearen edukiak errepikatzeko asmorik, eta lege organikoan jasotako aginduak garatzeaz gainera, betiere direktiban aipatzen diren printzipioekin bat, legea indarrean egon den urteotan araudi bidez gehiago garatu beharrekoak direla erakutsi duten arloak ere garatu nahi ditu.
Beraz, erregelamendu hau onartzerakoan, abiaburu gisa kontuan izan da direktibaren transposizioa egitearekin zerikusia duen guztian erregelamendu bidez araututakoak koherentzia izan behar duela, eta horrekin batera, 15/1999 Lege Organikoaren gai berriak garatu nahi ditu.
Esandakoaz gainera, esperientziak erakutsi duenetan zehaztasun handiagoa behar zela sistemari segurtasun juridikoa emateko, kontu horiek ere garatu dira.

### III

Erregelamendu honek lehenago ekainaren 20ko 1332/1994 errege-dekretuak eta ekainaren 11ko 994/1999 errege-dekretuak hartzen zuten eremua hartu du bere baitan, eta kontuan izan du, era berean, zehaztu egin behar direla fitxategiekin eta automatizatu gabeko datu pertsonalekin erabili beharko diren irizpideak. Bestalde, Datuak Babesteko Espainiako Bulegoaren eskuetan utzi direnez zenbait eginkizun, hala jasotzen baita Informazio eta Merkataritza Elektronikoaren Sozietatearen Zerbitzuei buruzko uztailaren 11ko 34/2002 Legean, eta Telekomunikazioei buruzko azaroaren 3ko 32/2003 Legean, bulego horrek izango duen zehapen-ahala gauzatzeko prozedura garatu behar da.

Erregelamenduak bederatzi titulu ditu, eta horietan guztietan, arlo honetako oinarrizko gaiak garatzen dira.

I. tituluan, erregelamenduaren xedea eta ezarpen-eremua zehazten dira. 15/1999 Lege Organikoa indarrean egon den artean ikusi da komenigarria dela legearen 2. artikuluko 2. paragrafoa garatzea, hain zuzen ere jarduera pertsonalekin edo etxeko jarduerekin zerikusia duten fitxategi eta tratamenduak zehazki zein diren jakiteko; eta kontu hori benetan garrantzitsua da, horiek ez baitira sartzen datu pertsonalak babesteko araudiaren barruan.

Bestalde, erregelamendu honetan ez da ezer ere aurreikusi lege organikoaren 2. artikuluko 3. paragrafoan aipatzen diren datu pertsonalak tratatzeari buruz, dagozkien xedapen bereziak bete behar dituztelako kontu horiek, eta bereziki, 15/1999 Lege Organikoan aurreikusten dena. Ondorioz, tratamendu eta fitxategi horien erregimen juridikoa mantendu da.

Gainera, titulu horretan zenbait definizio ere jaso dira, araua bera ondo ulertzen laguntzeko, eta benetan beharrezkoa da hori, kontuan izan behar baita datu pertsonalak babestearen arloa oso teknifikatua dela. Bestetik, epeak zenbatzerakoan zein irizpide jarraitu behar den finkatu du, gai hori bateratzeko asmoz, eta horri esker ez da alderik egongo fitxategi publiko eta pribatuen artean, epeak zenbatzerakoan.

II. titulua datuak babesteak dituen printzipioei buruzkoa da. Aparteko garrantzia dauka baimena zein modutan eskuratuko den arautzeak, eta hor oso kontu zehatzak hartu beharko dira kontuan, esate baterako komunikazio elektronikoen esparrua, eta, bereziki, adin txikikoen datuak eskuratzea. Horrekin batera, tratamenduaren arduradunaren estatutua definitu beharko genukeena zehaztu da, eta, horrek, zalantzarik gabe, figura horrekin zerikusia duen guztia argitzen lagunduko du. Eremu horretako aurreikuspenak osatzeko, VIII. tituluan segurtasunaren inguruan xedatutakoa hartu behar da kontuan, horri esker arduradunaren jardunari esparru koherentea eman baitzaio.

III. tituluan, berebiziko garrantzia duen arlo bat zehaztu da: pertsonek izango dituzten eskubideen arloa. Datuak tratatzerakoan datuetan sartzeko, horiek zuzentzeko, ezerezteko eta tratamenduaren aurka egiteko eskubidea izatea, Konstituzio Auzitegiak 292/2000 epaian adierazi duenez, datuak babesteko oinarrizko eskubidearen ondorioz sortzen den ahalmena da, eta “oinarrizko eskubide horrek duen aparteko eginkizunerako baliagarri da: Eskubide horri esker, norbanakoak bere datu pertsonalak kontrolatzeko boterea izatea bermatzen da, eta hori eraginkortasunez egiteko modu bakarra hirugarrenei betebehar hori jartzea da.”

Horren segidan, IV. titulutik VII.era artean, datuen ohiko trafikoarekin zerikusia duten kontu garrantzitsuak argitzeko modua egon da; hauek dira: titularra pribatua duten fitxategien kasuan, zenbait kasutan irizpide berezi batzuk erabiltzea, garrantzi handikoak direnean –ondare-kaudimenari edo kredituari buruzkoak, edo publizitateko eta merkataritzako prospekzioetan erabilitakoak–; arduradunek izango dituzten betebehar material eta formalak fitxategiak sortu eta inskribatzerakoan; datuen nazioarteko transferentziak egiteko irizpide eta prozedurak; eta, azkenik, tresna bat sortu izana, ereduzko kodea, datuak babesteko oinarrizko eskubidearen osagai dinamizatzaile gisa gero eta eginkizun nabarmenagoa izango duena.

VIII. tituluak datuak babesteko oinarrizko eskubidearen funtsezko osagaietako bat arautzen du, alegia, segurtasuna, eta datu pertsonalekin diharduten erakunde guztien antolaketarekin, kudeaketarekin eta inbertsioekin ere zerikusia duten hainbat konturi eragiten die horrek. Segurtasuna zaindu beharrak bereziki zorrotzak izatea eskatzen du, gai honetan garrantzi handiko hainbat osagai batu direlako. Batetik, 994/1999 Errege Dekretua aplikatzearen ondorioz jasotako esperientziak erakutsi du erantzuleek zer nolako zailtasunei egin behar izan dieten aurre, eta arautzearen ahulguneak eta indarguneak zein ziren identifikatzeko aukera egon da. Bestetik, hainbat kontutan erregulazioa egokitu beharra zegoela eskatzen zuen. Bada, kontu horietan erregelamendua bereziki zorrotza da segurtasun-mailak emateko orduan, kasu bakoitzean hartu beharreko neurriak finkatzeko orduan edo neurri horiek berrikusterakoan, hala egitea beharrezkoa dela pentsatuz gero. Esandakoaz gainera, segurtasun-dokumentuaren edukia eta dokumentu hori mantentzearekin zerikusia duten kontuak zehazkiago antolatu dira. Horrekin batera, arloa arautzerakoan segurtasuna antolatzeko praktikan dauden modu material eta pertsonalak barne hartzen saiatu da erregelamendua. Bukatzeko, zenbait neurri arautu dira, egituratutako baina automatizatu gabeko fitxategi eta tratamenduentzat, erantzuleek jarduteko esparru argia izan dezaten.

Bukatzeko, IX. tituluan, Datuak Babesteko Espainiako Bulegoak izapidetutako prozedurei buruzkoan, zenbait espezialitatetako kontuak baino ez dira arautu, hain zuzen ere Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legean aurreikusitako prozeduratik bereizten direnak; izan ere, erregelamendu honetan arautzen ez diren kasuetan, 30/1992 Legea erregelamenduaren ordez ezartzekoa izango da.

Horiek horrela, Justizia ministroak proposatuta, aldez aurretik Administrazio Publikoen ministroak onartu ostean, Estatuko Kontseiluaz bat eta Ministroen Kontseiluak 2007ko abenduaren 21ean izandako bileran eztabaidatu ostean.

**XEDATU DUT:**

**Artikulu bakarra. Erregelamendua onartzea.**

Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoa garatzen duen erregelamendua onartu da, eta ondoren datorrena da erregelamendu horren testua.

Lehen xedapen iragankorra. Datuak Babesteko Erregistro Nagusian jasotako ereduzko kodeak egokitzea.

Errege-dekretu hau indarrean sartu eta urtebeteko epean, Datuak Babesteko Espainiako Bulegoari Datuak Babesteko Erregistro Nagusian inskribatutako ereduzko kodeetan zein aldaketa egin behar diren jakinaraziko zaio, hain zuzen ere kode horien edukia errege-dekretuaren VII. tituluan.

## XEDATUTAKORA EGOKITZEKO

**Bigarren. Segurtasun-neurriak ezartzeko epeak.**

Errege-dekretu honetan aipatzen diren segurtasun-neurriak ezartzeko, ondorengo arauak bete beharko dira:

> **1.ª** Errege-dekretu hau indarrean sartzean dagoeneko baziren fitxategi automatizatuek pauso hauek beteko dituzte:

**a)** Errege-dekretua indarrean sartzen denetik urtebete igaro baino lehen, eskatzekoak diren bitarteko mailako segurtasun-neurriak ezarri beharko zaizkie ondorengo fitxategiei:

**1.º** Gizarte Segurantzaren baitako erakunde kudeatzaileen eta Zerbitzu Komunen ardurapekoak direnei, baldin eta beren eskumenak aurrera eramatearekin zerikusia dutenak badira.
**2.º** Gizarte Segurantzako lan-istripuen eta lanbideko gaixotasunen mutuen ardurapekoak direnei.
**3.º** Jasotzen dituzten datu pertsonalak direla eta, herritarren ezaugarrien edo nortasunaren definizio bat ematen dutenei, edo pertsona horien nortasunaren edo jarreren zenbait ezaugarri ebaluatzeko modua eskaintzen dutenei; hori baldin eta Datu Pertsonalen Fitxategi Automatizatuen Segurtasun Neurriei buruz ekainaren 11n onartutako 994/1999 Errege Dekretuaren bidez onartutako Erregelamenduaren 4.4. artikuluaren arabera eskatzekoak ez badira segurtasun neurri horiek.

**b)** Indarrean sartzen denetik urtebeteko epean bitarteko mailako segurtasun neurriak hartu beharko dira, eta hasierako epe horretatik hemezortzi hilabete igarotzen direnean, ondorengo fitxategiei eskatzekoak diren goreneko mailako segurtasun-neurriak:

**1.º** Genero-indarkeriarekin zerikusia duten datuak jasotzen dituztenei.
**2.º** Jendartearen eskueran dauden komunikazio elektronikoak eskaintzen dituzten operadoreen ardurapekoak direnei, edo komunikazio elektronikoen zerbitzu publikoak eskaintzen dituztenei, baina horietan trafiko-datuak eta lokalizazio-datuak badaude.

**c)** Gainontzeko kasuetan, erregelamendu honek neurri osagarri bat ezartzea eskatzen duen kasuetan, eta neurri hori ez badago aurreikusita ekainaren 11ko 994/1999 Errege Dekretuan, datu pertsonalak dituzten fitxategi automatizatuen segurtasun-neurrien araudia onesten duenean, neurri osagarri hori ezartzeko urtebeteko epea egongo da, errege-dekretu hau indarrean jartzen denetik zenbatzen hasita.

**2.ª** Errege-dekretu hau indarrean jartzean dagoeneko baziren fitxategi ez automatizatuek pauso hauek beteko dituzte:

**a)** Oinarrizko mailako segurtasun-neurriak errege-dekretua indarrean jartzen denetik urtebete igaro baino lehen jarri beharko dira indarrean.
**b)** Bitarteko mailako segurtasun-neurriak errege-dekretua indarrean jartzen denetik hemezortzi hilabete igaro baino lehen jarri beharko dira indarrean.
**c)** Goreneko mailako segurtasun-neurriak errege-dekretua indarrean jartzen denetik bi urte igaro baino lehen jarri beharko dira indarrean.

**3.ª** Errege-dekretu hau indarrean jarri ondoren sortutako fitxategi automatizatuek nahiz automatizatuak ez direnek dekretuan arautzen diren segurtasun-neurriak fitxategiok sortzen diren unetik beretik izan beharko dituzte ezarrita.

**Hirugarren. Pertsonen eskubideak gauzatzeko eskabideen erregimen iragankorra.**

Datuetan sartu, horiek zuzendu, ezereztu eta aurka egiteko eskubideak erabiltzeko eskaera errege-dekretu hau indarrean jarri baino lehen egin bada, eskaera horiek ez dute errege-dekretu honetan esaten dena bete beharko, eta aurreko araubidearen menpe egongo dira.

**Laugarren. Prozeduren erregimen iragankorra.**

Errege-dekretu hau indarrean jarri baino lehen hasita zeuden prozedurek ez dute bertan esaten dena bete beharko, eta aurreko araubidearen menpe egongo dira.

**Bosgarren. Aurreko jardunen erregimen iragankorra.**

Errege-dekretu hau indarrean jarri baino lehen hasita zeuden aurreko jardunek ez dute dekretuan esaten dena bete beharko, eta aurreko araubidearen menpe egongo dira.
Errege-dekretu honetan esaten dena dekretua indarrean jarri ondoren hasitako aurreko jardunei aplikatuko zaie.

## XEDAPEN INDARGABETZAILE

**Bakarra. Arauak indargabetzea**

Ondorengoak geratu dira indarrik gabe: ekainaren 20ko 1332/1994 Errege Dekretua, Datu Pertsonalen Tratamendu Automatizatua Arautzen duen urriaren 29ko 5/1992 Lege Organikoaren zenbait alderdi garatzen dituena; ekainaren 11ko 994/1999 errege-dekretua, datu pertsonalak dituzten fitxategi automatizatuen segurtasun-neurrien araudia onesten duena; eta errege-dekretu honetan xedatzen denarekin bat ez datozen edo horien kontrakoa dioten maila bereko edo apalagoko gainerako arau guztiak.

## XEDAPENETAKO BIGARRENA

**Lehenengo. Eskumen-titulua.**

Erregelamenduaren I. titulua, 4. artikuluaren c) paragrafoa alde batera utzita, eta II, III, VII eta VIII. tituluak nahiz 52, 53.3, 53.4, 54, 55.1, 55.3, 56, 57, 58 eta 63.3. artikuluak Konstituzioaren 149.1.1 artikuluan xedatutakoaz bat eman dira, artikulu horrek Estatuaren esku uzten baitu Konstituzioan jasotako oinarrizko eskubideak eta betebeharrak gauzatzerakoan espainiar guztiak berdinak izango direla bermatuko duten oinarrizko baldintzak arautzea.

**Azken. Indarrean jartzea.**

Errege Dekretu hau Estatuko Aldizkari Ofizialean osorik argitaratu eta hiru hilabetera jarriko da indarrean.
Madrilen, 2007ko abenduaren 21ean.
JUAN CARLOS erregea.
Justizia ministroa.
MARIANO FERNÁNDEZ BERMEJO

## ABENDUAREN 13KO 15/1999 LEGE ORGANIKOA, DATU PERTSONALAK BABESTEARI BURUZKOA, GARATZEN DUEN ERREGELAMENDUA

- **I. Titulua. Xedapen orokorrak.**

1. Artikulua. Xedea.
2. Artikulua. Aplikazio-eremu objektiboa.
3. Artikulua. Aplikazioko lurralde-eremua.
4. Artikulua. Kanpoan geratzen diren fitxategi edo tratamenduak.
5. Artikulua. Definizioak.
6. Artikulua. Epeak zenbatzeko modua.
7. Artikulua. Herritarren eskura dauden iturriak.

- **II. Titulua. Datuak babesteko printzipioak**

**I. Kapitulua. Datuen kalitatea.**

8. Artikulua. Datuen kalitateari buruzko printzipioak.
9. Artikulua. Helburu estatistiko, historiko edo zientifikoa duen tratamendua.
10. Artikulua. Datuak tratatzea edo besteri uztea legitimatzen duten egoerak.
11. Artikulua. Administrazio publikoei egindako eskaeretako datuak egiaztatzea.

**II. Kapitulua. Datuak tratatzeko oniritzia eta informatu beharra.**

**Lehen atala.** Tartean denaren oniritzia lortzea.

12. Artikulua. Printzipio orokorrak.
13. Artikulua. Adin txikikoei buruzko datuak tratatzeko oniritzia.
14. Artikulua. Oniritzia lortzeko modua.
15. Artikulua. Kontratu bidezko harreman bat dela-eta oniritzia eskatzea, baina kontratuarekin zuzeneko loturarik ez duen helburuetarako.
16. Artikulua. Fakturazioari eta trafikoari buruzko datuak tratatzea, komunikazio elektronikodun zerbitzuetan.
17. Artikulua. Oniritzia ezeztatzea.

**Bigarren atala.** Interesatua informatu beharra.

18. Artikulua. Informazioa eman beharra bete dela egiaztatzea.
19. Artikulua. Egoera bereziak.

**III. Kapitulua. Tratamenduaren arduraduna.**

20. Artikulua. Tratamenduaren erantzulearen eta arduradunaren arteko harremanak.
21. Artikulua. Zerbitzuak azpikontratatzeko aukera
22. Artikulua. Tratamenduaren arduradunak datuak gordetzea.

- **III. Titulua. Datuetan sartu, horiek zuzendu, ezereztu eta aurka egiteko eskubideak**

**I. Kapitulua. Xedapen orokorrak.**

23. Artikulua. Bere-berezko izaera.
24. Artikulua. Datuetan sartu, horiek zuzendu, ezereztu eta aurka egiteko eskubideak gauzatzeko baldintza orokorrak.
25. Artikulua. Prozedura.
26. Artikulua. Tratamenduaren arduradun baten aurrean eskubideak gauzatzea.

**II. Kapitulua Datuetan sartzeko eskubidea.**

27. Artikulua. Datuetan sartzeko eskubidea.
28. Artikulua. Datuetan sartzeko eskubidea gauzatzea.
29. Artikulua. Datuetan sartzeko aukera ematea.
30. Artikulua. Sarbidea ukatzea.

**III. Kapitulua. Datuak zuzentzeko eta ezerezteko eskubidea.**

31. Artikulua. Datuak zuzentzeko eta ezerezteko eskubidea.
32. Artikulua. Datuak zuzentzeko eta ezerezteko eskubidea gauzatzea.
33. Artikulua. Datuak zuzentzeko eta ezerezteko eskubidea ukatzea.

**IV. Kapitulua. Aurka egiteko eskubidea.**

34. Artikulua. Aurka egiteko eskubidea.
35. Artikulua. Aurka egiteko eskubidea gauzatzea.
36. Artikulua. Datuen tratamendu automatizatuan baino oinarritzen ez diren erabakien aurka egiteko eskubidea.

• **IV. Titulua. Titulartasun pribatua duten zenbait fitxategiri ezartzekoak zaizkien xedapenak.**

**I. Kapitulua. Ondare-kaudimenari eta kredituari buruzko informazioa duten fitxategiak.**

**Lehen atala.** Xedapen orokorrak.

37. Artikulua. Araubide aplikagarria.

**Bigarren atala.** Diruzko obligazioak bete edo ez betetzearen inguruko datuak, hartzekodunak edo bere kontura diharduenak emandakoak, tratatzea.

38. Artikulua. Datuak sartzeko baldintzak.
39. Artikulua. Fitxategian sartu aurreko informazioa.
40. Artikulua. Fitxategian sartu izanaren berri ematea.
41. Artikulua. Datuak gordetzea.
42. Artikulua. Fitxategian dagoen informaziora sartzeko aukera izatea.
43. Artikulua. Erantzukizuna.
44. Artikulua. Datuetan sartu, horiek zuzendu, ezereztu eta aurka egiteko eskubideak gauzatzea.

**II. Kapitulua. Publizitatea eta merkatua aztertzea helburu duten jardueretarako tratamenduak**

45. Artikulua. Tratatzeko eta interesatuari jakinarazteko modukoak diren datuak.
46. Artikulua. Datuen tratamendua eta publizitate-kanpainak.
47. Artikulua. Datu pertsonalak iragaztea.
48. Artikulua. Salerosketarako komunikazioak nora ez bidali jakiteko fitxategiak.
49. Artikulua. Salerosketarako komunikazioak nora ez bidali jakiteko fitxategi erkideak.
50. Artikulua. Datuetan sartu, horiek zuzentzeko eta ezerezteko eskubidea.
51. Artikulua. Aurka egiteko eskubidea.

- **V. Titulua. Datuak tratatzen hasi aurreko betebeharrak.**

**I. Kapitulua. Jabetza publikoko fitxategiak sortzeko, aldatzeko edo ezabatzeko.**

52. Artikulua. Fitxategia sortzeko, aldatzeko edo ezabatzeko xedapena edo akordioa.
53. Artikulua. Xedapenaren edo akordioaren forma.
54. Artikulua. Xedapenaren edo akordioaren edukia.

**II. Kapitulua. Titularitate publikoko edo pribatuko fitxategien berri ematea eta inskripzioa.**

55. Artikulua. Fitxategien berri ematea.
56. Artikulua. Euskarri ezberdinetan datozen datuen tratamendua.
57. Artikulua. Fitxategiaren erantzule bat baino gehiago baldin badago.
58. Artikulua. Fitxategia aldatu edo ezabatu izanaren berri ematea.
59. Artikulua. Berri emateko ereduak eta euskarriak.
60. Artikulua. Fitxategiak inskribatzea.
61. Artikulua. Inskripzioa indargabetzea.
62. Artikulua. Akatsak zuzentzea.
63. Artikulua. Titularitate publikoko fitxategiak ofizioz inskribatzea.
64. Artikulua. Autonomia-erkidegoetako kontrol-agintariekiko lankidetza.

- **VI. Titulua. Datuak nazioartean eskualdatzea.**

**I. Kapitulua. Xedapen orokorrak.**

65. Artikulua. Abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoko xedapenak betetzea.
66. Artikulua. Baimena eta jakinarazpena.

**II. Kapitulua. Eskualdaketa nahikoa babes-maila eskaintzen duten beste estatu batzuetara egin behar bada.**

67. Artikulua. Babes-maila egokia, Datuak Babesteko Espainiako Bulegoaren arabera.
68. Artikulua. Babes-maila egokia, Europako Batzordearen erabaki bidez aitortua.
69. Artikulua. Eskualdaketak behin-behingoz etenda uztea.

**III. Kapitulua. Eskualdaketa nahikoa babes-mailarik eskaintzen ez duten beste estatu batzuetara egin behar bada.**

70. Artikulua. Datuak Babesteko Espainiako Bulegoko zuzendariaren baimenaren menpe dauden eskualdaketak.

- **VII. Titulua. Eredu moduko kodeak.**

71. Artikulua. Zertarako diren eta nolakoak diren.
72. Artikulua. Ekimena eta aplikazio-eremua.
73. Artikulua. Edukia.
74. Artikulua. Konpromiso osagarriak.
75. Artikulua. Ereduzko kodeak betetzeko bermeak.
76. Artikulua. Kode-kideen zerrenda.
77. Artikulua. Ereduzko kodeak non jaso behar diren. Halako ereduen berri ematea.
78. Artikulua. Ereduzko kodea inskribatu ondoren datozen betebeharrak.

- **VIII. Titulua. Datu pertsonalak tratatzeko orduan bete beharreko segurtasun-neurriak.**

**I. Kapitulua. Xedapen orokorrak.**

79. Artikulua. Irismena.
80. Artikulua. Segurtasun-mailak.
81. Artikulua. Segurtasun-mailen aplikazioa.
82. Artikulua. Tratamenduaren arduraduna.
83. Artikulua. Datu pertsonaletan sartu beharrik gabe eskaintzen diren zerbitzuak.
84. Artikulua. Baimenak eskuordetzea.
85. Artikulua. Datuetara komunikazio-sareen bitartez sartzea.
86. Artikulua. Fitxategiaren erantzulearen edo tratamenduaren arduradunaren lokaletatik kanpora lan egiteko araubidea.
87. Artikulua. Agirien aldi baterako fitxategiak edo lanerako kopiak.

**II. Kapitulua. Segurtasun-agiria.**

88. Artikulua. Segurtasun-agiria.

**III. Kapitulua. Fitxategi eta tratamendu automatizatuetan erabil daitezkeen segurtasun-neurriak.**

**Lehen atala.** Oinarrizko segurtasun-neurriak.

89. Artikulua. Langileen eginkizunak eta betebeharrak.
90. Artikulua. Gorabeheren erregistroa.
91. Artikulua. Sarbidearen kontrola.
92. Artikulua. Euskarrien eta agirien kudeaketa.
93. Artikulua. Identifikazioa eta nortasun-egiaztapena.
94. Artikulua. Babes- eta berreskurapen-kopiak.

**Bigarren atala.** Bitarteko mailako segurtasun-neurriak.

95. Artikulua. Segurtasunaren erantzulea.
96. Artikulua. Auditoretza.
97. Artikulua. Euskarrien eta agirien kudeaketa.
98. Artikulua. Identifikazioa eta nortasun-egiaztapena.
99. Artikulua. Ekipoak dauden lekuetara sartzeko kontrola.
100. Artikulua. Gorabeheren erregistroa.

**Hirugarren atala.** Goreneko mailako segurtasun-neurriak.

101. Artikulua. Euskarrien kudeaketa eta banaketa.
102. Artikulua. Babes- eta berreskurapen-kopiak.
103. Artikulua. Sarbidearen erregistroa.
104. Artikulua. Telekomunikazioak.

**IV. Kapitulua. Fitxategi eta tratamendu automatizatu gabeetan erabil daitezkeen segurtasun-neurriak.**

**Lehen atala.** Oinarrizko segurtasun-neurriak.

105. Artikulua. Betebehar erkideak.
106. Artikulua. Artxibaketarako irizpideak.
107. Artikulua. Biltegiratze-tresnak.
108. Artikulua. Euskarriak zaintzea.

**Bigarren atala.** Bitarteko mailako segurtasun-neurriak.

109. Artikulua. Segurtasun-erantzulea.
110. Artikulua. Auditoretza.

**Hirugarren atala.** Goreneko mailako segurtasun-neurriak.

111. Artikulua.- Informazioa biltegiratzea.
112. Artikulua. Kopia edo erreprodukzioa.
113. Artikulua. Agirietara sartzea.
114. Artikulua. Agiriak lekualdatzea.

- **IX. Titulua. Datuak Babesteko Espainiako Bulegoak izapideturiko prozedurak.**

**I. Kapitulua.** Xedapen orokorrak.

115. Artikulua. Araubide aplikagarria.
116. Artikulua. Ebazpenen publizitatea.

**II. Kapitulua.** Datuetan sartu, zuzendu, ezereztu eta aurka egiteko eskubideak zaintzeko prozedura.

117. Artikulua. Prozeduraren jarraibidea.
118. Artikulua. Prozeduraren iraupena eta berariazko ebazpenik ezaren ondorioak.
119. Artikulua. Ebazpena betetzea.

**III. Kapitulua.** Zehapen-ahala erabiltzearen inguruko prozedurak.

**Lehen atala.** Xedapen orokorrak.

120. Artikulua. Aplikazio-eremua
121. Artikulua. Fitxategiak bertan geldi uztea.

**Bigarren atala.** Aurretiaz egin beharrekoak.

122. Artikulua. Hastea.
123. Artikulua. Aurretiazko jarduerak egin ditzaketen langileak.
124. Artikulua. Informazioa lortzea.
125. Artikulua. Joan eta bertan egin beharrekoak.
126. Artikulua. Aurretiazko jardueren emaitza.

**Hirugarren atala.** Zehapen-prozedura.

127. Artikulua. Prozeduraren hasiera.
128. Artikulua. Ebazpenerako gehienezko epea.

**Laugarren atala.** Herri-administrazioek abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoko arau-hausteren bat egin dutela deklaratzeko prozedura.

129. Artikulua. Xedapen orokorra.

• **IV. Kapitulua. Fitxategiak inskribatzearekin edo indarrik gabe uztearekin zerikusia duten prozedurak.**

**Lehen atala.** Fitxategien sorrera, aldaketa edo baliorik gabe uztea inskribatzeko prozedura.

130. Artikulua. Prozeduraren hasiera.
131. Artikulua. Titularitate publikoko fitxategietako jakinarazpenetan dauden berezitasunak.
132. Artikulua. Inskribatzeko edo ezerezteko akordioa.
133. Artikulua. Inskripzioa egitea zuzena ez denean edo inskripzio-eskariari ezetz erantzutea.
134. Artikulua. Prozeduraren iraupena eta berariazko ebazpenik ezaren ondorioak.

**Bigarren atala.** Inskribaturiko fitxategiak ofizioz indarrik gabe uzteko prozedura.

135. Artikulua. Prozeduraren hasiera.
136. Artikulua. Espedientea amaitzea.

• **V. Kapitulua. Datuak nazioartean lekualdatzearekin zerikusia duten prozedurak.**

**Lehen atala.** Datuak nazioartean lekualdatzeko baimena emateko prozedura.

137. Artikulua. Prozeduraren hasiera.
138. Artikulua. Prozeduraren jarraibidea.
139. Artikulua. Ebazpenaren ondorengo egintzak.
140. Artikulua. Prozeduraren iraupena eta berariazko ebazpenik ezaren ondorioak.

**Bigarren atala.** Datuen nazioarteko transferentzia aldi batean eteteko prozedura.

141. Artikulua. Hastea.
142. Artikulua. Jarraibidea eta ebazpena.
143. Artikulua. Ebazpenaren ondorengo egintzak.
144. Artikulua. Aldibaterako etetea indarrik gabe uztea.

**VI. kapitulua. Ereduzko kodeak inskribatzeko prozedura.**

145. Artikulua. Prozeduraren hasiera.
146. Artikulua. Ereduzko kodearen alderdi substantiboen azterketa.
147. Artikulua. Informazio publikoa.
148. Artikulua. Ereduzko kodea hobetzea.
149. Artikulua. Entzunaldia.
150. Artikulua. Ebazpena.
151. Artikulua. Prozeduraren iraupena eta berariazko ebazpenik ezaren ondorioak.
152. Artikulua. Datuak Babesteko Espainiako Bulegoak ereduzko kodeak argitaratzea.

- **VII. kapitulua. Datuak Babesteko Espainiako Bulegoak izapideturiko beste prozedura batzuk.**

**Lehen atala.** Interesduna jakinaren gainean jarri beharrik ez izateko prozedura.

153. artikulua. Prozeduraren hasiera.
154. artikulua. Ordezko beste neurri batzuk proposatzea.
155. artikulua. Prozeduraren amaiera.
156. artikulua. Prozeduraren iraupena eta berariazko ebazpenik ezaren ondorioak.

**Bigarren atala.** Datuak historia edo zientzia lantzeko edo estatistikak egiteko gordetzeko baimena lortzeko prozedura.

157. artikulua. Prozeduraren hasiera.
158. artikulua. Prozeduraren iraupena eta berariazko ebazpenik ezaren ondorioak.

- **Xedapen gehigarri bakarra.** Sfotware produktuak.

- **Azken xedapen bakarra.** Ordezko xedapenak.

# I. TITULUA. XEDAPEN OROKORRAK

## 1. artikulua. Xedea

**1.** Erregelamendu honen xedea Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoa garatzea da.

**2.** Horrekin batera, erregelamendu honen IX. tituluko III. kapituluak Datuak Babesteko Espainiako Bulegoak zehapen-ahala gauzatzeari buruzko xedapenak garatzen ditu, hain zuzen ere ondorengo legeetan xedatutakoaz bat: abenduaren 13ko 15/1999 Legean; Informazioaren Gizartearen Zerbitzuei eta Merkataritza Elektronikoari buruzko uztailaren 11ko 34/2002 Legearen VII. tituluan; eta Telekomunikazioei buruzko azaroaren 3ko 32/2003 Lege Orokorraren VIII. tituluan xedatutakoaz bat.

## 2. artikulua. Aplikazio-eremu objektiboa.

**1.** Erregelamendu hau euskarri fisikoan erregistratutako datu pertsonalekin aplikatzekoa izango da, baldin eta tratamenduren bat egin badaiteke euskarri horiekin, eta datu horiek gerora sektore publikoan edo pribatuan izango duten edozein erabilerari ere aplikatuko zaio.

**2.** Erregelamendu hau ez da aplikatuko pertsona juridikoei buruzko datuak dituzten tratamenduekin, ez eta pertsona juridiko horientzat lan egiten duten pertsona fisikoen datuak baino jasotzen ez dituzten fitxategiekin, baldin eta pertsona fisiko horiei buruzko datuak izen abizenak, betetzen duten lanpostua, posta helbidea edo posta elektronikoa, eta laneko telefono-zenbakia eta faxa badira.

**3.** Era berean, banan banako enpresariei buruzko datuak, horiei egiten zaien erreferentzia merkatari, industria arloko enpresari edo itsas merkatari izateagatik bada, pertsonalak babesteko erregelamendu honen ezarpen-eremutik kanpo geratuko dira.

**4.** Erregelamendu hau ez zaie aplikatuko hildako pertsonei buruzko datuei. Dena den, hildakoarekiko loturaren bat duten pertsonek, familia-lotura edo antzeko besteren bat dela-eta, pertsona horri buruzko datuak dituzten fitxategi edo tratamenduen erantzuleengana jotzeko aukera izango dute, heriotzaren berri emateko, aurkeztu beharreko agiriak aurkeztuta, eta horretarako aukera dagoen unean, datuak ezerezteko eskatuko dute.

## 3. artikulua. Aplikazioko lurralde-eremua.

**1.** Datu pertsonalen tratamendu orok bete beharko du erregelamendu honetan esaten dena:

> **a)** Tratamenduaren erantzulearen establezimendu baten jardueren baitan eramaten denean aurrera tratamendua, baldin eta establezimendu hori Espainian badago.
> Aurreko paragrafoan xedatutakoa ez denean aplikatzekoa, baina Espainian badagoenean tratamenduaren erantzule bat, orduan tratamendu horri erregelamendu honetako VIII. tituluan jasotako arauak aplikatuko zaizkio.
> **b)** Tratamenduaren erantzulea Espainian kokatua egon ez baina espainiar legeria aplikatu behar zaionean, nazioarteko zuzenbide publikoko arauen arabera.

**c)** Tratamenduaren erantzulea ez dagoenean Europar Batasunean kokatuta, baina tratamenduan Espainiako lurraldean dauden baliabideak erabiltzen dituenean, non eta baliabide horiek trantsitoko helburuekin bakarrik ez diren erabiltzen.
Kasu horretan, tratamenduaren erantzuleak Espainian egongo den ordezkari bat izendatu beharko du.

**2.** Aurreko paragrafoetan, kokatuta egotea esaten denean, kokaleku horren forma juridikoa edozein izanik ere, jarduera bat benetan aurrera eramatea ahalbidetzen duen edozein instalakuntza egonkorri egiten zaiola erreferentzia ulertu beharko da.

**4. artikulua. Kanpoan geratzen diren fitxategi edo tratamenduak.**

Erregelamendu honetan datu pertsonalak babesteko ezartzen den erregimena ez zaie aplikatuko ondorengo fitxategi eta tratamenduei:

**a)** Pertsona fisikoek soil-soilik jarduera pertsonalak edo etxeko jarduerak burutzea dela eta egindakoei edo mantendutakoei.
Jarduera pertsonalaren edo etxeko jardueraren baitakoak jotzeko, tratamendu edo fitxategi horiek norbanakoaren edo bere familiaren bizitza pribatuari buruzkoak izan beharko dira.
**b)** Sailkatutako gaiak babesteko arauaren menpe dauden fitxategiei.
**c)** Terrorismoa eta antolatutako delitugintza-era larriak ikertzeko ezarrita dauden fitxategiei. Dena den, fitxategiaren erantzuleak aldez aurretik horren berri eman beharko dio Datuak Babesteko Espainiako Bulegoari, eta zein ezaugarri orokor dituen eta helburua zein den zehaztuko du.

**5. artikulua. Definizioak.**

**1.** Erregelamendu honen ondorioetarako, hona hemen zenbait kontzepturen esanahia:

**a) Tartean dena edo interesatua:** Tratatzen diren datuak zein pertsona fisikorenak diren, huraxe.
**b) Ezereztea:** Prozedura bat da, eta horren bidez erantzuleak datuak erabiltzeari uzten dio. Ezerezteak datuak blokeatzea eragingo du, eta horrek ondorengoa esan nahi du: datuak identifikatu eta gorde egingo direla, inork horiek tratatzeko modurik izan ez dezan, salbuespen bakarra egongo den arren, alegia datu horiek administrazio publikoen, auzitegien eta epaitegien eskuetan jartzea, datuok tratatzea dela eta erantzukizunik eskatzea dagoen edo ez ikusteko, erantzukizun horiek preskribitzen ez duten artean. Epe hori igarotakoan, datuak ezabatu egin beharko dira.
**c) Datuak besteri uztea edo komunikatzea:** Datuen berri interesatua ez den beste pertsona bati jakinaraztea eragingo duen datu-tratamendua.
**d) Interesatuaren oniritzia:** Interesatuak berari buruzko datu pertsonalak tratatzeko ematen duen baimena, baina askatasunez, zalantzarik gabe, zehaztasunez eta informazioa izanda emandakoa.
**e) Banandutako datua:** Tartean dena edo interesatua nor den jakiteko aukerarik eskaintzen ez duena.
**f) Datu pertsonalak:** Identifikatutako edo identifikatzeko moduko pertsona fisikoei buruzko informazioa, dela zenbaki bidezkoa, alfabetikoa, grafikoa, fotografikoa, akustikoa edo beste era batekoa.
**g) Osasunarekin zerikusia duten datu pertsonalak:** Pertsona baten garai bateko, oraingo edo etorkizuneko osasun fisiko edo mentalari buruzko informazioa. Zehazki

esanda, osasunarekin zerikusia duten datutzat hartuko dira zenbaterainoko ezintasuna duten adierazten duten datuak eta informazio genetikoa ematen dutenak.

**h) Hartzailea edo lagapenduna:** Datuak jakinarazi zaizkion pertsona fisiko edo juridiko, publiko edo pribatua edo administrazio-organoa.

Era berean, hartzaile izateko aukera izango dute nortasun juridikorik ez duten erakundeek ere, datuen trafikoan subjektu berezitu gisa baldin badihardute.

**i) Tratamenduaren arduraduna:** Pertsona fisiko edo juridiko publiko edo pribatua izango da, edo administrazio-organo bat, bakarka edo beste batzuekin batera datu pertsonalak erabiltzen dituena, tratamenduaren erantzulearen edo fitxategiaren erantzulearen bidez, lotura juridiko bat egoteagatik; eta lotura horrek zerbitzua eskaintzeko jardute-eremua zein izango den mugatzen du.

Era berean, tratamenduaren arduradun izateko aukera izango dute nortasun juridikorik ez duten erakundeek ere, datuen trafikoan subjektu berezitu gisa baldin badihardute.

**j) Datu pertsonalen esportatzailea:** Pertsona fisiko edo juridiko publiko edo pribatua izango da, edo administrazio-organo bat, Espainian kokatua dagoena, eta erregelamendu honetan xedatutakoaz bat, datu pertsonalak hirugarren herrialde batera transferituko dituena.

**k) Fitxategia:** Datu pertsonalen multzo antolatu oro, datu horietara irizpide jakin batzuekin iristeko bidea eskaintzen duena, edozein dela ere datu multzo hori sortzeko, biltegiratzeko, antolatzeko edo horretara iristeko modua.

**l) Titulartasun pribatuko fitxategiak:** Zuzenbide pribatuaren baitako pertsona, enpresa edo erakundeen ardurapekoak diren fitxategiak, eta alde batera utzita zein den horien kapitalaren titularra edo baliabide ekonomikoen jatorria; baita zuzenbide publikoko korporazioen ardurapeko fitxategiak ere, baldin eta fitxategi horiek ez badaude zuzenbide publikoko ahalmenak gauzatzeari zorrozki lotuta, korporazio horiei buruzko araubide berezituak esandakoaren arabera.

**m) Titulartasun publikoko fitxategiak:** Ondorengoen ardurapekoak direnak: Estatuko organo konstituzionalak edo irismen konstituzionala duten organoak; autonomia-erkidegoetan estatuko organo horien eginkizunen baliokideak dituzten organoak; Lurraldeetako administrazio publikoak edo horiei lotuta dauden edo horien menpekoak diren erakundeak; eta zuzenbide publikoko korporazioak, baldin eta horien helburua zuzenbide publikoko ahalmenak gauzatzea bada.

**n) Automatizatua ez den fitxategia:** Datu pertsonalak biltzen dituen multzo oro, baina modu automatizatu batean antolatuta egon gabe, eta pertsona fisikoei buruzko irizpide zehatzen arabera egituratuta egongo dena, eta aparteko ahaleginik egin gabe horietako datu pertsonaletara iristeko aukera eskaintzen duena. Berdin dio fitxategi hori zentralizatua den, deszentralizatua edo modu funtzional nahiz geografiko batean banatuta dagoena.

**ñ) Datu pertsonalen inportatzailea:** Datuen nazioarteko transferentzia gertatzen denean, eta datuok hirugarren herrialde batera bidaltzen, datu horiek eskuratzen dituen pertsona fisiko edo juridikoa, publiko edo pribatua, edo administrazioko organoa, eta berdin izango dio tratamenduaren erantzulea den, arduraduna den edo hirugarren bat den.

**o) Identifikatzeko moduko pertsona:** Bere nortasun fisikoari, fisiologikoari, psikikoari, ekonomikoari, kulturalari edo sozialari buruzko edozein informazioren bidez zuzenean edo zeharka identifika daitekeen pertsona oro. Pertsona fisiko bat ez da identifikatzeko modukotzat joko baldin eta identifikatzeko proportzioz gaindiko epeak edo jarduerak behar badira.

**p) Banantze-prozedurak:** Banandutako datuak eskuratzeko aukera eskaintzen duen datu pertsonalen tratamendu oro.

**q) Fitxategiaren edo tratamenduaren erantzulea:** Pertsona fisiko edo juridikoa, izaera publiko zein pribatukoa, edo administrazioko organoa, bere kabuz edo besteren batekin

batera tratamenduaren helburu, eduki eta erabilerari buruz erabakiko duena, nahiz eta materialki egin beharrekoa berak egin ez.

Era berean, fitxategiaren edo tratamenduaren erantzule izateko aukera izango dute nortasun juridikorik ez duten erakundeek ere, datuen trafikoan subjektu berezitu gisa baldin badihardute.

**r) Hirugarrena:** Pertsona fisiko edo juridikoa, izaera publiko zein pribatukoa, edo administrazioko organoa, baina ondorengoetako bat ez dena: tartean dena edo interesatua, tratamenduaren nahiz fitxategiaren erantzulea, tratamenduaren arduraduna, edo tratamenduaren erantzulearen edo tratamenduaren arduradunaren zuzeneko agintepean datuak tratatzeko baimena duen pertsonetako bat.

Era berean, hirugarrenak izateko aukera izango dute nortasun juridikorik ez duten erakundeek ere, datuen trafikoan subjektu berezitu gisa baldin badihardute.

**s) Datuen nazioarteko transferentzia:** Datuen tratamendu mota bat da, datuok Europako Esparru Ekonomikotik kanpora transmititzea dakarrena, eta berdin dio datuen lagapen edo komunikazioa den, edo Espainian kokatuta dagoen fitxategiaren erantzulearen kontura datuak tratatzeko helburua duen.

**t) Datuen tratamendua:** Datuak eskuratu, grabatu, gorde, landu, aldatu, datuetan sartu, erabili, ezereztu edo blokeatzeko edozein eragiketa edo prozedura tekniko, automatizatutakoa izan edo ez, edo komunikazio, kontsulta, interkonexio eta transferentzien ondorioz datuak lagatzea.

**2.** Zehazki esanda, erregelamendu honen VIII. tituluan xedatutakoari dagokionez, hauek dira definizioak:

**a) Baimenduta sartzeko aukera:** erabiltzaile bati, zenbait baliabide erabili ahal izateko, eman zaizkion baimenak. Hala behar duenetan, horren barruan sartuko dira erabiltzaile batek izango dituen baimen edo eginkizunak, fitxategiaren edo tratamenduaren erantzuleak nahiz segurtasuneko erantzuleak eskuordetuta.

**b) Autentifikazioa:** erabiltzaile baten identitatea zein den egiaztatzeko prozedura.

**c) Pasahitza:** Isilpeko informazioa, gehienetan karaktere-sorta batek osatzen duena, erabiltzaile bat autentifikatzeko edo baliabide batera iristeko erabiltzen dena.

**d) Sartzeko kontrola:** identitatea egiaztatutakoan, datuetara edo baliabideetara iristeko baimena ematen duen mekanismoa.

**e) Babes-kopia:** fitxategi automatizatu bateko datuen kopia egitea, datuak berreskuratzeko moduko euskarri batean.

**f) Dokumentua:** Informazio-sistema baten barruan unitate bereizi moduan erabiltzeko modukoa den idazki, grafiko, soinu, irudi edo beste edozein informazio-mota.

**g) Aldi baterako fitxategiak:** Erabiltzaileek edo prozesuek sortutako laneko fitxategiak, beharrezkoak direnak noiz edo noizko tratamendu baterako, edo tarteko urrats gisa dena delako tratamendua egiterakoan.

**h) Identifikazioa:** erabiltzaile baten identitatea zein den ezagutzeko prozedura.

**i) Intzidentzia:** datuen segurtasunean eragiten duen edo eragin dezakeen edozein irregulartasun.

**j) Erabiltzailearen soslaia:** Erabiltzaile-multzo bati baimendutako sarbidea.

**k) Baliabidea:** informazio-sistema baten osagai den edozein zati.

**l) Segurtasunaren erantzulea:** Fitxategiaren erantzuleak formalki halaxe eman diolako, aplikatu beharreko segurtasun-neurriak koordinatzeko eta kontrolatzeko eginkizuna bere gain duen pertsona (edo pertsonak).

**m) Informazio-sistema:** Datu pertsonalak tratatzeko erabiltzen diren fitxategi, tratamendu, programa, euskarri eta, hala badagokio, ekipoen multzoa.

**n) Tratamendu-sistema:** Informazio-sistema bat antolatzeko edo erabiltzeko modua. Tratamendu-sistemaren arabera, informazio-sistemak automatizatuak, automatizatuak ez direnak edo zati batean automatizatuak izango dira.

**ñ) Euskarria:** Datuak edo dokumentuak biltegiratzen dituen objektu fisikoa, edo informazio-sistema batean tratatzeko modukoa den objektua; bertan datuak grabatu eta bertatik datuak berreskuratzeko aukera egongo da.

**o) Dokumentuak transmititzea:** Dokumentu batean dagoen informazioa lekuz aldatu, komunikatu, bidali, eman edo zabaltzea.

**p) Erabiltzailea:** Datuak edo baliabideak erabiltzeko baimena duen pertsona edo prozedura. Erabiltzailetzat hartuko dira erabiltzaile fisiko bat identifikatu beharrik izan gabe datu edo baliabideetara sartzeko baimena ematen duten prozesuak.

**6. artikulua. Epeak zenbatzeko modua.**

Erregelamendu honetan epea egunetan ematen den kasuetan, egun baliodunak baino ez dira zenbatuko. Epea hilabetetan ematen denean, egun zehatz batetik egun zehatz batera zenbatuko dira.

**7. artikulua. Herritarren eskura dauden iturriak.**

**1.** 15/1999 Lege Organikoaren 3. artikuluko j) paragrafoan aipatzen direnetarako, herritarren eskura dauden iturriak ondorengo hauek baino ez direla ulertu beharko da:

**a)** Sustapeneko errolda, abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan xedatutakoaz bat arautua.

**b)** Komunikazio elektronikoen zerbitzuei buruzko gidak, horien araudi berezian aurreikusitakoaz bat.

**c)** Talde profesionaletakoak diren pertsonen zerrendak, baina datu hauek bakarrik baldin badituzte: izena, titulua, lanbidea, jarduera, ikasketa-maila, lanbideko helbidea eta talde horretakoa dela dioen azalpena. Helbide profesionalaren barruan, ondorengo datuak jasotzeko aukera egongo da: posta-helbide osoa, telefono-zenbakia, fax-zenbakia eta helbide elektronikoa. Elkargo profesionalen kasuan, ondorengo datuak jasotzeko aukera egongo da, talde horretako kide dela erakusteko: elkargoko zenbakia, kide izaten hasitako eguna, eta lanbidean duen egoera.

**d)** Aldizkari ofizialak.

**e)** Gizarte-hedabideak.

**2.** Dena den, aurreko paragrafoan aipatutako aukerak herritarren eskura dauden iturritzat jotzeko, beharrezkoa izango da horiek kontsultatzeko aukera edozein herritarrek izatea, eta araurik ez egotea hori mugatzen duenik; eskatzekotan, dagokion kasuetan, kontraprestazio bat ordaintzea eskatuko da.

# II. TITULUA. DATUAK BABESTEKO PRINTZIPIOAK

## I. Kapitulua. Datuen kalitatea

**8. artikulua. Datuen kalitateari buruzko printzipioak.**

**1.** Datu pertsonalak modu leian eta zilegi batean tratatu beharko dira. Debekatuta dago iruzurraren bidez edo bitarteko desleialak edo bidegabeak erabiliz datuak biltzea.

**2.** Datu pertsonalak biltzeko, tratamenduaren erantzuleak horretarako helburu zehatzak eta bidezkoak izan beharko ditu, bestela ezingo baititu bildu.

**3.** Tratamenduko datu pertsonalak ezin izango dira erabili datuak biltzeko helburuekin bateragarriak ez diren xedeetarako.

**4.** Tratatu ahal izateko, datuak hasiera bateko helburu zehatzak eta bidezkoak lortzeko egokiak, egoerari dagozkionak eta neurrikoak izan beharko dira, ez gehiegizkoak.

**5.** Datu pertsonalak zehatzak eta eguneratutakoak izango dira, eta tartean denaren gaur egungo benetako egoeraren berri eman beharko dute. Datuak zuzenean tartean denari eskatzen baldin bazaizkio, datu horiek zehatzak direla joko da.

Tratatu beharreko datu pertsonalak ez balira zehatzak izango, osorik edo zati batean, edo behar bezala osatuta ez baleude, ezabatu eta ordezkatu egingo lirateke, ofizioz, eta datu zuzenak edo osatuak jarriko lirateke aurrekoen ordez, eta horretarako, hamar eguneko epea egongo litzateke, akatsaren berri izan denetik zenbatzen hasita; salbuespen bakarra fitxategi horri dagokion legeriak hori egiteko beste prozedura edo epe bat zehaztuta izatea izango da.

Datuen berri aldez aurretik jaso bada, fitxategiaren edo tratamenduaren erantzuleak lagapendunari egindako zuzenketaren edo ezereztearen berri eman beharko dio, hamar eguneko epean, betiere lagapenduna ezaguna bada.

Jakinarazpena jasotzen denetik hamar eguneko epean, datuen tratamendua mantentzen duen lagapendunak jakinarazi zaion zuzenketa edo ezereztea burutu beharko du.

Datu pertsonalak era horretan eguneratuz gero, interesatuari ez zaio ezer ere jakinarazi beharko, baina interesatuek eskubidea izango dute abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan aitortzen zaizkien eskubideez baliatzeko.

Aurreko paragrafoan xedatutakoa hala izanik ere, kontuan izan beharko dira erregelamendu honen III. tituluan tartean direnei aitortzen zaizkien ahalmenak.

**6.** Datu pertsonalak ezabatu egingo dira, horiek jasotzeko edo erregistratzeko zegoen helbururako beharrezkoak izateari uzten diotenean.

Dena den, datu horiek denbora tarte batean gordetzeko aukera egongo da, hain zuzen ere harreman edo obligazio juridikoren batengatik, kontraturen bat betearazteagatik edo interesatuak eskatuta kontratuaren aurreko neurriak aplikatzeagatik erantzukizunen bat eskatzeko aukera baldin badago.

Aurreko paragrafoetan aipaturiko epea bete eta gero, datuak gordetzeko modu bakarra horiek banatzea izango da, baina kontuan izan beharko da abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan eta erregelamendu honetan aurreikusten den blokeo-obligazioa.

**7.** Datu pertsonalak tratatzerakoan, horietara iristeko eskubidea bermatu beharko da, datu horiek ezereztu beharrekoak ez diren artean.

**9. artikulua. Helburu estatistiko, historiko edo zientifikoa duen tratamendua.**

**1.** Aurreko artikuluaren 3. paragrafoan aurreikusitakoetarako, ez da bateraezina izango datu pertsonalak helburu historiko, estatistiko edo zientifikoekin tratatzea.
Aurreko paragrafoan aipatzen diren helburuetarako diren edo ez erabakitzeko, kasu bakoitzean betetzekoa den legeria hartu beharko da kontuan, eta bereziki ondorengo legeetan esaten dena: Funtzio Estatistiko Publikoa arautzen duen maiatzaren 9ko 12/1989 Legea; Espainiaren Ondare Historikoari buruzko ekainaren 25eko 16/1985 Legea; eta Ikerketa Zientifiko eta Teknikoaren Sustapen eta Koordinazio Orokorrari buruzko apirilaren 14ko 13/1986 Legea. Lege horiek garatzen dituzten xedapenetan eta gai hauei buruz autonomia-erkidegoetako araudian xedatzen dena ere bete beharko da.

**2.** Aurreko artikuluaren 6. paragrafoan xedatutakoaren salbuespena izango bada ere, Datuak Babesteko Espainiako Bulegoak edo, hala behar duenean, autonomia-erkidegoetako kontrol-agintaritzek, tratamenduaren erantzuleak aldez aurretik eskatu ostean eta erregelamendu honen IX. Tituluko VII. kapituluko bigarren atalean ezarritako prozeduraz bat, datu batzuk oso-osorik gordetzeko eskatzeko aukera izango dute, kontuan izanda zer nolako balio historiko, estatistiko edo zientifikoa duten, betiere aurreko paragrafoan aipatzen diren arauekin bat.

**10. artikulua. Datuak tratatzea edo besteri uztea legitimatzen duten egoerak.**

**1.** Datuak tratatu edo besteri uzteko aukera bakarra interesatuak aldez aurretik horretarako baimena ematea izango da.

**2.** Dena den, aukera egongo da datuak tratatu eta besteri uzteko ere, nahiz eta interesatuak horretarako baimenik eman ez, ondorengo kasuetan:

**a)** Lege mailako arau batek edo zuzenbide komunitarioko batek hori egitea baimentzen badu, eta bereziki ondorengo egoeretakoren bat gertatzen bada:
Datuak tratatzearen edo besteri uztearen helburua tratamenduaren erantzulearen edo datuak hartu dituenaren legezko interesa betetzea bada, hain zuzen ere goian aipatutako arau horiek babestutako legezko interesa, baina baldin eta interesatuen interesa edo oinarrizko eskubide eta betebeharrak gailentzen ez badira, abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren 1. artikuluan esaten denaz bat.
Datuak tratatzea edo besteri uztea beharrezkoa bada tratamenduaren erantzuleak arau horietakoren batek ezartzen dion betebeharretakoren bat betetzeko.
**b)** Tratatzekoak edo besteri uztekoak diren datuak herritarrek eskuratzeko moduko iturrietan egotea, eta fitxategiaren erantzuleak edo datuak jakinaraziko zaizkion hirugarrenak legezko interesa izatea horiek tratatzeko edo horien berri izateko, baina betiere interesatuaren oinarrizko eskubide eta askatasunak urratzen ez badira.
Dena den, paragrafo hau oinarri hartuta administrazio publikoek herritarren eskura dauden iturrietan jasotako datuak titulartasun pribatuko fitxategien erantzuleei emateko, lege mailako arau batek emandako baimena beharko dute.

**3.** Datu pertsonalak interesatuaren baimenik gabe tratatzeko aukera egongo da ondorengo kasuetan:

**a)** Datu horiek administrazio publikoek beren eginkizunak aurrera eramateko jasotzen dituztenean, lege mailako arau batek edo zuzenbide komunitarioko arau batek beren esku utzitako eskumenen barruan.

**b)** Datuak kontratu edo aurrekontratu bat izenpetzearen ondorioz, edo negozio-, lan- edo administrazio-harremanen ondorioz eskuratzen baditu tratamenduaren erantzuleak, interesatua tarteko dela, eta beharrezkoak gertatzen badira kontratua nahiz dena delakoa mantendu edo dioena betetzeko.

**c)** Datuak tratatzearen helburua interesatuaren berebiziko interesen bat babestea denean, abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren 7. artikuluko 6. paragrafoan jasotakoaz bat.

**4.** Posible izango da datu pertsonalak besteri uztea interesatuak horretarako baimenik eman gabe, ondorengo kasuetan:

**a)** Datuak uzte hori harreman juridiko bat askatasunez eta legez onartzearen ondorioa bada, eta harreman hori garatu, bete eta kontrolatzeko, datuen berri eman beharra badago. Kasu horretan, komunikazioa legezkoa izateko, komunikazio hori justifikatu duen helburua betetzera mugatu beharko da.

**b)** Komunikazioaren hartzaileak ondorengoak baldin badira: Herriaren Defendatzailea, Ministerio Fiskala, epaile nahiz auzitegiak, Kontuen Auzitegia, eta autonomia-erkidegoetan Herriaren Defendatzailearen edo Kontuen Auzitegiaren pareko eginkizunak dituzten erakundeak; hori guztia legeak erakunde horiei emandako eginkizunen barruan egin beharko da.

**c)** Administrazio publiko batzuek besteei uzten dizkietenean datuak, ondorengo kasuetan:

Datuak komunikatzearen xedea datuak helburu historiko, estatistiko edo zientifikoetarako tratatzea izatea.

Datu pertsonalak administrazio publiko batek eskuratu edo landu dituenean, beste bati emateko asmoz.

Eskumen berdin-berdinak gauzatzeko komunikatzen direnean datuak, edo gai berei buruzkoak direnean.

**5.** Babes berezia duten datuak abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren 7. eta 8. artikuluetan aurreikusten den moduan tratatu eta utzi beharko zaizkio besteri.

Zehazki esanda, ez da beharrezkoa izango interesatuak baimena ematea, osasunarekin zerikusia duten datu pertsonalak komunikatzeko Osasunaren Sistema Nazionala osatzen duten erakunde, zentro eta zerbitzuen artean, eta hori baita baliabide elektronikoen bidez ere, betiere datu horiek pertsonei osasun arloko arreta eskaintzeko ematen badira; hori guztia Osasunaren Sistema Nazionalaren kohesio eta kalitateari buruzko maiatzaren 28ko 16/2003 Legearen V. kapituluan xedatutakoaz bat egin beharko da.

### 11. artikulua. Administrazio publikoei egindako eskaeretako datuak egiaztatzea.

Baliabide elektronikoen bidez eskaerak egin, eta interesatuek dagoeneko administrazio publikoen eskuetan dauden datu pertsonalak ematen badituzte, eskaerako datuak jasoko dituen organoak beharrezko egiaztatze-lanak egiteko aukera izango du, dituen eskumenen barruan, datuak egiazkoak direla egiaztatzeko.

## 1. ATALA. TARTEAN DENAREN ONIRITZIA ESKURATZEA

### 12. artikulua. Printzipio orokorrak.

**1.** Tratamenduaren erantzuleak interesatuaren oniritzia eskuratu beharko du pertsona horren datu pertsonalak tratatu ahal izateko, legeek hala egitea ez dela derrigorrezkoa dioten kasuetan izan ezik.
Oniritziaren eskaera tratamendu jakin bati edo jakin batzuei buruzkoa izango da, eta zehazki zertarako eman den zehaztu beharko da; horrekin batera, tratamenduak edo tratamenduek zein beste baldintza bete beharko dituzten ere azaldu beharko da.

**2.** Tartean denari oniritzia eskatzen zaionean datuak besteri uzteko, hari argi eta garbi azaldu beharko zaio oniritzia emateko eskatutako datuak zertarako erabiliko diren, eta baita datuak jasoko dituenak zertan diharduen ere. Hala egin ezean, oniritzia deuseza izango da.

**3.** Tratamenduaren erantzulearen eginkizuna izango da tartean denak oniritzia eman duela frogatzea, zuzenbidean probatzat hartzeko onartzen den edozein bide erabilita.

### 13. artikulua. Adin txikikoei buruzko datuak tratatzeko oniritzia.

**1.** Hamalau urtetik gorakoen datuak tratatzeko aukera egongo da, horretarako baimena ematen badute, non eta legeak ez duen eskatzen, datu horiek utzi ahal izateko, guraso-agintea dutenek edo tutoretza dutenek laguntzea. Hamalau urtetik beherakoen kasuan, gurasoen edo tutoreen oniritzia behar izango da.

**2.** Inoiz ere ezin izango zaio adin txikikoari familiako gainerako kideei buruzko informazioa lortzea ahalbidetuko duen daturik eskatu, edo familiaren ezaugarriei buruzko daturik eskatu, esate baterako gurasoen jarduera ekonomikoari buruzko datuak, informazio ekonomikoa, datu soziologikoak edo beste edozein, baldin eta datu horien titularrek horretarako baimenik eman ez badute. Dena den, aitaren, amaren edo tutorearen identitateari eta helbideari buruzko datuak eskuratzeko modua egongo da, baina soilik aurreko paragrafoan aurreikusten den baimena eskuratzeko.

**3.** Tratamenduan adin txikikoei buruzko datuak jasotzen direnean, adin txikikooi igortzen zaien informazioan erraz ulertzeko moduko hizkera erabiliko da, eta berariaz aipatu beharko da artikulu honetan xedatzen dena.

**4.** Fitxategiaren edo tratamenduaren erantzulearen ardura izango da zehaztu beharreko prozedurak zehaztea, adin txikikoaren adina benetan hori dela bermatzeko, eta, hala behar duenean, gurasoek, tutoreek edo legezko ordezkariek emandako baimena benetakoa dela bermatzeko.

### 14. artikulua. Oniritzia lortzeko modua.

**1.** Tratamenduaren erantzuleak interesatuaren oniritzia artikulu honetan zehaztutako moduan eskatzeko aukera izango du, non eta legeak ez dion berariazko oniritzia eskuratzeko eskatzen, datuak tratatzeko modua izateko.

**2.** Erantzuleak tartean denarengana jotzeko aukera izango du, eta abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren 5. artikuluan eta erregelamendu honen 12.2. artikuluan esaten den moduan informazioa eman, eta hori eginda, hogeita hamar eguneko epea utziko dio haren datuak tratatzeari ezezkoa emateko; dena den, horren inguruan ezer esaten ez badu, berari buruzko datu pertsonalak tratatzeari oniritzia ematen diola ulertuko dutela jakinaraziko dio.
Zehazki esanda, dena delako zerbitzuak aldian aldiko informazioa edo errepikatzen dena sortzen badu, edo aldian aldiko fakturazioa, zerbitzu horren erantzuleak, komunikatzeko, eskainitako zerbitzuari buruzko informazio hori edo fakturazioa erabili ahal izango du, baina baldin eta argi eta garbi ikusteko moduan egiten badu.

**3.** Dena den, beharrezkoa izango da tratamenduaren erantzuleak edozein arrazoi dela eta komunikazio hori bueltan etorri den edo ez jakitea, eta hala gertatu bada, ezin izango ditu interesatu horri buruzko datuak tratatu.

**4.** Interesatuari modu erraz eta doakoan datuak tratatzearen aurka dagoela erakusteko modua eskaini beharko zaio. Zehazki, erregelamendu honetan eskatzen dena betetzen dela pentsatuko da ezezko iritzia ondorengo bideez erakusteko aukera badu, beste batzuen artean: tratamenduaren erantzuleari eskutitza bidalita aldez aurretik zigiluak ordainduta, doakoa den telefono-zenbaki batera deituta, edo bezeroei arreta eskaintzeko zerbitzura deituta.
**5.** Interesatuari oniritzia artikulu honetan zehaztutako prozeduraren bidez eskatzen zaionean, ezin izango da berriz ere eskatu tratamendu berei buruz eta helburu bera izanda, aurreko oniritzia eskatu zenetik urtebete igaro baino lehen.

**15. artikulua. Kontratu bidezko harreman bat dela-eta oniritzia eskatzea, baina kontratuarekin zuzeneko loturarik ez duen helburuetarako.**

Kontratu bat hitzartzerakoan tratamenduaren erantzuleak tartean denari oniritzia eskatzen badio, eta oniritzi horrek ez badu zuzeneko zer ikusirik kontratu bidezko harremana mantendu, garatu edo kontrolatzearekin, aukera eman beharko dio tartean denari bere datuak tratatu edo komunikatzearen aurka dagoela adierazteko.
Zehazki esanda, betebehar hori betetzat joko da tartean denari aukera ematen bazaio garbi ikusteko moduan eta markatu gabe dagoen lauki bat markatzeko, kontratua izenpetzeko emango zaion agirian, edo antzeko beste prozedura bat zehazten bada, tratamenduaren aurka dagoela erakutsi ahal izateko.

**16. artikulua. Fakturazioari eta trafikoari buruzko datuak tratatzea, komunikazio elektronikodun zerbitzuetan.**

Horretara behartuta daudenek trafiko, fakturazio eta lokalizazioari buruzko datuak tratatzeko edo besteri uzteko oniritzia eskatzerakoan edo, hala bada, oniritzia ezeztatzerakoan, telekomunikazioak arautzen dituen legeriak dioenez araudi bereziak dioena bete beharko da, eta araudi horretan esaten denarekin kontraesanean ez badago, atal honetan ezartzen dena.

**17. artikulua. Oniritzia ezeztatzea.**

**1.** Tartean denak bere oniritzia ezeztatzeko aukera izango du, eta hori egiteko modua erraza, doanekoa eta fitxategiaren edo tratamenduaren erantzuleari inolako diru-sarrerarik eragingo ez dioena izango da. Zehazki, erregelamendu honetan eskatzen dena betetzen dela pentsatuko da ezezko iritzia ondorengo bideez erakusteko aukera badu, beste batzuen artean:

tratamenduaren erantzuleari eskutitza bidalita aldez aurretik zigiluak ordainduta, doakoa den telefono-zenbaki batera deituta, edo bezeroei arreta eskaintzeko zerbitzura deituta.
Ez dira abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan xedatutakoaz bat datozenak izango zenbait ezeztatze-modu, baldin eta tratamenduaren erantzuleak ondorengo bideetakoren bat finkatzen badu interesatuak tratamenduari uko egiteko modutzat: ziurtatutako gutuna edo horren atzekoren bat bidali beharra, gehiago ordaindu beharra dakarren telekomunikazioko zerbitzu bat erabili beharra, edo beste edozein bide, horrek interesatuak gehiago ordaintzea baldin badakar.

**2.** Datuak tratatzeko oniritzia ezeztatzen duen erabakiaren berri jasotzen duenetik gehienez ere hamar egun igaro baino lehen utziko dio tratamenduaren erantzuleak datu horiek tratatzeari, baina datuak blokeatu beharra izango du, abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren 16.3. artikuluan xedatutakoaz bat.

**3.** Interesatuak tratamenduaren erantzuleari bere datuak tratatzeari utzi diola egiaztatzeko eskatzen badio, erantzuleak eskaera horri berariaz erantzun beharko dio.

**4.** Datuak aldez aurretik utzitakoak baldin badira, tratamenduaren erantzuleak, oniritziari uko egiten zaion unetik aurrera, lagapendunei horren berri eman beharko die, 2. paragrafoan aurreikusitako epean, horrela horiek ere datuak tratatzeari utz diezaioten oraindik ere datuok erabiltzen ari badira; hori guztia abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren 16.4. artikuluan jasotakoaz bat egin beharko da.

## 2. ATALA. INTERESATUARI INFORMAZIOA EMAN BEHARRA.

### 18. artikulua. Informazioa eman beharra bete dela egiaztatzea.

**1.** Abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren 5. artikuluan informazioa eman beharraz aipatzen dena gauzatzeko, pauso hori bete dela egiaztatzeko aukera ematen duen bideetakoren bat erabili beharko da, eta tartean denaren datuak tratatzen diren artean gorde egingo da egiaztapen hori.

**2.** Fitxategiaren edo tratamenduaren erantzuleak gorde egin beharko du informatzeko betebeharra bete dela erakusten duen euskarria. Euskarri horiek biltegiratzeko, fitxategiaren edo tratamenduaren erantzuleak baliabide informatiko edo telematikoak erabiltzeko aukera izango du. Zehazki esanda, paperezko euskarrian dagoen dokumentazioa eskaneatzeko aukera izango du, baldin eta bermaturik geratzen bada automatizatzeko prozesu horretan jatorrizko agiriei ez zaiela inolako aldaketarik eragin.

### 19. artikulua. Egoera bereziak.

Bat-egite, zatiketa, aktibo nahiz pasibo osoaren lagapen, aktiboen ekarpen, negozio nahiz enpresa-jarduera baten ekarpen edo eskualdatze, edo antzeko ezaugarriak dituen beste edozein enpresa-berregituratzeko eragiketa dela-eta (merkataritzako araudian jasotzen den aukeretako bat izan beharko du) , fitxategiaren erantzulea den pertsona aldatu egiten bada, kasu horretan ez da datuen lagapenik egingo, baina erantzuleak abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren 5. artikuluan esaten dena bete beharko du.

**20. artikulua. Tratamenduaren erantzulearen eta arduradunaren arteko harremanak.**

**1.** Tratamenduaren arduradun batek datuetara sartu beharra badauka tratamenduaren erantzuleari zerbitzu bat eskaini ahal izateko, ekintza hori ez da joko datuen komunikaziotzat, baldin eta abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan eta kapitulu honetan zehaztutakoa betetzen bada.
Tratamenduaren arduradunak eskainitako zerbitzua ordaindutakoa edo ordaintzen ez dena izango da, eta aldi baterakoa edo mugagabea.
Dena den, datuen komunikazioa egon dela pentsatuko da, datuetara sartu denaren eta tartean denaren artean lotura berri bat finkatzea bada datuetara sartzearen helburua.

**2.** Tratamenduaren erantzuleak zerbitzu bat eskaintzea kontratatu, eta horren baitan kapitulu honetan xedatutakoaren arabera tratatu behar badira datu pertsonal batzuk, tratamenduaren arduradunak erregelamendu honetan xedatutakoa betetzeko beste berme badituela zainduko du hark.

**3.** Tratamenduaren arduradunak datuak beste helburu batzuetarako erabiltzen baditu, horien berri beste norbaiti ematen badie edo kontratuko baldintzetan zehaztutakoa bete gabe erabiltzen baditu, hain zuzen ere abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren 12. artikuluko 2. paragrafoan zehazten diren baldintzak bete gabe, arduradun hori tratamenduaren erantzule ere joko da, eta, beraz, egindako arauhausteen erantzule izango da.
Dena den, tratamenduaren arduradunak ez du inolako erantzukizunik izango tratamenduaren erantzuleak aldez aurretik berariaz hala eskatuta hirugarren bati datuak komunikatzen badizkio, eta hirugarren horri zerbitzu bat eskaintzeko eskatu badiote, kapitulu honetan aurreikusitako moduan.

**21. artikulua. Zerbitzuak azpikontratatzeko aukera.**

**1.** Tratamenduaren arduradunak ezin izango du hirugarren batekin azpikontratatu tratamenduaren erantzuleak bere esku utzitako inolako tratamendurik, non eta erantzuleak ez dion hori egiteko baimena eman. Azken kasu horretan, kontratua beti tratamenduaren erantzulearen izenean eta bere kontura egingo da.

**2.** Aurreko paragrafoan esaten dena hala izanik ere, baimenik izan gabe ere azpikontratatzeko aukera egongo da, ondorengo baldintzak betetzen diren kasuetan:

**a)** Kontratuan zehaztuta egotea zein zerbitzu diren azpikontratatzeko modukoak, eta posible balitz, baita zein enpresari azpikontratatuko zaizkion ere.
Kontratuan ez bada zehazten zein enpresari azpikontratatuko zaion, beharrezkoa izango da tratamenduaren arduradunak datuen erantzuleari jakinaraztea enpresa horri buruzko datuak, azpikontratazioari ekin baino lehen.
**b)** Azpikontratazioa duen enpresak datu pertsonalak tratatzerakoan, fitxategiaren erantzuleak emandako jarraibideak betetzea.
**c)** Tratamenduaren arduradunak eta azpikontratatutako enpresak kontratua aurreko artikuluan aurreikusitako baldintzetan gauzatzea.
Kasu horretan, azpikontratuduna tratamenduaren arduraduntzat joko litzateke, eta, ondorioz, erregelamendu honen 20.3. artikuluan aurreikusitakoa bete beharko luke.

**3.** Zerbitzua eskaintzen ari den artean zerbitzu horren zati bat azpikontratatu beharra dagoela ikusiz gero, eta kontratuan ez bada halakorik aurreikusi, tratamenduaren arduradunak aurreko paragrafoan aipatzen diren baldintzak beteko ditu.

**22. artikulua. Tratamenduaren arduradunak datuak gordetzea.**

**1.** Kontratuari dagokion zerbitzua eskaini ostean, datu pertsonalak desegin, edo tratamenduaren erantzuleari edo erantzule horrek izendatutako arduradunari itzuli beharko zaizkio, eta beste horrenbeste egingo da tratamenduan erabilitako era bateko edo besteko datu pertsonalen bat duen edozein euskarri edo dokumenturekin ere.
Datuak ez dira desegingo legeren batean horiek gorde egin behar direla esaten baldin bada, eta kasu horretan, datuak fitxategiaren erantzuleari itzuli eta bere ardura izango da datuok gordeko direla bermatzea.

**2.** Tratamenduaren arduradunak gorde egingo ditu datuak, behar bezala blokeatuta, tratamenduaren entzulearekin izandako harremanagatik erantzukizunen bat egotea gerta baitaiteke.

# III. TITULUA. DATUETAN SARTU, HORIEK ZUZENDU, EZEREZTU ETA AURKA EGITEKO ESKUBIDEAK

## I. Kapitulua. Xedapen orokorrak

**23. artikulua. Bere-berezko izaera.**

**1.** Datuetan sartu, horiek zuzendu, ezereztu eta aurka egiteko eskubideak bere-berezkoak dira, eta tartean denak baino ezin izango du gauzatu eskubide hori.

**2.** Eskubide horiek honela gauzatuko dira:

**a)** Tartean denaren kasuan, nor den erakutsita, hurrengo artikuluan aurreikusten den bideetakoren bat baliatuta.
**b)** Tartean dena ezintasunen bat duena bada edo adinez txikia, eta hori dela eta ezin badu eskubide horiek bere kabuz gauzatu, bere legezko ordezkariaren bidez izango du hori egiteko aukera, eta horretarako, legezko ordezkariak benetan hala dela erakutsi beharko du.
**c)** Eskubide horiek borondatezko ordezkariak ere gauzatu ahal izango ditu, baina eskubide hori gauzatzeko berariaz izendatutakoa izan beharko du. Kasu horretan, ordezkariak argi egiaztatu beharko du zein ordezkatzen duen, eta horretarako, ordezkatutakoaren Nortasun Agiri Nazionalaren edo baliokidea den agiriren baten kopia erakutsi beharko da, eta baita ordezkatua denak emandako ordezkaritza-agiria ere.
Fitxategiaren erantzulea administrazio publikoetako edo justizia-administrazioko organo bat denean, ordezkaritza zuzenbidean baliozkoa den edozein bide erabilita egiaztatu ahal izango da, modu fidagarrian frogatzen badu, edo bestela, interesatua agertu eta adierazpena eginda.

**3.** Eskubideak ukatu egingo dira eskaera egiten duena ez bada tartean dena, eta pertsona horrek ez badu egiaztatzen tartean denaren ordezko gisa dihardueIa.

**24. artikulua. Datuetan sartu, horiek zuzendu, ezereztu eta aurka egiteko eskubideak gauzatzeko baldintza orokorrak.**

**1.** Datuetan sartu, horiek zuzendu, ezereztu eta aurka egiteko eskubideak bata bestetik bereizirik dauden eskubideak dira, eta beraz, ez da ulertu behar horietako edozein aurrera eraman ahal izateko aldez aurretik beste bat gauzatu behar denik.

**2.** Interesatuari modu erraz eta doakoa eskaini beharko zaio datuetan sartu, horiek zuzendu, ezereztu eta aurka egiteko eskubideak gauzatu ahal izateko.

**3.** Datuetan sartu, horiek zuzendu, ezereztu eta aurka egiteko tartean denak duen eskubidea doakoa izango da, eta eskubide hori gauzatzeak inondik ere ez du eragingo tratamenduaren erantzuleak diru-sarrera osagarririk izatea.
Ez dira abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan xedatutakoaz bat datozenak izango interesatuak eskubideak gauzatzeko zenbait modu, baldin eta tratamenduaren erantzuleak ondorengo bideetakoren bat finkatzen badu eskubideez gauzatzeko modutzat: ziurtatutako gutuna edo horren atzekoren bat bidali beharra, gehiago ordaindu beharra dakarren telekomunikazioko zerbitzu bat erabili beharra, edo beste edozein bide, horrek interesatuarentzat gehiegizko kostua baldin badakar.

**4.** Fitxategiaren edo tratamenduaren erantzulea era bateko edo besteko zerbitzuez baliatzen bada bezeroei zerbitzua eskaintzeko edo eskainitako zerbitzuen edo produktuen inguruko erreklamazioak bideratzeko, tartean denak datuetan sartu, horiek zuzendu, ezereztu eta aurka egiteko duen eskubidea zerbitzu horien bidez gauzatzeko aukera izango du. Kasu horretan, interesatua nor den egiaztatuta geratuko da, zerbitzuak eskaintzerakoan edo produktuak kontratatzerakoan bezeroak identifikatze aldera prestazioaren erantzuleak erabiltzen dituen bide berak erabiliz gero.

**5.** Tartean denak datuetan sartu, horiek zuzendu, ezereztu eta aurka egiteko eskubideaz baliatu nahi badu, fitxategiaren edo tratamenduaren erantzuleak eskaera hori onartu egin beharko du, nahiz eta eskaera egin duenak ez bete erantzuleak horretarako zehazturik duen prozedura, baina baldin eta interesatuak eskaera bidali eta jaso duela erakusten duen bideren bat erabili badu, eta eskaera horretan ondorengo artikuluaren 1. paragrafoan aipatzen diren osagaiak jasotzen baditu.

**25. artikulua. Prozedura.**

**1.** Aurreko artikuluko 4. paragrafoan aipatzen den kasuan izan ezik, eskubideez baliatu ahal izateko, idazki bat bidali beharko zaio fitxategiaren erantzuleari, eta ondorengo datuak jasoko dira bertan:

> **a)** Interesatuaren izen eta abizenak; bere nortasun-agiri nazionalaren fotokopia, pasaportearena edo identifikatuko duen baliozko beste dokumentu batena, eta behar den kasuetan, baita ordezkatu duen pertsonarena ere, edo horien baliokideak diren tresna elektronikoena; era berean, ordezkaritza egiaztatzen duen agiri edo tresna elektronikoa ere beharko da. Tartean dena identifikatzeko izenpe elektronikoa erabiltzen bada, ez da beharrezkoa izango NANaren edo horren baliokidea den agiriaren fotokopiarik aurkeztea.
> Aurreko paragrafoa hala izanik ere, administrazio-prozeduretan administrazio publikoek nortasunari buruzko datuak egiaztatzeaz araudi bereziak dioena bete beharko da.
> **b)** Eskaera bera.

**c)** Jakinarazpenetarako erabiliko den helbidea, data eta eskatzailearen sinadura.
**d)** Egindako eskaeraren egiaztagiriak, beharrezkoa bada.

**2.** Tratamenduaren erantzuleak beti erantzun beharko die egiten dizkioten eskaerei, bere fitxategietan tartean denaren datu pertsonalak agertu nahiz agertu ez.

**3.** Eskaerak ez baldin baditu lehenengo paragrafoan aipatzen diren baldintzak betetzen, fitxategiaren erantzuleak dauden akatsak konpontzeko eskatuko dio eskaera egin duenari.

**4.** Erantzuterakoan, titulu honetan kasu bakoitzerako aurreikusitako baldintzak bete beharko dira.

**5.** Tratamenduaren erantzulearen eginkizuna izango da 2. paragrafoan aipatzen den erantzuteko betebeharra bete dela frogatzea, eta betebehar hori bete dela erakusten duen egiaztagiria gorde egin behako du.

**6.** Fitxategiaren erantzuleak hartu beharreko neurriak hartuko ditu, bere erakundearen baitan datu pertsonaletara iristeko aukera duten pertsonek tartean direnei beren eskubideez baliatzeko prozedurari buruzko informazioa emateko modua izan dezaten.
**7.** Datuetan sartu, horiek zuzendu, ezereztu eta aurka egiteko eskubideak egoeraren arabera egokitzeko aukera egongo da, segurtasun publikoarekin zerikusia duten arrazoiengatik, legeetan aurreikusten diren kasuetan eta neurrian.

**8.** Zenbait fitxategi zehatzi ezartzekoak zaizkien legeetan prozedura bereziren bat zehazten bada horietan jasotako datuak zuzendu edo ezerezteko, lege horietan xedatutakoa bete beharko da.

### 26. artikulua. Tratamenduaren arduradun baten aurrean eskubideak gauzatzea.

Tarteak direnek beren eskubideak gauzatzeko asmoa tratamenduaren arduradun bati agertzen badiote, eta hala egiten badute, arduradunak eskaera horren berri tratamenduaren erantzuleari emango dio, azken horrek ebatzi dezan. Dena den, tratamenduaren erantzulearekiko harremanean aurreikusita badago arduradunak bere aldetik eta erantzulearen ordez erantzungo diela datuetan sartu, horiek zuzendu, ezereztu eta aurka egiteko eskubideei, hala egingo du.

## II. Kapitulua. Datuetan sartzeko eskubidea

### 27. artikulua. Datuetan sartzeko eskubidea.

**1.** Datuetan sartzeko eskubidea tartean denak berari buruzko datu pertsonalen gaineko informazioa tratatzen ari diren edo ez jakiteko duen eskubidea da; tratatzen ari badira, zertarako ari diren hori egiten jakiteko eskubidea, datu horiek nondik eskuratu dituzten jakiteko eskubidea, eta horiekin egondako edo egongo diren komunikazioei buruzko informazioa jasotzeko eskubidea.

**2.** Datuetara iristeko eskubideari esker, datu zehatzei buruzko informazioa, fitxategi jakin batean jasotako datu batzuei buruzko informazioa, edo berari buruz tratatzen ari diren datu

guztiei buruzko informazioa eskuratzeko aukera izango du tartean denak, tratamenduaren erantzuleak emanda.
Dena den, konplexutasun berezia duten arrazoiak direla-eta hala egitea zurituta dagoenean, fitxategiaren erantzuleak aukera izango du tartean denari zein fitxategitara sartzeko aukera izan nahi duen galdetzeko, eta horretarako, fitxategi horien guztien zerrenda bidali beharko dio.

**3.** Datuetara iristeko eskubidea eta lege bereziek, zehazki esanda Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legeak tartean direnei aitortzen dien eskubidea bi kontu ezberdin dira.

**28. artikulua. Datuetara iristeko eskubidea gauzatzea.**

**1.** Datuetan sartzeko eskubidea gauzatzerakoan, tartean denak aukeran izango du informazioa fitxategiak kontsultatzeko ondorengo sistemetakoren baten edo batzuen bidez eskuratu ahal izatea:

**a)** Pantailan ikustea.
**b)** Posta ziurtatu edo arruntaren bidez bidalitako idazkia, kopia edo fotokopia.
**c)** Telekopia.
**d)** Posta elektronikoa edo komunikazio elektroniko bidezko beste sistemaren batzuk.
**e)** Fitxategiaren konfigurazioarentzat edo ezarpen materialarentzat nahiz tratamenduaren ezaugarrientzat egokia den beste edozein sistema, tratamenduaren erantzuleak eskainia.

**2.** Aurreko paragrafoan aurreikusten den moduan fitxategiak kontsultatzeari mugak jartzeko aukera egongo da, fitxategiaren konfigurazioaren edo ezarpen materialaren nahiz tratamenduaren ezaugarrien arabera, baldin eta tartean denari eskaintzen zaion sistema doakoa bada eta idatziz komunikatzeko aukera ziurtatzen badu, berak hala eskatuz gero.

**3.** Datuetara sartzeko aukera eskaintzerakoan, fitxategiaren erantzuleak erregelamendu honen VIII. tituluan ezarritakoa bete beharko du.
Datuetara sartzeko eskubidea gauzatzeko, erantzuleak sistema jakin bat eskaini, eta tartean denak uko egiten badio bide horri, erantzuleak ez du erantzukizunik izango hautu hori dela-eta informazioaren segurtasunak arriskuren bat badu.
Era berean, erantzuleak datuetara sartzeko eskubidea gauzatzeko prozedura jakin bat eskaini eta tartean denak beste prozedura baten bidez gauzatu nahi badu eskubide hori, baina neurri gabeko kostua izanda eta erantzuleak eskainitako prozeduraren ondorio berak dituela eta segurtasun bera bermaturik, kasu horretan, beste aukera horrek eragindako gastuak tartean denak ordaindu beharko ditu.

**29. artikulua. Sarbidea ematea.**

**1.** Fitxategiaren erantzuleak hilabeteko epea izango du, eskaera jasotzen duenetik zenbatzen hasita, sarbidearen eskaerari buruz erabakitzeko. Hilabete igaro eta tarte horretan sarbidearen eskaerari buruzko berariazko erabakirik hartu ez badu, interesatuak erreklamazioa aurkezteko aukera izango du, hain zuzen ere abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren 18. artikuluan aurreikusitako moduan.
Erantzuleak ez baldin badu tartean direnei buruzko datu pertsonalik, horren berri ere goaian aipatutako epearen barruan eman beharko die.

**2.** Eskaera onartu eta erantzuleak bere komunikazioan ez badu jasotzen 27.1. artikuluan aipatzen den informazioa, komunikazio horren ondorengo hamar egunetan gauzatuko da sarbidea.

**3.** Emango den informazioa, dena delako euskarrian ematen dela ere, erraz irakurtzeko eta ulertzeko moduan emango da, eta ez da tresna mekaniko bereziak erabili beharra eskatzen duen gako edo koderik erabiliko.
Informazio horretan, tartean denari buruzko oinarrizko datu guztiak jasoko dira, edozein lanketa-modu edo prozesu informatikotik lortutako datuak, eta baita ondorengo informazioa ere: datuen jatorriari buruzko informazioa, nork emandakoak izan diren, eta zehazki zertarako biltegiratu ziren erakusten duen informazioa ere bai.

**30. artikulua. Sarbidea ukatzea.**

**1.** Fitxategiaren erantzuleak edo arduradunak datu pertsonaletan sartzen ez uzteko aukera izango du, eskaria egin aurreko hamabi hilabeteetan eskubide horretaz baliatu bada interesatua, non eta ez den horretarako legezko interesa dagoela erakusten.

**2.** Era berean, datuetara sartzeko aukera ukatzeko modua egongo da, lege batean edo zuzenean aplikatzekoa den zuzenbide komunitarioko arauren batean hala aurreikusten bada, edo lege edo arau horiek galarazi egiten badiote tratamenduaren erantzuleari ikusi nahi diren datuen tratamenduaren berri ematea tartean direnei.

**3.** Kasu guztietan, fitxategiaren erantzuleak tartean denari jakinaraziko dio eskubidea duela Datuak Babesteko Espainiako Bulegoari babesa eskatzeko, edo hala behar duenean, autonomia-erkidegoetako kontrol arloko agintaritzei babesa eskatzeko, hain zuzen ere abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren 18. artikuluan xedatutakoaz bat.

## III. Kapitulua. Datuak zuzentzeko eta ezerezteko eskubidea

**31. artikulua. Datuak zuzentzeko eta ezerezteko eskubidea.**

**1.** Datuak zuzentzeko eskubidea zuzenak ez diren edo osorik ez dauden datuak aldatzeko tartean denak duen eskubidea da.

**2.** Datuak ezerezteko eskubideari esker, egokiak ez diren edo gehiegizkoak diren datuak ezabatu egingo dira, baina kontuan izan beharko da datu horiek blokeatu egin beharko direla, erregelamendu honetan esaten denaz bat.
Interesatuak datuak ezerezteko duen eskubidea baliatu nahi duela adierazten badu aldez aurretik eman duen baimena bertan behera uzteko, abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan eta erregelamendu honetan xedatutakoa bete beharko da.

**32. artikulua. Datuak zuzentzeko eta ezerezteko eskubidea gauzatzea.**

**1.** Datuak zuzentzeko egiten den eskaeran, zein datuz ari den eta zer zuzendu behar den adieraziko da, eta eskatzen den hori egitea zuritzen duten agiriak aurkeztu beharko dira.
Datuak ezerezteko egindako eskaeran, zein daturi buruz ari den adieraziko du interesatuak, eta hori egitea zuritzen duten agiriak aurkeztuko ditu, hala behar duenean.

**2.** Fitxategiaren erantzuleak hilabeteko epea izango du, eskaera jasotzen duenetik zenbatzen hasita, datuak zuzentzeko edo ezerezteko eskaerari buruz erabakitzeko. Hilabete igaro eta tarte horretan eskaerari buruzko berariazko erabakirik hartu ez badu, interesatuak erreklamazioa aurkezteko aukera izango du, hain zuzen ere abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren 18. artikuluan aurreikusitako moduan.
Erantzuleak ez baldin badu tartean denari buruzko datu pertsonalik, horren berri ere goaian aipatutako epearen barruan eman beharko dio.

**3.** Zuzendutako edo ezabatutako datuak aldez aurretik beste norbaitek utzitakoak badira, fitxategiaren erantzuleak lagapendunari izandako zuzenketa edo ezereztearen berri eman beharko dio, eta horretarako denbora-tarte bera izango du; hori eginda, lagapendunak komunikazio hori jasotzen duenetik hamar eguneko epean berak dituen datuak zuzendu edo ezabatu egingo ditu.
Lagapendunak datu pertsonalak era horretan zuzendu edo ezereztu ostean, ez da beharrezkoa izango interesatuari ezer jakinaraztea, baina interesatuek eskubidea izango dute abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan aitortzen zaizkien eskubideez baliatzeko.

**33. artikulua. Datuak zuzentzeko eta ezerezteko eskubidea ukatzea.**

**1.** Datu pertsonalak ezin izango dira ezereztu, ezartzekoak zaizkien xedapenetan horiek gordetzeko denbora-tarte jakin bat zehazten denean, edo beste horrenbeste egiten denean tratamenduaren erantzule den pertsona edo erakundearen eta interesatuaren artean izenpetutako hitzarmenean, datuak tratatzea hitzarmen horren ondorio bada.

**2.** Era berean, datuak aldatzeko edo ezerezteko eskubidea ukatzeko modua egongo da, lege batean edo zuzenean aplikatzekoa den zuzenbide komunitarioko arauren batean hala aurreikusten bada, edo lege edo arau horiek galarazi egiten badiote tratamenduaren erantzuleari ikusi nahi diren datuen tratamenduaren berri ematea tartean direnei.

**3.** Kasu guztietan, fitxategiaren erantzuleak tartean denari jakinaraziko dio eskubidea duela Datuak Babesteko Espainiako Bulegoari babesa eskatzeko, edo hala behar duenean, autonomia-erkidegoetako kontrol arloko agintaritzei babesa eskatzeko, hain zuzen ere abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren 18. artikuluan xedatutakoaz bat.

## IV. Kapitulua. Aurka egiteko eskubidea

**34. artikulua. Aurka egiteko eskubidea.**

Aurka egiteko eskubidea tartean denak bere datu pertsonalak tratatu ez daitezen duen eskubidea da, edo tratatzeari uzteko eskatzeko eskubidea, ondorengo kasuetan:

**a)** Ez denean beharrezkoa berak baimena ematea datuak tratatzeko, legezko eta zerbaitetan oinarritutako arrazoiren bat dagoenean hori egitea zuritzen duena, hain zuzen ere bere egoera pertsonal zehatzarekin zerikusia duena, baina betiere legeren batean kontrakoa xedatzen ez bada.
**b)** Publizitatea eta merkatua aztertzea helburu duten jarduerei buruzko fitxategiak direnean, erregelamendu honen 51. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, eta fitxategiak sortzeko erantzukizuna izan duen enpresa dena delakoa izanik ere.

**c)** Tratamenduaren helburua tartean denari buruzko erabaki bat hartzea denean, pertsona horren datu pertsonalen tratamendu automatizatuan oinarrituta soilik, erregelamendu honen 36. artikuluan esaten denaren arabera.

### 35. artikulua. Aurka egiteko eskubidea gauzatzea.

**1.** Aurka egiteko eskubideaz baliatzeko, tratamenduaren erantzuleari eskaera bat bidali beharko zaio.
Auka egiteko arrazoia aurreko artikuluko a) hizkian aipatzen dena bada, eskaera hori egiteko tartean denaren egoera pertsonalari buruzko zertan oinarritzen den eta legezko arrazoia zein den azaldu beharko da, horrek zuritu beharko baitu eskubide honetaz baliatu ahal izatea.

**2.** Fitxategiaren erantzuleak hamar eguneko epea izango du, eskaera jasotzen duenetik zenbatzen hasita, aurka egiteko eskaerari buruz erabakitzeko. Hilabete igaro eta tarte horretan eskaerari buruzko berariazko erabakirik hartu ez badu, interesatuak erreklamazioa aurkezteko aukera izango du, hain zuzen ere abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren 18. artikuluan aurreikusitako moduan.
Erantzuleak ez baldin badu tartean direnei buruzko datu pertsonalik, horren berri ere goaian aipatutako epearen barruan eman beharko die.

**3.** Fitxategiaren edo tratamenduaren erantzuleak tratamendutik kanpora utziko ditu tartean denari buruzko datuak, horrek hala egiteko eskatzen badio aurka egiteko eskubideaz baliatuta, edo interesatuak egindako eskaera ukatu egingo du, horretarako arrazoiak emanda; gauza bat zein bestea egiteko, artikulu honen 2. paragrafoan aipatzen den denbora-tartea izango du.

### 36. artikulua. Datuen tratamendu automatizatuan baino oinarritzen ez diren erabakien aurka egiteko eskubidea.

**1.** Herritarrek eskubidea dute eurengan ondorio juridikoak dituen edo eurak modu garrantzitsuan ukitzeko moduko ondorio juridikoak dituen erabaki baten mende ez geratzeko, baldin eta erabaki hori soil-soilik oinarritzen bada herritarren nortasunaren alde batzuk ebaluatzeko erabili behar diren datuen tratamenduan, esate baterako laneko errendimendua, kreditua, fidagarritasuna edo jarrera.

**2.** Dena den, tartean direnak 1. paragrafoan aipatzen diren erabakietako baten mende geratuko dira, erabaki hori:

**a)** Interesatuak eskatuta burututako kontratu batean jasotzen dena betetzearen ondorioa bada, eta betiere egoki iritzitakoa azaltzeko aukera eskaintzen bazaio, bere eskubideak edo interesak defendatzeko. Kasu guztietan, fitxategiaren erantzuleak tartean denari argi eta zehatz jakinarazi beharko dio 1. paragrafoan aipatzen diren ezaugarriak dituzten erabakiak hartuko direla, eta datuak ezabatu egingo ditu, azkenean kontraturik izenpetzen ez bada.
**b)** Interesatuaren legezko interesa bermatzen duten neurriak ezartzen dituen lege mailako arau batek baimentzen badu.

## 1. ATALA.- XEDAPEN OROKORRAK

**37. artikulua. Araubide aplikagarria.**

**1.** Ondare-kaudimenari eta kredituari buruzko datu pertsonalak tratatzerakoan, abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren 29. artikuluaren 1. paragrafoan aurreikusten den moduan, orokorrean lege organiko horretan eta erregelamendu honetan esandakoa bete beharko da.

**2.** Aurreko paragrafoan aipatzen diren fitxategien kasuan, datuetan sartu, horiek zuzendu, ezereztu eta aurka egiteko eskubideaz baliatzerakoan, erregelamendu honen I. kapitulutik IV.era xedatutakoa bete beharko da, eta irizpide hauek jarraitu:

**a)** Eskubideez baliatu nahi dela fitxategiaren erantzuleari eskatzen bazaio, erantzuleak beti eskubide horiek betearazi egin beharko ditu.

**b)** Eskaera zerbitzuak eskaintzen dituzten pertsona edo erakundeei zuzentzen bazaie, horiek tartean denari berari buruzko datuak jakinaraziko dizkiote (haiek dituztenak), eta erantzulea nor den jakinaraziko diote, beharrezkoa izanez gero, tartean denak harengana jo dezan dituen eskubideak gauzatzeko.

**3.** Abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren 29. artikuluaren 2. paragrafoan esaten denaz bat, diruzko obligazioak bete edo ez betetzearen inguruko datu pertsonalak tratatzea ere egongo da, eta datu horiek hartzekodunek edo bere kontura dihardutenek emandakoak izango dira. Datu horiek tartean denaren maileguen arloko informazioa emateko baino sortuko ez diren fitxategietan gordeko dira, eta fitxategiok erregelamendu honetan xedatutakoaren arabera tratatu beharko dira; zehazki esanda, kapitulu honetako bigarren atalean jasotako aurreikuspenen arabera.

## 2. ATALA. DIRUZKO OBLIGAZIOAK BETE EDO EZ BETETZEAREN INGURUKO DATUAK, HARTZEKODUNAK EDO BERE KONTURA DIHARDUENAK EMANDAKOAK, TRATATZEA.

**38. artikulua. Datuak sartzeko baldintzak.**

**1.** Fitxategi hauetan sartu ahal izango diren datu pertsonalak tartean denaren kaudimen ekonomikoa zein den zehazteko ezinbestekoak izan beharko dira, eta ondorengo baldintzak bete beharko dira:

**a)** Aldez aurretik benetako zor bat egon beharko da, mugaeguna beteta duena, exijitzeko modukoa, ordaindu ez dena, eta erreklamazio judizial, arbitral edo administratiborik eragin ez duena, edo finantza arloko zerbitzua baldin bada, Finantza-Zerbitzuen Bezeroak Defendatzeko Komisionatuen Erregelamenduan aurreikusitakoen moduko erreklamaziorik eragin ez badu (erregelamendu hori otsailaren 20ko 303/2004 Errege Dekretuaren bidez onartu zen).

**b)** Zorra ordaindu beharra egon zenetik, edo obligazioaren muga-eguna edo, aldian-aldiko mugaeguna duena izanez gero, horren epe zehatza igaro zenetik ez dira sei urte igarota egon beharko.
**c)** Obligazioa bete behar duenari ordaindu dezala eskatu beharko zaio aldez aurretik.

**2.** Ezaugarri horiek dituzten fitxategietan ezin izango dira sartu zenbait datu pertsonal, susmoa baldin badago aurreko baldintzetakoren batekin kontraesana sortzen dela datu horiek sartuta.
Halakorik gertatuz gero, bada ezpada aldekoa ez den datu pertsonal hori ezereztu egingo da, dagoeneko fitxategian sartu den kasuetan.

**3.** Hartzekodunak edo bere kontura edo interesagatik diharduenak behar besteko informazio guztia gorde beharko du derrigorrez, fitxategi komunaren arduradunaren edo Datuak Babesteko Espainiako Bulegoaren eskura uzteko moduan, artikulu honetan zehaztutako baldintzak betetzen direla egiaztatzeko, eta hurrengo artikuluan aipatzen den aldez aurretiko baldintza ere betetzen dela erakusteko.

**39. artikulua. Fitxategian sartu aurreko informazioa.**

Kontratua izenpetzeko orduan eta, kasu guztietan, aurreko artikuluko 1. paragrafoko c) hizkian aipatzen den eskaera egiten denean, hartzekodunak zordunari jakinarazi beharko dio ordaindu beharrekoa dagokion epean ordaintzen ez badu, eta aipatutako artikuluan zehazten diren baldintzak betez gero, ordaindu ez izanari buruzko datuak diruzko obligazioen gainekoak diren fitxategiei jakinarazteko aukera egongo dela.

**40. artikulua. Fitxategian sartu izanaren berri ematea.**

**1.** Fitxategi komunaren arduradunak fitxategi horretan ageri diren datu pertsonalen jabe diren interesatuei erregistroa egiten denetik hogeita hamar eguneko epean jakinarazi beharko die fitxategian jasotako datuen erreferentzia bat, eta horrekin batera, datuetan sartu, horiek zuzendu, ezereztu eta aurka egiteko eskubideaz baliatzeko aukera ere badutela jakinaraziko die, urtarrilaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan esaten denaz bat.

**2.** Zor bakoitzeko jakinarazpen bat egingo da, eta berdin izango dio zor hori hartzekodun bakarrarekin edo hartzekodun bat baino gehiagorekin duen.

**3.** Jakinarazpena bide fidagarri eta auditatzeko moduko baten bidez egin beharko da, eta erakunde jakinarazleak ez beste batek egin beharko du, jakinarazpenok igorri direla egiaztatzeko modua izan dezan.

**4.** Dena den, beharrezkoa izango da tratamenduaren erantzuleak edozein arrazoi dela eta komunikazio hori bueltan etorri den edo ez jakitea, eta hala gertatu bada, ezin izango ditu interesatu horri buruzko datuak tratatu.
Ez da izango interesatu bati buruzko datuak ez tratatzeko besteko arrazoia jakinarazpena bueltan etortzea, hori hartzaileak igorri zaiona hartzeari uko egiten diolako gertatu bada.

**5.** Fitxategian sartu izanaren jakinarazpena itzuli egiten bada, fitxategi komunaren arduradunak erakunde hartzekodunarekin batera jakinarazpena egiteko erabilitako helbidea kontratuan komunikazioak egiteko hitzartu zena den egiaztatuko du, eta erakunde horrek ez badu baieztatzen datu hori zuzena dela, datuak ez dira tratatuko.

**41. artikulua. Datuak gordetzea.**

**1.** Une zehatz bakoitzeko zorraren berri benetan ematen duten datuak baino ezin izango dira tratatu.
Zorra ordainduz gero, zor horri buruzko datu guztiak ezereztu egingo dira berehala.

**2.** Gainontzeko kasuetan, datuak ezabatu egin beharko dira betebeharra amaitzen denetik edo aldian aldiko epe-muga amaitzen denetik sei urte igarotzen direnean.

**42. artikulua. Fitxategian dagoen informaziora sartzeko aukera izatea.**

**1.** Fitxategi komunean dauden datuak hirugarren batek kontsultatzeko arrazoi bakarra tartean denaren kaudimen ekonomikoa zein den jakin beharra izango da. Zehazki esanda, egoera hori gertatzen dela pentsatuko da ondoren zehazten diren kasuetan:

> **a)** Tartean denak hirugarrenarekin oraindik ere amaitu ez den kontratu bidezko harreman bat izatea.
> **b)** Tartean denak hirugarrenarekin prezioa beranduago ordaintzea dakarren kontratu bat izenpetzeko asmoa izatea.
> **c)** Tartean denak hirugarrenarekin aldian-aldian fakturatuko den zerbitzu bat kontratatzeko asmoa izatea.

**2.** Hirugarrenek idatziz jakinarazi beharko diete aurreko b) eta c) hizkietan aipatzen diren egoeretan dauden pertsonei fitxategia kontsultatzeko eskubidea dutela.
Aurreko paragrafoan aipatzen diren zerbitzu edo produktuak telefono bidez kontratatzen badira, eman beharreko informazioa idatzizkoa ez den beste bideren baten bidez emateko aukera egongo da, baina hirugarrenaren eginkizuna izango da informatzeko betebeharra bete duela frogatzea.

**43. artikulua. Erantzukizuna.**

**1.** Hartzekodunak edo bere kontura edo bere interesen alde diharduenak fitxategi komunaren erantzuleari datu txarrak jakinarazterakoan, ziurtatuta izan beharko du 38 eta 39. artikuluetan eskatzen diren baldintza guztiak betetzen dituela.

**2.** Fitxategian sartzeko asmoz datuak eman baditu hartzekodunak edo bere kontura edo interesen alde diharduenak, bere erantzukizuna izango da datu horiek ez agertzea edo zehatzak ez izatea, hain zuzen ere abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan esaten denaz bat.

**44. artikulua. Datuetan sartu, horiek zuzendu, ezereztu eta aurka egiteko eskubideak gauzatzea.**

**1.** Datuetan sartu, horiek zuzendu, ezereztu eta aurka egiteko eskubideak gauzatzean, erregelamendu honetako III. tituluko I. kapitulutik IV.era artekoetan xedatzen dena bete beharko da, nahiz eta artikulu honetan esaten dena ere bete beharko den.

**2.** Interesatuak datuetara sartzeko duen eskubidea baliatzen duenean, hain zuzen ere abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren 29.2. artikuluaren bidez araututako fitxategi batean bere datuak sartu direla eta, ondorengo arauak hartuko dira kontuan:

**1.ª** Eskabidea fitxategi komunaren titularrari igortzen bazaio, horrek tartean denari berari buruz fitxategian dauden datu guztien berri eman beharko dio.

Kasu horretan, fitxategi komunaren titularrak, erregelamendu honetan ezarritakoa betetzeaz gainera, azken sei hilabeteetan tartean denari buruz besteri emandako ebaluazio eta azalpenenak eman beharko dizkio tartean denari, eta baita lagapendunaren izena eta helbidea ere.

**2.ª** Eskaera sisteman parte hartzen duen beste erakunderen bati zuzentzen bazaio, erakunde horrek eskueran dituen datu pertsonal guztien berri eman beharko dio tartean denari, eta baita fitxategi komunaren titularra nor den eta helbidea ere bai, datuetara sartzeko duen eskubidea oso-osorik gauzatzeko modua izan dezan.

**3.** Interesatuak datuak zuzentzeko eta ezerezteko duen eskubidea baliatzen duenean, hain zuzen ere abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren 29.2. artikuluaren bidez araututako fitxategi batean bere datuak sartu direla eta, ondorengo arauak hartuko dira kontuan:

**1.ª** Eskaera fitxategi komunaren titularrari igortzen bazaio, horrek hartu beharreko neurriak hartuko ditu eskaera hori datuak eman dituen erakundearengana igortzeko, eta azken horrek ebazteko. Azken erakunde horrek ez baldin badio fitxategi komunaren erantzuleari zazpi eguneko epean erantzuten, erantzuleak datuak zuzendu edo ezereztu egingo ditu, kautelazko neurri gisa.

**2.ª** Datu horiek fitxategi komunaren eskuetan jarri dituen erakundeari igortzen bazaio eskaera, erakunde horrek datu horiek zuzendu edo ezereztu egingo ditu bere fitxategietan, eta fitxategi komunaren titularrari horren berri emango dio, hamar egun igaro baino lehen; horrekin batera, interesatuari ere erantzungo dio, erregelamendu honen 33. artikuluan aurreikusten den moduan.

**3.ª** Eskaera sisteman parte hartzen duen beste erakunde bati igortzen bazaio, eta hori ez bada izan datuak fitxategi komunaren eskuetan jarri dituena, erakunde horrek tartean denari egoera horren berri emango dio, gehienez ere hamar eguneko epean, eta fitxategi komunaren titularra nor den eta helbidea zein duen ere jakinaraziko dio, eskubideez baliatu nahi badu harengana jo dezan.

## II. Kapitulua. Publizitatea eta merkatua aztertzea helburu duten jarduueretarako tratamenduak

### 45. artikulua. Tratatzeko eta interesatuari jakinarazteko modukoak diren datuak.

**1.** Helbideak jaso, agiriak banatu, publizitatea egin, urrutiko salmenta, merkatu-prospekzioa eta antzeko beste jarduera batzuk dituztenek, edo jarduera horiek guztiak beren edo hirugarrenen produktuak nahiz zerbitzuak merkaturatzeko asmoz egiten dituztenek izenak eta helbideak edo izaera pertsonaleko beste datu batzuk erabiltzeko, baldintza hauek bete beharko dituzte datu horiek:

**a)** Jendearen esku dauden iturrietakoren batean egon beharko dute, hau da, abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren 3. artikuluaren j) hizkian eta erregelamendu honen 7. artikuluan aipatzen denetakoren batean, eta interesatua ez da paragrafo honetan aipatzen diren jardueretan bere datuak erabiltzearen aurka agertu beharko.

**b)** Interesdunek emandakoak izan beharko dute edo interesdunen adostasunarekin lortutakoak, publizitatearekin edo merkatu-prospekzioarekin zerikusia duten helburu jakin,

zehatz eta bidezkoetarako, eta interesatuei jakinarazi egin beharko zaio zein sektore zehatzetatik jasoko duten informazioa edo publizitatea.

**2.** Datuen jatorrizko iturriak jendartean eskuragarri baldin badaude eta datuok publizitaterako edo merkataritzako prospekzio-lanetarako erabiltzekoak badira, interesdunari, bidaltzen zaion komunikazio bakoitzean, derrigorra da adieraztea datuak nondik datozen, tratamenduaren erantzulea nor den eta zein eskubide dituen, eta baita eskubide horiek noren aitzinean erabili ahal izango dituen ere.
Horretarako, interesdunari jakinarazi behar zaio datuak lortu diren iturri horiek jendartean eskuragarri daudela, eta baita zein entitatetatik lortu diren ere.

**46. artikulua. Datuen tratamendua eta publizitate-kanpainak.**

**1.** Entitate batek bere bezeroen artean bere produktuen edo zerbitzuen berri publizitate bidez eman nahi badu, eta bere kasa egin nahi badu, tratamenduak abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren 6. artikuluan jasota datozen kasuetakoren batean oinarritu beharko du.

**2.** Entitateren batek beste inor kontratatzen edo ekartzen badu bere produktuei edo zerbitzuei buruzko publizitate-kanpaina jakin bat egiteko eta daturen batzuk tratatu beharra ere agintzen badio, arau hauek bete beharko dira:

**a)** Kanpaina kontratatzen duen entitateak zehazten baditu kanpainaren norentzakoa identifikatzeko parametroak, entitate hori izango da datuen tratamenduaren erantzulea.
**b)** Kontrataturiko entitateak edo entitateek zehazten badituzte parametro horiek, eta ez beste inork, entitate horiek izango dira datuen tratamenduaren erantzuleak.
**c)** Bi entitate-mota horiek esku hartzen badute parametroak zehazteko orduan, biak izango dira tratamenduaren erantzuleak.

**3.** Aurreko paragrafoko kasu horretan, publizitate-kanpaina agintzen duen entitatearen ardura izango da hartu beharreko neurriak hartzea ziur jakiteko entitate kontratatuak datuak abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan eta erregelamendu honetan jasota datozen betebeharrak zainduz bildu dituela.

**4.** Artikulu honetan jasotako ondorioetarako, hauek izango dira norentzakoa identifikatzeko parametroak: produktu edo zerbitzu batzuetarako merkataritzako kanpaina edo sustapen batean, kanpaina edo sustapen hori nori zuzenduta dagoen identifikatzeko erabiltzen diren aldagaiak, baldin eta banakako norentzakoak mugatzeko bidea ematen badute.

**47. artikulua. Datu pertsonalak iragaztea.**

Bi arduradunek edo bi baino gehiagok, beren produktuak edo zerbitzuak sustatzearren edo merkaturatzearren beraietako baten edo batzuen bezeroak nor diren jakin nahi dutela-eta, beren fitxategien tratamendu elkar-gurutzatua egiten badute tartean direnen oniritzirik gabe, eta berdin dio beren kasa egiten duten edo eginkizun hori beste edonori agintzen dioten, horrela egindako tratamendu hori datuak lagatzea edo jakinaraztea izango da.

**48. artikulua. Salerosketarako komunikazioak nora ez bidali jakiteko fitxategiak.**

Tartean denak erantzuleari adierazi badio ez duela publizitaterik jaso nahi, erantzuleak haren gutxien-gutxieneko datu batzuk gorde ahal izango ditu, hau da, nor den jakiteko eta publizitaterik ez bidaltzeko beharrezko gutxienekoak.

**49. artikulua. Salerosketarako komunikazioak nora ez bidali jakiteko fitxategi erkideak.**

**1.** Publizitaterik jaso nahi ez dutela adierazi duten interesdunei salerosketarako komunikaziorik ez bidaltzeko beharrezko datu pertsonalak direla-eta, beste aukera bat datu horiek tratatzeko fitxategi erkideak sortzea da, eta orokorrak edo arlokakoak izango dira.
Halakoetan, tartean den hori justu nor den jakiteko beharrezko datuak eduki ditzakete fitxategi horiek, eta ez besterik.

**2.** Tartean denak erantzule jakin bati adierazten baldin badio ez duela bere datuak publizitaterako edo merkataritza-prospekzioetarako erabiltzerik nahi, komunikazioak nora ez bidali jakiteko fitxategi erkideen berri eman beharko zaio tartean den horri, bai orokorren bai arlokakoen berri, eta fitxategi horien erantzulea nor eta zein helbide duen eta tratamendua zertarako den ere adierazi beharko zaio.

Tartean denak bere esku izango du halako tratamendu edo fitxategi jakin batean bere daturik ez erabiltzeko eskatzea edo komunikaziorik nahi ez dutenen fitxategi erkide orokor nahiz arlokakoetan sartzeko eskatzea.

**3.** Beren daturik publizitaterako edo merkataritza-prospekzioetarako ez erabiltzeko adierazi duten interesdunen datuak fitxategi erkidearen ardura duen entitateak abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan eta erregelamendu honetan jasota datozen gainerako betebeharrak zainduz tratatu ahal izango ditu.

**4.** Publizitatearekin edo merkataritza-prospekzioarekin zerikusia duen tratamenduren bat egin nahi izatera, aurretiaz, esku artean darabilten eginkizunarekin zerikusia duten fitxategi erkideetan begiratu beharko dute, ezezkoa adierazi duen inoren daturik ez tratatzearren.

**50. artikulua. Datuetan sartu, horiek zuzendu eta ezerezteko eskubidea.**

**1.** Publizitatearekin eta merkataritza-prospekzioekin zerikusia duten tratamenduetan, datuetan sartu, horiek zuzendu eta ezerezteko eskubidea erregelamendu honetako III. tituluko I.tik IV.era bitarteko kapituluetan aurreikusita dagoenaren araberakoa izango da.

**2.** Eskubide hori entitate baten aitzinean erabili nahi bada eta entitate horrek beste inori agindu badio publizitate-kanpaina bat egiteko, tartean denak eskubideak erabiltzeko egin duen eskariaren komunikazioa iristen zaion egunetik hamar eguneko epean, fitxategiaren erantzuleari eskari horren berri eman beharko dio. Komunikazioa iristen zaionetik, erantzule horrek hamar eguneko epea izango du tartean den horri eskubidea emateko, eta halaxe adierazi beharko dio.

Aurreko lerroaldean xedaturik dagoena hala xedaturik egonik ere, aurreko paragrafoan aipaturik dagoen entitateak abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren 5.5 artikuluko bigarren lerroaldean agindurik duen betebeharra beti bete beharko du.

### 51. artikulua. Aurka egiteko eskubidea.

**1.** Interesdunek badute beren datuen tratamenduaren aurka egiteko eskubidea. Eskaria aurretiaz egin beharko dute eta doakoa izango da. Eskari soila nahikoa izango da interesdun horiek tratamendutik at uzteko eta tratamenduan beraiei buruz dagoen informazioa indarrik gabe uzteko.
Aurreko lerroaldean jartzen duenak ez du esan nahi interesdunak, lehenago datu-tratamenduari baiezkoa eman izanagatik ere, gero, nahi duenean, oniritzi hori indarrik gabe utzi ezin duenik.

**2.** Halakoetarako, tratamenduaren aurka egin behar duenerako, interesdunari baliabide erraz eta doakoren bat eskaini behar zaio. Esate baterako, doako telefono-zenbaki batera deituz edo mezu elektroniko bat bidaliz egin badezakete, agindu honen bidez xedaturik dagoena beteta dagoela ulertuko da.

**3.** Fitxategiaren edo tratamenduaren erantzulea era bateko edo besteko zerbitzuez baliatzen bada bezeroei zerbitzua eskaintzeko edo eskainitako zerbitzuen edo produktuen inguruko erreklamazioak bideratzeko, tartean denak datuak aurkatzeko duen eskubidea zerbitzu horien bidez gauzatzeko aukera izango du.
Ez dira abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan xedatutakoaz bat datozenak izango zenbait ezeztatze-modu, baldin eta tratamenduaren erantzuleak ondorengo bideetakoren bat finkatzen badu interesatuak tratamenduari uko egiteko modutzat: ziurtatutako gutuna edo horren atzekoren bat bidali beharra, gehiago ordaindu beharra dakarren telekomunikazioko zerbitzu bat erabili beharra, edo beste edozein bide, horrek interesatuak gehiago ordaintzea baldin badakar.
Edonola ere, tartean denak bere eskubideak erabiltzeak ezin dio dena delako tratamenduaren erantzuleari sarrera gehigarririk ekarri.

**4.** Eskubide hori entitate baten aitzinean erabili nahi bada eta entitate horrek beste inori agindu badio publizitate-kanpaina bat egiteko, tartean denak eskubideak erabiltzeko egin duen eskariaren komunikazioa iristen zaion egunetik hamar eguneko epean, fitxategiaren erantzuleari eskari horren berri eman beharko dio. Komunikazioa iristen zaionetik, erantzule horrek hamar eguneko epea izango du tartean den horri eskubidea emateko, eta halaxe adierazi beharko dio.
Aurreko lerroaldean xedaturik dagoena hala xedaturik egonik ere, aurreko paragrafoan aipaturik dagoen entitateak abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren 5.5 artikuluko bigarren lerroaldean agindurik duen betebeharra beti bete beharko du.

# V. TITULUA. DATUAK TRATATZEN HASI AURREKO BETEBEHARRAK

## I. Kapitulua. Jabetza publikoko fitxategiak sortzeko, aldatzeko edo ezabatzeko

### 52. artikulua. Fitxategia sortzeko, aldatzeko edo ezabatzeko xedapena edo akordioa.

**1.** Titularitate publikoko fitxategiak sortzeko, aldatzeko edo ezabatzeko bide bakarra dago: «Estatuko Aldizkari Ofizialean» edo dagokion aldizkari ofizialean argitaraturiko xedapen orokor edo akordioa beharko da.

**2.** Xedapen edo akordio hori dena delako fitxategia sortu, aldatu edo ezabatu baino lehenago sortu eta argitaratu beharko da, beti.

**53. artikulua. Xedapenaren edo akordioaren forma.**

**1.** Xedapena estatuko administrazio orokorreko organoei buruzkoa edo hari loturik edo haren mendean dauden entitate edo organismoei buruzkoa baldin bada, ministerio-agindu baten edo dena delako entitate edo organismo horren titularraren ebazpen baten forma izan beharko du.

**2.** Estatua osatzen duten organoei buruzkoa bada, dena delako organoaren arauetan jartzen duena bete beharko da.

**3.** Fitxategiaren erantzuleak autonomia-erkidegoak edo toki-erakundeak badira, edo haiei loturiko edo haien menpeko entitate edo organismoak badira, edo unibertsitate publikoak badira, edo autonomia-erkidegoenak izanagatik ere estatua osatzen duten organoen pareko eginkizunak betetzen dituzten organoak baldin badira, halakoetan berariazko legeetan jartzen duena bete beharko da.

**4.** Zuzenbide publikoko korporazioen ardurapean baldin badaude eta korporazio horiek zuzenbide publikoko ahalak gauzatu behar dituztenean erabiltzekoak baldin badira, halako fitxategiak sortzeko, aldatzeko edo ezabatzeko, korporazio horien gobernu-organoen akordioa beharko da, nork bere estatutuetan jasota duen moduan, eta akordio hori «Estatuko Aldizkari Ofizialean» edo dagokion aldizkari ofizialean argitaratu beharko da.

**54. artikulua. Xedapenaren edo akordioaren edukia.**

**1.** Fitxategia sortzeko xedapenean edo akordioan datu hauek zehaztu beharko dira:

**a)** Fitxategiaren edo datu-tratamenduaren identifikazioa, hau da, zein izen duen eta zertarako den eta zertarako erabiltzeko asmoa dagoen.
**b)** Datuen jatorria, hau da, zein jendarteren datu pertsonalak lortu nahi diren edo zein jendarte dagoen datu pertsonalak ematera beharturik, datuak nola bilduko diren eta datu horien jatorria.
**c)** Fitxategiaren oinarrizko egitura, hau da, identifikazio-datuak zehatz-mehatz azaldu beharko dira, eta, halakorik baldin badago, baita bereziki babesturiko datuak ere. Fitxategiak bere baitan dituen gainerako datu-kategoriak (datu pertsonalez ari gara) eta antolaketarako zein tratamendu-sistema darabilen ere azaldu beharko da.
**d)** Aurreikusitako datu-jakinarazpenak, eta, halakorik egin behar bada, baita jakinarazpenak norentzat izango diren edo norentzako horien sailkapena (kategoriak).
**e)** Beste herrialde batzuetarako aurreikusitako nazioarteko datu-eskualdaketak, eta, halakorik egin behar bada, baita datu horiek beste zein herrialdetara bidaliko diren ere.
**f)** Fitxategiaren erantzukizuna duten organoak.
**g)** Datuetan sartzeko, zuzentzeko, ezerezteko eta haien aurka egiteko eskubideak zein zerbitzu edo ataletan erabil daitezkeen.
**h)** Erregelamendu honetako VIII. tituluan jasota dagoenaren arabera, oinarrizko, bitarteko eta goreneko zein segurtasun-maila eska daitekeen.

**2.** Fitxategia aldatzeko xedapenean edo akordioan, aurreko paragrafoan zehazturik datozen alderdietako edozeinetan zer-nolako aldaketak egin diren ere azaldu beharko da.

**3.** Fitxategiak ezabatzeko xedapenetan edo akordioetan, datuek non amaituko duten azaldu beharko da, eta, ezabatu egin behar badira, baita ezabatzeko zein neurri hartuko diren ere.

## II. Kapitulua. Titularitate publikoko edo pribatuko fitxategien berri ematea eta inskripzioa

**55. artikulua. Fitxategien berri ematea.**

**1.** Datu pertsonalen fitxategia titularitate publikokoa baldin bada, fitxategiaren ardura duen administrazioko organo eskumendunak haren berri Datuak Babesteko Espainiako Bulegoan eman beharko du, Datuak Babesteko Erregistro Nagusian inskriba dezan. Fitxategia sortzeko araua edo akordioa dagokion aldizkari ofizialean argitaratzen denetik, hogeita hamar eguneko epea izango du horretarako.

**2.** Datu pertsonalen fitxategia titularitate pribatukoa baldin bada, sortu nahi duen pertsonak edo erakunde pribatuak eman beharko du haren berri Datuak Babesteko Espainiako Bulegoan, fitxategia sortu baino lehenago. Fitxategiaren berri emateko agirian, datu hauek denak zehaztu beharko dira: fitxategiaren erantzulea nor den; fitxategiaren identifikazioa; zertarako den eta zertan erabiliko den; antolaketarako erabiliko den tratamendu-sistema; datuak zein jendarterenak izango diren; datu horiek nola eta nondik lortuko diren; datu-kategoriak; datuetan sartzeko zerbitzua edo atala; eska daitezkeen oinarrizko, bitarteko eta goreneko segurtasun-neurriak; eta, halakorik baldin badago, fitxategiak dauden lekuan nork izango duen datuak tratatzeko ardura, eta daturik nazioartean laga edo eskualdatu behar bada, nora laga edo eskualdatuko diren.

**3.** Fitxategia autonomia-erkidego baten kontrol-agintearen eskumenpekoa baldin bada eta autonomia-erkidego horrek bere fitxategi-erregistroa baldin badauka, autonomia-erkidegoko aginte eskumendunari eman beharko zaio fitxategiaren berri, eta haren ardura izango da inskripzioa Datuak Babesteko Erregistro Nagusira lekualdatzea.
Beste aukera bat da aurreko paragrafoko lekualdaketa hori Datuak Babesteko Erregistro Nagusiak eskatzea autonomia-erkidegoetako kontrol-aginteei. Halakoetan, lehenagotik jasota ez bazegoen, fitxategia erregistroan ofizioz jasota geratuko da.

**4.** Erregelamendu honetako IX. tituluko IV. kapituluko lehen atalean dago zehazturik nola egingo den berri emate hori.

**56. artikulua. Euskarri ezberdinetan datozen datuen tratamendua.**

**1.** Datu pertsonalen fitxategien berri emateak ez du zerikusirik haiek antolatzeko erabili ote den tratamendu-sistemarekin eta datuak tratatzeko erabili ote den euskarriarekin edo euskarriekin.

**2.** Tratatu beharreko datu pertsonalak euskarri ezberdinetan baldin badaude biltegiraturik eta euskarri batzuk automatizatuak badira eta beste batzuk automatizatu gabeak, edo fitxategi automatizatu baten kopia automatizatu gabe bat ere baldin badago, nahikoa da fitxategiaren berri behin bakarrik ematea.

**57. artikulua. Fitxategiaren erantzule bat baino gehiago baldin badago.**

Sortu beharreko fitxategia aldi berean pertsona edo erakunde bat baino gehiagoren ardurapean baldin badago, pertsona edo erakunde bakoitzak eman beharko du fitxategiaren sorreraren berri, hartara, Datuak Babesteko Erregistro Nagusian inskriba dezaten edo, beharrezkoa bada, autonomia-erkidegoetako kontrol-aginteek sorturiko fitxategi-erregistroetan inskriba dezaten.

**58. artikulua. Fitxategia aldatu edo ezabatu izanaren berri ematea.**

**1.** Fitxategiaren inskripzioak eguneraturik egon behar du, beti. Fitxategi baten inskripzioaren edukian inolako eraginik baldin badu, edozein aldaketa egin baino lehen, Datuak Babesteko Espainiako Bulegoari edo autonomia-erkidegoko dena delako kontrol-agintariari jakinarazi beharko zaio, dagokion erregistroan inskriba dezaten, 55. artikuluan xedaturik dagoen moduan.

**2.** Fitxategiaren erantzuleak fitxategia ezabatzea erabakitzen badu, erabaki horren berri ere eman beharko du, dena delako erregistroan inskripzioa indarrik gabe utz dezaten.

**3.** Titularitate publikoko fitxategietan, aldaketaren bat egin nahi bada eta aldaketa horrek 55. artikuluko eskakizunen batean inolako eraginik baldin badu, edo fitxategia ezabatu egin nahi bada, berri eman baino lehen, hartarako araua edo akordioa hartu beharko da, titulu honetako I kapituluan zehazturik dagoen moduan.

**59. artikulua. Berri emateko ereduak eta euskarriak.**

**1.** Datuak Babesteko Espainiako Bulegoak hainbat eredu edo inprimaki elektroniko argitaratuko du, haien bidez fitxategien berri eman, fitxategiak sortu, aldatu edo ezabatu ahal izateko. Zuzendariaren dagokion ebazpenaren bidez egin beharko du, eta baliabide telematikoak erabiliz edo paperean aurkezteko modukoak izango dira. Eta autonomia-erkidegoetako datu-babeserako agintariek galdetuz edo eskatuz gero, autonomietako kontrol-agintariek fitxategi publikoen berri telematikoki emateko formatuak ere argitaratuko ditu, erregelamendu honetako 55. eta 58. artikuluetan jartzen duen moduan.

**2.** Berri emateko eredu edo inprimaki elektronikoak Datuak Babesteko Espainiako Bulegoaren web orritik lortu ahal izango dira, doan.

**3.** Kasuan kasuko tratamenduan bestelako gorabeherarik baldin bada, edo zein fitxategi-motaren berri eman behar den kontuan harturik, Datuak Babesteko Espainiako Bulegoko zuzendariak jakinarazpen-prozedura erraztuak sortzeko aukera ere badu.

**60. artikulua. Fitxategiak inskribatzea.**

**1.** Inskripziorako ebazpena Datuak Babesteko Espainiako Bulegoko zuzendariak emango du, Datuak Babesteko Erregistro Nagusiaren proposamenez, eta IX. tituluko IV. kapituluan jasota datorren prozedurak bere bidea egin ondoren.

**2.** Inskripzioan, datu hauek jaso beharko dira: erregistroak emaniko kodea; nor den fitxategiaren erantzulea; fitxategiaren edo tratamenduaren identifikazioa; zertarako den eta zertan erabili behar den; antolaketan erabilitako tratamendu-sistema; beharrezkoa bada, datuak zein jendarterenak diren; datuak nola eta nondik lortu diren; datu-kategoriak; datuetan sartzeko zerbitzua edo atala; eta, 81. artikuluan xedaturik dagoenaren arabera, zein mailatako segurtasun-neurriak eska daitezkeen.
Era berean, eta halakorik baldin badago, fitxategiak dauden lekuan datuak tratatzeko ardura nork izango duen, eta daturik nazioartean laga edo eskualdatu behar bada, nora laga edo eskualdatuko diren ere zehaztu beharko da.
Fitxategia titularitate publikokoa baldin bada ere zehaztu beharko da fitxategia zein xedapen orokor bidez sortu edo, hala bada, aldatu den, erreferentzia adieraziz.

**3.** Fitxategi bat Datuak Babesteko Erregistro Nagusian inskribatu izanagatik ere, horrek ez du esan nahi erantzuleak ez dituela bete behar abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan datozen gainerako betebeharrak eta gainerako erregelamendu-xedapenak.

**61. artikulua. Inskripzioa indargabetzea.**

**1.** Tratamenduaren erantzuleak fitxategia ezabatu egin dela jakinarazten duenean (erregelamendu honetako 58. artikuluan xedaturik dagoenaren arabera egin beharko du), Datuak Babesteko Espainiako Bulegoko zuzendariak, IX. tituluko IV. kapituluko lehen atalean zehazturiko prozedurak bere bidea egin ondoren, fitxategiaren inskripzioa indarrik gabe uztea erabakiko du, ebazpen bidez.

**2.** Gorabeheraren batengatik ikusten badu ezinezkoa dela fitxategi jakin bat indarrean edukitzea, Datuak Babesteko Espainiako Bulegoko zuzendariak ofizioz erabaki dezake fitxategi horren inskripzioa indarrik gabe uztea, bere eskumenak baliatuz, eta erregelamendu honetako IX. tituluko IV. kapituluko bigarren atalean datorren prozedurak bere bidea egin ondoren.

**62. artikulua. Akatsak zuzentzea.**

Inskripzioetan akats materialik, egitezkorik edo aritmetikorik baldin badago, Datuak Babesteko Erregistro Nagusiak edozein momentutan zuzendu ditzake, bai ofizioz bai interesdunek hala eskaturik, azaroaren 26ko 30/1992 Legeko 105. artikuluan xedaturik dagoen moduan.

**63. artikulua. Titularitate publikoko fitxategiak ofizioz inskribatzea.**

**1.** Kasu jakin batzuetan eta salbuespen modura, tartean direnei datuak babesean edukitzeko eskubidea bermatzearren, baliteke fitxategi jakin bat ofizioz inskribatzea Datuak Babesteko Erregistro Orokorrean, baina horrek ez du esan nahi jakinarazi behar ez denik.

**2.** Aurreko paragrafoan xedaturikoa bete ahal izateko, bada ezinbesteko baldintza bat, hau da, datu pertsonalak dituen dena delako fitxategia arautzen duen araua edo akordioa dagokion aldizkari ofizialean argitaraturik egon beharko du, eta abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan jasota datozen baldintzak ere bete beharko ditu, eta baita erregelamendu hau ere.

**3.** Datuak babesteko erregistro nagusiak hala proposatzen baldin badio, Datuak Babesteko Espainiako Bulegoko zuzendariak titularitate publiko fitxategia inskribatzea erabaki dezake. Erabaki horren berri fitxategiaren ardura duen erakundeari emateko ardura hartu beharko du.
Autonomia-erkidego bateko kontrol-agintariaren eskumenpekoak baldin badira inskribatu beharreko fitxategiak, eta autonomia-erkidego horrek lehenagotik sortua baldin badu bere fitxategi-erregistroa, autonomia-erkidegoko kontrol-agintari horrengana jo beharko da, ofizioz egin dezan inskripzioa, hala egin behar bada.

**64. artikulua. Autonomia-erkidegoetako kontrol-agintariekiko lankidetza.**

Datuak Babesteko Espainiako Bulegoko zuzendariak autonomia-erkidegoetako kontrol-aginteetako zuzendariekin egokia iruditzen zaion nahi beste lankidetza-hitzarmen edo akordio izenpetu dezake, aginte autonomiko horien eskumenpean dauden fitxategiak Datuak Babesteko Erregistro Nagusian inskribatuko direla bermatzearren.

# VI. TITULUA. DATUAK NAZIOARTEAN ESKUALDATZEA

## I. Kapitulua. Xedapen orokorrak

**65. artikulua. Abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoko xedapenak betetzea.**

Datuak nazioartean eskualdatzeak ez du esan nahi, inoiz ere ez, abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoko eta erregelamendu honetako xedapenak bete behar ez direnik.

**66. artikulua. Baimena eta jakinarazpena.**

**1.** Datuen nazioarteko eskualdaketa abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan xedaturikoaren arabera egindakotzat hartzea nahi izatera, Datuak Babesteko Espainiako Bulegoko zuzendariaren baimena beharko da, eta, horretarako, esportatzaileak erregelamendu honetako 70. artikuluan zehazturik datozen bermeak eskaini beharko ditu.
Erregelamendu honetako IX. tituluko V. kapituluko lehen atalean dago zehazturik nola emango den baimen hori.

**2.** Noiz ez den baimenaren beharrik izango:

**a)** Titulu honetako II. kapituluaren arabera, datu-inportatzailea dagoen estatuak nahikoa babes eskaintzen duenean.
**b)** Dena delako eskualdaketa abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoko 34. artikuluko **a)** eta **j)** bitarteko ataletan zehazturik datozen kasuetakoren bat baldin bada.

**3.** Edonola ere, daturik nazioartean eskualdatu nahi izatera, jakinarazi egin beharko da, beti, Datuak Babesteko Erregistro Orokorrean inskribatzeko, erregelamendu honetako IX. tituluko IV. kapituluko lehenengo atalean zehazturik datorren prozeduraren arabera.

## II. Kapitulua. Eskualdaketa nahikoa babes-maila eskaintzen duten beste estatu batzuetara egin behar bada

**67. artikulua. Babes-maila egokia, Datuak Babesteko Espainiako Bulegoaren arabera.**

**1.** Datuak Babesteko Espainiako Bulegoko zuzendariak uste badu inportatzailea dagoen estatuak babes-maila egoki hori eskaintzen duela, datuak nazioartean eskualdatzeko ez da, aurretiaz, Datuak Babesteko Espainiako Bulegoaren baimenik behar izango.
Datuak eskuratu behar dituen herrialdeak segurtasun-maila egokia eskaintzen duen edo ez balioesteko, eskualdaketaren edo eskualdaketa-kategoriaren gorabehera guztiak hartuko dira aintzakotzat, eta, bereziki, gorabehera hauek: datuak nolakoak diren; zertarako eta zenbat denboran erabili/tratatzekoak diren; zein herrialdetatik eskualdatzen diren eta, azken-azkenean, zein herrialdetara iritsiko diren; eskuratu behar dituen herrialde horretan indarrean dauden zuzenbide-arauak, bai orokorrak bai arlokoak; Europar Batasuneko Batzordearen txostenen edukia; eta herrialde horietan indarrean dauden arau profesionalak eta segurtasun-neurriak.
Datuak Babesteko Espainiako Bulegoko zuzendariak ebazten duenean herrialde jakin batek datuak babesteko babes-maila egokia eskaintzen duela, ebazpen hori «Estatuko Aldizkari Ofizialean» argitaratu beharko dira.

**2.** Datuak Babesteko Espainiako Bulegoko zuzendariak babes-maila egokia eskaintzen duten herrialdeen zerrenda bat argitaratuko du. Aurreko paragrafoan zehazturik dagoen moduan erabakiko da Babes egokia eskaintzen ote duten.
Zerrenda hori baliabide informatikoak edo telematikoak erabiliz emango da argitara eta baliabide horiexek erabiliz edukiko da eguneraturik.

**68. artikulua. Babes-maila egokia, Europako Batzordearen erabaki bidez aitortua.**

Europako Batzordeak aitortu baldin badu datuak inportatu behar dituen hori dagoen estatuan babes-maila egokia dagoela (eta berdin dio inportatzailea pertsona edo erakunde pribatua nahiz publikoa izan), nazioarteko datu-eskualdaketa egiteko ez da Datuak Babesteko Espainiako Bulegoko zuzendariaren baimena beharko.

**69. artikulua. Eskualdaketak behin-behingoz etenda uztea.**

**1.** Aurreko artikuluetan zehazturik datozen kasuetan, eta datuak inportatu behar dituen hori dagoen estatuak babes-maila egokia aitorturik izanagatik ere, baliteke Datuak Babesteko Espainiako Bulegoko zuzendariak erabakitzea atzerrirako datu-eskualdaketa behin-behingoz etenda utzi beharra dagoela, abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoko 37.2.f) artikuluak ematen dion ahalmena baliatuz, aurretiaz esportatzailearen iritzia entzun ondoren, eta tartean gorabehera hauetakoren bat baldin badago:

> **a)** Datuak inportatu behar dituen estatuan datuak babesteko ardura duten agintariek edo, halakorik ezean, horretarako eskumena duen beste edozein agintarik ebatzi du inportatzaileak urratu egin dituela datu-babeserako barruko zuzenbideko arauak.
> **b)** Antza denez, eta nahiko garbi egon behar da hala dela, datuak inportatu behar dituen erakundea datu-babeserako arauak edo printzipioak urratzen ari da eta inportatzaile hori dagoen estatuko agintari eskumendunek orain arte ez dute arazoa konpontzeko hartu beharreko neurririk hartu edo bihar-etzi ere ez dute halakorik hartuko, nahiz eta Datuak Babesteko Espainiako Bulegoak jakinaren gainean jarri dituen. Halakoetan, litekeena bada eskualdaketak tartean direnei berehala kalte handia eragitea, eskualdaketa eten egin daiteke.

**2.** Erregelamendu honetako IX. tituluko V. kapituluko bigarren atalean zehazturik datorren prozedurak bere bidea egin ondoren erabaki beharko da etenaldia.
Halakoetan, Datuak Babesteko Espainiako Bulegoko zuzendariaren erabakia Europako Batzordeari jakinarazi beharko zaio.

## III. Kapitulua. Eskualdaketa nahikoa babes-maila eskaintzen ez duten beste estatu batzuetara egin behar bada

**70. artikulua. Datuak Babesteko Espainiako Bulegoko zuzendariaren baimenaren menpe dauden eskualdaketak.**

**1.** Eskualdaketa atzerriko beste estatu batera egitekoa bada, baina Europako Batzordeak ez badu aitortu edo Datuak Babesteko Espainiako Bulegoko zuzendariak ez badu uste estatu horrek babes-maila egokia duela, aurretiaz, Datuak Babesteko Espainiako Bulegoko zuzendariaren baimena lortu beharko da.

Erregelamendu honetako IX. tituluko V. kapituluko lehen atalean dago zehazturik nola izapidetuko den eskualdaketarako baimen hori.

**2.** Fitxategiaren erantzuleak edo datuak tratatzeko erantzuleak idatzizko hitzarmen bat aurkezten badu, datuak esportatu behar dituenak eta inportatu behar dituenak egina, eta hitzarmen horretan ageri bada badagoela nahikoa berme tartean direnen bizitza pribatua eta funtsezko eskubideak eta askatasunak zaintzeko eta beraien eskubideak arazorik gabe erabili ahal izango dituztela ziurtatzeko, orduan eman daiteke baimena.
Halakoetan, hitzarmen hauek eskainiko dituzte behar bezalako bermeak: Europako Batzordearen erabaki hauetan jasotakoaren arabera egiten diren hitzarmenak: 2001eko ekainaren 15eko 2001/497/EE, 2001eko abenduaren 27ko 2002/16/EE, eta 2004ko abenduaren 27ko 2004/915/EE; edo Batzordeak 95/46/EE direktibako 26.4 artikuluan agindurik dagoena betetzearren hartzen dituen erabakietan xedaturik datorrena betetzen dutenak.

**3.** Aurreko paragrafoko kasuetan, Datuak Babesteko Espainiako Bulegoko zuzendariak baimenik ez emateko edo, abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoko 37.1 f) artikuluak ematen dion ahalmena baliatuz, baimena behin-behingoz etenda uzteko aukera izango du, datu-esportatzailearen iritzia entzun ondoren, eta tartean gorabehera hauetakoren bat baldin bada:

**a)** Datuak eskuratu behar dituen estatuan funtsezko eskubideen eta askatasun publikoen babesa zertan den edo legedia zer-nolakoa duten ikusita, ezinezkoa da ziur jakitea hitzarmena osorik beteko dela eta tartean direnek benetan izango dutela hitzarmenak ematen dizkien eskubideak erabiltzeko aukera.
**b)** Datuak jaso behar dituen erakundeak lehenago ere urratu izan du halako hitzarmenetako baldintzetan jasota zegoen bermerik.
**c)** Nahiko garbi dago datuak inportatu behar dituena ez dela hitzarmenak eskainitako bermeak betetzen ari edo ez dituela beteko.
**d)** Nahiko garbi dago hitzarmena aplikatzeko bitartekoak ez direla eraginkorrak edo ez direla eraginkorrak izango.
**e)** Eskualdaketa eginez gero edo, hasita badago, eskualdaketak aurrera jarraituz gero, baliteke tartean direnei benetako kaltea eragiteko moduko arriskua ekartzea.

Erregelamendu honetako IX. tituluko V. kapituluko bigarren atalean zehazturik datorren prozedurak bere bidea egin ondoren erabaki beharko da etenaldia.
Datuak Babesteko Espainiako Bulegoko zuzendariak ebazten badu paragrafo honetan zehazturik datozen gorabeherak direla-eta nazioarteko datu-eskualdaketaren bat eragotzi edo eten egin beharra dagoela, ebazpen hori Europako Erkidegoetako Batzordeari jakinarazi behar zaio, hala egin beharra dagoenetan.

**4.** Hainbat naziotako enpresa-taldeen baitan, berriz, baldintza hauek betetzen badituzte eman ahal izango da datuen nazioarteko eskualdaketarako baimena: bizitza pribatua babestu beharra zaintzeko eta tartean direnen datuen funtsezko babes-eskubidea zaintzeko nahikoa berme eduki behar dute barne-arauetan jasota; eta abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan eta erregelamendu honetan aitortutako printzipioak beteko direla eta aitortutako eskubideak erabili ahal izango direla ere bermatu beharko dute.
Halakoetan, Datuak Babesteko Espainiako Bulegoko zuzendariak baimena emateko, taldeko enpresetan arau horiek lotesleak izan beharko dute, eta Espainiako ordenamendu juridikoaren arabera eskatzeko modukoak ere izan beharko dute.

Edonola ere, Datuak Babesteko Espainiako Bulegoko zuzendariak baimena emanez gero, horrek esan nahiko du barne-arauetan zehazturik daukaten hori betetzeko eska diezaieketela bai Bulegoak bai tartean direnek, hau da, tratatu dituzten datuen jabeek.

## VII. TITULUA. EREDU MODUKO KODEAK

### 71. artikulua. Zertarako diren eta nolakoak diren.

**1.** Eredu moduko kodeak abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoko 32. artikuluan datoz zehazturik. Izan ere, lege horren eta erregelamendu honen itzalpean jarduten dutenen artean, datuen tratamenduak hainbat berezitasun izango du, eta lege hori eta erregelamendu hau berezitasun horietara egokitzeko dira eredu-kode horiek.
Horretarako, eredu horietan berariazko hainbat arau edo estandar egongo da jasota, haien bidez, ereduetara biltzen direnen datu-tratamendua ahalik eta gehien berdindu ahal izateko, tartean direnei beren eskubideak erabiltzen laguntzeko, eta abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan eta erregelamendu honetan xedaturikoa betetzen laguntzeko.
**2.** Ereduzko kode horiek kode deontologiko edo lanerako arau-kode modukoak izango dira haien baitara biltzen direnentzat, derrigor bete beharrekoak, lotesleak.

### 72. artikulua. Ekimena eta aplikazio-eremua.

**1.** Ereduzko kodeak borondatezkoak izango dira.

**2.** Arlokako ereduzko kodeak arlo bereko hainbat erakundek gauzatzen dituen tratamenduei buruzkoak izango dira, batzuetan tratamenduetako batzuei edo beste batzuetan tratamendu guztiei buruzkoak. Dena delako arlo horren berri adierazteko moduko antolakunderen batek sortu beharko ditu (bere lurralde-aplikazio-eremuan izan beharko du adierazgarria gutxienez), eta erakunde bakoitzak kodea bere beharretara egokitzeko aukera izango du.

**3.** Enpresa batek sustatzen badu ereduzko kodea, enpresa horrek egiten dituen tratamendu guztiak jaso beharko ditu bertan.

**4.** Herri-administrazioek eta zuzenbide publikoko korporazioek, nahi badute, bete behar dituzten arauen araberako eredu-kodeak har ditzakete berentzako.

### 73. artikulua. Edukia.

**1.** Ereduzko kodeek argi eta garbi idatzita egon beharko dute.

**2.** Ereduzko kodeek derrigorra dute indarrean dauden arauak zaintzea, eta, gutxienez, gauza hauek denak jaso behar dituzte, behar bezain zehatz:

> **a)** Zehatz-mehatz adierazi beharko dute non bete behar den (aplikazio-eremua), zein jarduerari buruzkoa den, eta zein tratamendutan bete beharrekoa den.
> **b)** Datuak babesteko printzipioak aplikatu beharra dela-eta, berariazko zein aurreikuspen dagoen.
> **c)** Estandar homogeneo batzuk zehaztu beharko ditu, kodera biltzen direnek abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan jasota datozen betebeharrak bete behar dituztenerako.

**d)** Tartean direnek datuetan sartzeko, zuzentzeko, ezerezteko eta haien aurka egiteko eskubidea errazago erabili ahal izateko beharrezko prozedurak bideratu beharko dituzte.

**e)** Datuak nazioartean lagatzeko edo eskualdatzeko aurreikuspenik baldin badute, lagapen eta eskualdaketa horiek zehaztu egin beharko dituzte, zein berme hartu behar diren zehazteaz batera.

**f)** Datuen babesari buruz, datu horiek tratatu behar dituztenei zein prestakuntza-ekintza eskainiko dizkieten, batez ere tartean direnekiko hartu-emanak direla-eta.

**g)** Zein ikuskatze-baliabide erabiliko den, kodera biltzen direnek kodean jasota dagoena benetan beteko dutela bermatzeko, erregelamendu honetako 74. artikuluan zehazturik dagoen moduan.

**3.** Zehatzago esanda, kodean gauza hauek denak jaso beharko dira:

**a)** Tartean direnek datuak tratatzeari edo lagatzeari baiezkoa eman ahal izateko klausula-ereduak.

**b)** Datuak beste nonbaitetik jaso direnean, hau da, tartean diren horiengandik ez beste nonbaitetik, tartean diren horiei jakinarazteko klausula-ereduak.

**c)** Tartean diren horiek datuetan sartzeko, zuzentzeko, ezerezteko eta haien aurka egiteko eskubidea erabili ahal izateko ereduak.

**d)** Beharrezkoa bada eta datuen tratamendurako arduradun bat kontratatu behar bada, formazko betebeharrak betetzeko klausula-ereduak.

### 74. artikulua. Konpromiso osagarriak.

**1.** Kodera bildu direnek beste konpromiso osagarririk berenganatzen baldin badute datuak babesteko legedia hobeto betetzearren, ereduzko kodeetan halako beste edozein konpromiso ere jaso daiteke.

**2.** Eta erakunde sustatzaileek zehazten duten beste edozein konpromiso ere jaso ahal izango dute. Bereziki, gai hauei buruzkoak:

**a)** Abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan eta erregelamendu honetan eskatzen direnez gainera, beste segurtasun-neurri osagarri batzuk hartzeko aukerari buruzkoak.

**b)** Datuen lagatzaileen edo inportatzaileen kategoriak identifikatzeari buruzkoak.

**c)** Zehazki adingabekoak edo beste jendarte batzuk babestearren hartutako neurri zehatzei buruzkoak.

**d)** Kodera bildurik daudenak identifikatzearren, kalitate-zigilu bat asmatzeari buruzkoak.

### 75. artikulua. Ereduzko kodeak betetzeko bermeak.

**1.** Ereduzko kodeetan, aparteko ikuskatze-prozedura batzuk ere jaso beharko dira, bermatzeko kode-kideek betetzen dituztela onartu dituzten betebeharrak, eta zehapen-sistema egokia, eraginkorra eta atzera egin arazteko modukoa zehazteko.

**2.** Dena delako prozedura horrek alderdi hauek bermatu beharko ditu:

**a)** Ikuskaritza-lana egiteko ardura duen organoak loturarik gabe eta mendekotasunik gabe jardun behar du.

**b)** Baten batek ereduzko kode hori urratu egiten badu, organo horretan aurkeztu beharreko kexak eta erreklamazioak erraz, oztoporik gabe, bizkor eta doan aurkeztu behar dira.

**c)** Kontraesan-printzipioa.

**d)** Zehapen-sailkapen moduko bat, urraketa zein larria izan den gorabeheran, zehapen bat edo bestea jartzea erabaki ahal izateko. Zehapen horiek urraketa-egilea atzera egin arazteko balio behar dute, eta baliteke kodearekiko duen lotura etetea edo bertatik kanpora botatzea ekartzea. Eta jendartean urraketaren berri emateko aukera ere badago.

**e)** Tartean denari emango zaiola erabakiaren berri.

**3.** Ereduzko kodea urratzearen ondorioz, baliteke tartean direnei kalteren bat eragitea, eta, halakoetarako, ordaina zehazteko prozedurak ere jaso ditzakete ereduzko kodeek, baina horrek ez du esan nahi abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoko 19. artikuluan xedaturikoa bete behar ez denik.

**4.** Artikulu honetan xedaturikoa bete egin behar bada ere, Datuak Babesteko Espainiako Bulegoaren eta, halakorik baldin badago, autonomia-erkidegoetako kontroleko agintarien eskumenetatik ezer kendu gabe egin beharko da.

**76. artikulua. Kode-kideen zerrenda.**

Ereduzko kodean, eranskin modura, kode-kideen zerrenda ere jaso beharko da. Zerrenda horrek eguneraturik eta Datuak Babesteko Espainiako Bulegoaren eskura egon beharko du.

**77. artikulua. Ereduzko kodeak non jaso behar diren. Halako ereduen berri ematea.**

**1.** Abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoko 32. artikuluaren eta erregelamendu honen ondorioetarako ereduzko kodeak benetan ereduzko kodetzat har daitezen, Datuak Babesteko Espainiako Erregistroko Datuak Babesteko Erregistro Nagusian jaso eta inskribatu beharko dira, edo, hala egokitzen bada, dena delako autonomia-erkidegoak sortua duen erregistroan. Hark, gero, Datuak Babesteko Erregistro Nagusira lekualdatuko du, han ere jaso dezaten.

**2.** Horretarako, ereduzko kode horiek dena delako kontrol-agintaritzan aurkeztu beharko dira. Kode horiek Datuak Babesteko Espainiako Bulegoaren erabakiaren mende baldin badaude, inskripzioa erregelamendu honetako IX. Tituluko VI. Kapituluko prozeduraren arabera izapidetuko zaie.

**3.** Datuak Babesteko Espainiako Bulegoak inskribaturik dauden ereduzko kodeen berri eman beharko du, beti, eta ahal dela baliabide informatikoak edo telematikoak erabiliz.

**78. artikulua. Ereduzko kodea inskribatu ondoren datozen betebeharrak.**

Ereduzko kodea argitaratu eta gero, kodea sustatu duten erakundeek edo kodean bertan halako gauzetarako izendatzen diren organoek, pertsonek edo erakundeek betebehar hauek izango dituzte:

**a)** Erakunde sustatzaileei, ereduzko kodearen edukiari, kodera biltzeko prozedurei eta beteko dela ziurtatzeko bermeei buruzko informazio eguneratua eta aurreko artikuluan zehazturik datorren kode-kideen zerrenda jendearen eskura eduki behar dute.

Informazio hori labur eta garbi-garbi aurkeztu behar dute, eta baliabide elektronikoak erabiliz eskuratzeko moduan egon behar du, une oro.

**b)** Urtero-urtero, Datuak Babesteko Espainiako Bulegoari txosten bat bidali beharko diote, eta, txosten horretan, zehaztu beharko dute ea zer egin duten ereduzko kodearen berri

zabaltzeko eta kode horretara jende gehiago erakartzeko; zer egin duten kodea bete ote den egiaztatzeko eta egiaztapen-lan horren emaitzak; izapideturiko kexak eta erreklamazioak eta zein bide jarraitu duten; eta erakunde sustatzaileen iritziz aditzera eman beharrekoa den beste edozein alderdi.

Dena delako ereduzko kodea autonomia-erkidego baten kontrol-agintariaren erregistroan baldin badago inskribaturik, txostena agintari horri bidali beharko zaio, eta hark lekualdatuko du Datuak Babesteko Erregistro Nagusira.

**c)** Aldian-aldian, ereduzko kodea eraginkorra ote den ebaluatu beharko dute, tartean direnak asebeterik zenbateraino dauden neurtuz. Beharrezkoa bada, kodearen edukia eguneratzea ere badagokie, datu-babeserako momentuan momentuko araudi orokorrera edo arlokakora egokitzeko.

Ebaluaketa hori gutxienez lau urtean behin egin beharko da, non eta ez den gertatzen, bete beharreko arauak aldatu egin dituztela-eta, kodearen konpromisoak lehenago egokitu beharra.

**d)** Ereduzko kodeari buruz eskura daitekeen informazio guztia pertsona guztien eskura izateko ahaleginak egin behar dituzte, batez ere ezintasunen bat dutenen edo adinez aurrera doazenen eskura.

# VIII. TITULUA. DATU PERTSONALAK TRATATZEKO ORDUAN BETE BEHARREKO SEGURTASUN-NEURRIAK

## I. Kapitulua. Xedapen orokorrak

**79. artikulua. Irismena.**

Tratamendu-sistema edozein delarik ere, tratamenduaren edo fitxategien erantzuleek eta tratamendu-arduradunek titulu honetan xedaturik dagoen moduan bete behar dituzte segurtasun-neurriak.

**80. artikulua. Segurtasun-mailak.**

Fitxategietan eta tratamendu-lanetan eska daitezkeen segurtasun-neurriak hiru mailatan daude sailkaturik: oinarrizko maila, bitarteko maila eta goreneko maila.

**81. artikulua. Segurtasun-mailen aplikazioa.**

**1.** Oinarrizko segurtasun-mailak datu pertsonalen fitxategi edo tratamendu guztiek bete behar dituzte.

**2.** Datu pertsonalen fitxategi edo tratamendu hauetan, oinarrizko segurtasun-mailez gainera, bitarteko mailakoak ere bete beharko dira:

**a)** Administrazio-arloko edo zigor-arloko arau-hausteei buruzkoak badira.

**b)** Funtzionamendua abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoko 29. artikuluaren arabera antolaturik badute.

**c)** Administrazio zerga-biltzaileen ardurapekoak badira eta zergak biltzeko ahalmen horrekin zerikusia badute.

**d)** Finantza-erakundeen ardurapekoak badira eta finantza-zerbitzuak eskaintzeko lanaren inguruko zereginetarako badauzkate.

**e)** Gizarte Segurantzaren baitako erakunde kudeatzaileen eta zerbitzu komunen ardurapekoak badira eta erakunde edo zerbitzu horien eskumenak aurrera eramatearekin zerikusia badute. Gizarte Segurantzako lan-istripuen eta lanbideko gaixotasunen mutuen ardurapekoak badira.

**f)** Beren baitan dauzkaten datu pertsonalek herritarren ezaugarrien edo izaeraren definizio bat eskaintzen badute eta haien izaeraren edo jokaeraren alderdi batzuk ebaluatzeko bidea ematen badute.

**3.** Datu pertsonalen fitxategi edo tratamendu hauetan, oinarrizko segurtasun-mailez edo bitarteko mailez gainera, maila gorenekoak ere bete beharko dira:

**a)** Fitxategia ideologiarekin, sindikatu-afiliazioarekin, erlijioarekin, sinesmenekin, arraza-jatorriarekin, osasunarekin edo sexu-bizimoduarekin zerikusia duten datuei buruzkoa bada.

**b)** Fitxategiko datuak polizia-zereginetarako bildu badira tartean direnek oniritzia eman gabe, edo fitxategia halako datuei buruzkoa bada.

**c)** Fitxategiko datuak genero-indarkeriarekin zerikusia badute.

**4.** Fitxategiaren erantzuleak operadoreak baldin badira, eta komunikazio elektronikoekin zerikusia duten zerbitzuak eskaintzen badituzte eta zerbitzu horiek jendarte zabalaren eskura badaude, edo komunikazio elektronikoetarako sare publikoak ustiatzen badituzte eta sare horiek trafiko-datuei edo kokatze-datuei buruzkoak badira, halako fitxategiek, oinarrizko eta bitarteko segurtasun-neurriez gainera, erregelamendu honetako 103. artikuluko maila goreneko segurtasun-neurria ere bete beharko dute.

**5.** Batzuetan, fitxategiko datuak edo tratatu beharreko datuak ideologiari, sindikatu-afiliazioari, erlijioari, sinesmenei, arrazari, osasunari edo sexu-bizimoduari buruzkoak izanagatik ere, nahikoa da oinarrizko segurtasun-neurriak betetzea. Hara noiz:

**a)** Tartean direnak entitateren bateko bazkide edo kide badira eta dena delako entitate horretara diru-transferentzia bat egiteko besterik ez badira datuak.

**b)** Dena delako fitxategia edo tratamendua ez dago automatizaturik, eta bai, baditu halako datuak, baina hala egokitu delako besterik ez, fitxategiaren edo tratamenduaren berezko xedearekin zerikusirik izan gabe.

**6.** Eta fitxategiak dituen edo tratatu behar diren datuak osasunari buruzkoak badira ere, baliteke oinarrizko segurtasun-neurriak nahikoak izatea, baldin eta datu horiek tartean denak zeregin publikoetarako zenbateko ezintasuna duen argitzeko besterik ez badira edo soil-soilik haren ezintasunaren edo elbarritasunaren aitorpena badira.

**7.** Maila bakoitzerako azaldu ditugun neurri horiek eskatu beharreko gutxieneko neurriak dira, eta horrek ez du esan nahi, kasuan kasu, indarrean dauden berariazko beste legezko xedapen edo erregelamendu batzuk bete beharra eskatu ezin denik, edo fitxategiko erantzuleak bere kasa besteren bat hartzea erabaki ezin duenik.

**8.** Titulu honetan xedaturikoa betetzen laguntzearren, informazio-sistema bateko fitxategi edo tratamendu batzuetan sistema nagusian darabiltena ez beste maila bateko segurtasun-neurriak behar baldin badira, dela haien helburuak edo erabilera zehatzak hala eskatzen duelako edo dela haien datuen izaerak hala eskatzen duelako, halakoetan, sistema nagusitik erauzteko eta dagokien segurtasun-maila aplikatzeko aukera ere badago, baldin eta erauzita geratu diren

datuak identifikatzeko eta datu horietara iristeko aukera duten erabiltzaileak identifikatzeko ezintasunik ez badago, eta zer geratu den segurtasun-agirian jasota uzten bada.

**82. artikulua. Tratamenduaren arduraduna.**

**1.** Fitxategiaren edo tratamenduaren erantzuleak tratamendu-arduradun bati datuetara, datuen euskarrira edo datu horiek tratatzeko informazio-sistemako baliabideetara iristeko bidea ematen baldin badio, eta arduradun horrek erantzulearen lokalean lan egiten badu, erantzule horren segurtasun-agirian utzi beharko du jasota hala egin duela, eta arduradun horren mendeko langileek agiri horretan zehazturik dauden segurtasun-neurriak bete beharko dituzte.
Sarbidea urrunekoa bada, eta arduradunak galarazita baldin badu datuak erantzulearenak ez beste sistema edo euskarri batzuetara eramatea, erantzule horrek hala jasota utzi beharko du erantzulearen segurtasun-agirian, eta arduradunaren mendeko langileek agiri horretan zehazturik dauden segurtasun-neurriak bete beharko dituzte.

**2.** Tratamenduaren arduradunak bere lokaletan lan egin behar badu eta ez fitxategiaren erantzulearenetan, segurtasun-agiri bat idatzi beharko du, erregelamendu honetako 88. artikuluan zehazturiko baldintzetan, edo lehenagotik duena osatu beharko du, eta, osatzeaz bat, fitxategia edo tratamendua eta erantzulea identifikatu beharko ditu eta baita dena delako tratamendu horretarako gehitu beharreko segurtasun-neurriak bildu ere.

**3.** Edonola ere, tratamendu-arduradunak datuak eskuratzeko, erregelamendu honetan aurreikusita dauden segurtasun-neurriak bete beharko dira, beti.

**83. artikulua. Datu pertsonaletan sartu beharrik gabe eskaintzen diren zerbitzuak.**

Dena delako lana datu pertsonalak tratatu beharrik gabe ere egin badaiteke, fitxategiaren edo tratamenduaren erantzuleak hartu beharreko neurriak hartuko ditu, langileek datu pertsonaletarako, datu horien euskarrietarako edo informazio-sistemako baliabideetarako sarbidea mugaturik izan dezaten.
Langileak kanpokoak baldin badira, zerbitzu-kontratuan berariaz jasota utzi beharko da debekaturik daukatela datu pertsonaletara iristea, eta, hala ere lanean ari direlarik datu pertsonalik ezagutuko balute, isilpean gorde beharko luketela.

**84. artikulua. Baimenak eskuordetzea.**

Titulu honen bidez fitxategiaren edo tratamenduaren erantzulearen eskuetan geratu diren baimenak beste batzuei eskuordetzeko aukera ere badago. Beste nor hori berariaz izendatu beharko da, eta baimena emateko gaitasuna nork duen eta nori eskuordetu zaion segurtasun-agirian zehazturik utzi beharko da. Izendapen horrek, ordea, ez du inola ere esan nahi fitxategiaren erantzuleari dagokion ardura beste inoren eskuetan uzten denik.

**85. artikulua. Datuetara komunikazio-sareen bitartez sartzea.**

Datu pertsonaletara komunikazio-sareetatik iristeko bideetan eska daitezkeen segurtasun neurriek, eta berdin dio bide horiek publikoak diren edo ez, bertatik bertara iristeko orduan tartekatzen diren neurrien pareko segurtasuna bermatu beharko dute, 80. artikuluan jasota datozen irizpideen arabera.

**86. artikulua. Fitxategiaren erantzulearen edo tratamenduaren arduradunaren lokaletatik kanpora lan egiteko araubidea.**

**1.** Datu pertsonalak gailu eramangarrietan biltegiratu behar badira, edo fitxategiaren edo tratamenduaren erantzulearen edo tratamendu-arduradunaren lokaletatik kanpora tratatu behar badira, aurretiaz, fitxategiaren edo tratamenduaren erantzulearen baimena beharko da, eta, edonola ere, tratatu beharreko fitxategi-motari dagokion segurtasun-mailak bermaturik egon beharko du, beti.

**2.** Segurtasun-agirian aurreko lerroaldeko baimen horren berri jaso beharko da. Erabiltzaile jakin batentzat edo mota jakin bateko erabiltzaile-multzo batentzat eman daiteke, eta noiz arte balioko duen ere zehaztu beharko da.

**87. artikulua. Agirien aldi baterako fitxategiak edo lanerako kopiak.**

**1.** Aldi baterako lanen bat egiteko edo lan osagarriren bat egiteko besterik sortzen ez diren aldi baterako fitxategiek edo agiri-kopiek ere dagokien segurtasun-maila bete beharko dute, 81. artikuluan jasota datozen irizpideen arabera.
**2.** Sortu ziren xedeetarako beharrezkoak izateari uzten dioten bezain azkar, horrela sorturiko aldi baterako fitxategi edo lanerako kopia oro ezabatu edo ezereztatu egin beharko da.

## II. Kapitulua. Segurtasun-agiria

**88. artikulua. Segurtasun-agiria.**

**1.** Fitxategiaren edo tratamenduaren erantzuleak segurtasun-agiri bat egin beharko du eta agiri horretan bildu beharko ditu indarrean den legediaren arabera bete beharreko neurri bai teknikoak bai antolakuntza-mailakoak. Informazio-sistemetara iristeko bidea duten langileek derrigorra izango dute agiri hori betetzea.

**2.** Baliteke segurtasun-agiria bakarra izatea, hau da, fitxategi eta tratamendu guztietarako bakarra, edo baliteke fitxategi edo tratamendu bakoitzerako agiri bana egotea, eta baliteke fitxategiak edo tratamenduak taldeka sailkatzea eta talde bakoitzerako segurtasun-agiri bat egitea. Antolaketan erabilitako tratamendu-sistemaren arabera edo arduradunaren beste antolaketa-irizpide batzuen arabera egin daitezke talde horiek, baina, edonola ere, segurtasun-agiria antolakuntzaren barruko agiritzat hartuko da.

**3.** Agiri horrek, gutxienez, honako argibide hauek bilduko ditu bere baitan:

**a)** Agiriaren aplikazio-eremua; babestutako baliabideak zein diren azaldu behar da zehatz.
**b)** Erregelamendu honetan eskatutako segurtasun-maila bermatzeko ezarriko diren neurriak, arauak, jarduera-prozedurak, jarraibideak eta estandarrak.
**c)** Fitxategian jasotako datu pertsonalen tratamendua dela-eta, langileek zein eginkizun eta zein betebehar izango duten.
**d)** Datu pertsonalak biltzen dituzten fitxategien egitura eta datu horiek tratatzen dituzten informazio-sistemen deskribapena.
**e)** Intzidentziei buruzko jakinarazpen-, kudeaketa- eta erantzun-prozedura.

**f)** Fitxategi edo tratamendu automatizatuetan, datuei buruzko babes- eta berreskurapen-kopiak egiteko prozedurak.

**g)** Zer-nolako neurriak hartu behar diren euskarriak eta agiriak garraiatzeko, eta baita agiriak eta euskarriak ezabatzeko ere, edo, hala egin beharra egokitzen bada, azken horiek atzera berriz erabiltzeko.

**4.** Fitxategian erdi-mailako segurtasun neurriak edo goi-mailako segurtasun-neurriak bete behar baldin badira (titulu honetan daude zehazturik segurtasun-maila horiek), segurtasun-agiriak beste argibide hauek ere jaso beharko dira:

**a)** Segurtasun-erantzulea nor den edo nor diren.

**b)** Agirian bertan xedaturikoa betetzen ote den egiaztatzeko, aldian-aldian egin beharreko kontrolak.

**5.** Datuak kanpoko besteren batek tratatu behar baditu, segurtasun-agirian zehaztu beharko da zein fitxategi tratatuko edo zein tratamendu egingo den arduradun bidez, eta, era berean, enkarguaren baldintzak zein hitzarmenetan edo agiritan dauden arauturik, erantzulea nor izango den eta enkarguak noiz arte balioko duen zehaztu beharko da, berariaz.

**6.** Fitxategi edo tratamendu bateko datu pertsonalik arduradunaren sistemetara bildu eta han baino tratatu behar ez denetan, erantzuleak hala jasota utzi beharko du bere segurtasun-agirian. Erantzulearen fitxategi edo tratamendu guztien zati bat edo den-denak baldin badira horrela tratatzekoak, segurtasun-agiriaren ardura arduradunaren esku utz daiteke, baliabide propioetan jasotako datuei dagokienean izan ezik. Hala egin behar bada, hitzarmenean berariaz jasota utzi beharko da, eta direnak direlako fitxategiak edo tratamenduak zein diren ere zehaztu beharko da. Hitzarmen hori abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoko 12. artikuluaren itzalpean egingo da.
Halakoetan, erregelamendu honetan xedaturikoa bete beharra dela-eta, arduradunaren segurtasun-agiriak balioko du.

**7.** Segurtasun-agiriak egunerakturik egon behar du beti, eta informazio-sisteman, erabilitako tratamendu-sisteman, antolaketan, fitxategian edo tratamenduetan jasotako informazioan edo, halakorik egiten bada, aldian aldiko kontrolen ondorioz batere aldaketa nabarmenik gertatzen bada, segurtasun-agiria atzera berriro errebisatu beharko da. Eta aldaketa bat nabarmena izango da, hain zuzen ere, ezarritako segurtasun-neurriak betetzeko orduan inolako eraginik izan dezkeenean.

**8.** Segurtasun-agiriaren edukiak datu pertsonalen segurtasun-arloan indarrean dauden xedapenen arabera egokiturik egon beharko du une oro.

## 1. ATALA. OINARRIZKO SEGURTASUN-NEURRIAK.

### 89. artikulua. Langileen eginkizunak eta betebeharrak.

**1.** Datu pertsonaletarako eta informazio-sistemetarako sarbidea duen erabiltzaile bakoitzaren edo erabiltzaile-multzo bakoitzaren eginkizunak eta betebeharrak segurtasun-agirian garbi-garbi deskribaturik eta agiri bidez azaldurik egon beharko dira.
Fitxategiaren edo tratamenduaren erantzuleak eskuordeturiko kontrol-eginkizunak edo baimenak ere definitu beharko dira.

**2.** Langileek argi eta garbi jakin behar dute zein segurtasun-neurri bete behar duten beren eginkizunetan dihardutenean, eta baita, betebehar horiek urratzen badituzte, zer-nolako ondorioak izan ditzaketen ere, eta fitxategiaren edo tratamenduaren erantzulearen lana izango da horretarako beharrezko neurriak hartzea.

### 90. artikulua. Gorabeheren erregistroa.

Datu pertsonaletan eragina duten gorabeherak jakinarazteko eta kudeatzeko prozeduraren bat eduki beharra dago. Halakoetarako erregistro bat ere antolatu behar da, eta han utzi zehazturik dena delako gorabehera zer-nolakoa den, noiz gertatu edo antzeman den, jakinarazpena nork egin duen, nori jakinarazi zaion, zein ondorio eragin duen, eta eragin horiek zuzentzeko zein neurri hartu den.

### 91. artikulua. Sarbidearen kontrola.

**1.** Beren eginkizunak betetzeko behar dituzten baliabideetarako sarbidea besterik ez dute izango erabiltzaileek.

**2.** Erabiltzaileak eta erabiltzaile-multzoak zein diren eta haietako bakoitzak nora sartzeko baimena duen jakiteko, hori dena zerrenda eguneratu batean bildurik eduki beharko da, eta fitxategiaren erantzulearen lana izango da zerrenda hori eginda egotea.

**3.** Baimenduta dituzten horietaz gainera, erabiltzaileek ez dute beste baliabiderik eskuratzeko biderik izan behar, eta erantzuleak jarri beharko ditu halakorik ez gertatzeko beharrezko tresnak.

**4.** Segurtasun-agiriaren arabera hartarako baimena duten langileek dute, eta ez beste inork, baliabideetarako sarbide-baimena emateko, aldatzeko edo ezeztatzeko aukera, eta betiere, fitxategiaren erantzuleak zehazturiko irizpideen arabera.

**5.** Baliabideetarako sarbidea fitxategiaren erantzulea ez besteren batek ere baldin badauka, bertako langileen segurtasun-baldintza eta segurtasun-betebehar berberak izan beharko ditu.

**92. artikulua. Euskarrien eta agirien kudeaketa.**

**1.** Euskarri eta agiriek, datu pertsonalik baldin badute, zer-nolako informazioa duten identifikatzeko aukera eta inbentariatzeko aukera eman behar dute, eta segurtasun-agiriaren arabera sarbide-baimena dutenen eskura besterik ez dute egon behar.
Baina euskarriaren ezaugarri fisikoak direla-eta ezinezkoa bada baldintza hori betetzea, salbuespen modura hartu beharko da. Halakoetan, gertatu den hori segurtasun-agirian jasota utzi beharko da, arrazoiak eta guzti.

**2.** Euskarririk edo agiririk fitxategiaren edo tratamenduaren erantzulearen kontrolpeko lokaletatik kanpora atera beharra egokitzen bada -mezu elektroniko baten baitakoak eta/edo hari erantsikotakoak barne- eta datu pertsonalak baldin badauzkate, aurretiaz, fitxategiaren erantzulearen baimena beharko da, edo segurtasun-agirian behar bezala baimendurik egon beharko du.

**3.** Halakoetan, hartu beharreko neurriak hartu beharko dira, agirien lekualdatze horretan, garraioak dirauen bitartean, inork informaziorik ostu ez dezan, informazio hori galdu ez dadin edo informazio horretara inor iritsi ez dadin.

**4.** Datu pertsonalak dituen agiririk edo euskarririk desegin behar denean, ezabatu edo ezeztatu egin beharko da, beti. Eta inork haien informazioa eskura ez dezan edo, gerora, atzera berriro errekupera ez dezan, horretarako hartu beharreko neurriak ere hartu beharko dira.

**5.** Antolakundeak uste badu bereziki tentuz ibiltzeko moduko datu pertsonalak dituztela, zilegi da etiketak erabiltzea datu horiek dituzten euskarriak identifikatzeko, baina ez edonolakoak: ulergarriak eta esanguratsuak izango dira, eta euskarri eta agiri horietara iristeko baimena duten erabiltzaileei edukia identifikatzeko modua eman behar diete, eta gainerakoei identifikazio hori eragotzi.

**93. artikulua. Identifikazioa eta nortasun-egiaztapena.**

**1.** Erabiltzaileak ziur identifikatzeko eta nor diren egiaztatzeko hartu beharreko neurriak hartu beharko ditu fitxategiaren edo tratamenduaren erantzuleak.

**2.** Identifikazio- eta egiaztatze-beharrak direla-eta, fitxategiaren erantzuleak mekanismo berezi bat sortuko du, eta, mekanismo horren bidez, informazio-sistemara sartzen ahalegintzen den erabiltzaile oro zalantzarik gabe eta banan-banan identifikatu eta benetan baimena baduela egiaztatu beharko da.

**3.** Egiaztapen-mekanismo hori pasahitzetan oinarritzen denean, pasahitz horiek esleitzeko, banatzeko eta biltzeko prozedura bat ere ezarri behar da, pasahitzak ondo babestuta eta isilpean gordeta egon daitezen.

**4.** Segurtasun-agirian egongo da zehazturik pasahitzak zenbatean behin aldatu behar diren (gutxien-gutxienez urtean behin beharko du izan), eta, indarrean dauden bitartean, pasahitz horiek inork ez ulertzeko moduan biltegiratu beharko dira.

**94. artikulua. Babes eta berreskurapen-kopiak.**

**1.** Babes-kopiak gutxienez astean behin egiteko moduko prozedurak antolatu behar dira. Epea horixe izango da, denbora-tarte horretan bat ere datu-eguneraketarik egin ez denean salbu.

**2.** Datuak berreskuratzeko prozedurak ere antolatu behar dira. Prozedura horiek bermatu beharko dute galdu edo desegin ziren momentuan zeuden bezala berreskuratuko direla datu horiek.
Galdutako edo desegindako fitxategiak edo tratamenduak zati batean baino ez bazeuden automatizaturik, eta beti ere, aurreko lerroaldean zehazturiko helburua lortzeko modukoa bada badugulako horretarako nahikoa agiri, datuak eskuz grabatu beharko dira, baina orduan besterik ez. Hala egiten badugu, segurtasun-agirian zehazturik utzi beharko dugu, arrazoiak eta guzti.

**3.** Sei hilean behin, fitxategiaren erantzuleak egiaztatu beharko du ea datuei buruzko babes- eta berreskurapen-kopiak egiteko prozedurak ondo definituta dauden, ondo dabiltzan, eta ea modu egokian aplikatzen diren.

**4.** Datu pertsonalak dauzkaten fitxategiak tratatzeko informazio-sistemak ezarri edo aldatu aurreko probak egiteko, ezin da benetako daturik erabili, non eta ez den dena delako tratamenduari dagokion segurtasun-maila bermatzen eta non eta segurtasun-agirian ez den probaren berri jasota uzten.
Probak benetako datuak erabiliz egiteko asmoa baldin badago, hasi baino lehen, segurtasun-kopia bat egin beharko da.

## 2. ATALA. BITARTEKO MAILAKO SEGURTASUN-NEURRIAK.

**95. artikulua. Segurtasun-erantzulea.**

Segurtasun-erantzulea edo –erantzuleak segurtasun-agirian izendatu beharko dira, eta haren edo haien ardura izango da agiri horretan bertan zehazturik datozen neurriak koordinatzea eta kontrolatzea. Baliteke datu pertsonalen fitxategi edo tratamendu guztietarako erantzule bakarra izendatzea, edo baliteke hainbat erantzule izendatzea erabilitako tratamenduaren arabera, baina, edonola ere, segurtasun-agirian garbi-garbi utzi beharko da aukera bata edo bestea hautatu den.
Izendapen horrek, ordea, ez du inola ere esan nahi fitxategiaren erantzulea edo arduraduna erregelamendu honen arabera dagokien arduratik aske geratzen direnik.

**96. artikulua. Auditoretza.**

**1.** Maila ertainetik aurrera, datuetarako informazio-sistemetan eta tratamendu- eta biltegiratze-instalazioetan, barruko nahiz kanpoko auditoretza bat egin beharko da, gutxienez bi urtean behin, titulu hau betetzen ote den egiaztatzeko.
Baina informazio-sisteman aldaketa nabarmenik egiten bada, eta litekeena bada aldaketa horrek segurtasun-neurriak betetzeko orduan ere eragina izatea, auditoretza hori atzera berriro egin beharra egongo da, beti, ikusteko ea neurri horiek ondo egokiturik dauden, zuzenak diren eta eraginkorrak diren. Eta bi urteko epea aparteko auditoretza horretatik aitzina berriro zenbatzen hasiko da.

**2.** Auditoretza-txostenean, adierazi beharko da ea neurriak eta kontrolak legearen beraren eta legearen garapen-erregelamenduaren araberakoak diren eta non huts egiten duten, hutsuneak zuzentzeko edo osatzeko zein neurri hartu behar den proposatzeaz batera. Era berean, txosten horretan datuak, gertakariak eta oharrak ere jakinarazi behar dira, emandako irizpenak eta egindako proposamenak zertan oinarritzen diren erakusteko.

**3.** Dena delako segurtasun-erantzuleak auditoretza-txosten horiek aztertu, ondorioak atera, eta fitxategiaren edo tratamenduaren erantzuleari helaraziko dizkio, hark hartu ditzan hartu beharreko zuzentze-neurriak. Gero, Datuak Babesteko Espainiako Agentziaren esku geratuko dira, edo, bestela, autonomia-erkidegoetako kontrol-agintarien esku.

**97. artikulua. Euskarrien eta agirien kudeaketa.**

**1.** Euskarrien sarrera-erregistroa osatzeko sistema bat ezarri behar da, hartara, zuzenean zein zeharka, honako argibide hauen berri izan ahal izateko: agiri- edo euskarri-mota, eguna eta ordua, igorlea, zenbat agiri edo euskarri bidali diren, zer-nolako informazioa duten, nola igorri diren, eta nork duen haiek jasotzeko ardura (erantzule horrek behar bezala baimendurik egon behar du).

**2.** Euskarrien irteera-erregistroa osatzeko sistema bat ere ezarri behar da, hartara, zuzenean zein zeharka, honako argibide hauen berri izan ahal izateko: agiri- edo euskarri-mota, eguna eta ordua, norentzako den, zenbat agiri edo euskarri bidali diren, zer-nolako informazioa duten, nola igorri diren, eta nork duen haiek entregatzeko ardura (erantzule horrek behar bezala baimendurik egon behar du).

**98. artikulua. Identifikazioa eta nortasun-egiaztapena.**

Fitxategiaren edo tratamenduaren erantzuleak bitartekoren bat antolatu behar du, informazio-sistemara behin eta berriz baimenik gabe iristen saiatzeko aukerak mugatzelp.

**99. artikulua. Ekipoak dauden lekuetara sartzeko kontrola.**

Informazio-sistemen ekipo fisikoak instalaturik dauden lekuetara, segurtasun-agirian baimendurik dauden langileek baino ez dute sarbidea izango.

**100. artikulua. Gorabeheren erregistroa.**

**1.** Horrez gainera, 90. artikuluan arautako erregistroan, datuak berreskuratzeko jarraitutako prozedurak ere jaso behar dira, honako hauek adierazita: prozedura burutu zuen pertsona, berreskuratutako datuak, eta, hala badagokio, berreskurapen-prozeduran eskuz grabatu behar izan diren datuak.

**2.** Datuak berreskuratzeko prozedurak burutu ahal izateko, beharrezkoa izango da fitxategiaren erantzuleak baimena ematea.

## 3. ATALA. GORENEKO MAILAKO SEGURTASUN-NEURRIAK.

### 101. artikulua. Euskarrien kudeaketa eta banaketa.

**1.** Euskarriak identifikatzeko, etiketatze-sistema ulergarriak eta esanguratsuak erabili beharko dira. Etiketa horiek, euskarri eta agiri horietara iristeko baimena duten erabiltzaileei edukia identifikatzeko modua eman behar diete, eta gainerakoei identifikazio hori eragotzi.

**2.** Datu pertsonalak dituzten euskarriak banatzeko, datu horiek zenbaki bidez adierazi beharko dira, edo beste moduren batera ere egin ahal izango da, baina bermatzekotan garraioak dirauen bitartean inork ez duela informazio hori ez eskuratuko eta ezertan aldatuko.
Eta, fitxategi-erantzulearen kontrolpeko instalazioetatik kanpora egon behar baldin badira, gailu eramangarrietan dauden datuak ere zenbaki bidez adierazi beharko dira.

**3.** Datuak zenbaki bidez adierazteko modurik ez badago, ahal dela gailu eramangarrietan ez da datu pertsonalik tratatu behar. Eta, ezinbestekoa bada, zer gertatu den segurtasun-agirian jasota utzi, arrazoiak eta guzti, eta hartu beharreko neurrietan gogoan izan beharko da datuak babesik gabeko lekuetan tratatzeak zer-nolako arriskuak dakartzan.

### 102. artikulua. Babes eta berreskurapen-kopiak.

Datuen eta datuak berreskuratzeko prozeduren babes-kopia bat aparte gorde beharko da, datuak tratatzeko erabiltzen diren ekipo informatikoak dauden lekuan ez beste nonbaiten. Kopia horrek, edonola ere, titulu honetan zehazturik dauden segurtasun-neurriak bete beharko ditu, edo informazioaren osotasuna eta berreskuraketa bermatzeko moduko elementuak erabili beharko dira, hartara, berreskuratzeko aukera egon dadin.

### 103. artikulua. Sarbidearen erregistroa.

**1.** Datuetan sartzeko ahalegin bakoitzetik, gutxienez, argibide hauek gordeko dira: erabiltzailearen identifikazioa, zein egunetan eta ordutan egin den, zein fitxategitara sartu den, sartze hori zein motatakoa den, eta sarrera hori baimendu edo ukatu egin den.

**2.** Sartzeko baimena eman bada, beharrezkoa izango da zein erregistrotara sartu den identifikatzeko besteko informazioa gordetzea.

**3.** Sarbidea erregistratzeko aukera ematen duten tresnak segurtasun-erantzule eskumendunaren kontrolpean egongo dira zuzen-zuzenean. Ez dute ez itzaltzeko eta ezta manipulatzeko aukerarik ere eman behar.

**4.** Erregistroan jasotako datuak gutxien gutxienez bi urtez eduki beharko dira jasota.

**5.** Segurtasun-erantzuleak erregistraturik dagoen kontrol-informazioa gutxienez hilean behin errebisatu beharko du. Egiten dituen errebisioen berri eta igarri dituen arazoen berri txosten batean jaso beharko du.

**6.** Artikulu honetan definituriko sarbide-erregistroa ez da beharrezkoa izango, tartean gorabehera hauek baldin badaude:

**a)** Fitxategiaren edo tratamenduaren erantzulea pertsona fisiko bat da.

**b)** Fitxategiaren edo tratamenduaren erantzuleak bermatu du bera bakarrik sar daitekeela eta tratatu ahal dituela datu pertsonalak.

Aurreko lerroaldeko bi gorabehera horiek betetzen badira, hala adierazi beharko da, berariaz, segurtasun-agirian.

### 104. artikulua. Telekomunikazioak.

81.3 artikuluaren arabera goi-mailako segurtasun-neurriak baldin badira ezarri beharrekoak, eta komunikazio elektronikoetarako sare publiko edo haririk gabeko sareetatik datu pertsonalik transmititu beharra baldin badago, datu horiek zenbaki bidez adierazi beharko dira, edo beste moduren bat erabili, bermatzeko informazioa ez duela beste inork ez ulertuko ez inola ere erabiliko.

## IV. Kapitulua. Fitxategi eta tratamendu automatizatu gabeetan erabil daitezkeen segurtasun-neurriak

### 1. ATALA. OINARRIZKO SEGURTASUN-NEURRIAK.

### 105. artikulua. Betebehar erkideak.

**1.** Kapitulu honetan xedaturikoaz gainera, automatizatu gabeko fitxategietan titulu honetako I. eta II. kapituluetan xedaturikoa ere bete beharko da, tartean honako gai hauetakoren bat baldin badago:

**a)** Irismena.
**b)** Segurtasun-mailak.
**c)** Tratamenduaren arduraduna.
**d)** Datu pertsonaletan sartu beharrik gabeko zerbitzuak eskaintzea.
**e)** Baimenak eskuordetzea.
**f)** Fitxategiaren erantzulearen edo tratamendu-arduradunaren lokaletatik kanpora lan egiteko araubidea.
**g)** Agirien lanerako kopiak.
**h)** Segurtasun-agiria.

**2.** Eta honako beste gai hauek direla-eta, berriz, titulu honetako III. kapituluko lehen atalean jasota dagoena bete beharko da:

**a)** Langileen eginkizunak eta betebeharrak.
**b)** Gorabeheren erregistroa.
**c)** Sartzeko kontrola.
**d)** Euskarrien kudeaketa.

### 106. artikulua. Artxibaketarako irizpideak.

Euskarrien edo agirien artxibaketa egiteko, kasuan kasuko legeetan jasota dauden irizpideak bete beharko dira. Irizpide horietan behar bezala bermaturik egon beharko du agiriak kalterik gabe gordeko direla, informazioa aurkitzeko eta kontsultatzeko modua egongo dela, eta

tratamenduaren aurka egiteko eta datuetan sartzeko, zuzentzeko eta ezerezteko eskubidea erabiltzeko aukera ere egongo dela.
Arau aplikagarririk ez badago, fitxategiaren erantzuleak zehaztu beharko ditu artxibaketan bete beharreko jarduera-irizpideak eta –prozedurak.

**107. artikulua. Biltegiratze-tresnak.**

Datu pertsonalak dauzkaten agiriak biltegiratzeko tresnetan, zabaltzea oztopatzeko baliabideak eduki behar dira. Baina zer-nolako ezaugarri fisikoak dituzten kontuan hartuta ezinezkoa bada neurri hori betetzea, fitxategiaren edo tratamenduaren erantzuleak beste neurriren bat hartu beharko du, baimenik ez dutenei sartzen ez uzteko.

**108. artikulua. Euskarriak zaintzea.**

Artxibatu baino lehenago edo ondoren, errebisatzen nahiz artxibatzen ari direla-eta, datu pertsonalak dituzten agiriak ez baldin badaude aurreko artikuluan zehazturiko biltegiratze-tresnetan artxibaturik, bitarte horretan, agirien ardura duenak zaindu beharko ditu, eta haren lana izango da, une oro, agiri horietara baimenik gabeko inor ere ez sartzea.

## 2. ATALA. BITARTEKO MAILAKO SEGURTASUN-NEURRIAK.

**109. artikulua. Segurtasun-erantzulea.**

Segurtasun-erantzule bat edo halako hainbat izendatu beharko da, erregelamendu honetako 95. artikuluan zehazturik dagoen moduan eta artikulu horretan bertan jasota dauden eginkizunak betetzeko.

**110. artikulua. Auditoretza.**

Bi urtez behin gutxienez, atal honetan zehazturik dauden fitxategietan auditoretza bat egin beharko da, barrukoa nahiz kanpokoa, titulu hau betetzen ote den egiaztatzeko.

## 3. ATALA. GORENEKO MAILAKO SEGURTASUN-NEURRIAK.

**111. artikulua. Informazioa biltegiratzea.**

**1.** Datu pertsonalak fitxategi automatizatu gabeetan baldin badaude, fitxategi horiek biltegiraturik dauden armairu, artxibategi edo direnak direlakoak ezin dira edonon egon, atez babestutako lekuren batean egon beharko dute, eta ate horiek giltzaz edo antzeko beste sistemaren batez ixteko modukoak izan behar dute. Fitxategi horietako datuen beharrik ez dagoenean, leku horiek itxita egon beharko dute.

**2.** Fitxategiaren edo tratamenduaren erantzulearen lokalen ezaugarriak direla-eta ezinezkoa baldin bada aurreko paragrafoan agindurik dagoena betetzea, erantzule horrek beste neurriren bat hartu beharko du. Neurri horien berri segurtasun-agirian jasota utzi beharko da, arrazoiak eta guzti.

**112. artikulua. Kopia edo erreprodukzioa.**

**1.** Agirien kopiarik edo erreprodukziorik egin nahi izanez gero, segurtasun-agirian baimendurik dauden langileen kontrolpean beharko du izan soil-soilik.

**2.** Alferrikako kopiak edo erreprodukzioak desegin egin beharko dira, inork ez dezan horko informazioa eskuratu edo gero atzera berriro erreproduzitu.

**113. artikulua. Agirietara sartzea.**

**1.** Langile baimendunek baino ezingo dute agirietara sartu.

**2.** Dena delako agiria hainbatek erabil badezake, identifikazio-baliabideren bat antolatu beharko da, egin diren sarrerak identifikatzeko.

**3.** Aurreko paragrafoan zehazturik daudenez gainera, beste inor ere sartu behar baldin bada, behar bezala erregistraturik utzi beharko da, segurtasun-agirian horretarako jasota dagoen prozeduraren arabera.

**114. artikulua. Agiriak lekualdatzea.**

Fitxategi bateko agiriak lekuz aldatu behar diren bakoitzean, lekualdatu beharreko informazioa inork ez atzitzeko edo manipulatzeko hartu beharreko neurriak hartu beharko dira.

# IX. TITULUA. DATUAK BABESTEKO ESPAINIAKO BULEGOAK IZAPIDETURIKO PROZEDURAK

## I. Kapitulua. Xedapen orokorrak

**115. artikulua. Araubide aplikagarria.**

**1.** Datuak Babesteko Espainiako Bulegoak izapideturiko prozeduretan, lehenik, titulu honetan xedaturik dagoena bete beharko da, eta, ordezko modura, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legean xedaturikoa.

**2.** Hain justu prozedura horietan izan beharreko ordezkaritza-sistemei dagokienean, berriz, administrazio-prozedura erkidearen arauak beharko dira bete.

**116. artikulua. Ebazpenen publizitatea.**

**1.** Datuak Babesteko Espainiako Bulegoak bere ebazpenak publikoak egingo ditu, fitxategi bat edo tratamendu bat Datuak Babesteko Erregistro Orokorrean inskribatzeari buruzkoak izan ezik eta ereduzko kodeak erregistro horretan inskribatzeko ebazpenak izan ezik, baldin eta 2004ko urtarrilaren 1az geroztik hasi izandako prozedurei buruzkoak badira, edo data horretatik aurrera hasi izandako ikuskaritza-jardueren artxibatzeari buruzkoak badira.

**2.** Ebazpen horien berri jendartean zabaltzeko, aukeran, lehenik, Datuak Babesteko Espainiako Bulegoaren web orrian jarri beharko dira, interesdunei jakinarazten zaien egunetik aurrera hilabeteko epean.

**3.** Interesdunei egin beharreko jakinarazpenean, abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoko 37.2 artikuluan zehazturik datorren publizitatearen berri ere eman behar zaie, berariaz.

**4.** Datu pertsonalak disoziatzeko beharra dela-eta, disoziazio-irizpideak Agentziako zuzendariaren ebazpen bidez zehatuzko dira, eta argitalpena irizpide horiek aplikatuz egin beharko da.

## II. Kapitulua. Datuetan sartzeko, zuzentzeko, ezerezteko eta aurka egiteko eskubideak zaintzeko prozedura

**117. artikulua. Prozeduraren jarraibidea.**

**1.** Tartean direnek eskatu beharko dute prozedura hasteko. Eskatzeaz batera, argi eta garbi adierazi beharko dute zer erreklamatzen duten eta, abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan datozen aginduetatik, beraien ustez zein urratu den.

**2.** Datuak Babesteko Espainiako Bulegoan erreklamazio hori jasotzen dutenean, fitxategiaren erantzulearenera lekualdatuko dute, egin beharreko alegazioak egin ditzan hamabost eguneko epean.

**3.** Atzera alegazio horiek jasotzen dituenean edo epe hori amaitzen denean, egin beharreko txosten, proba eta jarraibideko urratsak egin, baita tartean denari eta atzera berriro fitxategi-erantzuleari hizpidea eman ere, eta Datuak Babesteko Espainiako Bulegoak erreklamazioa ebatzi beharko du.

**118. artikulua. Prozeduraren iraupena eta berariazko ebazpenik ezaren ondorioak.**

**1.** Eskubideen zaintza-prozeduran, gehienez ere hiru hilabeteko epea egongo da ebazpena hartzeko eta jakinarazteko. Tartean denaren edo direnen erreklamazioa Datuak Babesteko Espainiako Bulegoan sartzen den egunetik aurrera hasiko da zenbatzen epe hori.

**2.** Epe horretan ez baldin bada berariazko ebazpena hartzen eta jakinarazten, tarten den horrek pentsatuko du erreklamazioa aintzat hartu dutela, baiezko administrazio-isiltasuna bitarteko.

**119. artikulua. Ebazpena betetzea.**

Ebazpena baiezkoa baldin bada, fitxategiko erantzuleari adierazi beharko zaio hamar eguneko epea duela, jakinarazpenaren ondoren, zaindu beharreko eskubideak benetan bete ditzan. Epe horretan bertan, Datuak Babesteko Espainiako bulegoari erakutsi beharko dio, idatziz, benetan bete dituela.

## 1. ATALA. XEDAPEN OROKORRAK

### 120. artikulua. Aplikazio-eremua

**1.** Datuak Babesteko Espainiako Bulegoak zehapen-ahala erabiltzearekin zerikusia duten prozeduretan, kapitulu honetan jasota datozen xedapenak bete beharko dira. Ahalmen hori lege hauetatik datorkio: Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikotik; Informazioaren Gizartearen eta Merkataritza Elektronikoaren inguruko zerbitzuei buruzko uztailaren 11ko 34/2002 Legetik; eta Telekomunikazioei buruzko azaroaren 3ko 32/2003 Lege Orokorretik.

**2.** 121. artikuluan eta kapitulu honetako laugarren atalean jasota datozen xedapenak, ordea, abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikotik datorren zehapen-ahalari buruzko prozeduretan baino ezingo dira aplikatu.

### 121. artikulua. Fitxategiak bertan geldi uztea.

**1.** Abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan oso larritzat jotzen den arau-hausterik gertatzen bada, hau da, datu pertsonalak behar ez bezala erabiltzen edo lagatzen baldin badira eta, ondorioz, herritarrei ezinezkoa gertatzen bazaie -ezintasun larria behar du izan-, beraien eskubideak erabiltzea edo nortasuna askatasunean garatzea -hala bermaturik baitago Konstituzioan eta legeetan-, edo eskubide-erabilera nahiz nortasun-garapen hori urratzea gertatzen bada –urraketak ere larria behar du-, Datuak Babesteko Espainiako Bulegoko zuzendariak bere esku izango du datu pertsonalen fitxategien edo tratamenduen erantzuleei adieraztea aurrerantzean ezin dutela daturik behar ez den bezala erabili edo laga. Prozeduraren edozein momentutan egin dezake, eta berdin dio datuak titularitate publikokoak edo pribatukoak diren.

**2.** Hiru egun izango dituzte eskari horri kasu egiteko, eta epe hori ezin da luzatu. Epe horretan, neurri hori indarrik gabe uztea nahi baldin badu, fitxategiaren erantzuleak nahi dituen alegazioak aurkez ditzake.

**3.** Ez baldin badio kasu egiten, Datuak Babesteko Espainiako Bulegoko zuzendariak bere esku izango du fitxategi edo tratamendu horiek bertan geldirik uztea erabakitzea, ebazpen arrazoitu bidez, baina tartean diren pertsonen eskubideak berriro indarrean jartzeko besterik ez.

## 2. ATALA.- AURRETIAZ EGIN BEHARREKOAK.

### 122. artikulua. Hastea.

**1.** Zehapen-prozedurari hasiera eman baino lehenago, hasteko arrazoirik badagoen edo ez zehazteko, aurretiazko hainbat jarduera egin daiteke. Hain zuzen ere, jarduera horien bidez, kontua izango da zehaztea, ahalik eta garbien, zein gertakarik ematen duen prozedura hasteko bidea, erantzulea nor edo zein organo izan daitekeen zehaztea, eta tartean izan daitezkeen gorabehera garrantzitsuak zehaztea.

**2.** Aurretiazko jarduera horiek Datuak Babesteko Espainiako Agentziak egingo ditu, ofizioz. Bere ekimen hutsez, edo tartean salaketa bat egon delako, edo beste organoren batek arrazoitu eta hala eskatu duelako egingo ditu.

**3.** Salaketaren bat edo beste organoren baten eskari arrazoituren bat egon delako egiten baditu jarduerak, Datuak Babesteko Espainiako Agentziak salaketa edo eskari hori jaso izanaren agiria egin beharko du, eta, zehapen-prozedurari hasiera emateko bidea zabal dezaketen gertakariak egiaztatzeko, egokiak iruditzen zaizkion agiri guztiak eskatu ahal izango ditu.

**4.** Bigarren paragrafoan zehazturik dagoen salaketa edo eskaera arrazoitua Datuak Babesteko Espainiako Agentzian sartzen denetik, edo, ez bada ez salaketarik ez eskaririk egon, agentziako zuzendariak jarduera horiek egiteko erabakitzen duenetik aurrera, aurretiazko jarduera horiek gehienez ere hamabi hilabete iraungo dute.

Epe hori amaitu eta oraindik ez bada zehapen-prozedura hasteko akordioa ez hartu ez jakinarazi, aurretiazko jarduerak iraungita geratuko dira.

**123. artikulua. Aurretiazko jarduerak egin ditzaketen langileak.**

**1.** Datuak Ikuskatzeko esparruko langileen artetik ikuskaritza-lanak egiteko ahalbidea dutenek egingo dituzte aurretiazko jarduerak.

**2.** Kasu berezi batzuetan, eta salbuespen modura, jarduera berezi batzuk egiteko, Datuak Babesteko Espainiako Agentziako zuzendariak, agentziako bertako funtzionarioen artetik, ikuskaritza-lanak egiteko ahalbide orokorrik gabeko funtzionarioak ere izenda ditzake, edo agentzian lan egiten ez duten funtzionarioak, baldin eta dena delako jarduera egiteko egokiak badira eta bereziturik baldin badaude. Halakoetan, baimenean, berariaz zehazturik utzi beharko da funtzionarioa nor den eta aurretiazko justu zein ikuskaritza-jarduera egin behar duen.

**3.** Aurreko bi paragrafo horietan zehazturik dauden ikuskaritza-lanak egiten dituzten funtzionarioak, eginkizun hori betetzen ari direlarik, agintari publikotzat hartuko dira.
Eginkizun horiek betetzen ari direlarik iristen zaien informazioa isilpean gorde beharra daukate, baita eginkizun horiek betetzeari utzi eta gero ere.

**124. artikulua. Informazioa lortzea.**

Beren eginkizunak betetzeko, ikuskatzaileek beharrezkoa duten informazio guztia bil dezakete. Horretarako, beren esku izango dute agiriak edo datuak erakusteko edo bidaltzeko eskatzea, edo haiek jasota dauden lekuan bertan aztertzea, haien kopiak egitea, ekipo fisikoak eta logikoak ikuskatzea, eta ikertzen ari diren fitxategian edo fitxategietan tratamenduak eta programak edo kudeaketa- eta euskarri-prozedurak egiteko eskatzea, eta baita instalaturik dauden lekuetara iristea ere.

**125. artikulua. Joan eta bertan egin beharrekoak.**

**1.** Aurretiazko jarduerak egiten dituzten bitartean, ikuskatzaile modura izendaturik daudenak ikuskatuaren lokaletara edo egoitzara bertara ere joan daitezke, ikuskaritza-bisitak egitera, edo bestela fitxategiak dauden lekura. Ikuskatzaileek, horretarako, aurretiaz Datuak Babesteko Espainiako Bulegoko zuzendariaren baimena beharko dute.

Ikuskapenak egin daitezke ikuskatuaren etxean, harekin zerikusia duen egoitzan edo lokal jakin batean edo haren lokaletako edozeinetan, baita tratamendua arduradun batek egiten duen lokaletan ere.
Baimenean, ikuskatzaile baimendunaren ahalbidearen berri eman eta nor edo zein organo ikuskatu behar den adierazi beharko da, horixe besterik ez.

**2.** Aurreko paragrafoko kasu horretan, ikuskapena amaitzeko, akta egin beharko da, eta akta horretan jasota utzi ikuskapen-bisitan edo –bisitetan zehar zer egin den.

**3.** Aktaren bi kopia beharko dira, eta ikuskatzaileek eta ikuskatuak izenpetu beharko dute. Ikuskatuak, alegaziorik edo esateko beste ezer baldin badu, aktan jasota utz dezake.
Ikuskatuak ez baldin badu akta izenpetu nahi, aktan bertan hala jasota utzi beharko da. Edonola ere, ikuskatuak akta izenpetu izanak ez du esan nahi ados dagoela, akta jaso duela besterik ez.
Ikuskapen-aktaren kopia originaletako bat ikuskatuari eman beharko zaio, eta bestea jarduketetara bildu beharko da.

### 126. artikulua. Aurretiazko jardueren emaitza.

**1.** Aurretiazko jarduerak amaitzen direnean, Datuak Babesteko Espainiako Bulegoaren eskuetan geratuko dira, erabakia har dezan.
Jarduera horietan ez baldin bada inongo arau-hauste egozteko moduko gertakaririk nabari, Datuak Babesteko Espainiako Bulegoak artxibatu egin behar direla ebatziko du. Ebazpen hori ikerturik dagoenari eta, halakorik badago, salaketa-egileari ere jakinarazi behar zaio.

**2.** Arau-hausteren bat egozteko moduko zantzuren bat sumatuz gero, Datuak Babesteko Espainiako Bulegoko zuzendariak herri-administrazioen zehapen-prozedura edo arau-hausteetarako prozedura hasteko akordioa hartuko du. Prozedura horiek kapitulu honetako hirugarren eta laugarren ataletan xedaturik dagoen moduan izapidetu beharko dira, hurrenez hurren.

## 3. ATALA. ZEHAPEN-PROZEDURA.

### 127. artikulua. Prozeduraren hasiera.

Zehapen-prozedura hasteko akordioan gauza hauek denak zehaztu beharko dira, berariaz:

**a)** Erantzulea ustez nor den edo nor diren.
**b)** Labur-labur, zer egozten zaien, gertakari horiek nola kalifikatu ahal diren eta zein zehapen egoki dakiekeen, prozeduraren jarraibideak dakarrena dakarrelarik ere.
**c)** Prozedura ebazteko organo eskumenduna Datuak Babesteko Espainiako Bulegoko zuzendaria dela adierazi beharko da.
**d)** Ustezko erantzuleari adierazi behar zaio nahi badu ardura hori bere kasa aitortzeko aukera ere baduela. Hala egiten badu, hurrena zuzenean ebazpena hartzea izango da.
**e)** Izapidegilea eta, beharrezkoa bada, idazkaria ere izendatu beharko dira. Errefusatze-araubidea zein den ere adierazi beharko da, berariaz.
**f)** Erantzuleak alegazioak aurkezteko, prozeduran iritzia emateko eta nahi dituen probak proposatzeko eskubidea duela adierazi beharko da, berariaz.
**g)** Kapitulu honetako lehen atalean xedaturikoaren arabera har litezkeen behin-behineko neurriak.

**128. artikulua. Ebazpenerako gehienezko epea.**

**1.** Zehapen-prozedura bakoitzean aplika daitezkeen arauetan zehazturik dagoena izango da ebazpena hartzeko epea. Epe hori, edonola ere, hasteko akordioa hartzen den egunetik zehapen-ebazpena jakinarazten den egunera arte zenbatuko da, edo jakinarazpena egiten saiatu izandako egunera arte (saiatu izate hori behar bezala egiaztaturik egon beharko da).

**2.** Gehienezko epe hori amaturik, oraindik ez bada berariazko ebazpena hartu eta jakinarazi, prozedura iraungita geratuko da, eta ordura arte eginiko bidea artxibatu egin beharko da.

### 4. ATALA. HERRI ADMINISTRAZIOEK ABENDUAREN 13KO 15/1999 LEGE ORGANIKOKO ARAU-HAUSTEREN BAT EGIN DUTELA DEKLARATZEKO PROZEDURA.

**129. artikulua. Xedapen orokorra.**

Kapitulu honetako hirugarren atalean jasota dagoena izango da herri-administrazioek abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoko arau-hausteren bat egin dutela deklaratzeko prozedura.

## IV. Kapitulua. Fitxategiak inskribatzearekin edo indarrik gabe uztearekin zerikusia duten prozedurak

### 1. ATALA. FITXATEGIEN SORRERA, ALDAKETA EDO BALIORIK GABE UZTEA INSKRIBATZEKO PROZEDURA.

**130. artikulua. Prozeduraren hasiera.**

**1.** Interesdunak fitxategia sortu, aldatu edo indarrik gabe utzi duela jakinaraztearen ondorioz edo autonomia-erkidegoetako kontrol-agintariek eginiko eta erregelamendu honetan zehazturik dagoen jakinarazpenaren ondorioz hasiko da prozedura.

**2.** Jakinarazpen hori egiteko, Datuak Babesteko Espainiako Bulegoak berariaz argitaraturiko eredu edo orri elektronikoak bete beharko dira, erregelamendu honetako 59. artikuluko 1. paragrafoan xedaturik dagoenaren arabera.
Fitxategi bat aldatu izana edo indarrik gabe utzi izana jakinarazi behar bada, fitxategi horrek Datuak Babeseko Erregistro Orokorrean zein inskripzio-kode duen ere adierazi beharko da.

**3.** Jakinarazpen hori egiteko, eusgarri elektronikoa erabili beharko da, dela internet bidezko jakinarazpen elektronikoa erabiliz (sinadura elektronikoa eta guzti), dela eusgarri informatiko bidez, hau da, jakinarazpenak egiteko laguntza-programa erabiliz. Programa hori Bulegoak utziko du interesdunen eskura, dohainik.
Bulegoak argitaraturiko ereduak edo orriak erabiliz gero, paperean eginiko jakinarazpenak ere balioko du.

**4.** Jakinarazpenean, fitxategi-erantzuleak helbide bat eman beharko du, prozeduran beste jakinarazpenik egin behar bazaio ere.

**131. artikulua. Titularitate publikoko fitxategietako jakinarazpenetan dauden berezitasunak.**

**1.** Kontua titularitate publikoko fitxategien berri ematea baldin bada, jakinarazpenarekin batera, fitxategia sortzeko, aldatzeko edo indarrik gabe uzteko arauaren edo akordioaren kopia bat aurkeztu beharko da (arau edo akordio horren berri erregelamendu honetako 52. artikuluan dator zehazturik).
Arau edo akordio hori argitaraturik dagoen aldizkari ofiziala Interneten ere eskura baldin badago, jakinarazpenean zehaztu beharko da zein helbide elektronikotan aurkitu daitekeen, eta nahikoa izango da.

**2.** Jakinarazpena jaso, eta ez baldin badakar derrigorrezko informazio guztia, edo formazko akatsik baldin badu, Datuak Babesteko Erregistro Orokorrak fitxategi-erantzuleari jakinarazpena osatzeko edo zuzentzeko eskatuko dio. Fitxategia sortzeko arauak edo akordioa aldatu beharra ere baldin badago, hiru hilabeteko epea egongo da eskabidea zuzentzeko edo hobetzeko.

**132. artikulua. Inskribatzeko edo ezerezteko akordioa.**

Fitxategia sortzeari, aldatzeari edo indarrik gabe uzteari buruzko jakinarazpenean derrigorrezko informazioa jasota baldin badator, eta gainerako lege-betebeharrak ere betetzen badira, Datuak Babesteko Espainiako Agentziako zuzendariak, Datuak Babesteko Erregistro Orokorraren proposamenez, fitxategia inskribatzeko –dena delako inskripzio-kodea ere atxiki beharko dio-, fitxategi-inskripzioa aldatzeko edo inskripzioa indarrik gabe uzteko erabakia hartuko du.

**133. artikulua. Inskripzioa egitea zuzena ez denean edo inskripzio-eskariari ezetz erantzutea.**

Fitxategiko erantzuleak aurkeztu dituen agirietan nabari bada jakinarazpena ez dela abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan xedaturikoaren araberakoa, Datuak Babesteko Espainiako Agentziako zuzendariak ebatziko du, Datuak Babesteko Erregistro Orokorraren proposamenez, dena delako fitxategia ezin dela inskribatu, aldatu edo indarrik gabe utzi.
Ebazpen horrek behar bezala arrazoiturik egon beharko du, eta inskripzioa, aldaketa edo indarrik gabe uzte hori zergatik ezin den egin ere adierazi beharko du, berariaz.

**134. artikulua. Prozeduraren iraupena eta berariazko ebazpenik ezaren ondorioak.**

**1.** Dena delako fitxategia inskribatu, aldatu edo indarrik gabe utzi behar ote den ebazteko eta ebazpena jakinarazteko, gehienez ere hilabeteko epea dago.

**2.** Epe hori amaitu eta oraindik ez bada berariazko ebazpenik hartu eta jakinarazi, ulertu beharko da inskribaturik, aldaturik edo indarrik gabe dagoela, ondorio guztietarako.

## 2. ATALA. INSKRIBATURIKO FITXATEGIAK OFIZIOZ INDARRIK GABE UZTEKO PROZEDURA.

**135. artikulua. Prozeduraren hasiera.**

Datuak Babesteko Erregistro Orokorrean inskribaturik dauden fitxategiak indarrik gabe ofizioz uzteko prozedura ofizioz hasiko da beti, dela norberaren ekimenez dela salaketa bidez, Datuak Babesteko Espainiako Agentziako zuzendariaren akordio bidez.

**136. artikulua. Espedientea amaitzea.**

Ebazpenean, fitxategia indarrik gabe utzi behar den edo ez erabaki beharko da, interesdunari esateko duena entzun ondoren.
Ebazpenak baldin badio fitxategia indarrik gabe utzi behar dela, ebazpen hori Datuak Babesteko Erregistro Orokorrera bidali beharko da, fitxategia indarrik gabe utz dezan.

## V. Kapitulua. Datuak nazioartean lekualdatzearekin zerikusia duten prozedurak

### 1. ATALA. DATUAK NAZIOARTEAN LEKUALDATZEKO BAIMENA EMATEKO PROZEDURA.

**137. artikulua. Prozeduraren hasiera.**

**1.** Datuak nazioartean beste herrialde batzuetara transferitzeko baimena lortzeko prozedura, beti, transferentzia egin nahi duen esportatzailearen eskariz hasi beharko da. Nazioarteko transferentzia horiek abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoko 33. artikuluan eta erregelamendu honetako 70. artikuluan daude zehazturik.

**2.** Esportatzaileak, eskari horretan, legezko baldintzez gainera, datu hauek ere eman beharko ditu:

**a)** Nazioartean transferitu beharreko datuak zein fitxategitakoak diren. Horretarako, fitxategiak zein izen duen eta Datuak Babesteko Erregistro Orokorrean zein inskripzio-kode duen adierazi beharko du.
**b)** Baimena zein transferentziatarako eskatzen den, eta baita zertarako den ere, arrazoi modura.
**c)** Baimena lortzeko berme eskagarriak egiaztatzeko eta, halakorik egin behar bada, transferentzia egiteko legezko beharrezko baldintzak betetzen direla egiaztatzeko agiriak.
Baimenaren oinarria datu-esportatzailearen eta –inportatzailearen arteko kontratu bat baldin bada, kontratu horren kopia bat aurkeztu beharko da, eta kontratugileek nahikoa botere bazutela ere egiaztatu beharko da.

Baimena, ordea, 70. artikuluko 4. paragrafoan xedaturik dagoen horretan oinarritu nahi baldin bada, datuak tratatze aldera taldearen baitan zein arau hartu diren azaldu beharko da, eta baita talde barruan lotesleak eta eraginkorrak direla egiaztatzeko agiriak ere. Era berean, egiaztatu beharko da, agiri bidez, tartean denak inolako kalterik jasanez gero edo edozein enpresa inportatzailek datu-babeserako arauak urratuz gero tartean den horrek edo Datuak Babesteko Espainiako Bulegoak erantzukizunak eskatzeko aukera izango dutela.

**138. artikulua. Prozeduraren jarraibidea.**

**1.** Datuak Babesteko Espainiako Bulegoak, azaroaren 26ko 30/1992 Legeko 86.1 artikuluan xedaturik dagoenaren arabera, jendaurreko informazio-aldi bat zabaltzea erabakitzen badu, hamar eguneko epea egongo da alegazioak aurkezteko, lege honetan zehazturik dagoen iragarkia «Estatuko Aldizkari Ofizialean» argitaratzen den egunetik aurrera zenbatzen hasita.

**2.** Azaroaren 26ko 30/1992 Legeko 37.5 artikuluan jasota datozen gorabeherak tartean badira, ezingo da dena delako espediente horretako informazioa eskuratu.

**3.** 1. paragrafoan zehazturik dagoen epea amaitzen denean, alegaziorik aurkeztu bada, baimen-eskatzailearen eskuetan utzi beharko dira, eta hamar eguneko epea emango zaio, nahi duena azaldu dezan.

### 139. artikulua. Ebazpenaren ondorengo egintzak.

**1.** Datuak Babesteko Espainiako Bulegoko zuzendariak ebazten badu datuak nazioartean transferitzeko baimena ematea, baimen-ebazpena Datuak Babesteko Erregistro Orokorrera bidali beharko da, inskriba dezaten.
Datuak Babesteko Erregistro Orokorrak nazioarteko transferentziarako baimena ofizioz inskribatuko du.

**2.** Edonola ere, ebazpena baiezkoa izan edo ezezkoa izan, hau da, datuak nazioartean transferitzeko baimena eman edo ez, ebazpen hori Justizia Ministeriora bidali beharko da, Europako Batzordeari eta Europar Batasuneko gainerako estatuei jakinaraz diezaieten, 95/46/EE Direktibako 26.3 artikuluan aurreikusita dagoen moduan.

### 140. artikulua. Prozeduraren iraupena eta berariazko ebazpenik ezaren ondorioak.

**1.** Eskaria Datuak Babesteko Espainiako Bulegoan sartzen den egunetik, gehienez ere hiru hilabeteko epea egongo da ebazpena hartzeko eta jakinarazteko.

**2.** Epe horretan ez baldin bada berariazko ebazpenik hartzen eta jakinarazten, datuak nazioartean transferitzeko baimena badagoela ulertu beharko da.

## 2. ATALA. DATUEN NAZIOARTEKO TRANSFERENTZIA ALDI BATEAN ETETEKO PROZEDURA.

### 141. artikulua. Hastea.

**1.** 70. artikuluko 3. paragrafoko 69. artikuluan zehazturik datozen kasuetan, Datuak Babesteko Espainiako Bulegoko zuzendariak datuen nazioarteko transferentzia aldi baterako etenda utz dezake.
**2.** Halakoetan, transferentziaren aldi baterako etetea hasteko akordioa zuzendariak hartuko du. Akordio horrek arrazoiturik egon beharko du, eta erregelamendu honetan jasota datozen kasuetan oinarriturik.

### 142. artikulua. Jarraibidea eta ebazpena.

**1.** Akordioaren berri esportatzaileari eman beharko zaio, eta hamabost eguneko epea eman, nahi dituen arrazoibideak azaltzeko.

**2.** Alegazio horiek jaso ondoren edo epe hori amaitzen denean, zuzendariak ebazpena hartu beharko du, datuen nazioarteko transferentzia aldi baterako etetea agintzeko, baldin eta hala egin behar bada.

**143. artikulua. Ebazpenaren ondorengo egintzak.**

**1.** Datuak Babesteko Espainiako Bulegoko zuzendariak ebazpen hori Datuak Babesteko Erregistro Orokorrera bidali beharko du, haren berri erregistroan jasota gera dadin.
Datuak Babesteko Erregistro Orokorrak nazioarteko transferentziaren aldi baterako etetea ofizioz inskribatu beharko du.

**2.** Edonola ere, ebazpena Justizia Ministeriora bidali beharko da, Europako Batzordeari eta Europar Batasuneko gainerako estatuei jakinaraz diezaieten, 95/46/EE Direktibako 26.3 artikuluan aurreikusita dagoen moduan.

**144. artikulua. Aldibaterako etetea indarrik gabe uztea.**

**1.** Transmisioa eteteko arrazoirik ez dagoen bezain azkar, etetea indarrik gabe geratuko da. Datuak Babesteko Espainiako Bulegoko zuzendariaren ebazpen bidez beharko du izan, eta esportatzaileari ere bidali beharko zaio ebazpen hori.

**2.** Datuak Babesteko Espainiako Bulegoko zuzendariak ebazpen hori Datuak Babesteko Erregistro Orokorrera bidali beharko du, haren berri erregistroan jasota gera dadin.

Datuak Babesteko Erregistro Orokorrak nazioarteko transferentziaren aldi baterako etetea ofizioz inskribatu beharko du.

**3.** Akordioa esportatzaileari eta Justizia Ministerioari jakinarazi beharko zaie, Europako Batzordeari eta Europar Batasuneko gainerako estatuei jakinaraz diezaieten, 95/46/EE Direktibako 26. artikuluan aurreikusita dagoen moduan.

## VI. Kapitulua. Ereduzko kodeak inskribatzeko prozedura

**145. artikulua. Prozeduraren hasiera.**

**1.** Ereduzko kodea sustatzen duen organoak edo elkarteak eskaturik hasiko da, beti, ereduzko kodeak Datuak Babesteko Erregistro Orokorrean inskribatzeko prozedura.

**2.** Eskariak legezko baldintza guztiak bete beharko ditu eta eskari horrekin batera agiri hauek ere aurkeztu behar dira:

**a)** Eskaria aurkeztu duen horrek nor ordezkatzen duen egiaztatzeko agiria.
**b)** Aurkeztu den ereduzko kodearen edukia dena delako esparruan onartzen duen akordioaren, itunaren edo erabakiaren edukia
**c)** Ereduzko kodea arlokako akordio batetik edo enpresa-erabaki batetik baldin badator, akordioa hartu izana egiaztatzeko agiriak eta hartu zuen organoaren zilegiztatzea.
**d)** Aurreko puntuan jasota datorren kasu horretan eta kodea elkarte, arlo-antolakunde edo erakunderen baten esparruan onartu bada, elkarte, antolakunde edo erakunde horren estatutuen kopia.
**e)** Ereduzko kodea arlokako elkarte edo antolakunderen batek aurkeztu badu, dena delako arlo horretan zer-nolako ordezkaritza duen azaltzeko agiriak.

**f)** Ereduzko kodea enpresa-erabakietan oinarriturik baldin badago eta tratamenduren bati buruzkoa bada, tratamendu horren deskripzioa.
**g)** Datuak Babesteko Espainiako Agentziaren erabakien pean dagoen ereduzko kodea.

**146. artikulua. Ereduzko kodearen alderdi substantiboen azterketa.**

**1.** Akatsak jakinarazi edo zuzendu eta hurrengo hogeita hamar egunetan, Datuak Babesteko Erregistro Orokorrak, nahi badu, eskari-egileei deitzeko aukera izango du, ereduzko kodearen eduki substantiboari buruzko edozer argitzeko edo zehazteko.

**2.** Aurreko paragrafoko epe hori amaitzen denean, Datuak Babesteko Erregistro Orokorrak txosten bat idatzi beharko du, eta txosten horretan azaldu ereduzko kodearen egitasmoaren ezaugarriak.

**3.** Aurkezten dituzten agiriak eta txosten hori kabinete juridikora bidali beharko dira, eta hark adierazi beharko du, txosten bidez, ea Erregelamendu honetako VII. Tituluan zehazturik datozen baldintzak betetzen diren edo ez.

**147. artikulua. Informazio publikoa.**

**1.** Datuak Babesteko Espainiako Bulegoak, azaroaren 26ko 30/1992 Legeko 86.1 artikuluan xedaturik dagoenaren arabera, jendaurreko informazio-aldi bat zabaltzea erabakitzen badu, hamar eguneko epea egongo da alegazioak aurkezteko, lege horretan zehazturik dagoen iragarkia «Estatuko Aldizkari Ofizialean» argitaratzen den egunetik aurrera zenbatzen hasita.

**2.** Azaroaren 26ko 30/1992 Legeko 37.5 artikuluan jasota datozen gorabeherak tartean badira, ezingo da dena delako espediente horretako informazioa eskuratu.

**148. artikulua. Ereduzko kodea hobetzea.**

Prozedura izapidetzen ari den bitartean beste agiririk ekarri beharra baldin badago edo aurkezturiko ereduzko kodea aldatu beharra gertatzen bada, Datuak Babesteko Espainiako Bulegoak eskari-egileari errekerimendu bat egin diezaioke, eta hogeita hamar eguneko epea eman, egin beharreko aldaketak egiteko. Testu berria Datuak Babesteko Espainiako Bulegora bidali beharko da.
Eskari-egileak errekerimendua betetzen ez duen bitartean, prozedura etenda utzi beharko da.

**149. artikulua. Entzunaldia.**

148. artikuluan zehazturik dagoen izapideak dirauen bitartean alegaziorik aurkeztu bada, baimen-eskatzailearen eskuetan utzi beharko dira, eta hamar eguneko epea emango zaio, nahi duena azaldu dezan.

**150. artikulua. Ebazpena.**

**1.** Aurreko artikuluetan agindurik dagoen guztia betetzen denean, Bulegoko zuzendariak ebatzi beharko du ea ereduzko kodea Datuak Babesteko Erregistro Orokorrean inskribatzea egokia den edo ez.

**2.** Datuak Babesteko Espainiako Bulegoko zuzendariak ereduzko kodea inskribatzeko baimena ematea ebazten badu, baimen-ebazpena Datuak Babesteko Erregistro Orokorrera bidali beharko da, inskriba dezaten.

**151. artikulua. Prozeduraren iraupena eta berariazko ebazpenik ezaren ondorioak.**

**1.** Eskaria Datuak Babesteko Espainiako Bulegoan sartzen den egunetik, gehienez ere sei hilabeteko epea egongo da ebazpena hartzeko eta jakinarazteko.

**2.** Epe horretan ez baldin bada berariazko ebazpena hartzen eta jakinarazten, eskari-egileak eskariari baiezkoa erantzun diotela pentsatu ahal izango du.

**152. artikulua. Datuak Babesteko Espainiako Bulegoak ereduzko kodeak argitaratzea.**

Datuak Babesteko Espainiako Bulegoak Datuak Babesteko Erregistro Orokorrean inskribaturik dauden ereduzko kodeen edukiaren berri zabaltzeko ardura hartu beharko du, ahal dela, baliabide elektronikoak edo telematikoak erabiliz.

## VII. Kapitulua. Datuak Babesteko Espainiako Bulegoak izapideturiko beste prozedura batzuk

### 1. ATALA. INTERESDUNA JAKINAREN GAINEAN JARRI BEHARRIK EZ IZATEKO PROZEDURA

**153. artikulua. Prozeduraren hasiera.**

**1.** ezinezkoa bada edo neurriz kanpoko ahalegina eskatzen badu, bada prozedura bat Datuak Babesteko Espainiako Bulegoaren eskuetatik betebehar horretarako salbuespena lortzeko. Salbuespen hori abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoko 5. artikuluko 5. atalean dator zehazturik, eta, prozedura bera, beti, salbuespenaren aplikazioa lortu nahi duen erantzulearen eskariz hasi beharko da.

**2.** Eskari-orrian, azaroaren 26ko 30/1992 Legeko 70. artikuluan jasota datozen baldintzak betetzeaz gainera, erantzuleak datu hauek denak eman beharko ditu:

**a)** Salbuespena zein datu-tratamendutarako den zehaztu beharko du, argi eta garbi.
**b)** Azaldu beharko du, berariaz, tratamenduaren berri ematea zergatik den ezinezkoa edo zergatik eskatzen duen neurriz kanpoko ahalegina egin beharra.
**c)** Berri eman behar horretatik salbuetsiko balute ordain modura beste zer egitea proposatzen duen azaldu beharko du, zehatz-mehatz.
**d)** Klausula informatzaile bat jarri beharko du mahai gainean. Eskarian azaldu beharko du nola zabalduko lukeen, eta ordain modura balio beharko du, berri eman beharrik ez izanez gero ere.

**154. artikulua. Ordezko beste neurri batzuk proposatzea.**

**1.** Eskari-egileak ordain modura proposaturiko neurri horiek Datuak Babesteko Espainiako Bulegoari ez bazaizkio nahikoak iruditzen, neurri horiek osatzeko edo ordezteko beste batzuk hartzeko erabakia hartu ahal izango du.

**2.** Erabaki horren berri eskari-egileari ere eman beharko zaio, eta hamabost eguneko epea eman, nahi dituen arrazoibideak azaltzeko.

**155. artikulua. Prozeduraren amaiera.**

Aurreko artikuluko izapideak amaitzen direnean, Bulegoko zuzendariak ebazpena eman beharko du, eta berri eman beharretik salbuestea edo ez erabaki. Ebazpenean baliteke aurreko artikuluan zehazturik dauden neurri osagarriak hartzeko agintzea.

**156. artikulua. Prozeduraren iraupena eta berariazko ebazpenik ezaren ondorioak.**

**1.** Fitxategiko erantzulearen eskaria Datuak Babesteko Espainiako Bulegoan sartzen den egunetik, gehienez ere sei hilabeteko epea egongo da ebazpena hartzeko eta jakinarazteko.

**2.** Epe horretan ez baldin bada berariazko ebazpena hartzen eta jakinarazten, tartean den horrek pentsatuko du eskaria aintzat hartu dutela, baiezko administrazio-isiltasuna bitarteko.

## 2. ATALA. DATUAK HISTORIA EDO ZIENTZIA LANTZEKO EDO ESTATISTIKAK EGITEKO GORDETZEKO BAIMENA LORTZEKO PROZEDURA.

**157. artikulua. Prozeduraren hasiera.**

**1.** Abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan eta erregelamendu honetan zehazturik dauden ondorioetarako, tratatu beharreko datuak historiarako, zientziarako edo estatistikarako baliokoak direla-eta Datuak Babesteko Espainiako Bulegoak hala aitortzea nahi izanez gero, horretarako prozedura, beti, aitorpena lortu nahi duen erantzulearen eskariz hasi beharko da.

**2.** Eskari-orrian, erantzuleak informazio hau dena jaso beharko du:

**a)** Salbuespena zein datu-tratamendutarako den zehaztu beharko du, argi eta garbi.
**b)** Aitorpen horretarako balioko luketen arrazoiak berariaz zehaztu.
**c)** Ea fitxategiko erantzuleak zer-nolako neurriak hartu behar dituen herritarren eskubidea bermatzeko. Zehatz-mehatz azaldu beharko du.

**3.** Eskariarekin batera, historiarako, zientziarako edo estatistikarako zer-nolako balioa dagoen argi azaltzeko behar diren agiri eta proba guztiak aurkeztu behar dira, Bulegoaren aitorpena balio horretan oinarrituko baita.

**158. artikulua. Prozeduraren iraupena eta berariazko ebazpenik ezaren ondorioak.**

**1.** Fitxategiko erantzulearen eskaria Datuak Babesteko Espainiako Bulegoan sartzen den egunetik, gehienez ere hiru hilabeteko epea egongo da ebazpena hartzeko eta jakinarazteko.

**2.** Epe horretan ez baldin bada berariazko ebazpena hartzen eta jakinarazten, tartean denak eskariari baiezkoa erantzun diotela pentsatu ahal izango du.

## XEDAPEN GEHIGARRIA

### Bakarra. Software produktuak.

Datu pertsonalak automatizaturik tratatzeko software produktuek, argibide teknikoen artean, erregelamendu honetako VIII. tituluaren arabera zer-nolako segurtasun-maila lortzeko bidea ematen duten adierazi beharko dute: oinarrizkoa, ertaina ala handia.

## AZKEN XEDAPENA

### Bakarra. Ordezko xedapenak.

Datuak Babesteko Espainiako Bulegoak izapideturiko zehapen-prozeduretan, IX. tituluko III. kapituluan xedaturik ez dagoen edozertarako, Zehatzeko Ahalmena Erabiltzeko Prozedurarako Erregelamenduan jasotako xedapenak bete beharko dira (erregelamendu hori abuztuaren 4ko 1398/1993 Errege Dekretu bidez onartu zen).

**308/2005 DEKRETUA, urriaren 18koa, datu pertsonaletarako jabetza publikoko fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legea garatzen duena.**

(EHAA 118zk., 2005eko Azaroaren 16koa)

Otsailaren 25eko 2/2004 Legearen bidez, alde batetik, Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde publikoek sortu eta kudeatutako datu pertsonaletarako fitxategiei buruzko alderdiak arautu ziren eta, bestetik, Datuak Babesteko Euskal Bulegoa sortu zen. Herritarren intimitate pertsonalaren eta etxeko intimitatearen babes eraginkorragoa lortuko bada legezko arauak osatu behar dira, hain zuzen ere doktrinak "informazio autodeterminaziorako eskubidea" izenaz izendatu duena. Kasu honetan, hala ere, babesak Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde publikoei lotutako fitxategiei baino ez daragie, bertan sortu edo kudeatzen direlako. 2/2004 Legeak berak, azken xedapenean, baimena ematen dio Eusko Jaurlaritzari legea garatu eta aplikatzeko. Alabaina, izaera orokorreko gaitasun horretaz gain, 2/2004 Legeak hainbat aldiz joten du araudira, besteak beste, nabarmendu egin behar dira datuen aurka egiteko, datuetara iristeko, datuak zuzentzeko, indarrik gabe uzteko eta legeak aitortutako edozein eskubide erabiltzeko prozedura arautzeari dagokiona. Legegilearen asmoa, argi dago, Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde publiko bakoitzak nork bere titularitatepeko fitxategien prozedura arautzea izan da (hau da, erakunde bakoitzak sortu edo kudeatutakoen prozedura). Dekretu honek, beraz, Autonomia Administrazioak berak sortu edo kudeatutako fitxategiei buruzko eskubideez baliatzeko prozedura arauak baino ez ditu ezartzen. 2/2004 Legeak, halaber, bertan aipatzen diren eskubideak ukatu baitzaie, herritarrek Datuak Babesteko Euskal Bulegoan aurkez ditzaketen erreklamazioak erregelamendu bidez arautu behar direla esaten du.

Dekretu honek ez ditu Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren alderdi organikoak arautzen, Erakundearen Estatutuan bertan arautu beharreko gaiak baitira, Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legearen 14. artikuluan ezarritakoaren arabera.

19 artikulu eta azken xedapen batek osatzen dute dekretua. Azken xedapenean baimena ematen zaio sailburuordeari dekretua garatzeko, Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren Aholkularitza Batzordeak aurretik horri buruzko iritzia eman ondoren. Artikuluak lau kapitulutan banatu dira.

I. kapitulua, xedapen orokorrei buruzkoak, alde batetik, dekretuaren aplikazio eremua finkatzen du eta, bestetik, Datuak Babesteko Euskal Bulegoari fitxategiak jakinarazteko alderdiak eta ereduzko kodeak arautzen ditu.

II. kapitulua, hasierako fasean informazio autodeterminazioaren eskubideak erabiltzeari buruz aritzen da; hau da, fitxategiaren arduradunaren aurrean. Azpimarratu behar da, nolanahi ere, Kapitulu honen aplikazio eremuak Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioak edo berari lotuta dauden edo menpeko diren erakunde publikoek sortu edo kudeatutako fitxategiei bakarrik daragiela.

III. kapitulua, datuen blokeoa eta informazio autodeterminazioa osatzen duten eskubideen babesa arautzen dira. Babesa Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren aurrean egin beharreko erreklamazio faseari dagokio; hau da, eragindako herritarrak fitxategiko arduradunaren ezetza jaso duenean. Arautu egiten dira, halaber, legezko edo arauzko manuak hausten dituzten

fitxategietako arduradunen aurrean Datuak Babesteko Euskal Bulegoak berehala jarduteko dituen aukera ezberdinak.

IV. kapitulua, Datuak Babesteko Euskal Bulegoak, bere aplikazio eremuan sartzen diren fitxategiei dagokienez, jarraitu behar duen zigor-prozedurari buruzko aginduak zehaztu dira. Bestalde, 2/2004 Legean jasotako arauak osatu behar dira, Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Administrazioen zigortzeko ahalmenari buruzko otsailaren 20ko 2/1998 Legean ezarritakoaren arabera. Ildo horretan, gogorarazi behar da ekainaren 20ko 1332/1994 Errege Dekretuaren bigarren xedapen gehigarriak, datu pertsonalen tratamendu automatizatua arautzen duen urriaren 29ko 5/1992 Lege Organikoaren zenbait alderdi garatzekoak (datu pertsonalak babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren hirugarren xedapen iragankorraren babespean gaur egun indarrean), Autonomia Erkidegoei, beren fitxategiei dagokienez, zigortzeko prozedura arautzeko bai eta eragindakoaren eskubideak erabili eta babesteko eskumena ere aitortzen die.

Ondorioz, Jaurlaritzaren Lehendakariordetzaren proposamenez, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoarekin bat eta Jaurlaritzaren Kontseiluak 2005eko urriaren 18an egindako bilkuran aztertu eta onartu ondoren, hauxe

XEDATU DUT:

## I. Kapitulua. Xedapen orokorrak

### 1. Artikulua. Aplikazio eremua.

**1.** Dekretu honen aplikazio eremuak (II. kapituluan ezarritakoa salbu, bertan aurreikusitakoa izango baitu) honako fitxategiak hartuko ditu:

> **1.** 2/2004 Legearen 2.1 artikuluak aipatzen dituen Administrazio, instituzio, erakunde eta korporazio publikoek (aurrerantzean Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde publikoak) eskubide publikoko ahalmenez baliatzeko sortu eta erakunde horiek edo pertsona pribatuek, fisikoek zein juridikoek, kudeatutakoak.
> **2.** Beste pertsona batzuek, fisikoek zein juridikoek, publikoek zein pribatuek, sortutakoak, baldin eta Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde publikoek eskubide publikoko ahalmenez baliatzeko kudeatutakoak badira.

**2.** 2/2004 Legearen 2.2 artikuluak aipatzen dituen fitxategietan, berriz, ez da dekretu honetan ezarritakoa aplikatuko.

**3.** Estatistiketarako baino ez diren eta funtzio estatistiko publikoari buruzko legeen babesean dauden datu pertsonalen fitxategiek berariazko xedapenak izango dituzte araubide, baldin eta dekretu honetan horietako bereziki ezarri ez bada.

**4.** Pertsonen osasunari buruzko datuen fitxategiak arautzeko, baldin eta osasun-erakunde edo -zentro publikoen edo horien zerbitzuan dauden profesionalen jabetzapekoak badira, osasunari buruzko alorreko legeetan ezarritakoari begiratuko zaio. Hala ere, dekretu honetan ezarritakoari jarraituko zaio lege horiekin bateraezina ez den guztian.

**5.** 2/2004 Legearen 2.2 artikuluan aipatu ez diren eta Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziak sortu edo kudeatzen dituen datu pertsonalen fitxategietan dekretu honetan ezarritakoa aplikatzerakoan, Poliziak duten araubide juridikoaren berezitasunak kontuan hartuko dira. Datu pertsonalak babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan, Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziari buruzko uztailaren 17ko 4/1992 Legean eta lege horiek garatzen dituzten xedapenetan aurreikusten dira berezitasun horiek.

### 2. Artikulua. Datuak Babesteko Euskal Bulegoari fitxategien berri ematea.

**1.** Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde publikoek datu pertsonalen fitxategiak sortu, aldatu edo ezabatzeko egindako eragiketen berri emango diote Datuak Babesteko Euskal Bulegoari, Datuak Babesteko Erregistroan inskripzioa egiteko. Horretarako, Datuak Babesteko Euskal Bulegoak egindako eredu normalizatuaren bidez, sortu, aldatu edo ezabatzeko xedapen edo ebazpenaren kopia bidali beharko da.

**2.** Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde publikoek, dekretu honen 1.1.b artikuluan aipatzen diren eskubide publikoko eskumenez baliatzeko kudeatzen dituzten fitxategien berri emango diote Datuak Babesteko Euskal Bulegoari.

### 3. Artikulua. Ereduzko kodeak.

**1.** Ereduzko kodeak Datuak Babesteko Erregistroan gordailatuko dira beren inskripzioa egiteko, Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren Estatutuan ezarritakoaren arabera.

**2.** Datuak Babesteko Erregistroan gordailatu eta inskribatutako ereduzko kodeen kopiak edonoren eskuragarri egongo dira.

**3.** Ereduzko kodeetan jasotako arauak urratuz gero, kodeak arautzen dituzten ebazpen edo xedapenetan ezarritakoari jarraituko zaio.

## II. Kapitulua. Eskubideak erabiltzea, euskal autonomia erkidegoko fitxategien gaineko eskubideak erabiltzea

### 4. Artikulua. Eskubideen izaera pertsonala.

**1.** Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak eta bere erakunde publikoek sortu edo kudeatutako datu pertsonalen fitxategien aurka egiteko edo bertara iristeko eskubidea, fitxategia edozein dela eta, baldin eta beren menpe edo beraiei lotuta badaude, eta baita datuak zuzendu edo ezabatzeko eskubideak ere, zeharo pertsonalak dira eta eragindakoak berak erabiliko ditu fitxategiko arduradunaren aurrean, 15/1999 Lege Organikoan eta indarrean dauden bestelako xedapenetan berariaz aurreikusitako mugak baino ez dituztela horietarako. Hala ere, eragindakoaren legezko ordezkariak jokatu ahal izango du, baldin eta eragindakoa ezintasun egoeran badago edo adin txikikoa bada eta euren kabuz eskubide horiek ezin baditu erabili.

**2.** Artikulu honek aipatzen dituen eskubideez borondatezko ordezkariaren bidez baliatzeko, ekitaldi bakoitzean kreditatu beharko da ordezkaritza, zuzenbidean baliozkoa den eta modu

fidagarrian erasota uzteko moduko edozein bide erabiliz edo doakionak fitxategiko arduradunaren aurrean agertuz egindako aitorpenaren bidez.

**5. Artikulua. Aurka egiteko eskubidea.**

**1.** Datu pertsonalen tratamenduak eragindakoaren zalantzarik gabeko adostasuna eskatzen duenean, aurka egiteko eskubideaz baliatzea bi modutara egin daiteke: adostasuna azaldu barik edo adostasuna ez dela ematen azaltzen.

**2.** Datu pertsonalak tratatzeko eragindakoaren adostasuna beharrezkoa denean, betiere legeek aurkakorik ezartzen ez badute, eragindakoa bere datuen tratamenduaren aurka ager daiteke bere egoera zehatzari buruzko arrazoi sendoak eta legezkoak daudela adierazten duen idazki bat fitxategiko arduradunari igorriz. Horrelakoetan, fitxategiko arduradunak eskaeraren gai den edo diren tratamenduetatik baztertuko ditu eragindakoari buruzko datuak eta, hamar egunetik gora gabeko epean, berari jakinaraziko dio bazterketa zelan egin den.

**6. Artikulua. Datuetara iristeko eskubidea.**

**1.** Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren eta beraren menpe edo berari lotutako erakunde publikoen fitxategietako datuetara iristeko eskubideaz baliatzeko, fitxategiko arduradunari zuzendutako eskabide bat egin beharko da. Eskegilea eragindakoa dela ziurtatzen duen edozein bide erabili ahal izango da horretarako eta, gainera, kontsultatu beharreko fitxategia edo fitxategiak adierazi beharko dira.

**2.** Fitxategiaren konfigurazioak eta ezarpen materialak bide ematen badute, eragindakoak ondoren adierazten diren aukerak izango ditu fitxategia kontsultatzeko:

- **1.** Pantaila bistaratzea.
- **2.** Postaz bidalitako idazki, kopia edo fotokopia.
- **3.** Telekopia.
- **4.** Fitxategiaren konfigurazioari edo ezarpen materialari egokitutako beste edozein bide erabiliz.

**3.** Fitxategiko arduradunak hilabeteko epean ebatzi beharko du datuak eskuratzeko eskabidea. Epea eskabidea jasotzen den egunean hasiko da. Epe hori iragan eta interesdunak berariazko ebazpenik jaso ez badu, 2/2004 Legearen 9. artikuluan aurreikusitako erreklamazioa aurkeztu ahal izango du.

**4.** Ebazpena baiezkoa izanez gero, horren jakinarazpena egin eta hamar eguneko epean eskuratuko dira eskatuko datuak.

**7. Artikulua. Informazioaren edukia.**

**1.** Informazioa, ematen den euskarria edozein dela, modu irakurgarri edo ulergarrian eman beharko da, berariazko dispositibo mekanikoen erabilpena ezinbesteko duten gakoak edo kodeak erabili barik.

**2.** Informazioak, eskabidean zehaztutakoaren arabera, eragindakoaren oinarrizko datuak eta edozein informatika-lan edo prozesuaren ondoriozkoak hartu ahal izango ditu, bai eta datuen jatorria, datuen emaileak eta datuak zelan eta zertarako bildu ziren ere.

**8. Artikulua. Datuak eskuratzeko ukapena.**

Eragindakoa edo, dekretu honen 4. artikuluan ezarritakoaren arabera, ordezkoa ez den beste pertsona batek eskabidea aurkezteak datuak eskuratzeko ukapena ekarriko du. Beste horrenbeste gertatuko da Datu Pertsonalak Babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoak aurreikusitako ukatze-egoeraren bat gertatzen denean.

**9. Artikulua. Datuak zuzendu eta indargabetzeko eskubideak.**

**1.** Interesdunak datuak zehaztugabeak edo osatugabeak, ezegokiak edo gehiegizkoak direla jotzen badu datuok zuzentzeko edo, hala badagokio, datuak ezabatzeko eskatu ahal izango dio fitxategiko arduradunari. Hala ere, administrazio prozedura batean jasotako egintzak islatzen dituzten datuak izanez gero, zuzentzat joko dira espedientean jasotakoekin bat baldin badatoz.

**2.** Fitxategiko arduradunak zuzendu edo ezabatuko ditu datuak, eskabidea jasotzen duenetik hasi eta hurrengo hamar eguneko epearen barruan. Datuak beste edonori jakinarazi bazaizkio, fitxategiko arduradunak, epe berean, datuak zuzendu edo ezabatuko direla jakinaraziko dio, eta pertsona horrek jasotako datuak oraindik baldin baditu, modu berean zuzendu edo ezabatu beharko ditu.

**3.** Fitxategiko arduradunak eragindakoaren eskabidea ezin dela onartu uste badu, jakinarazi eta horretarako arrazoiak emango dizkio, aurreko zenbakian adierazitako epe berean, eragindakoak Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren aurrean 2/2004 Legearen 9. artikuluan aurreikusitako erreklamazioa egiteko aukera izan dezan.

**4.** Hamar eguneko epea iragan eta ebazpen adierazia jakinarazi ez bazaio, interesdunak dagokion erreklamazioa aurkeztu ahal izango du Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren aurrean.

## III. Kapitulua. Datuak babesteko euskal bulegoak datuak blokeatzeko eta eskubideak babesteko modua

**10. Artikulua. Datuen blokeoa.**

**1.** Datuak idargabetzeak horien blokea ekarriko du, geroago prozesatu edo erabiltzeko bidea ixteko. Administrazio publikoen, epaileen eta epaitegien eskuragarri egongo dira bakar-bakarrik, tratamenduan agian sortu diren erantzunkizunak indarrean dauden epean bilatu ahal izateko.

**2.** Epe hori iragan ondoren datu guztiak ezabatuko dira. Hala ere, ezabatu beharreko datuak iruzur, doilor edo bidegabez jaso edo erregistratu direnean, datuak ezabatzeak datuak jasotzen dituen euskarria bera deuseztatzea ekarriko du.

**3.** Datuen blokeoa agintzen duen fitxategiko arduradunaren ebazpenaren aurka 2/2004 Legearen 9. artikuluan aurreikusitako erreklamazioa aurkeztu ahal izango da, Datuak Babesteko Euskal Bulegoko zuzendariari zuzenduta.

**4.** Artikulu honetan ezarritako ondorioetarako, tratamendua galerazteko datuak identifikatzea eta gordetzea da blokeotzat jo behar dena.

### 11. Artikulua. Eskubideak babestea.

**1.** 2/2004 Legearen 9. artikuluan aipatu eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren aurrean egin beharreko erreklamazioak artikulu honetan aurreikusitako moduan egin beharko dira.

**2.** Eragindakoak eskatuta hasiko da prozedura. Horrek, idatziz egin beharko du erreklamazioa, edukia argi eta garbi azalduta, eta bere ustez urratu diren legezko edo arauzko manuak zehaztu beharko ditu.

**3.** Datuak Babesteko Euskal Bulegoan erreklamazioa jaso eta gero, fitxategiko arduradunari igorriko zaio, hamabost eguneko epean, bidezko iritzitako alegazioak aurkez ditzan.

**4.** Alegazioak jaso edo horiek egiteko epea iragan ondoren, Datuak Babesteko Euskal Bulegoko zuzendariak, txostenak, probak eta bidezko iritzitako beste instrukzio ekintza batzuk egin ostean, fitxategiko arduradunari eta eragindakoei entzutea barne, aurkeztutako erreklamazioaren gaineko ebazpena hartuko du bidezko kasuetan, 30/1992 Legearen 84. artikuluan ezarritakoaren arabera.

**5.** Erreklamazio idazkia aurkeztu eta sei hilabete iragan ondoren ebazpen adierazia jakinarazi ez bada, erreklamazioa ezetsi egin dela ulertuko da.

**6.** Datuak Babesteko Euskal Bulegoko zuzendariaren ebazpena edo eskatutako babesa administrazio isilbidez ezestearen aurka, Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da, jurisdikzio hori arautzen duen Legearen arabera. Hala ere, aurretik eta borontatez, berraztertzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango da.

### 12. Artikulua. Fitxategietako arduradunei errekerimenduak egitea.

**1.** Datuak Babesteko Euskal Bulegoko zuzendariak Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde publiko batek sortu edo kudeatutako fitxategi jakin bati eustea edo berori erabiltzea legezko edo arauzko manu baten aurka dagoela, errekerimenduan berariaz finkatutako epean zehazten diren zuzenketa-arauak hartzeko eskatu ahal izango dio fitxategiko arduradunari. Fitxategiko arduraduak bost egunetik behera gabeko epean bidezko iritzitako alegazioak aurkeztu ahal izango ditu eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoko zuzendariak, hala badagokio, horiei buruzko ebazpena hartuko du, betiere bost egunetik gora gabeko epean.

**2.** Eragindako herritarren eskubideak bermatzeko beharrezko zuhurtziazko neurriak jasoko ditu errekerimenduak, bai eta dagokion zigortze prozedura hasteko agindua ere. Kasu horretan, zuhurtziazko neurriak hartu ondorengo bost eguneko epean alegazioak aurkeztu ahal izango ditu fitxategiko arduradunak.

**3.** Fitxategiko arduradunak zuzentzeko eskatutako errekerimendua edo, hala izanez gero, alegazio-izapidearen osteko ebazpena betetzen ez badu, Datuak Babesteko Euskal Bulegoko zuzendariak fitxategiko arduradunaren ebazpena edo ez-egiteko jarrera errekurritu ahal izango du Administrazio-Auzietarako juridikzioaren aurrean, Jurisdikzio hori arautzen duen Legearen arabera.

**4.** Errekerimendua zigortze-prozedura baten esparruan gertatzen bada eta datu pertsonalen bidegabezko erabilpen edo emateari uztekoa bada -betiere arau-hauste larria dela, eta Konstituzioak eta Legeak bermatzen ditue herritarren eskubideen erabilpenaren eta nortasuna

garatzeko askatasunaren aurka daudela- Datuak Babesteko Euskal Bulegoko zuzendariak artikulu honetan aipatzen diren zuhurtziazko neurriak hartu ahal izango ditu. Gainera, ezarritako epean errekerimenduari erantzuna ematen ez bazaio, Datuak Babesteko Euskal Bulegoko zuzendariak, arrazoitutako ebazpen baten bidez, fitxategiak geldiarazi ahal izango ditu eragindako pertsonen eskubideak leheneratzeko.

**13. Artikulua. Datuak Babesteko Euskal Bulegoko Ikuskaritzak zuhurtziazko neurriak hartzea.**

**1.** Salbuespenez, oso larritzat zigortutako arau-hausteak ez jarraitzeko edo antzekoak ez errepikatzeko; haiek sortutako kalteen jarraipena saihesteko edo kalteak arintzeko, zuhurtziazko neurriak hartu behar dira. Datuak Babesteko Euskal Bulegoak bere funtzionariei aitortzen dizkion ikuskaritza-egitekoak burutzerakoan behin-behingoz zilegiak ez diren gertakariak egiaztatzen badituzte funtzionarioek berek ezarri ahal izango dituzte. Zuhurtziazko neurri horiek bai eta neurrien zergatia eta xedea ere ikuskapen-aktan adierazi beharko dira.

**2.** Aurreko idatz-zatian aipatutako zuhurtziazko neurriak hartzen direnean, dihaduen ikuskariak berehala jakinaraziko dizkio Datuak Babesteko Euskal Bulegoko zuzendariari eta honek hasiera emango dio dagokion zigortze-prozedurari. Hasteko egintzan zuhurtziazko neurrien ezeztapena, jarraipena edo aldakuntza zehaztuko da, arrazoiak eta guzti, eta bost eguneko epea emango zaio fitxategiko arduradunari berak iritzitako alegazioak aurkez ditzan.

**3.** Artikulu honek aipatzen dituen zuhurtziazko neurriak hartu eta lau egun geroago dagokion zigortze-prozedura hasi ez bada indargabetuko dira.

## IV. Kapitulua. Zigortze prozedura

**14. Artikulua. Hasiera.**

**1.** Ofizioz hasiko da zigortze-prozedura, Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren ebazpenaz, bere kabuz, edo administrazio publiko batek nahiz beste erakunde publiko batek arrazoiak emanez horrela eskatzen duelako edo salaketa baten ondorioz.

**2.** Hasteko ebazpena gutxienez honakoak izangod ditu:

- **a)** ustez erantzukizundunak diren pertsona edo pertsonen identifikazioa.
- **b)** prozedura hasteko zio diren egintzen azalpena, agiango legezko kalifikazioa eta dagozkiekeen zehapenak.
- **c)** prozeduraren instrukzio-egilearen izendapena, errekusatzeko araubidea berariaz azalduta; eta
- **d)** prozedura ebazteko organo ekuduna zuzendaria dela adierazi beharko da, Datuak Babeteko Euskal Bulegoko Estatutuak ekumena ematen dion manua berariaz agertu beharko dela.

**3.** Datuak Babesteko Euskal Bulegoko funtzionario letradu bat izango da intrukzio-egilea, bat baino gehiago egonez gero txanda sistema objetibo bati jarraituzko zaio. Instrukzio-eginkizuna betetzeko ez du izango inolako funtzio-menpekotasunik.

**15. Artikulua. Instrukzioa.**

**1.** Zigortzeko espedientea hasteko agindua intrukzio-egileari jakinaraziko zaio eta ustezko erantzuleari eta gainerako interesdunei jakinaraziko zaie, hamabost eguneko epean bidezko iritzitako alegazio, agiri edo argibideak aurkez ditzaten, froga-aldiaren hasiera eskatzeko eta egoki iritzitak proba-bideak proposatzeko.

**2.** Honako kasuetan froga-aldi bat irekiko da:

> **a)** Alegazio-izapidean edozein interesdunek hala eskatzen duenean, frogabide zehatzak proposatuz, baldin eta instrukzio-egileak horietakoren bat egokitzat jotzen badu. Instrukzio-egileak froga-aldia irekitzeko eskabidea edo froga zehatzak ezesten baditu, zergatik egiten duen azaldu beharko du. Egintza horien aurka, hala ere, errekurtsoa aurkeztu ahal izango da, Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Administrazioen zigortzeko ahalmenari buruzkoa otsailaren 20ko 2/1998 Legearen 41. artikuluaren arabera.
> **b)** Interesdunek eskabiderik egin ez dutenean baina instrukzio-egileak, gertatutakoak argitzeko eta erantzuleak zehazteko ezinbestekotzat jotzen duenean. Kasu horretan, bost eguneko epea emango zaie interesdunei bizdezkotzat eritzitako frogabideak aurkez ditzaten.

**3.** Froga-aldia hogeita hamar egunekoa izango da; hala ere, legez aurreikusitako kasuetan epe hori luzatu edo laburtu ahal izango da.

**4.** Frogak 30/1992 Legean ezarritakoari jarraituz burutuko dira.

**16. Artikulua. Ebazpen proposamena eta entzunaldiaren izapidea.**

**1.** Frogaldia amaitu ostean instrukzio egileak ebazpen proposamena egingo du, Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Administrazioen zigortzeko ahalmenari buruzko otsailaren 20ko 2/1998 Legearen 41. artikuluaren arabera.

**2.** Ebazpen-proposamena interesdunei jakinaraziko zaie eta, horretaz gain, hamabost eguneko epea dutela alegazioak aurkezteko eta epe horretan espedientea agerian izango dutela, espedientea bera aztertu edo barruan jasotako agirien kopiak egin ahal izateko.

**3.** Entzunaldia amaitu ostean, instrukzio-egileak ebazpen-proposamena igorriko dio berehala Datuak Babesteko Euskal Bulegoko zuzendariari bai eta horrekin batera espedientean jasotako agiri, alegazio eta argibideak ere.

**17. Artikulua. Jarduera osagarriak.**

Datuak Babesteko Euskal Bulegoko zuzendariak, ebazpena hartu baino lehen, prozedura ebazteko beharrezkotzat jotzen dituen jarduera osagarriak egin ahal izango ditu, 2/1998 Legearen 42. artikuluan ezarritakoaren arabera.

**18. Artikulua. Organo eskudunari igortzea.**

Zigortze-prozeduraren edozein fasetan Datuak Babesteko Euskal Bulegoko zuzendariak gertakariak arau-hausteak direla baina, hala ere, bere eskumenekoak ez direla uste duenean, organo aginpidedunari jakinaraziko dio eta jardundako guztia igorriko dio.

**19. Artikulua. Prozeduraren ebazpena.**

**1.** Datuak Babesteko Euskal Bulegoko zuzendariak ebazpen arrazoitua hartuko du, interesdunek agertutako gai guztiak eta prozeduraren ondoriozkoak ebatziko dituena, 2/1998 Legearen 43. artikuluan eta 2/2004 Legearen 24. artikuluan ezarritakoaren arabera. Bertan, halaber, prozeduraren izapideak egiterakoan hartutako behin-behineko edo zuhurtziazko neurriei buruzko adierazpena egingo du.

**2.** Prozedura hasi eta sei hilabeteko epean ebazpena jakinarazi ez bada, prozedura iraungiko da, 30/1992 Legeak ezarritako moduan eta ondorioekin. Hala ere, interesdunei lepora dakizkien arrazoiengatik eta 2/1998 Legean aurreikusitako gainerako kasuetan prozedura etenda dagoenean epe hori pausatuta geratuko da.

## AZKEN EBAZPENA

**Arau garapena**

Baimena emanten zaio Eusko Jaurlaritzako lehendakariordeari dekretu honetan ezarritakoa garatzeko, betiere Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren Aholkularitza Batzordearen irizpena jaso ostean.
Vitoria-Gasteizen, 2005eko urriaren 18an.

# 309/2005 Dekretua, urriaren 18koa, Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren Estatutua onartzen duena.

(EHAA 213zk., 2005eko Azaroaren 9koa)

Titulartasun Publikoko Datu Pertsonalen Fitxategiak eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa Sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legea zuzenbide publikoko entitatea da, nortasun juridiko propioa eta gaitasun publiko eta pribatu erabatekoa du, eta herri-administrazioekiko inongo loturarik gabe betetzen ditu bere eginkizunak. Aipatu 2/2004 Legearen 10.1 artikuluak ezartzen du Datuak Babesteko Euskal Bulegoa lege honetan eta bere estatutuan xedatutakoaren arabera arautuko dela. Estatutu hori Eusko Jaurlaritzaren dekretu bidez onartuko da, Lehendakariordetzak proposaturik. Ondorioz, egokia da 2/2004 Legean aurreikusitako Bulegoaren oinarrizko antolaketaren diseinua osatzea, lege-aurreikuspenekin bat bere estatutua onartuz eta, era berean, jarduteko nahikoa tarte utziz, Bulegoak autoantolaketa ahalak gauzatu ahal izateko. Ondorio hauetarako, legez esleituta dituen eginkizunak gauzatzeko herri-administrazioekiko inongo loturarik gabe jarduten duen entitatea dela kontuan hartu behar da.

Ondorioz, Jaurlaritzaren Lehendakariordetzari entzun ondoren, eta Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoarekin bat, Jaurlaritzaren Kontseiluak 2005eko urriaren 18an egindako bilkuran aztertu eta onartu eta gero, honakoa

XEDATU DUT:

## Artikulu bakarra.

Titulartasun Publikoko Datu Pertsonalen Fitxategiak eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa Sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legearen 10.1 artikuluan xedatutakoarekin bat, entitate honen Estatutua onartzea; beronen testua jarraian dator.

## AZKEN XEDAPENA

Eusko Jaurlaritzaren Lehendakariordetzari eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoko zuzendariari baimena ematen zaie, bakoitzari dagozkion eskumenen esparruan, Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren Estatutuan xedatutakoa garatu eta aplikatzeko.

Vitoria-Gasteizen, 2005eko urriaren 18an.

## URRIAREN 18KO 309/2005 DEKRETUAREN ERANSKINA

## DATUAK BABESTEKO EUSKAL BULEGOAREN ESTATUTUA

**I. Kapitulua. Xedapen Orokorrak.**
**II. Kapitulua. Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren jardunbidea.**
**III. Kapitulua. Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren antolamendua.**
**IV. Kapitulua. Ikuskaritza.**
**V. Kapitulua. Ekonomia-araubidea, Ondarezkoa eta Langileena.**

- **Xedapen Gehigarriak.**

## I. Kapitulua. Xedapen orokorrak

**1. Artikulua. Datuak Babesteko Euskal Bulegoa.**

Datuak Babesteko Euskal Bulegoa zuzenbide publikoko entitatea da, nortasun juridiko propioa eta gaitasun publiko eta pribatu erabatekoa du eta herri-administrazioekiko inongo loturarik gabe betetzen ditu bere eginkizunak. Datuak Babesteko Euskal Bulegoa Eusko Jaurlaritzarekin Lehendakariordetzaren bidez erlazionatzen da.

**2. Artikulua. Araubidea.**

**1.** Datuak Babesteko Euskal Bulegoa ondoko legezko eta erregelamenduzko xedapenek eraentzen dute:

> **1.** 2/2004 Legea eta berau garatzeko erregelamenduzko xedapenek.
> **2.** Estatutu honek.
> **3.** Datu Pertsonalak Babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoak eta hau garatzeko erregelamenduek.
> **4.** Administrazio ahalak gauzatzean, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legeak.
> **5.** Irailaren 27ko 1/1994 Legegintza Dekretuaren bitartez onartutako Euskadiko Aurrekontu Araubideari buruzko legezko xedapenen Testu Bateginak.
> **6.** Aplika daitezkeen beste xedapenek.

**2.** Datuak Babesteko Euskal Bulegoak bere funtzioak zuzendariaren bidez gauzatuko ditu, ondorioz, zuzendariaren egintzak Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren egintzak izango dira.

**3.** Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren funtzio publikoak gauzatzean, zuzendariak agindutako egintzek errekurtso bidea agortuko dute. Hauen aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango da, aurreko aukerako berraztertzeko errekurtsoa urratu gabe.

**4.** Datuak Babesteko Euskal Bulegoa auzibidean ordezkatzea eta defendatzea Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioko zerbitzu juridikoen ardura izango da, Euskal Autonomia Erkidegoa Ordezkatu eta Defendatzeari buruzko ekainaren 26ko 7/1986 Legean xedatutakoarekin bat.

## II. Kapitulua. Datuak babesteko euskal bulegoaren jardunbidea

**3. Artikulua. Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren zereginak.**

Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren zereginak 2/2004 Legearen 17. artikuluak emandakoak izango dira, horretarako aipatu legearen 2.1 artikuluak aipatzen dituen fitxategien arduradunengana eta hauen tratamenduaren arduradunengana jo ahal izango du zuzenean.

### 4. Artikulua. Jarraibideak eta gomendioak.

Datuak Babesteko Euskal Bulegoak datuen babeserako legeria betetzen dela zaindu eta honen aplikazioa kontrolatuko du, 2/2004 Legearen 2.1 artikuluak aipatzen dituen fitxategiei dagokienez eta autonomiaren eskumenen esparruan. Ondorio horretarako, datu pertsonalak babesteari, fitxategietara sartzeko kontrolari eta fitxategietan ezarritako datuen tratamenduak egokitzeari dagokionean, legezko eta erregelamenduzko xedapenak zuzen aplikatzeko behar diren jarraibideak eta gomendioak aginduko ditu.

### 5. Artikulua. Fitxategi estatistikoak.

2/2004 Legearen 17.1.1 artikuluak ezartzen dizkion egitekoak gauzatzean, Datuak Babesteko Euskal Bulegoak jarraibide zehatzak emango ditu legeriak estatistikako datuen bilketari buruz eta estatistikako isilpekotasunari buruz dakartzan xedapenak betetzen direla zaintzeko. Halaber, gai honi dagokionez, honako egiteko hauek beteko ditu:

**1.** Nahitaezko erantzuna behar duten estatistikak zehazten dituzten xedapen araugileen berri eman.
**2.** Estatistikarako bakarrik sortutako fitxategien segurtasun-baldintzei buruzko irizpenak eman.
**3.** Legeek eta erregelamenduek eman diezazkioten gainontzeko ahalak.

## III. Kapitulua. Datuak babesteko euskal bulegoaren antolamendua

### 6. Artikulua. Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren antolamendua.

**1.** Datuak Babesteko Euskal Bulegoa honako organo hauek osatzen dute:

**1.** Zuzendaria.
**2.** Kontseilu Aholku-emailea.

**2.** Hierarkikoki zuzendariaren menpe egongo dira Datuak Babesteko Erregistroa eta estatutu honi jarraiki sortuko diren bestelako organoak, nola hauek garatzen dituzten xedapenen menpe.

### 7. Artikulua. Zuzendaria.

**1.** Zuzendariak zuzentzen eta ordezkatzen du Datuak Babesteko Euskal Bulegoa.

**2.** Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren zuzendariari dagokio Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren eginkizunak gauzatzeko behar diren ebazpenak, jarraibideak eta gomendioak agintzea, eta bereziki:

**1.** Datuak Babesteko Erregistroan inskripzioak eta bestelako idatzoharrak bidezkoak diren edo ez erabakitzea, arrazoiak emanez.
**2.** Fitxategietara sartu, aurka egin, zuzendu eta ezerezteari buruzko euren eskubideak erabiltzean hiritarrek egindako erreklamazioak erabakitzea, hau guztia 2/2004 Legeari lotutako datu pertsonalen fitxategiei dagokienez.

**3.** Bere egitekoak gauzatzeko beharrezko argibideak jasotzea herri-administrazioak, erakundeak, entitateak eta korporazioengandik, 2/2004 Legearen 2.1 artikuluak aipatzen duena.

**4.** Zehatzeko ahala erabiltzeko eskatzen duten hartu beharreko zuhurtziako eta behin-behineko neurriak hartzea, 2/2004 Legean xedatutakoarekin bat.

**5.** Zehatzeko espedienteak hasi eta ebaztea, eta diziplinako espedienteak hasteko eskatzea herri-administrazioek edo bestelako zuzenbide publikoko entitate edo erakundeek egindako arau-hausteen kasuan.

**6.** Fitxategiak dauden lokaletarako sarrera baimentzea, ikuskapen egokiak egiteko. Aipatu lokalak legezko helbidetzat jotzean, ikuskaritza-lana bere bortxaezintasuna bermatzen duten arauetara egokitu beharko da.

**7.** Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren kontratazio-organo gisa jardutea.

**8.** Gastuak onartzea eta ordainketak bideratzea, Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren gastuen aurrekontuaren kredituen mugen barnean.

**9.** Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren kudeaketa programatzea.

**10.** Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren aurrekontu-aurreproiektua lantzea.

**11.** Datuak Babesteko Euskal Bulegoko lanpostuen zerrenda egin eta onartzea.

**12.** Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren urteko memoria onartzea eta Lehendakariordetzari aurkeztea.

**13.** Erakunde publiko eta pribatuekin lankidetza-hitzarmenak sinatzea Datuak Babesteko Euskal Bulegoari esleitutako eginkizunak hobeto gauzatzeko.

**14.** Fitxategiko arduraduna interesdunei informazioa eman behar izatetik libre uztea, 2/2004 Legearen 6. artikuluan aurreikusitakoak gertatzean.

**15.** 2/2004 Legearen 16. artikuluak aipatzen dituen herri-administrazioei, erakundeei eta entitate publikoei Batzorde Aholku-emailean euren ordezkariak izenda ditzatela eskatzea, horrela egin behar denean, ahal den heinean, bete gabe ez uzteko.

**16.** Estatutu honetan eta indarrean dauden gainontzeko xedapenetan ezartzen zaizkion bestelakoak, hala nola beste organo bati berariaz esleituta ez dauden Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren zuzendaritza eta ordezkaritza egiteko guztiak.

**3.** Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren zuzendariak aurreko zenbakiko g), h), i), j) eta m) hizkietan aipatzen diren eginkizunak esleitu ahal izango dizkio hierarkikoki bere menpekoa den organo bati.

**4.** Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren zuzendariak Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorretan Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko zuzendariek esleituta dituzten ordainsariak eskuratuko ditu.

**5.** Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren zuzendariaren banaketa bidera dezakeen espedientea izapidetu behar denean, 2/2004 Legearen 15.3.b artikuluan aurreikusitako arrazoiren batengatik, Lehendakariordetzari egokituko zaizkio hasierako egintza eta espedientearen ebazpen-proposamena Jaurlaritzaren Kontseiluari aurkeztea.

**8. Artikulua. Kontseilu Aholku-emailea.**

**1.** Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren Kontseilu Aholku-emailea Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren zuzendariaren aholkularitzako kide anitzeko organoa da, eta honen osaera 2/2004 Legearen 16. artikuluak zehazten du.

**2.** Kontseilu Aholku-emaileak Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren zuzendariak eskatutako gai guztiei buruzko txosten bat emango du eta honen eskumenekoak diren gaiekin lotura duten proposamenak egin ahal izango ditu.

**3.** Kontseilu Aholku-emaileko kide izendatutako pertsonak Kontseilu Aholku-emailearen Idazkaritzari izendapena jakinarazi ostean hasiko dira euren zereginak gauzatzen.

**4.** Kontseilu Aholku-emaileko kideek euren kargua euren izendapen-jardueran edo akordioan ezartzen duen aldian beteko dute; iraupenaren berariazko aipamena egin ezean, kargua denbora mugagabekoa izango dela ulertuko da.

**5.** Kontseilu Aholku-emaileak bere antolamendu eta jardunbide arauak onartuko ditu, 2/2004 Legearen 16.2 artikulua eta 30/1992 Legearen 22tik 27rako artikuluekin bat.

**9. Artikulua. Datuak Babesteko Erregistroa.**

**1.** Datuak Babesteko Erregistroan inskribatzeko helburu izango dira:

**1.** 2/2004 Legearen 2.1 artikuluan aipatzen diren fitxategiak.
**2.** 15/1999 Lege Organikoan aipatzen diren baimenak eta garatzeko xedapenak.
**3.** Inskribatutako fitxategiei eragiten dieten kode tipoak.

**2.** 2/2004 legearen 2.1 artikuluan aipatzen diren herri-administrazioek, erakundeek, entitateek eta korporazioek sortutako fitxategien inskribatze-idazpenetan, dena den, xedapenean edo fitxategia sortzeko edo aldatzeko akordioan dagoen informazioa agertuko da, xedapena edo akordioa eta argitaratu den aldizkari ofiziala zein den zehatuz, baita fitxategian sartu, zuzendu, ezereztu edo aurkatzeko eskubideak erabiltzeko beharrezko den informazio guztia ere.

**Fitxategien jakinarazpen-eredua betetzeko jarraibideak**

Instrucciones para complementar el formulario de notificación de ficheros

Datuen nazioarteko transferentzia jakinarazpen-ereduan zerrendatutako lege-baldintzetakoren baten babesean egingo da. Adierazi "X" batez datuen nazioarteko transferentzia zein baldintzatan egiten den.

• Adierazi nazioarteko transferentziaren jasotzaileak identifikatzeko datuak; alegia, herrialdea eta izena edo izen soziala.

• Datu pertsonalak transferitzeko lau jasotzaile baino gehiago badaude, adierazi horiei dagozkien identifikazio-datuak, xedea, izena edo izen soziala eta xede-herrialdea (komaz bereiziak). Beste jasotzaile zehatz batzuk ataleko testu libreko eremuan.

Fitxategien jakinarazpenari dagokionez, aurreko ataletan ez badago behar beste leku transferentziaren jasotzaile guztiak adierazteko, jasotzaileak edo jasotzaileen kategoriak eremuan adierazi horiek argi eta garbi eta zehatz-mehatz identifikatzea ahalbidetzen duten arauak.

Nazioarteko transferentzia interesdunen adostasunarekin egiten bada, kontuan izan adostasuna izateak ondorengoa esan nahi duela: borondate askez, argi eta garbi, zehazki eta informazioa jaso ondoren egindako adierazpen oro; horren bidez, interesdunak dagozkion datu pertsonalen tratamendua onartzen du.
Horren berri emateko helburuarekin, jarraibide hauen amaieran dagoen kode-taulan antzeko babes-maila duten herrialdeen zerrenda kontsulta daiteke.
Nazioarteko datuen transferentziak atal honetan aipatutako baldintzak betetzen ez baditu, behar den baimena eskatu beharko zaio Datuak Babesteko Agentziako zuzendariari.

La transferencia internacional de datos ha de ampararse en alguno de los supuestos legales relacionados en el modelo de notificación. Señale con una 'X' los supuestos en los que se ampara la transferencia internacional de datos.
• Indique los datos que permitan identificar los destinatarios de la transferencia internacional determinados, en concreto el país y el nombre o razón social.
• En caso de existir más de cuatro destinatarios determinados de la transferencia, se recogerán los datos identificativos de los mismos como nombre o razón social, y el país de destino, separados por comas, en el campo de texto libre del apartado de nominado. Otros destinatarios determinados.
A los únicos efectos de la notificación de ficheros, en caso de no disponer de espacio suficiente en los apartados anteriores para consignar todos los destinatarios de la transferencia, indique las reglas que permiten su identificación inequívoca y específica en el campo destinatarios determinables o categorías de destinatarios.
Si la transferencia internacional se ampara en la existencia del consentimiento de los interesados, tenga en cuenta que por consentimiento se entiende toda manifestación de voluntad libre, inequívoca, específica e informada, mediante la que el interesado consienta el tratamiento de datos personales que le conciernen.
A efectos informativos, en Tabla de Códigos al final de estas instrucciones podrá consultar la relación de países con un nivel de protección equiparable.
Si la transferencia internacional de datos no se encuentra amparada en ninguno de los supuestos citados en este apartado, deberá solicitar la preceptiva autorización del Director de la Agencia de Protección de Datos.

**FITXATEGIAK EZABATZEA**

Atal hau Datuak Babesteko Erregistroan inskribatuta zegoen fitxategia ezabatu nahi dela jakinarazten bada baino ez da bete beharko.

**SUPRESIÓN DE FICHEROS**

Este apartado únicamente se cumplimentará en caso de notificar la supresión de un fichero previamente inscrito en el Registro de Protección de Datos.

## 3. Eranskina. Betetzeko

**Fitxategien jakinarazpen-eredua betetzeko jarraibideak**

Instrucciones para complementar el formulario de notificación de ficheros

Bertan, Bulegoak fitxategiari ematen dion inskripzio-kodea adierazi behar da. Gainera, dagokion eremuan ezabatzearen arrazoia adierazi behar da, eta hurrengo eremuan, berriz, informazioaren xedea. Fitxategia deuseztatu behar izanez gero, adierazi zein neurri hartu diren horretarako.
Fitxategien ezabatzea Xedapen Orokorra izeneko 3. atalean aipatzen den ezabatzeari buruzko xedapen orokorraren bidez araututa egongo da.

En este apartado, es necesario indicar el código de inscripción del fichero asignado por la Agencia. Además, debe indicar el motivo de la supresión en el texto correspondiente, y el destino de la información en el siguiente campo. Si va a proceder a destruir el fichero, indique las previsiones adoptadas para ello.
La supresión de un fichero ha de estar regulada en la correspondiente disposición general de supresión, a la que se hace referencia en el apartado 3, *Disposición general.*

**INSKRIPZIOAREN ALDAKETA**

Atal hau Datuak Babesteko Erregistroan inskribatuta zegoen fitxategia aldatu nahi dela jakinarazten bada beteko da.

Atal honetan, Bulegoak fitxategiari ematen dion inskripzio-kodea adieraziko da, baita aurreko jakinarazpenarekiko aldatzen diren atalak ere.
Aldatu nahi diren atalak erabat bete behar dira. Horietan datu guztiak adierazi behar dira, eta ez bakarrik aurreko jakinarazpenen aldean izandako aldaketak, jakinarazpen honek ordezkatu egingo baitu Datuak Babesteko Erregistroan inskribatuta dagoena.

Fitxategien aldaketa *Xedapen Orokorra* izeneko 3. atalean aipatzen den aldatzeari buruzko xedapen orokorraren bidez araututa egongo da.

**MODIFICACIÓN DE LA INSCRIPCIÓN**

Cumplimente este apartado únicamente en caso de notificar la modificación de un fichero previamente inscrito en el Registro de Protección de Datos.
En este apartado, es necesario indicar el código de inscripción del fichero asignado por la Agencia y señalar aquellos apartados que se modifican respecto a la notificación anterior.
Los apartados señalados que se pretendan modificar deben cumplimentarse por completo, indicando todos ó. los datos y no sólo los modificados respecto a notificaciones previas, ya que esta notificación es sustitutiva a efectos de inscripción en el Registro de Protección de Datos.
La modificación de un fichero ha de estar regulada en la correspondiente disposición general de modificación, a la que se hace referencia en el apartado 3. *Disposición general.*

**EBAZPENA, 2005eko azaroaren 28koa, Datuak Babesteko Euskal Bulegoko zuzendariarena, Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren egitura organikoa garatzeko dena.**

(EHAA 247zk., 200eko Abenduaren 29koa)

Jabetza Publikoko Datu Pertsonalen Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legeak bulegoa zuzenbide publikoko erakunde gisa eratzen du, berezko nortasun juridikoduna eta gaitasun publiko eta pribatu osoduna, bere egitekoak herri-administrazioekiko inongo mendetasunik gabe burutzen dituena.

Aipatu 2/2004 Legearen 10.1 artikuluak xedatzen du Datuak Babesteko Euskal Bulegoa bere sortze-legea eta urriaren 18ko 309/2005 Dekretuak onartutako bere berezko Estatutuan ezarritakoaren arabera eraenduko dela.

Aipatu Estatutuak Bulegoaren oinarrizko antolaketa diseinua ezartzen du, era berean, bere funtzionamendu egokirako Bulegoak berak autoantolaketa ahalak gauzatu ahal izateko nahikoa tarte utziz. Honela, 10. artikuluan honakoa zehazten da: «Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren egitura organikoa hierarkikoki zuzendariaren mende dauden organoekin osatzen da; aholkularitza, izapidetzea, ikuskaritza, idazkaritza eta erregistroa dira organo hauen zereginak» eta «aipatu egitura organikoaren garapenean, zuzendariaren ebazpenez, lehenik Batzorde Aholku-emailearen txostena eginda, funtzionalki eta hierarkikoki zuzendariaren mende dauden beste unitate batzuk existitzea aurreikusi ahal izango da, hala nola hauei esleitutako zereginak».

Bestalde, Datuak Babesteko Euskal Bulegoa, zerbitzu-emaile publiko gisa, ondoko jarduera-irizpideen araberakoa da:

**1.** Zerbitzu ematearen kalitatea neurtuko du, adierazleen ezarketa eta jarraipenaren bidez eta iritzi-inkesten eta gogobetetasun-mailari buruzko inkesten bidez (nola hiritarrena hala administrazioena).
**2.** Herri-administrazioekin eta gainontzeko datuak babesteko kontrolerako agintaritzekin egokiro koordinatzeko interes berezia agertuko du.
**3.** Prozedura guztien sinplifikazioa eta dokumentazioa sustatuko ditu, kudeaketak informatika tresnen eta sarearen erabileraren bidez burutzea erraztuz.
**4.** Antolakuntza-ikaskuntza erraztuko du eta bere langileen arteko bikaintasuna sarituko du, hauen arteko lehiakortasuna eta prestakuntza sustatuz.
**5.** Jarrera proaktiboari funtsezko garrantzia emango dio, administrazioei legearen betearazpenean lagunduz eta datuak babesteko kultura berria ezarriz.

Hortaz, arau hau Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren egitura organikoa garatzeko sortzen da, lanpostuen zerrenda egiteko beharrezko prozesuak burutu aurretik.

Hau dela eta, Batzorde Aholku-emailearekin bat,

EBATZI DUT:

**Lehenengoa. Zereginak**

Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren zereginak 2/2004 Legearen 17. artikuluak emandakoak izango dira, horretarako aipatu legearen 2.1 artikuluak aipatzen dituen fitxategien arduradunengana eta hauen tratamenduaren arduradunengana jo ahal izango du zuzenean.

**Bigarrena. Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren egitura organikoa.**

**1.** Aurreko artikuluan zehaztutako zereginak burutzeko, honako hau da Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren egitura:

**a)** Kide bakarreko organoa.
  **a.1.** Zuzendaria.
**b)** Kide anitzeko organoa.
  **b.1.** Batzorde Aholku-emailea, legean ezarritako moduan.

**2.** Hierarkikoki zuzendariaren mende dauden administrazio-unitateak honakoak dira:

**a)** Datuak Babesteko Erregistroa eta teknologia berriak.
**b)** Lege-aholkularitza eta ikuskaritza.
**c)** Idazkaritza orokorra.

**Hirugarrena. Zuzendaria.**

**1.** Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren zuzendariak berau zuzentzen eta ordezkatzen du. Bere barne-eremuan, bere mende dauden administrazio-unitate guztiak zuzendu, koordinatu eta kontrolatzen ditu.

**2.** Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren zuzendariari dagokio halaber Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren eginkizunak gauzatzeko behar diren ebazpenak, jarraibideak eta gomendioak agintzea, eta bereziki:

**a)** Datuak Babesteko Erregistroan inskripzioak eta bestelako idatzoharrak bidezkoak diren edo ez erabakitzea, arrazoiak emanez.
**b)** Fitxategietara sartu, aurka egin, zuzendu eta ezerezteari buruzko euren eskubideak erabiltzean hiritarrek egindako erreklamazioak erabakitzea, hau guztia 2/2004 Legeari lotutako datu pertsonalen fitxategiei dagokienez.
**c)** Bere egitekoak gauzatzeko beharrezko argibideak jasotzea 2/2004 Legearen 2.1 artikuluak aipatzen dituen herri-administrazio, erakunde, entitate eta korporazioengandik.
**d)** Zehatzeko ahala erabiltzeko eskatzen duten hartu beharreko zuhurtziako eta behin-behineko neurriak hartzea, 2/2004 Legean xedatutakoarekin bat.
**e)** Zehatzeko espedienteak hasi eta ebaztea, eta, hala egin behar bada, diziplinako espedienteak hasteko eskatzea herri-administrazioek, erakundeek, entitateek eta korporazioek egindako arau-hausteen kasuan.
**f)** Fitxategiak dauden lokaletarako sarrera baimentzea, ikuskapen egokiak egiteko. Aipatu lokalak legezko helbidetzat jotzean, ikuskaritza-lana bere bortxaezintasuna bermatzen duten arauetara egokitu beharko da.
**g)** Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren kontratazio-organo gisa jardutea.
**h)** Gastuak onartzea eta ordainketak bideratzea, Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren gastuen aurrekontuaren kredituen mugetan eta barnean ezartzen diren prozedurekin bat.

**i)** Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren aurrekontu-aurreproiektua onartzea.

**j)** Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren kudeaketa programatzea, plan estrategikoa zuzentzea eta kudeaketa-planak eta hauen jarraipena koordinatzea.

**k)** Datuak Babesteko Euskal Bulegoko lanpostuen zerrenda egin eta onartzea.

**l)** Bulegoari atxikitako funtzionario-pertsonalaren lanpostuen merezimendu-lehiaketa eta izendapen askearen ohiko hornidura prozedurak iragarri eta ebaztea, baita zerbitzu-batzordeak ere, 2/2004 Legearen 2.1 artikuluko herri-administrazioen, erakundeen, entitateen eta korporazioen funtzionarioei eragiten dietenean.

**m)** Hautaketa-prozedurak eta Bulegoari atxikitako langileriaren lanbide-sustapenerako prozedurak iragarri eta ebaztea.

**n)** Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren urteko memoria onartzea eta Lehendakariordetzari aurkeztea.

**o)** Erakunde publiko eta pribatuekin lankidetza-hitzarmenak sinatzea Datuak Babesteko Euskal Bulegoari esleitutako eginkizunak hobeto gauzatzeko.

**p)** Fitxategiko arduraduna interesdunei informazioa eman behar izatetik libre uztea, 2/2004 Legearen 6. artikuluan aurreikusitakoak gertatzean.

**q)** 2/2004 Legearen 16. artikuluak aipatzen dituen herri-administrazioei, erakundeei, entitateei eta korporazioei Batzorde Aholku-emailean euren ordezkariak izenda ditzatela eskatzea, horrela egin behar denean, ahal den heinean, bete gabe ez uzteko.

**r)** Datuak babesteko arloan legeria interpretatu eta aplikatzeko, herri-administrazioek, erakundeek, entitateek eta korporazioek, 2/2004 Legearen 2.1 artikuluak aipatuak, eta gainerako pertsona fisiko edo juridikoek mahaigaineratutako kontsulten txostenak eta erantzunak onartzea.

**s)** Datuak Babesteko Espainiako Bulegoarekin kolaboratzea eta, hortaz, Datu Pertsonalen Fitxategien Erregistroaren eduki eguneratua aldian behin berari ematea hitzartzea. Halaber, gainerako Erregistroen Kontrolerako Agintaritzekin zehazten den eran kolaboratzea.

**t)** Batzorde Aholku-emaileari dagokionez, txostenak emateko eta bere bilkuretan aktiboki parte hartuz berarekin erlazionatzeko auziak proposatzea, beronen antolaketa eta funtzionamendu arauetan zehazten denarekin bat.

**u)** Datuak babesteko arloan, nazioarteko erakundeekin eta Europar Batasuneko organoekin koordinatu eta lankidetzan jardutea.

**v)** 2/2004 Legearen 24. artikuluan aipatutako egintzen berri Arartekoari ematea, baita datuak babesteko arloan berarekin lankidetzan jardun eta koordinatzea ere.

**w)** 2/2004 Legean, Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren Estatutuan, ebazpen honetan eta indarrean dauden gainontzeko xedapenetan ezartzen zaizkion bestelakoak, hala nola beste organo bati berariaz esleituta ez dauden Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren zuzendaritza eta ordezkaritza egiteko guztiak.

**Laugarrena. Datuak Babesteko Erregistroa eta teknologia berriak unitatea.**

Datuak Babesteko Erregistroa eta teknologia berriak unitatea 2/2004 Legearen 18. artikuluan aurreikusitako Datuak Babesteko Erregistrora atxikita dagoen Bulegoaren administrazio-unitatea da eta aipatu legearen aplikazio eremuan dauden datu pertsonaleko fitxategien existentziaren publizitatea sustatzea dagokio. Halaber, eta datu pertsonaleko fitxategiei buruzko arautegiaren betearazpena zaintzeko xedearekin, sektorekako ikuskaritza funtzioa eta kolaboratzaileen sarearen koordinazioa burutuko ditu, datuak babesteko arloan. Bestalde, teknologia berriekin zerikusia duten ikerlanak egin eta Bulegoaren beraren Sistemen Planaren jarraipena burutzeko ardura izango du.

Datuak Babesteko Erregistroa eta teknologia berriak unitateari dagozkio:

**1.** Datuak Babesteko Erregistroari lotutako zereginak:

**a)** 2/2004 legearen 18.2 artikuluak aipatzen diren fitxategiak sortu, aldatu edo baliogabetzeko erregistroan espedienteak eta legean aipatzen diren gainontzeko inskripzioak izapidetzea, baita fitxategiaren titularrari jakinarazpen egokiak egitea ere.

**b)** Datu pertsonalen fitxategiak sortu, aldatu edo baliogabetzeko xedapenetako informazioa, kode tipoen edukia eta Datuak Babesteko Erregistroarekin zerikusia duten ebazpenak biltzea.

**c)** Idazpenen errakuntza materialak administrazioaren kabuz eguneratu eta zuzentzea.

**d)** Idazpenen egiaztagiriak egitea.

**e)** Inskribatutako fitxategien zerrenda urtero argitaratzea, Datuak Babesteko Euskal Bulegoko zuzendariak zehaztutako informazio osagarriarekin.

**f)** Herritarrei Datuak Babesteko Erregistrorako sarbidea erraztea eta hala eskatzen dutenei inskribatuta dauden edo ez dauden fitxategien berri, euren helburuen berri eta hauen arduradunaren identitatearen berri ematea.

**g)** Datuak Babesteko Fitxategien Erregistroan burututako inskripzioen Datuak Babesteko Espainiako Bulegoaren Datuak Babesteko Erregistro Orokorrerako aldizkako bidalketa prestatu eta kudeatzea.

**h)** Estatistikarako bakarrik sortutako fitxategien segurtasun-baldintzei buruzko irizpena proposatzea.

**2.** Ikuskapenari lotutako zereginak:

**a)** Bulegoaren planifikazioarekin bat, 2/2004 Legearen 2.1 artikuluan aipatzen den zeinahi fitxategiren eta dagozkien ekipamendu informatikoen (dauden lokaletan) sektorekako ikuskapena burutzea. Honetarako, Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren Estatutuaren 11. artikuluan ezarritako jarduerak burutu ahal izango ditu.

**b)** Ikuskaritza eta Lege Aholkularitza Unitateari laguntza ematea ikuskaritza-lan zirkunstantzialetan, ekipoen azterketa, transmisio-sistemak eta datuetarako sarbidea, Segurtasun-agiriaren egokiera egiaztatzearekin lotutako eta eskatzen zaizkion bestelako jardueretan.

**3.** Kolaboratzaileen sareari lotutako zereginak:

Kolaboratzaileen Sarea koordinatzea datuak babesteko arloan, Datuak Babesteko Fitxategien Erregistroan inskripzioaren alde egiteko baliabide teknikoak lantzea eta Sarearen esku eta fitxategien arduradunen eta bere erabiltzaileen esku ipintzea, nola 2/2004 Legeak eta bere xedapen osagarriek eskatutakoarekin bat fitxategien kudeaketa orokorrean. Baliabide horien baitan sartuko dira, besteak beste, metodologiak, laguntzarako informatikako aplikazioak, produktuen edo zerbitzuen estandarizazioko eskemak, prestakuntza-materialak, agiri-tipoak eta ohiko galderen gidak.

**4.** Teknologia berriekin eta Bulegoaren kudeaketarekin lotutako zereginak:

**a)** Informazioaren eta komunikazioaren teknologia berrien garapena eta bilakaerari buruzko ikasketak burutzea, datu pertsonalak babestearekin zerikusia duten heinean, eta zuzendariari eta gainontzeko organoei aholku ematea informazioaren gizartearen baitan datuak babesteko garrantzitsuak diren espezializazio teknikoen eta kudeaketaren arloan.

**b)** Bulegoaren sistemen plana eta bere baliabide informatikoetan erabili beharreko segurtasun-jarraibideak garatzea.

**c)** Bulegoko zuzendariak aurreko ataletan zehaztutako arloei buruzko eskatutako txostenak eta proposamenak lantzea.

**Bosgarrena. Lege-aholkularitza eta Ikuskaritza Unitatea.**

Lege-aholkularitza eta Ikuskaritza Unitatea Bulegoaren administrazio-unitatea da. Beroni dagokio ikuskaritza-lan zirkunstantzialen ahaletik eta sustapenetik eratorritako zereginetan jardutea eta sartu, aurka egin, zuzendu eta ezerezteari buruzko euren eskubideak babesteko hiritarrek egindako erreklamazioei bide ematen dieten prozedurak izapidetzea, baita, abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan aurreikusitakoaren arabera, herri-administrazioek, erakundeek, entitateek eta korporazioek araua hautsi duten edo ez kontrolatzeko zeregina ere. Halaber, administrazio-unitate honen eskumen dira txostenak egitea, kontsultei erantzutea eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren aholkularitza zerbitzua.

Lege-aholkularitza eta Ikuskaritza Unitateari dagokio:

**1.** Izapidetze-zereginak.

Bulegoak aitortutako kontrolatzeko zereginetan jardutetik eratorritako zehatzeko, eskubideen tutoretzako eta herri-administrazioen, erakundeen, entitateen eta korporazioen arau-hauste prozedurei dagozkien izapidetze-egintzak.

**2.** Ikuskaritza-zereginak.

**a)** Espediente bat izapidetzearekin lotuta, 2/2004 Legearen 2.1 artikuluan aipatzen diren zeinahi fitxategi, Datuak Babesteko Erregistroan inskribatuta egon edo ez, eta ekipamendu informatikoak, dauden lokaletan, noiz nola ikuskatzea. Honetarako, Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren Estatutuaren 11. artikuluan ezarritako jarduerak burutu ahal izango ditu.
**b)** Erregistroa eta teknologia berriak Unitateari laguntza ematea, lege- eta prozedura-arloko jarduerekin zerikusia duten sektorekako ikuskapen-lanetan.

**3.** Txosten, kontsulta-ebazpen eta lege-aholkularitza zereginak.

**a)** 2/2004 Legearen garapenean ebazten diren xedapen-egitasmoen berri ematea.
**b)** Txostena eskatu den datu pertsonalak babestearekin zerikusia duten xedapen-egitasmo guztien berri ematea.
**c)** Datuak babesteko arloan legeria interpretatu eta aplikatzeko, herri-administrazioek, erakundeek, entitateek eta korporazioek, 2/2004 Legearen 2.1 artikuluak aipatuak, eta gainerako pertsona fisiko edo juridikoek mahaigaineratutako kontsultei informazioa eta erantzunak prestatzea.
**d)** Nahitaezko erantzuna behar duten estatistikak zehazten dituzten xedapen-araugileen berri eman.
**e)** Bulegoko zuzendariak eskatutako zehatze-egitasmoak eta gomendioak lantzea.
**f)** Bulegoko zuzendariak eskatutako txostenak eta proposamenak landuz, Bulegoari lege-aholkularitza ematea.

**Seigarrena. Idazkaritza Orokorra.**

Idazkaritza Orokorra giza baliabide eta baliabide materialen kudeaketa, kudeaketa ekonomiko-administratiboa eta informazio orokorra, Bulegoko gainontzekoentzat prestakuntza eta agiriekin

zerikusia duten bestelako zereginen kudeaketa eta laguntza eta betearazpen edo tresnen funtzioen ardura duen administrazio-unitatea da.

Idazkaritza Orokorrari dagozkio:

**a)** Kudeaketa-zereginak.
**a.1.** Giza baliabideak kudeatzea, hauen buruzagitza-lanak eginez.
**a.2.** Bulegoaren baliabide materialak kudeatzea.
**a.3.** Bulegoari atxikitako funtzionario-pertsonalaren lanpostuen merezimendu-lehiaketa eta izendapen askearen ohiko hornidura prozedurak ebaztea, baita zerbitzu-batzordeak ere, 2/2004 Legearen 2.1 artikuluko herri-administrazioen, erakundeen, entitateen eta korporazioen funtzionarioei eragiten dietenean.
**a.4.** Hautaketa eta Bulegoari atxikitako langileriaren lanbide-sustapenerako prozedurak ebaztea.
**a.5.** Administrazio-kontratazioen prozedurak ebaztea.
**a.6.** Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren aurrekontu-aurreproiektua lantzea, zuzendariak eskuordetutako ahalmen gisa.
**a.7.** Bulegoaren aurrekontuaren kudeaketa ekonomiko administratiboa burutzea eta, honen baitan, zuzendariak eskuordetutako ahalmen gisa, gastuak onartzea eta ordainketak bideratzea, Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren gastuen aurrekontuaren kredituen mugetan eta barnean ezartzen diren prozedurekin bat.
**a.8.** Bulegoaren ondarea osatzen duten ondasunen eta eskubideen inbentarioa egitea.
**b)** Informazio orokorra, prestakuntza eta agiriekin zerikusia duten bestelako zereginak.
**b.1.** Bulegoaren dokumentu-funtsak kudeatzea, eta bereziki datu pertsonalak babesteko eta honi lotutako edozein gairen arloko legea, jurisprudentzia eta dotrinari buruzko dokumentu-funtsak sortu eta eguneratzea.
**b.2.** Datuak babesteari buruzko konferentziak, mintegiak, jardunaldiak eta bestelako jarduerak antolatzea.
**b.3.** Izaera pertsonaleko datuen tratamenduari lotuta legeak aitortzen dituen eskubideen berri hiritarrari ematea.
**c)** Bulegoko gainontzekoentzat laguntza eta betearazpen edo tresna zereginak.
**c.1.** Bulegoko zuzendariari ebazpenen berri ematea.
**c.2.** Komunikabideekiko harremanak koordinatzea.
**c.3.** Lankidetza-hitzarmenak prestatzea.
**c.4.** Bulegoaren informazio eta telekomunikazio-sistemak kudeatzea.
**c.5.** Bere antolamendu eta jardunbide arauekin bat, Kontseilu Aholku-emailearen idazkaritza-lanean jardutea.
**c.6.** Lankidetza-hitzarmena sinatzen den unibertsitateetako ikasleek Bulegoan burututako unibertsitateko praktikak koordinatzea.
**c.7.** Bulegoaren beste organoei esleitu gabeko gai orokorrak kudeatzea.
**c.8.** Bulegoko zuzendariak aurreko ataletan zehaztutako arloei buruzko eskatutako txostenak eta proposamenak lantzea.

**Zazpigarrena. Mendekotasunak. Funtzionamendu horizontala.**

Hiru unitateak hierarkikoki zuzendariaren mende egongo dira eta aipatu arloen ardura izango dute. Baina, beren arduradunek eta unitate bakoitzari esleituko zaizkien langileek besteentzako jarduerak burutu beharko dituzte garai jakin baterako kudeaketa edo jarduera planean zehaztuko den eran edo zuzendariak hala zehazten duenean.

**Zortzigarrena. Kide anitzeko organoak. Kontseilu Aholku-emailea.**

Datuak Babesteko Kontseilu Aholku-emailea, 2/2004 Legearen 14. artikuluan aurreikusten den gisan, Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren zuzendariaren aholkularitzako kide anitzeko organoa da, 2/2004 Legeak eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren Estatutuak esleitzen dizkion zereginak ditu eta bere antolaketa- eta jardunbide-arauen bidez eraenduko da.

**Bederatzigarrena. Ordezkapenak egiteko araubidea.**

Unitateetako titularrak kanpoan edo gaixorik badaude edo lanpostu horiek betetzeke badaude, egoerak dirauen artean, zuzendariak izendatutako pertsonak beteko ditu horiei dagozkien zereginak.

**Hamargarrena. Eraginkortasuna.**

Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera aplikatuko da.

**TOKI ARAUBIDEA**

**7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki-araubidearen oinarriak arautzen disuena**

(Tokiko Gobernua Modernizatzeko Neurrien abenduaren 16ko 57/2003 Legearen aldaketak barne)

# I. TITULUA. XEDAPEN OROKORRAK

## 1. artikulua.

**1.** Udalerriak dira Estatuaren lurralde-antolaketaren oinarrizko erakunde eta herritarrek herri-arazoetan esku hartzeko hurbileneko bide, eta bertako giza taldeen berezko interesak autonomiaz erakundetu eta kudeatzen dituzte.

**2.** Probintziek eta, hala denean, baita uharteek ere, beren interesak kudeatzeko autonomia berbera dute.

## 2. artikulua.

**1.** Konstituzioak toki-erakundeei bermatzen dien autonomia eraginkorra izan dadin, Konstituzioak ezarritako eskumen-banaketaren arabera herri-ekintzako arloak arautzen dituzten Estatuko eta autonomia-erkidegoetako legediek ziurtatu beharko diete udalerri, probintzia eta uharteei beren interesen esparruari zuzenean eragiten dioten gai guztietan esku hartzeko eskubidea, eta kasuan kasuko herri-jarduueraren ezaugarrien araberako eta toki-erakundearen kudeaketa-gaitasunaren araberako eskumenak eman, deszentralizazioa eta administrazio-kudeaketa herritarrei ahalik eta gehien hurbiltzea printzipiotzat hartuta.

**2.** Konstituzioan aurreikusitako Estatuko oinarrizko legeek zehaztu beharko dituzte toki-erakundeei aitortuko dizkieten eskumenak edo, nahitaez, legeok arautupako arloetan toki-erakundeei dagozkienak.

## 3. artikulua.

**1.** Hauek dira lurralde-mailako toki-erakunde:

- **a)** Udalerria.
- **b)** Probintzia.
- **c)** Uhartea, Balear eta Kanariar uhartedietan.

**2.** Toki-erakunde dira hauek ere:

- **a)** Lege honetako 45. artikuluaren arabera autonomia-erkidegoek eratu edo onartutako udalerria baino lurralde-eremu txikiagoko erakundeak.
- **b)** Lege honekin eta kasuan kasuko autonomia-estatutuekin bat etorriz autonomia-erkidegoek eratuta zenbait udalerriz osatutako eskualdeak zein beste erakunde batzuk.
- **c)** Metropolialdeak.
- **d)** Udalerrien mankomunitateak.

## 4. artikulua.

**1.** Lurralde-mailako herri-administrazio direnez, eta beren eskumen-eremua kontuan hartuz, hauek dagozkie udalerriei, probintziei eta uharteei:

**a)** Erregelamenduak egin eta beren buruak antolatzeko ahalak.
**b)** Zergetako eta finantzetako ahalak.
**c)** Programazio edo plangintzarako ahala.
**d)** Jabetza kentzeko ahala eta beren ondasunak beren kabuz ikertu, mugatu eta berreskuratzeko ahala.
**e)** Bere egintzak zuzenbidearen araberakoak direla jotzen da eta bete beharrekoak dira.
**f)** Egintzak nahitaez betearazteko ahala, eta zehatzeko ahala.
**g)** Beren egintzak eta erabakiak beren kabuz berrikusteko ahala.
**h)** Herri-ogasunari bere kredituei dagokienez aitortzen zaizkion lehentasun, lehenespen eta gainerako prerrogatibak, Estatuko eta autonomia-erkidegoetako ogasunei dagozkienei kalterik egin gabe; beren ondasunak eta eskubideak enbargaezinak dira, legeetan ezartzen denaren arabera.

**2.** Aurreko zenbakian erabakitakoa, udalerriarena baino eremu txikiagoko lurralde-erakundeei eta, halaber, eskualdeei, metropolialdeei eta gainerako toki-erakundeei aplikatu ahal izango zaie, eta autonomia-erkidegoetako legeek zehaztu beharko dute ahal horietatik zeintzuk izango diren aplikagarri, mankomunitateen kasua salbuespen dela, hurrengo paragrafoan xedatutakoaz arautzen baitira.

**3.** Udalerrien mankomunitateei, beren eskumeneko zerbitzuak bete zein obrak egiteko, artikulu honetako 1. paragrafoan adierazi eta beren estatutuetan zehaztutako ahalak dagozkie. Estatutuetan aurreikuspenik jasota egon ezik, aipatutako paragrafoan zerrendatutako ahal guztiak dagozkie, beren helburua betetzeko beharrezkoak diren heinean, ahal horietako bakoitzari aplikatu beharreko legediaren arabera, kasu biotan.

## 5. artikulua.

Toki-erakundeek beren xedeak betetzeko eta zeinek bere eskumenen esparruan, Konstituzioarekin eta legeekin bat, gaitasun juridiko osoa izango dute ondasun-mota guztiak eskuratu, eduki, galdatu, trukatu, kargatu nahiz besterentzeko, kontratuak egiteko, herri-lan zein herri-zerbitzuak ezarri eta ustiatzeko, obligazioak hartzeko, ezarritako errekurtsoak jartzeko eta legeetan aurreikusitako akzioez baliatzeko.

## 6. artikulua.

**1.** Toki-erakundeek objektibotasunez zerbitzatzen dituzte agindu zaizkien herri-interesak, eta eraginkortasun-, deszentralizazio-, deskontzentrazio- eta koordinazio-printzipioen arabera jarduten dute, legearekiko eta Zuzenbidearekiko mendekotasun osoz.

**2.** Auzitegiek egiten dute toki-erakundeen erabaki eta egintzen legezkotasunaren kontrola.

## 7. artikulua.

**1.** Toki-erakundeen eskumenak berezkoak edo eskuordetzan emandakoak dira.

Udalerri, probintzia, uharte eta gainerako lurralde-mailako toki-erakundeen berezko eskumenak legez baino ezin izango dira zehaztu.

**2.** Toki-erakundeek autonomiaz eta beren erantzukizunpean erabiliko dituzte beren eskumenak, beti ere, horiek programatu eta gauzatzerakoan gainerako herri-administrazioekiko behar bezalako koordinazioa kontuan hartuz.

**3.** Toki-erakundeei emandako eskumenak eskuordetzaren arabera erabiliko dira, zuzendaritza eta egokiera zaintzeko teknikak aurreikusi baititzake eskuordetzak. Nolanahi ere, toki-erakunde bakoitzak bere zerbitzuak antolatzeko duen ahala errespetatu beharko dute aipatu teknikek.

### 8. artikulua.

Aurreko artikuluan xedatutakoaren aurka jarri gabe, autonomia-administrazioaren berezko zerbitzuen ohiko kudeaketa egin ahal izango dute probintziek eta uharteek, autonomia-estatutuen eta autonomia-erkidegoetako legeen arabera.

### 9. artikulua.

Lege hau garatu eta udalerri, probintzia, uharte edo gainerako lurralde-mailako toki-erakundeei eragiten dieten arauen aplikazio-eremua ezin izango da berariaz mugatu erakunde horietako batera edo zenbaitetara; hala ere hori ez da lege honek udalerri zein probintzietarako araubide berezietarako xedatutakoaren kontrakoa.

### 10. artikulua.

**1.** Toki-administrazioak eta gainerako herri-administrazioek ondoko eginbeharretan oinarrituko dituzte elkarrekiko harremanak: elkarri informazioa emateko, elkarri laguntza emateko, koordinatzeko eta bakoitzari dagozkion eskumen-eremuak errespetatzeko eginbeharrean.

**2.** Toki-erakundeek beren artean koordinatu behar dituzte beren eskumenak, eta bereziki herri-administrazioekin, bai tokiko jarduerak nahiz zerbitzuak toki-erakunde bakoitzaren interesen gainetikoak direnean, bai herri-administrazioen interesak nabarmen ukitu edo baldintzatzen dituztenean, zein herri-administrazio horien interesekin bat datozenean edo osagarriak direnean.

**3.** Koordinazio-zereginek ez diote toki-erakundeen autonomiari eragingo inolaz ere.

## II. TITULUA. UDALERRIA

### 11. artikulua.

**1.** Udalerria da Estatuaren lurralde-antolaketaren oinarrizko toki-erakundea. Nortasun juridikoa du, eta bere helburuak betetzeko gaitasun osoa.

**2.** Lurraldea, biztanleria eta antolaketa dira udalerriaren osagaiak.

## I. Kapitulua. Lurraldea eta biztanleria

### 12. artikulua.

**1.** Udal-mugartea udalak bere eskumenak burutzeko hartzen duen lurraldea da.

**2.** Udalerri bakoitza probintzia bakar bati dagokio.

### 13. artikulua.

**1.** Udalerriak sortu edo ezabatzea, zein udal-mugarteak aldatzea, toki-araubideari buruzko autonomia-erkidegoetako legediak arautuko ditu, baina udal-mugarteak aldatzeak inola ere ez du probintzietako mugak aldatzerik ekarriko. Nolanahi ere, udalerri interesdunei entzun beharko zaie eta Estatu-kontseiluaren edo autonomia-erkidegoetako gobernu-kontseiluen organo aholku-emaile gorenaren irizpena beharko da, halakorik balego. Irizpen hori eskatzen den aldi berean Estatuko Administrazio Orokorrari jakinaraziko zaio.

**2.** Udalerri berriak sortu, lurraldez bereizitako biztanleguneak oinarritzat harturik baino ezin izango da egin, eta beti ere, sortutako udalerriek udal-eskumenak betetzeko nahikoa baliabide badute, eta aurretik betetzen ari ziren zerbitzuen kalitatea gutxitzerik ez badakar.

**3.** Autonomia-erkidegoen eskumenei kalterik eragin gabe, tokian tokiko herri-arazoak kudeatzeko ahalmena hobetzeko, udalerriak bat egitera bultzatzeko neurriak ezarri ahal izango ditu Estatuak, geografiaren, gizartearen, ekonomiaren eta kulturaren gaineko irizpideak kontuan hartuta.

### 14. artikulua.

**1.** Udalerrien izen-aldaketek, lege honetan aipatutako erakunde guztien izena jasotze aldera Estatuko Administrazioak sortutako erregistroan idatzi ondoren, "Estatuko Aldizkari Ofizial"ean argitaratzen direnean izango dute soilik ofizialtasuna.

**2.** Udalerrien izena, ondorio guztietarako, gaztelaniazkoa, bakoitzaren autonomia-erkidegoan ofiziala den beste edozein espainiar hizkuntzatakoa edo bietakoa izan daiteke.

### 15. artikulua.

Espainian bizi den pertsona orok ohiko bizilekua duen udalerriko erroldan inskribatu behar du bere burua. Udalerri bat baino gehiagotan bizi dena urtean denborarik gehien egiten duen horretan bakarrik inskribatu beharko da.
Udalerriko erroldan inskribatutako pertsonen multzoak osatzen du udalerriko biztanleria.
Udalerriko erroldan inskribatutakoak dira udalerriko auzotarrak.
Erroldan inskribatzeko unean bertan lortzen da auzotar izaera.

### 16. artikulua.

**1.** Udalerriko errolda udalerriko auzotarrak jasota agertzen dituen administrazio-erregistroa da. Erroldako zehaztasunak udalerrian bizilekua izan eta bertan ohiko egoitza izatearen froga dira.

Zehaztasun horien gainean emandako ziurtagiriak agiri publiko eta fede-emaileak izango dira administrazio-ondorio guztietarako.
Udalerriko erroldan inskribatzeak lege honetako 15. artikuluan xedatutakoaren arabera baino ez du izango eraginik, eta inskripzioa eragin duen gertaerak dirauen artekoa izango da; nolanahi ere, aldiro berritu beharko da, bi urtetik behin, bizileku iraunkorra izateko baimenik ez duten Europako Erkidegokoak ez diren atzerritarren inskripzioaren kasuan.
Aurreko lerroaldean aipatutako epea igarotzea, baldin eta interesatuak inskripzioa berritu ez badu, aldiro berritu behar diren inskripzioen iraungipena erabakitzeko arrazoi izango da. Kasu horretan, interesatuari aldez aurretik entzun beharrik izan gabe aldarrikatuko da inskripzioaren iraungipena.

**2.** Udalerriko erroldako inskripzioan hauek dira nahitaez jaso beharreko zehaztasun bakarrak:

**a)** Izena eta abizenak.
**b)** Sexua.
**c)** Ohiko egoitza.
**d)** Naziotasuna.
**e)** Jaiolekua eta jaioteguna.
**f)** Nortasun-agiri nazionalaren zenbakia; edo, atzerritarren kasuan:
Espainiako agintariek emandakoa izan eta indarrean dagoen bizileku-txartelaren zenbakia, edo halakorik eduki ezean, jatorrizko herrialdeko agintariek eman eta indarrean dagoen nortasuna egiaztatzeko agiriaren edo pasaportearen zenbakia, bai Europar Batasuneko kide diren estatuetako herritarren kasuan, zein Europako Esparru Ekonomikoari buruzko Akordioan parte diren beste estatuetako herritarren kasuan, nahiz nazioarteko itunen baten indarrez aipatutako estatuetako herritarrentzat aurreikusitako araubide juridikoa zabaltzen zaien estatuetako herritarren kasuan.
Espainiako agintariek emandakoa izan eta indarrean dagoen agirian datorren atzerritar-identifikazioaren zenbakia, edo halako agirien titular ez direlako halakorik eduki ezean, jatorrizko herrialdeko agintariek eman eta indarrean dagoen pasaportearen zenbakia, paragrafo honetako aurreko puntuan jaso ez diren estatuetako herritarren kasuan.
**g)** Bakoitzak daukan eskolako ziurtagiria edo titulua, edo titulu akademikoa.
**h)** Hautesle-errolda egiteko beharrezkoak diren beste zehaztasun guztiak, Konstituzioan onartutako oinarrizko eskubideen errespetua bermatuta beti ere.

**3.** Udalerriko erroldako zehaztasunak doakionaren aldez aurreko baimenik gabe emango zaizkie zehaztasunok eska ditzaten beste administrazio publikoei, bakoitzari bere eskumenak betetzeko beharrezkoak dituenean bakarrik, eta bizilekuari zein egoitzari dagokienez zehaztasunok esanguratsuak diren gaietarako soil-soilik. Balio dezakete, halaber, estatistikako isilekotasunaren menpeko estatistika ofizialak egiteko, Estatistikako Funtzio Publikoaren maiatzaren 9ko 12/1989 Legean eta gai horren gainean eskumenak dituzten autonomia-erkidegoetako estatistika legeetan aurreikusitako eran.

### 17. artikulua.

**1.** Udalari dagokio udalerriko errolda eratzea, mantentzea, berrikustea eta zaintzea, Estatuko legediak ezar dezanarekin bat etorriz.
Helburu horrekin, Estatuko Administrazio Orokorreko erakundeek, gaiaren arabera eskudun badira, aldiro bidaliko diote udal bakoitzari udalerriko erroldan nahitaez agertu behar diren zehaztasunen aldaketei buruzko informazioa, bertako auzotarrei dagokienean, erregelamenduz ezarritako eran.

Udalek egingo dute udalerriko erroldaren kudeaketa, informatikako baliabideak erabiliz. Probintzietako diputazioek, uharteetako kabildoek eta kontseiluek bere gain hartuko dute kudeaketarako eta ekonomiako gaitasun nahikorik ez dutelako erroldako zehaztasunak modu automatizatuan mantendu ezin dituzten udalerrietako errolden kudeaketa informatizatua.

**2.** Udalek beren erroldak eguneratuta mantentzeko beharrezko jardute eta eragiketak egingo dituzte, erroldan jasotako zehaztasunak errealitatearekin bat etor daitezen.
Udalen batek jardute horiek egiten ez baditu, Estatistikako Institutu Nazionalak, Erroldatze Kontseiluaren txostena aurrez jasota, errekerimendua egin ahal izango dio egin gabe utzitakoa aurrez zehaztuta, eta atzera botatzen badio errekerimendua, lege honetako 60. artikuluan aurreikusitako betebeharra ordez bete ahal izango du eta bidezkoak diren errekurtso jurisdikzionalak jarri ahal izango ditu.

**3.** Estatuko Administrazio Orokorrak erregelamenduz zehaztutako moduan bidaliko dizkiote udalek Estatistikako Institutu Nazionalari bakoitzak bere erroldako zehaztasunak, udalerri guztien errolden arteko koordinazioa burutu ahal izateko.
Estatistikako Institutu Nazionalak, akatsik egotekotan horiek zuzentzeko, eta bikoizketak saihesteko, bidezko egiaztapenak egingo ditu, eta udalei jakinaraziko die zeintzuk diren Estatu osoko biztanleriaren estatistikak egiteko erroldako zehaztasunak oinarri izateko, urteko berrikusketatik ateratako kopuruak ofizialtzat aldarrikatzeko, eta udalek hautesle-erroldako zehaztasunak behar bezala eguneratuta bidaltzeko beharrezko jarduteak eta eragiketak.
Estatistikako Institutu Nazionaleko lehendakariari dagokio erroldatzearen gainean udalen, probintzietako diputazioen, uharteetako kabildo eta kontseiluen artean zein erakunde horien eta Estatistikako Institutu Nazionalaren artean sortutako desadostasunak erabakitzea, baita Espainiako udalerrietako biztanleriaren gaineko kopuru ofizialen proposamena Estatuko Gobernuari bidaltzea eta erregelamenduz ezarritako moduan udal interesdunari hori jakinaraztea ere.
Estatistikako Institutu Nazionalak hiru hilabetero bidaliko dizkie autonomia-erkidegoetako estatistika-institutuei zein gai horretan eskumenak dituzten organoei, baita beste administrazio publiko batzuei ere, bakoitzari bere lurralde-eremuko udalerrietako erroldetan gertatutako atzerritarren altei eta bajei buruzko zehaztasunak, lege honetako 16.3. artikuluan aipatutako baldintza berberetan.

**4.** Ekonomia eta Ogasun Ministerioari atxikita, Erroldatze Kontseilua sortzen da, Estatuko Administrazio Orokorraren eta toki-erakundeen artean errolda-gaietan lankidetzako kide anitzeko organo izateko, erregelamenduz ezarritakoarekin bat etorriz.
Kontseiluko buru Estatistikako Institutu Nazionaleko lehendakaria izango da, eta Estatuko Administrazio Orokorreko eta toki-erakundeetako ordezkariek osatuko dute Kontseilua.
Kontseiluak osoko bilkuretan eta batzordeetan jardungo du; probintzia bakoitzean probintziako sail bana egongo da, Estatistikako Institutu Nazionaleko ordezkaria buru duela eta toki-erakundeetako ordezkariak bertan direla.
Erroldatze Kontseiluak eginkizun hauek izango ditu:

**a)** Estatistikako Institutu Nazionaleko lehendakariari, berak erabaki dezan, proposamen loteslea aurkeztea udalen, probintzietako diputazioen, uharteetako kabildoen eta kontseiluen artean zein erakunde horien eta Estatistikako Institutu Nazionalaren artean erroldatzea dela-eta sortutako desadostasunak ebazteko.
**b)** Txosten loteslea egitea Estatistikako Institutu Nazionaleko lehendakariak Gobernuari Espainiako udalerrietako biztanleriaren gaineko kopuru ofizialen proposamenak egiten dizkionean.

**c)** Udalerrietako errolden kudeaketarako beharrezko jarraibide teknikoak onartzea proposatzea.
**d)** Legezko zein erregelamenduzko xedapenez berari egotzitako beste edozein eginkizun.

**5.** Estatuko Administrazio Orokorrak, udalekin eta autonomia-erkidegoetako administrazioekin lankidetzan arituz, bizilekua atzerrian duten espainiarren errolda bat egingo du, eta horri udalerrietako errolda arautzen duen lege honetako arauak aplikatuko zaizkio.
Errolda horretan inskribatutako pertsonak beren inskripzioko zehaztasunetan ageri den Espainiako udalerriko auzotar izango dira, botoa emateko eskubidearen ondorioetarako bakarrik, eta inola ere ez dira udalerri horretako biztanle izango.

### 18. artikulua.

**1.** Hauek dira auzotarren eskubideak eta eginbeharrak:

**a)** Hautesle eta hautagai izatea, hauteskunde-legedian xedatutakoaren arabera.
**b)** Udal-kudeaketan parte hartzea, legeetan xedatutakoaren arabera, eta, kasuan-kasuan, udaleko gobernuko eta administrazioko organoek auzotarren borondatezko lankidetza eskatzen dutenean.
**c)** Udal-zerbitzu publikoak beren izaeraren arabera erabiltzea, eta herri-aprobetxamenduaz baliatzea aplikatzekoak diren arauen arabera.
**d)** Legez aurreikusitako prestazio ekonomiko eta pertsonalen bidez, udal-eskumenak gauzatzen laguntzea.
**e)** Arrazoitutako eskaria aurrez eginik, informazioa jasotzea, eta udal-espediente eta udal-agiri guztien gainean udal-administrazioari eskaerak egitea, Konstituzioko 105. artikuluan aurreikusitakoaren arabera.
**f)** Legean aurreikusita dagoen bezala, herri-galdeketa eskatzea.
**g)** Zerbitzu publiko zehatzen bat udalaren nahitaezko eskumenekoa denean, zerbitzu hori betetzeko eskatzea, eta, hala badagokio, zerbitzua ezartzeko eskatzea.
**h)** Herri-ekimena erabiltzea, 70 bis artikuluan aurreikusitako baldintzetan.
**i)** Legeetan ezarritako gainerako eskubideak eta eginbeharrak.

**2.** Atzerritarrak udal-erroldan inskribatuta egotea ez da Espainian legezko bizilekua izatearen froga, eta ez die emango indarrean dagoen legediak ematen ez dien inolako eskubiderik, bereziki Espainian dauden atzerritarren eskubideen eta askatasunen arloan.

## II. Kapitulua. Antolakuntza

### 19. artikulua.

**1.** Legearen arabera kontzeju irekien araubidepean diharduten udalerrietan izan ezik, udalari dagozkio udal-gobernua eta udal-administrazioa; alkateak eta zinegotziek osatzen dute udala.

**2.** Bozketa orokor, berdin, aske, zuzeneko eta isilpekoaren bidez hautatzen dira zinegotziak; zinegotziek edo auzotarrek hautatzen dute alkatea. Hori guztia, hauteskunde-legedi orokorrean ezarritakoaren arabera.

**3.** Lege honetako X. tituluan aipatutako udalerrien antolakuntza-araubidea titulu horretan bertan xedatutakoari lotu behar zaio. Titulu horretan aurreikusi gabekoetan, hurrengo artikuluetan araututako araubide orokorra aplikatuko da.

## 20. artikulua.

**1.** Udal-antolakuntza arau hauen araberakoa da:

**a)** Udal guztietan alkatea, alkateordeak eta osoko bilkura daude.
**b)** 5.000 biztanle baino gehiagoko biztanleria duten udalerri guztietan Tokiko Gobernu-batzarra dago; biztanle gutxiagokoetan, aldiz, bertako erregelamendu organikoan hala xedatu eta udaleko osoko bilkurak hala erabakitzen badu.
**c)** 5.000 biztanle baino gehiagoko udalerrietan, baita gutxiagokoetan ere, bertako erregelamendu organikoan hala xedatu edo osoko bilkurak hala erabakitzen badu, eta bertako autonomia-legedian eremu honetarako bestelako antolakuntzarik aurreikusi ez bada, beste organo batzuk egongo dira, osoko bilkuraren erabakipean jarriko diren gaiak aztertu, horien gainean txostena egin zein horietaz aholkua emateko, eta alkatearen, tokiko gobernu-batzarraren eta eskuordetzan emandako eskumenak dituzten zinegotzien kudeaketaren jarraipena egiteko, osoko bilkurari dagozkion kontrol-eskumenen aurka jarri gabe. Udalbatza osatzen duten talde politiko guztiek izango dute aipatutako organoetan parte hartzeko eskubidea, taldeotako zinegotziak organo horietan egonda, osoko bilkuran duten zinegotzi-kopuruaren arabera.d) Lege honetako X. tituluan adierazitako udalerrietan Iradokizun eta Erreklamazioen Batzorde Berezia dago, baita osoko bilkurak bertako kideen legezko kopuruaren gehiengo osoaren aldeko botoekin horrela adostuta duten udalerrietan ere, zein udalerriotako erregelamendu organikoan hala xedatuta badago.e) Udalerri guztietan Kontuen Batzorde Berezia dago, 116. artikuluan aurreikusitako egiturarekin bat etorriz.

**2.** Aurreko zenbakian aurreikusitako udal-antolakuntzaren beste osagarri bat ere ezar dezakete autonomia-erkidegoek toki-araubideari buruzko legeetan.

**3.** Udalerriek beste organo osagarri batzuk ezarri eta arautu ahal izango dituzte beren erregelamendu organikoetan, artikulu honetan ezarritakoarekin eta aurreko zenbakian aipatutako autonomia-erkidegoetako legeetan aurreikusitakoarekin bat etorriz.

## 21. artikulua.

**1.** Alkatea da udalbatzako buru eta eskumen hauek ditu:

**a)** Udal-gobernua eta udal-administrazioa zuzentzea.
**b)** Udalaren ordezkari izatea.
**c)** Udaleko osoko bilkuretarako deia egin eta bertan buru izatea, lege honetan eta hauteskunde-legedi orokorrean aurreikusitako kasuetan izan ezik, baita tokiko gobernu-batzarraren eta beste udal-organo guztien kasuan ere, legezko zein erregelamenduzko xedapenetan horrela ezarrita dagoenean; eta berdinketak daudenean, kalitateko botoarekin hori erabakitzea.
**d)** Udal-zerbitzuak eta udal-obrak zuzentzea, ikuskatzea eta bultzatzea.
**e)** Bandoak ematea.
**f)** Onartutako aurrekontuaren arabera ekonomiaren kudeaketa garatzea; gastuak xedatzea, bere eskumenen mugen barruan; kreditu-eragiketak ituntzea, Toki-ogasunak arautzen

dituen abenduaren 28ko 39/1988 Legeko 158.5 artikuluan aipatutako eragiketak kanpoan utzita, baldin eta eragiketa horiek aurrekontuan aurreikusita badaude eta ekonomia-ekitaldi bakoitzean metatutako zenbatekoak baliabide arrunten 100eko 10a gainditzen ez badu, diruzaintzako eragiketak salbuespentzat hartuta, horiek baitagozkio une bakoitzean bizirik dauden eragiketen zenbateko metatuak aurreko ekitaldian kitatutako sarrera arrunten 100eko 15a gainditzen ez badu; ordainketak agintzea eta kontuak ematea; hori guztia Toki-ogasunak arautzen dituen Legean xedatutakoaren arabera.

**g)** Enplegu publikoaren eskaintza onartzea, osoko bilkurak onartutako aurrekontuaren eta plantillaren arabera; langileak hautatzeko eta lanpostuak betetzeko lehiaketetarako probetako oinarriak onartzea; eta finkoak eta aldikakoak ez diren ordainsari osagarriak banatzea.

**h)** Langile guztien goi-buruzagitza betetzea; beren izendapenak eta zehapenak erabakitzea, udalbatzako funtzionarioak zerbitzutik kentzea eta lan-kontratuko langileak iraiztea barne, eta azken bi kasuotan osoko bilkurari eman beharko dio horien berri hurrengo lehenengo bilkuran. Eskumen hau ez da lege honetako 99.1. eta 3. artikuluetan xedatutakoaren aurkakoa.

**i)** Udaltzaingoaren buruzagitza betetzea.

**j)** Osoko bilkurari berariaz egotzi gabeko plangintza orokorraren garapeneko plangintza-tresnak onartzea, eta horiekin bat hirigintza-kudeaketako tresnak eta urbanizazio-proiektuak ere bai.

**k)** Akzio judizialak eta administratiboak betetzea eta udalaren defentsa egitea bere eskumeneko gaietan, beste organo bati eskuordetzan emandakoak izan arren; larrialdi-kasuetan, osoko bilkuraren eskumeneko gaietan ere jardun lezake horrela, eta osoko bilkurak hurrengo lehenengo bilkura egiten duenean eman beharko dio alkateak horren berri osokoak berretsi dezan.

**l)** Alkatetzaren eskumeneko gaietan egintzak kaltegarritzat jotzeko, osoko bilkurari proposamena egiteko ekimena.

**m)** Herri-hondamendi edo ezbeharretan nahiz horiek gertatzeko arrisku larria dagoenean, bere buruz eta bere ardurapean, neurri egoki eta beharrezkoak hartzea, eta osoko bilkurari berehala jakinaraztea.

**n)** Bere agintaritzarekiko obedientziarik eza eta udal-ordenantzak haustea zehatzea, ahalmen hori beste organo batzuei aitortuta dagoenean izan ezik.

**ñ)** Era guztietako kontratuak eta emakidak, horien zenbatekoak aurrekontuko baliabide arrunten 100eko 10a gainditzen ez badu, eta inolaz ere sei milioi euroko kopurua gainditzen ez badu; horien artean sartzen dira, halaber, urte anitzekoak ere, epea lau urtetik gorakoa ez denean, baldin eta urtealdi guztietako zenbateko metatuarekin lehen esandako ehunekoa gainditzen ez bada, lehenengo ekitaldiko aurrekontuko baliabide arruntak erreferentziatzat hartuta, eta aipatutako zenbatekoa ere gainditzen ez bada.

**o)** Obra-proiektuak eta zerbitzu-proiektuak onartzea, horiek kontratatu edo horien emakida egiteko eskumenak baditu eta proiektuok aurrekontuetan aurreikusita badaude.

**p)** Ondasunak eta eskubideak eskuratzea, beren balioak aurrekontuko baliabide arrunten 100eko 10a gainditzen ez badu, eta hiru milioi eurotik gorakoa ez bada; ondarea besterendu ere egin dezake, lehen aipatutako ehunekoa eta kopurua gainditzen ez badira, kasu hauetan:

> **1.** Ondasun higiezinen kasuan, aurrekontuan hala aurreikusita badago.
> **2.** Ondasun higigarrien kasuan, historiaren zein artearen ikuspegitik baliokoak direla aitortutakoak salbuespen direla, aurrekontuan horiek besterentzea aurreikusi ez bada.

**q)** Lizentziak ematea, arloko legeek berariaz osoko bilkurari edo tokiko gobernu-batzarrari agindu ez badiete.
**r)** Udalaren erabakiak argitaratzeko agintzea, eta erabakiok bete eta betearaztea.
**s)** Legeek berariaz aitortzen dizkioten gainerakoak, eta Estatuko legediak edota autonomia-erkidegoetakoak udalerriari esleitutakoak izanik udaleko beste organo batzuei egotzi ez dizkietenak.

**2.** Alkateari dagokio, halaber, alkateordeak izendatzea.

**3.** Alkateak eskuordetzan eman ditzake bere eskumenak; ez, ordea, osoko bilkuraren eta tokiko gobernu-batzarraren bilkuretarako deia egin eta horietan buru izatea, berdinketa-kasuak kalitateko botoarekin erabakitzea, kreditu-eragiketak ituntzea, langile guztien goi-buruzagitza betetzea, funtzionarioak zerbitzutik kentzea eta lan-kontratuko langileak iraiztea, eta artikulu honetako 1. paragrafoko a), e), j), k), l) eta m) idatz-zatietan zehaztutakoak. Hala ere, tokiko gobernu-batzarrari eman diezaioke j) idatz-zatian jasotako eskumenak betetzeko eskuordetza.

### 22. artikulua.

**1.** Osoko bilkura zinegotzi guztiek osatzen dute, eta alkatea du buru.

**2.** Hauek dira, nolanahi ere, osoko bilkurari dagozkion eskumenak:

**a)** Gobernu-organoak kontrolatzea eta ikuskatzea.
**b)** Udalerriaz gaindiko antolakundeetan parte hartzeari buruzko erabakiak hartzea; udal-mugartea aldatzea; udalerriak eta 45. artikuluan aipatutako erakundeak sortzea edo ezabatzea; deskontzentratutako organoak sortzea; udalerriburua aldatzea eta udalerriaren edo erakunde horien izena aldatzea, eta bertako bandera, ikurra edo armarria onartzea edo aldatzea.
**c)** Plangintza orokorrari hasierako onarpena ematea, eta hirigintza-legedian aurreikusitako antolamenduko planen eta gainerako tresnen gaineko udal-izapideen amaiera onartzea.
**d)** Erregelamendu organikoa eta ordenantzak onartzea.
**e)** Tributu-izaerako baliabide propioak zehaztea; aurrekontuak onartzea eta aldatzea; eta udalaren eskumeneko gaietan gastuak xedatzea eta kontuak onartzea. Hori guztia Toki-ogasunak arautzen dituen Legean xedatutakoarekin bat etorriz.
**f)** Zerbitzuak kudeatzeko moduak eta udalekotze-espedienteak onartzea.
**g)** Beste herri-administrazio batzuek eskuordetzan emandako eskumenak onartzea.
**h)** Beste toki-erakunde batzuei eta gainerako herri-administrazioei eskumen-gatazkak jartzea.
**i)** Langileen plantilla eta lanpostuen zerrenda onartzea; eta funtzionarioen ordainsari osagarri finko eta aldikakoen zenbatekoa eta behin-behineko langileen kopurua eta araubidea finkatzea.
**j)** Akzio judizialak eta administratiboak baliatzea eta udalbatzaren defentsa egitea osoko bilkuraren eskumeneko gaietan.
**k)** Udalaren egintzak kaltegarritzat jotzea.
**l)** Jabari publikoko ondasunen kalifikazio juridikoa aldatzea.
**m)** Kreditu-eragiketak ituntzea, baldin eta ekonomia-ekitaldi bakoitzean metatutako zenbatekoak aurrekontuko baliabide arrunten 100eko 10a gainditzen badu, diruzaintzako eragiketak salbuespentzat hartuta, horiek une bakoitzean bizirik dauden eragiketen zenbateko metatuak aurreko ekitaldian kitatutako sarrera arrunten 100eko 15a gainditzen

duenean baitagozkio. Hori guztia Toki-ogasunak arautzen dituen Legean xedatutakoaren arabera.

**n)** Era guztietako kontratuak eta emakidak, horien zenbatekoak aurrekontuko baliabide arrunten 100eko 10a gainditzen badu, eta beti sei milioi euroko kopurua gainditzen badu; horien artean sartzen dira, halaber, urte anitzeko kontratuak eta emakidak ere, epea lau urtetik gorakoa denean, eta epe laburragoko urte anitzekoak urtealdi guztietako zenbateko metatuarekin lehen esandako ehunekoa gainditzen bada, lehenengo ekitaldiko aurrekontuko baliabide arruntak erreferentziatzat hartuta, eta beti letra honetan aipatutako zenbatekoa baino handiagoa bada.

**ñ)** Obra-proiektuak eta zerbitzu-proiektuak onartzea horiek kontratatu edo horien emakida egiteko eskumenak baditu eta proiektuok aurrekontuetan oraindik aurreikusi gabe badaude.

**o)** Ondasunak eta eskubideak eskuratzea, beren balioak aurrekontuko baliabide arrunten 100eko 10a gainditzen badu, eta beti hiru milioi eurotik gorakoa bada; ondarea besterendu ere egin dezake kasu hauetan:

> **1.** Ondasun higiezin zein ondasun higigarrien kasuan, historiaren zein artearen ikuspegitik baliokoak direla aitortuta badaude, eta besterentzea aurrekontuan aurreikusi gabe badago.
>
> **2.** Besterentzea aurrekontuan aurreikusita egonik, ondasunak eskuratzeko lehen adierazitako ehunekoak eta zenbatekoak gainditzen direnean.

**p)** Onartuak izateko gehiengo berezia behar dutelako, osoko bilkurari dagozkion gainerako eskumenak.

**q)** Legeek berariaz emandako gainerakoak.

**3.** Era berean, osoko bilkurari dagokio alkateari ezar liezaiokeen zentsura-mozioari buruzko eta alkateak berak jarritako konfiantza-galdekizunari buruzko bozketak egitea; bozketak publikoak izango dira, eta kasu guztietan bakoitzari izenetik deituta egingo dira. Horiek hauteskunde-legedi orokorrean ezarritakoarekin arautzen dira.

**4.** Osoko bilkurak alkateari eta tokiko gobernu-batzarrari eman diezazkieke bere eskumenak eskuordetzan; baina, salbuespen dira artikulu honetako 2. paragrafoko a), b), c), d), e), f), g), h), i), l) eta p) idatz-zatietan eta 3. paragrafoan zehaztutakoak.

## 23. artikulua.

**1.** Alkateak eta legean ezarritako zinegotzi-kopuruaren herena baino gehiagokoa ez den zinegotzi-kopuru jakin batek osatzen dute tokiko gobernu-batzarra. Alkateak izendatzen eta kentzen ditu askatasunez, eta osoko bilkurari ematen dio horren berri.

**2.** Tokiko gobernu-batzarrari hauek dagozkio:

**a)** Alkateari bere eskumenak gauzatzen laguntzea.

**b)** Alkateak nahiz beste udal-organoren batek eskuordetzan emandako edo legeek aitortutako eskumenak.

**3.** Alkateordeek alkatea ordezten dute, beren izendapen-hurrenkeraren arabera, alkateak kargua hutsik laga nahiz bera kanpoan aurkitu zein gaixorik dagoenean. Alkateak askatasunez izendatzen eta kentzen ditu alkateordeak tokiko gobernu-batzarreko kideen artetik, eta tokiko gobernu-batzarrik ez badago, zinegotzien artetik.

**4.** Alkateak tokiko gobernu-batzarreko kideei eman diezaieke zenbait eskumen gauzatzeko eskuordetza, eta tokiko gobernu-batzarrik ez badago, alkateordeei; hala ere, eginkizun zehatzetarako, edozein zinegotziri eman diezaioke eskumenen eskuordetza berezia, nahiz eta tokiko gobernu-batzarreko kide ez izan.

### 24. artikulua.

**1.** Udal-arazoen kudeaketan herritarren parte-hartzea errazteko eta kudeaketa hori hobetzeko, kudeaketa deskontzentratuko lurralde-organoak ezarri ahal izango dituzte udalerriek, udal bakoitzak emandako antolakuntza, eginkizun eta eskumenekin, udal-mugartean biztanleek duten kokapenaren ezaugarriak kontuan harturik, udalerria gobernatzeko eta kudeatzeko batasunari kalterik ekarri gabe.

**2.** Lege honetako 121. artikuluan aipatutako udalerriei 128. artikuluan ezarritako kudeaketa deskontzentratuko araubidea aplikatuko zaie.

## III. Kapitulua. Eskumenak

### 25. artikulua.

**1.** Udalerriak, bere interesak kudeatzeko eta bere eskumenen esparruan, auzo-erkidegoaren beharrak eta nahiak betetzen lagundu dezaketen jarduera-mota guztiak bultzatu eta nahi adina zerbitzu publiko egin ditzake.

**2.** Udalerriak, beti, Estatuko eta autonomia-erkidegoetako legedian ezarritako moduan, gai hauetako eskumenak beteko ditu:

**a)** Toki publikoetako segurtasuna.
**b)** Herri barruko bideetan ibilgailuen eta pertsonen zirkulazioa antolatzea.
**c)** Babes zibila, suteei aurrea hartzea eta suteak itzaltzea.
**d)** Hirigintzaren antolamendua, kudeaketa, gauzatzea eta diziplina; etxebizitzak sustatu eta kudeatzea; parkeak eta lorategiak, herri barruko bide publikoen zoladura eta errepideak eta baserri-bideak zaintzea.
**e)** Historia eta arteko ondasuna.
**f)** Ingurumena babestea.
**g)** Hornidurak, hiltegiak, azokak, merkatuak eta bezeroen eta kontsumitzaileen defentsa.
**h)** Herri-osasungarritasunaren babesa.
**i)** Osasunari buruzko lehen mailako arretaren kudeaketan parte hartzea.
**j)** Hilerriak eta hileta-zerbitzuak.
**k)** Gizarte-zerbitzuak, gizarte-sustapeneko zerbitzuak eta gizarteratzeko zerbitzuak ematea.
**l)** Ur-hornidura eta herriko argiteria; kale-bideak garbitzeko zerbitzua, hondakinak bildu eta tratatzeko zerbitzua, estolderia-zerbitzua eta hondakin-urak tratatzeko zerbitzua.
**ll)** Bidaiarientzako garraio publikoa.
**m)** Kultura eta kiroletako jarduerak zein instalazioak; aisialdia betetzea; turismoa.
**n)** Hezkuntzaren programazioan parte hartzea eta hezkuntza-administrazioarekin elkarlanean aritzea ikastegi publikoak sortzen, eraikitzen eta mantentzen; ikastegietako kudeaketa-organoetan esku hartzea, eta nahitaezko eskolatzea betetzeko zaintzan parte hartzea.

**3.** Legeak bakarrik zehazten ditu artikulu honetan aipatutako arloetan udalek dituzten eskumenak, 2. artikuluan ezarritako printzipioekin bat etorriz.

### 26. artikulua.

**1.** Udalerriek beren kasa edo elkarturik zerbitzu hauek bete beharko dituzte, nolanahi ere:

**a)** Udalerri guztietan:
Herriko argiteria, hilerria, hondakin-bilketa, kale-bideen garbiketa, edateko uraren etxeetako hornidura, estolderia, biztanleguneetarako irisbideak, herri barruko bideen zoladura eta janarien eta edarien kontrola.
**b)** 5.000 biztanle baino gehiago dituzten udalerrietan, lehengoez gain:
Herriko parkea, liburutegi publikoa, merkatua eta hondakinen tratamendua.
**c)** 20.000 biztanle baino gehiago dituzten udalerrietan, lehengoez gain:
Babes zibila, gizarte-zerbitzuak betetzea, suteei aurrea hartzea eta suteak itzaltzea, eta erabilpen publikoko kirol-instalazioak.
**d)** 50.000 biztanle baino gehiago dituzten udalerrietan, lehengoez gain:
Bidaiari-taldeentzako hiriko garraioa eta ingurumenaren babesa.

**2.** Udalerriek, beren ezaugarri bereziengatik, aipatutako zerbitzuak ezartzea eta betetzea udalarentzat ezinezkoa edo oso zaila bada, aurreko zenbakian ezarritakoaren arabera dagozkien gutxieneko zerbitzuak betetzetik salbuesteko eskabidea egin ahal izango diote bakoitzak bere autonomia-erkidegoari.

**3.** Lege honetako 36. artikuluan aurreikusitakoaren arabera diputazioek udalerriei ematen dieten laguntza, batez ere, gutxieneko zerbitzu publikoak ezartzeko eta egoki betetzeko izango da; era berean lege honetako 92. artikuluko 3. zenbakian aipatutako funtzio publikoak udalbatzek betetzen dituztela ziurtatzeko ere bai.

**4.** Lege honetako 40. artikuluan ezarritakoaren aurka jarri gabe, autonomia-erkidegoek probintzietako diputazioekin lankidetzan jardun lezakete, lege honetan aurreikusitako modu eta baldintzetan, aurreko paragrafoan aipatutako funtzio publikoak beteko direla bermatzeko. Era berean, probintzietako diputazioek eskualde-erakundeekin lankidetzan jardun lezakete, kasuan kasuko autonomia-legedian barruan, goian aipatutako baldintzetan.

### 27. artikulua.

**1.** Estatuko Administrazioak, autonomia-erkidegoetakoak eta beste toki-erakunde batzuetakoak, udalerriei eman diezaiekete beren interesei ukitzen dieten gaietan eskumena gauzatzeko eskuordetza, baldin eta horrekin herri-kudeaketaren eraginkortasuna hobetzen bada eta herritarrek gehiago parte hartzen badute. Eskuordetza emateko xedapenak edo erabakiak zehaztu egin behar ditu eskuordetzaren irismena, edukia, baldintzak eta iraupena, baita eskuordetza ematen duen administrazioak beretzat gordetako kontrola, eta berak eskualdatutako giza baliabideak eta baliabide materialak eta ekonomikoak ere.

**2.** Nolanahi ere, eskuordetza ematen duen administrazioak jarraibide tekniko orokorrak ezar ditzake eskuordetutako zerbitzuen gauzatzeko modua zuzendu eta kontrolatzeko, eta edozein momentutan udal-kudeaketari buruzko informazioa eska dezake, baita ordezkariak bidali eta ohartemandako hutsak zuzentzeko beharrezko eskaerak egin ere. Jarraibideak bete ezik, eskatutako argibideak ukatuz gero, zein egindako eskaerei jaramonik egin ezik, eskuordetza

ematen duen administrazioak kendu egin lezake eskuordetza edo eskuordetutako eskumena bere kabuz burutu udalerriaren ordez. Udalerriaren egintzen aurka errekurtsoak jarri ahal izango zaizkie eskuordetza eman duen administrazioko organo eskudunei.

**3.** Eskuordetza eraginkorra izateko udalerri interesdunak onartu egin beharko du, eta, hala badagokio, autonomia-erkidegoaren aurretiko aholkua eta txostena beharko dira, lege bidez nahitaez ezartzen ez bada behintzat; kasu horretan ezinbestekoa izango da eskuordetza gauzatzeko baliabide ekonomikoak zuzkitzea edo gehitzea.

**4.** Eskuordetutako eskumenak Estatuko edo dagokion autonomia-erkidegoko legedien arabera gauzatzen dira, edo, kasua beste hau bada, eskuordetza eman duen toki-erakundeak onartutako erregelamenduaren arabera.

### 28. artikulua.

Berez beste herri-administrazio batzuei badagozkie ere, udalerriek haien jarduera osagarri batzuk egin ditzakete, bereziki, hezkuntzari, kulturari, emakumearen sustapenari, etxebizitzari, osasunari eta ingurumena babesteari buruzkoak.

## IV. Kapitulua. Araubide bereziak

### 29. artikulua.

**1.** Kontzeju ireki bezala jardungo dute:

> **a)** 100 biztanle baino gutxiago dituzten udalerriek eta gobernatzeko eta administratzeko araubide berezi horretaz betidanik baliatu direnek.
> **b)** Kokaleku geografikoa, udal-interesen kudeaketa hobea edo beste egoera batzuk direla-eta araubide horretaz baliatzea komenigarri dutenek.

**2.** Aurreko zenbakiko b) idatz-zatian aipatutako udalerriek kontzeju irekia osatzeko, auzotarren gehiengoak hala eskatu behar du, udaleko kideen bi hereneko gehiengoak aldeko erabakia hartu behar du eta autonomia-erkidegoak onartu egin behar du.

**3.** Kontzeju irekiko araubidean, alkateari eta hautesle guztien artean osatutako auzo-batzarrari dagokie udalerriko gobernua eta administrazioa. Toki bakoitzeko usadio, ohitura eta tradizioetara egokitzen dute beren jarduna eta, halakorik ezean, lege honetan eta autonomia-erkidegoetako legeetan toki-araubideari buruz ezarritakora.

### 30. artikulua.

Autonomia-erkidegoetako toki-araubideari buruzko legeetan, beti ere lege honetan ezarritakoaren eremuan, araubide bereziak ezarri ahal izango dira, bai udalerri txikientzat zein nekazaritza-girokoentzat, bai berez dituzten ezaugarriengatik hala egitea komenigarri egiten dutenentzat, hala nola, beren izaera historiko-artistikoa dela-eta, zein turismoko, industriako, meatzaritzako nahiz antzeko jarduerak udalerrian nagusi direla-eta komenigarri egiten dutenentzat.

# III. TITULUA. PROBINTZIA

### 31. artikulua.

**1.** Udalerri-multzoak osatutako toki-erakundea da probintzia; berezko nortasun juridikoa du eta helburuak betetzeko gaitasun osoa.

**2.** Probintziaren helburu zehatz eta berezkoa da udalerrien arteko elkartasuna eta oreka printzipio bezala bermatzea, ekonomiari eta gizarteari buruzko politikaren esparruan, bereziki:

> **a)** Probintziako lurralde osoan udalerriaren eskumeneko zerbitzuak osorik eta egoki betetzea ziurtatzeko.
> **b)** Autonomia-erkidegoko eta Estatuko administrazioekin toki-administrazioarena koordinatzen parte hartzea.

**3.** Diputazioari dagozkio probintziaren autonomiaren gobernua eta administrazioa, edo ordezkaritza duten beste korporazio batzuei.

## I. Kapitulua. Antolakuntza

### 32. artikulua.

Probintziaren antolakuntzak arau hauek ditu:

> **1.** Diputazio guztietan lehendakaria, lehendakariordeak, gobernu-batzarra eta osoko bilkura daude.
> **2.** Diputazio guztietan egongo dira, halaber, osoko bilkurak erabakitzeko jarriko diren gaiak aztertu, horien gainean txostena egin zein horietaz aholkua emateko beste organo batzuk, baita lehendakariaren, gobernu-batzarraren eta eskuordetzan emandako eskumenak dituzten diputatuen kudeaketaren jarraipena egiteko ere, bakoitzaren legedi autonomikoak esparru horretarako beste antolakuntza-moduren bat aurreikusi ez badu eta osoko bilkurari dagozkion kontrol-eskumenen aurka jarri gabe.
> Korporazioa osatzen duten talde politiko guztiek izango dute aipatutako organoetan parte hartzeko eskubidea, taldeotako diputatuak organo horietan egonda, osoko bilkuran duten diputatu-kopuruaren arabera.
> **3.** Aurreko organoen osagarri diren gainerakoak diputazioek beraiek ezarri eta arautzen dituzte. Hala ere, lege-testu honetan aurreikusitako probintzia-antolakuntzaren beste osagarri bat ezarri ahal izango dute autonomia-erkidegoek toki-araubideari buruz emandako legeetan.

### 33. artikulua.

**1.** Diputazioaren osoko bilkura lehendakariak eta diputatuek osatzen dute.
**2.** Nolanahi ere osoko bilkurari dagozkio:

> **a)** Diputazioaren antolakuntza.
> **b)** Ordenantzak onartzea.

**c)** Aurrekontuak onartu eta aldatzea, bere eskumenen mugen barruan gastuak xedatzea eta kontuak behin-behingoz onartzea. Hori guztia Toki-ogasunak arautzeko Legean xedatutakoaren arabera.

**d)** Probintziako planak onartzea.

**e)** Gobernu-organoak kontrolatzea eta ikuskatzea.

**f)** Langileen plantilla eta lanpostuen zerrenda onartzea; eta funtzionarioen ordainsari osagarri finko eta aldikakoen zenbatekoa eta behin-behineko langileren kopurua eta araubidea finkatzea.

**g)** Herri-jabariko ondasunen kalifikazio juridikoa aldatzea.

**h)** Beste toki-erakunde batzuei eta gainerako herri-administrazioei eskumen-gatazkak jartzea.

**i)** Akzio judizialak eta administratiboak baliatzea eta korporazioaren defentsa egitea osoko bilkuraren eskumeneko gaietan.

**j)** Diputazioaren egintzak kaltegarritzat jotzea.

**k)** Kreditu-eragiketak ituntzea, baldin eta ekonomia-ekitaldi bakoitzean metatutako zenbatekoak baliabide arrunten 100eko 10a gainditzen badu, diruzaintzako eragiketak salbuespentzat hartuta, horiek baitagozkio une bakoitzean bizirik dauden eragiketen zenbateko metatuak aurreko ekitaldian kitatutako sarrera arrunten 100eko 15a gainditzen badu. Hori guztia Toki-ogasunak arautzeko Legean xedatutakoaren arabera.

**l)** Era guztietako kontratuak eta emakidak, horien zenbatekoak aurrekontuko baliabide arrunten 100eko 10a gainditzen badu, eta beti 1.000.000.000 pezetako kopurua gainditzen badu; horien artean sartzen dira, halaber, urte anitzeko kontratuak eta emakidak ere, epea lau urtetik gorakoa denean, eta epe laburragokoak zenbateko metatuarekin lehen esandako ehunekoa gainditzen bada, lehenengo ekitaldiko aurrekontuko baliabide arruntak erreferentziatzat hartuta, eta beti idatz-zati honetan aipatutako zenbatekoa baino handiagoa bada.

**m)** Obra-proiektuak eta zerbitzu-proiektuak onartzea horiek kontratatu edo horien emakida egiteko eskumenak baditu eta proiektuok aurrekontuetan oraindik aurreikusi gabe badaude.

**n)** Ondasunak eta eskubideak eskuratzea, beren balioak aurrekontuko baliabide arrunten 100eko 10a gainditzen badu, eta beti 500.000.000 pezetatik gorakoa bada; ondarea besterendu ere egin dezake kasu hauetan:

Ondasun higiezin zein ondasun higigarrien kasuan, historiaren zein artearen ikuspegitik baliokoak direla aitortuta badaude eta aurrekontuan aurreikusi gabe badaude.

Aurrekontuan aurreikusita egonik, ondasunak eskuratzeko adierazitako aurreko ehuneko eta zenbatekoak gainditzen dituztenean.

**ñ)** Onartuak izateko gehiengo berezia behar dutelako, osoko bilkurari dagozkion gainerako eskumenak.

**o)** Legeek berariaz emandako gainerakoak.

**3.** Era berean, osoko bilkurari dagokio lehendakariari ezar liezaiokeen zentsura-mozioari buruzko eta lehendakariak berak jarritako konfiantza-galdekizunari buruzko bozketak egitea; bozketak publikoak izango dira, eta kasu guztietan bakoitzari izenetik deituta egingo dira. Horiek hauteskunde-legedi orokorrean ezarritakoarekin arautzen dira.

**4.** Osoko bilkurak lehendakariari eta gobernu-batzordeari utz diezazkieke bere eskumenak eskuordetzan; ez, ordea, artikulu honetako 2. zenbakiko a), b), c), d), e), f), h) eta ñ) idatz-zatietan eta 3. zenbakian zehaztutakoak.

## 34. artikulua.

**1.** Nolanahi ere diputazioko lehendakariari dagozkio:

**a)** Probintziaren gobernua eta administrazioa zuzentzea.
**b)** Diputazioaren ordezkari izatea.
**c)** Osoko bilkuretarako deia egin eta bertan buru izatea, lege honetan eta hauteskunde-legedi orokorrean aurreikusitako kasuetan izan ezik, eta berdin diputazioko gobernu-batzarreko eta beste edozein organotakoak ere; eta berdinketak daudenean, kalitateko botoarekin hori erabakitzea.
**d)** Probintziako diputazioaren titulartasunekoak izan eta berari egitea dagozkion zerbitzuak eta obrak zuzentzea, ikuskatzea eta bultzatzea.
**e)** Autonomia-erkidegoari dagozkion zerbitzuen kudeaketa ziurtatzea, horien ohiko kudeaketa diputazioari gomendioan eman bazaio.
**f)** Onartutako aurrekontuaren arabera ekonomiaren kudeaketa garatzea; gastuak xedatzea, bere eskumenen mugen barruan; kreditu-eragiketak ituntzea, Toki-ogasunak arautzen dituen abenduaren 28ko 39/1988 Legeko 158.5 artikuluan aipatutako eragiketak kanpoan utzita, baldin eta eragiketa horiek aurrekontuan aurreikusita badaude eta ekonomia-ekitaldi bakoitzean metatutako zenbatekoak baliabide arrunten 100eko 10a gainditzen ez badu, diruzaintzako eragiketak salbuespentzat hartuta, horiek baitagozkio une bakoitzean bizirik dauden eragiketen zenbateko metatuak aurreko ekitaldian kitatutako sarrera arrunten 100eko 15a gainditzen ez badu; ordainketak agintzea eta kontuak ematea; hori guztia Toki-ogasunak arautzeko Legean xedatutakoaren arabera.
**g)** Enplegu publikoaren eskaintza onartzea, osoko bilkurak onartutako aurrekontuaren eta plantillaren arabera; langileak hautatzeko eta lanpostuak betetzeko lehiaketetarako probetako oinarriak onartzea; eta finkoak eta aldikakoak ez diren ordainsari osagarriak banatzea.
**h)** Langile guztien goi-buruzagitza betetzea; beren izendapenak eta zehapenak erabakitzea, korporazioko funtzionarioak zerbitzutik kentzea eta lan-kontratuko langileak iraiztea barne, eta osoko bilkurari eman beharko dio horien berri hurrengo lehenengo bilkuran. Eskumen hau ez da lege honetako 99.1 eta 3 artikuluetan xedatutakoaren aurkakoa.
**i)** Akzio judizialak eta administratiboak baliatzea eta diputazioaren defentsa egitea bere eskumeneko gaietan, beste organo bati eskuordetzan emandakoak izan arren; larrialdietan, osoko bilkuraren eskumeneko gaietan ere hala jardun lezake, eta osoko bilkurak hurrengo lehenengo bilkura egiten duenean eman beharko du azken kasu horren berri hark berretsi dezan.
**j)** Lehendakariaren eskumeneko gaietan osoko bilkurak egintzak kaltegarritzat jotzeko proposamena egiteko ekimena.
**k)** Era guztietako kontratuak eta emakidak, horien zenbatekoak aurrekontuko baliabide arrunten 100eko 10a gainditzen ez badu, eta inolaz ere sei milioi euroko kopurua gainditzen ez badu; horien artean sartzen dira, halaber, urte anitzekoak ere, epea lau urtetik gorakoa ez denean, baldin eta urtealdi guztietako zenbateko metatuarekin lehen esandako ehunekoa gainditzen ez bada, lehenengo ekitaldiko aurrekontuko baliabide arruntak erreferentziatzat hartuta, eta aipatutako zenbatekoa ere gainditzen ez bada.
**l)** Obra-proiektuak eta zerbitzu-proiektuak onartzea horiek kontratatu edo horien emakida egiteko eskumenak baditu eta proiektuok aurrekontuetan aurreikusita badaude.
**m)** Ondasunak eta eskubideak eskuratzea, beren balioak aurrekontuko baliabide arrunten 100eko 10a gainditzen ez badu, eta hiru milioi eurotik gorakoa ez bada; ondarea

besterendu ere egin dezake, lehen aipatutako ehunekoa eta kopurua gainditzen ez badira, kasu hauetan:

Ondasun higiezinen kasuan, besterentzea aurrekontuan aurreikusita badago.

Ondasun higigarrien kasuan, historiaren zein artearen ikuspegitik baliokoak direla aitortutakoak salbuespen direla, aurrekontuan horiek besterentzea aurreikusi ez bada.

**n)** Diputazioaren erabakiak argitaratu, bete eta betearazteko agintzea.

**ñ)** Legeek berariaz aitortzen dizkioten gainerakoak.

**o)** Estatuko zein autonomia-erkidegoetako legediak diputazioari aitortutako gainerako eskumenak, baldin eta beste organo batzuei berariaz aitortu ez bazaizkie.

**2.** Lehendakariak eskuordetzan utz ditzake bere eskumenak; baina, salbuespen dira, osoko bilkuretarako eta gobernu-batzarraren bilkuretarako deia egin eta bertan buru izatea, berdinketa-kasuak kalitateko botoarekin erabakitzea, kreditu-eragiketak ituntzea, langile guztien goi-buruzagitza betetzea, funtzionarioak zerbitzutik kentzea eta lan-kontratuko langileak iraiztea, eta aurreko zenbakiko a), i) eta j) idatz-zatietan zehaztutakoak.

**3.** Lehendakariari dagokio, halaber, lehendakariordeak izendatzea.

### 35. artikulua.

**1.** Lehendakariak eta legean ezarritako diputatu-kopuruaren herena baino gehiagokoa ez den diputatu-kopuru jakin batek osatzen dute gobernu-batzarra. Lehendakariak izendatzen eta kentzen ditu askatasunez, eta osoko bilkurari ematen dio horren berri.

**2.** Gobernu-batzarrari hauek dagozkio:

**a)** Lehendakariari bere eskumenak gauzatzen laguntzea.

**b)** Lehendakariak eskuordetzan emandako edo legeek aitortutako eskumenak.

**3.** Lehendakariak gobernu-batzarreko kideei eman diezaieke zenbait eskumen gauzatzeko eskuordetza, baina, eginkizun zehatzetarako, edozein diputaturi eman diezaioke eskumenen eskuordetza berezia, nahiz eta gobernu-batzarreko kide ez izan.

**4.** Lehendakariordeek lehendakaria ordezten dute, beren izendapen-hurrenkeraren arabera, lehendakariak kargua hutsik laga nahiz bera kanpoan aurkitu zein gaixorik dagoenean. Lehendakariak askatasunez izendatzen ditu lehendakariordeak gobernu-batzarreko kideen artetik.

## II. Kapitulua. Eskumenak

### 36. artikulua.

**1.** Diputazioaren berezko eskumenak dira, gai honetan, herri-ekintzako arlo guztietan Estatuko eta autonomia-erkidegoetako legeek egotzitakoak; nolanahi ere, hauek:

**a)** Udal-zerbitzuak beren artean koordinatzea, 31. artikuluko 2. zenbakiko a) idatz-zatian aipatutako moduan zerbitzuak osorik eta egoki betetzea ziurtatzeko.

**b)** Udalerriei, eta bereziki ekonomiaren aldetik eta kudeaketarako gaitasun txikia dutenei, laguntza eta lankidetza juridiko, ekonomiko eta teknikoa ematea.
**c)** Udalerriaz gaindiko eta, hala badagokio, eskualdez gaindiko zerbitzu publikoak betetzea.
**d)** Probintziako lurraldearen garapen ekonomiko eta soziala sustatzeko eta plangintza egiteko lankidetza ematea, arlo horretan beste herri-administrazioek dituzten eskumenekin bat etorriz.
**e)** Orokorrean, probintziaren interes bereziak sustatzea eta administratzea.

**2.** Aurreko zenbakiko a) eta b) idatz-zatietan ezarritakoaren ondorioetarako, diputazioak:

**a)** Udalerrien eskumeneko obra eta zerbitzuetarako lankidetza-plan bat onartzen du urtero probintzia osorako, eta probintziako udalerriek parte hartu behar dute hori lantzen. Plana diputazioaren beraren baliabideez, udalen ekarpenez eta autonomia-erkidegoak eta Estatuak bakoitzak bere aurrekontuaren kontura onartutako dirulaguntzez finantzatu ahal izango da, eta planaren helburuen eta funtsak banatzeko irizpideen gaineko txosten justifikatzailea jaso behar da planean, beti ere irizpideok objektiboak eta bidezkoak izanda. Autonomia-estatutuetan aitortutako eskumenen eta aurrez bere gain hartu eta estatutuek sendetsitako eskumenen aurka jarri gabe, autonomia-erkidegoak ziurtatu egiten du, bere lurraldean, probintziako planen koordinazioa, lege honetako 59. artikuluan aurreikusitakoarekin bat etorriz.
Estatuak eta autonomia-erkidegoak, kasua denean, zenbait irizpide eta baldintzaren pean jar ditzakete dirulaguntzak, erabili edo ezarri ahal izateko.
**b)** Udalerriaren eskumeneko gutxieneko zerbitzu-multzoaz baliatzeko aukera ziurtatu behar die probintziako biztanleei, baita zerbitzu horiek betetzerakoan eraginkortasun eta ekonomiarik handiena izatea ere, udalerriei laguntza emateko eta udalerriekin lankidetzan aritzeko edozein formula erabiliz. Helburu horrekin, plan bereziez zein bestelako berariazko tresnez baliatuz egituratutako dirulaguntzak eta laguntzak eman ahal izango dituzte diputazioek beren funtsen kontura, udalerrietako obra eta zerbitzuak egiteko eta mantentzeko.

### 37. artikulua.

**1.** Autonomia-erkidegoek diputazioei eman diezazkieke zenbait eskumen eskuordetzan, baita beren zerbitzuen ohiko kudeaketa haiei gomendioan eman ere, bakoitzaren estatutuetan aurreikusitako eran. Azken kasu horretan, erkidegoen jarraibide orokor eta zehatzei estu lotuta jardun beharko dute diputazioek.

**2.** Estatuak, dagokion autonomia-erkidegoari iritzia eskatu eta horren txostena jaso ondoren, diputazioei eman diezazkieke zenbait eskumen eskuordetzan betearazteko, zerbitzu horiek betetzeko esparrurik egokiena probintzia denean.

**3.** Eskuordetzan emandako ahalmenak gauzatzerakoan 27.artikuluan xedatutakora egoki behar dira diputazioak.

### 38. artikulua.

Lege honetako kapitulu honetan eta gainerakoetan diputazioentzat ezarritako aurreikuspenak berdin aplikatuko zaizkie probintziaren autonomiaren gobernua eta administrazioa egokitu eta ordezkaritza duten beste korporazioei ere.

## III. Kapitulua. Araubide bereziak

### 39. artikulua.

Araba, Gipuzkoa eta Bizkaiko foru-organoek eutsi egiten diote beren araubide bereziari, Euskal Herriko Autonomia Estatutuaren esparruan. Hala ere, lege honetako xedapenak osagarri moduan aplikatuko zaizkie.

### 40. artikulua.

Probintzia bakarreko autonomia-erkidegoek eta Nafarroako Foru Komunitateak beregain hartzen dituzte probintzietako diputazioei ohiko araubidean dagozkien eskumenak, bitartekoak eta baliabideak. Salbuespen da Balear Uharteetako Autonomia Erkidegoa, bertako estatutuan jartzen duenaren arabera.

### 41. artikulua.

**1.** Kanariar Uharteetako kabildoak, uharte bakoitzeko gobernu, administrazio eta ordezkaritzako organo direnez, lege honetako hamalaugarren xedapen gehigarrian jasotako arauen bidez arautzen dira, eta osagarri moduan, probintzietako diputazioen antolakuntza eta jarduera arautzen dituzten arauen bidez, diputazioen eskumenak beren gain hartuta, Kanarietako Autonomia Estatutuan xedatutakoari kalterik eragin gabe.

**2.** Kanariar Uhartedian bizirik diraute uharteen arteko probintzia mankomunitateak, probintzietako interesak ordezkatzeko eta adierazteko organo bezala baino ez bada ere. Probintzia bakoitzeko uharteetako kabildoetako lehendakariek osatzen dituzte organo horiek, eta probintziako hiriburua dagoen uharteko kabildoko lehendakaria da buru.

**3.** Balear Uharteetako Uharte Kontseiluei probintzietako diputazioen antolakuntza eta jarduera arautzen dituzten lege honetako arauak aplikatuko zaizkie, eta beren gain hartzen dituzte lege honetan xedatutakoaren arabera dagozkien eskumenak eta Balear Uharteetako Autonomia Estatutuaren arabera dagozkienak.

# IV. TITULUA. BESTE TOKI-ERAKUNDE BATZUK

### 42. artikulua.

**1.** Autonomia-erkidegoek, beren estatutuetan ezarritakoaren arabera, zenbait udalerri elkartuko dituzten eskualde edo erakundeak sortu ahal izango dituzte, udalerrion berezitasunei dagozkien interes komunek berariazko kudeaketa edo zerbitzuak maila horretan ematea eskatzen dutenean.

**2.** Eskualde bat sortzeko ekimena udalerri interesdunek beraiek har dezakete. Nolanahi ere, ezin izango da eskualderik sortu, bertan elkartu beharreko udalerrietatik bi bostenak aurka dagoela adierazten badu; beti ere, kasu horretan, udalerri horiek dena delako lurraldeko hautesle-erroldaren erdia edo gehiago ordezkatu behar dute. Eskualdeak probintzia bat baino gehiagoko udalerriak batu behar dituenean, udalerri horien lurralde-eremuetako probintzietako diputazioen aldeko txostena ezinbestekoa izango da.

**3.** Autonomia-erkidegoetako legeetan zehaztuko da eskualdeen lurralde-eremua, batuko dituzten udalak ordezkatzeko moduan eratutako gobernu-organoen osaera eta jarduteko modua, baita esleituko zaizkien eskumenak eta diru-baliabideak ere.

**4.** Eskualdeak sortzeak ez du esan nahi 26. artikuluan zerrendatutako zerbitzuak emateko eskumena galduko dutenik udalerriek, ez eta 25. artikuluko 2. paragrafoan zerrendatutako arlo bakoitzean esku-hartzea ukatuko zaienik ere.

### 43. artikulua.

**1.** Autonomia-erkidegoek, Estatuko Administrazioari eta udal eta diputazio interesdunei entzun ondoren, metropolialdeak sortu, aldatu eta ezabatu ahal izango dituzte lege bidez, bakoitzak bere estatutuetan ezarritakoaren arabera.

**2.** Hiri-aglomerazio handietako udalerriek osatutako toki-erakundeak dira metropolialdeak. Horien biztanleguneen artean dauden ekonomia eta gizarteko loturek beharrezkoa egiten dute zenbait zerbitzu eta obren plangintza batera egitea eta horiek koordinatzea.

**3.** Autonomia-erkidegoko legediak zehaztuko ditu gobernuko eta administrazioko organoak, metropolialdean batutako udalerri guztiak ordezkatuta egoteko moduan; berdin ekonomia-araubidea eta jarduteko modua ere, erabakiak hartzerakoan udalerri guztien parte hartzea eta beren arteko karga-banaketa egokia dela bermatzeko eran; eta metropolialdean bete edo egin beharreko zerbitzuak eta obrak, eta horiek gauzatzeko prozedura.

### 44. artikulua.

**1.** Udalerriei, beren eskumeneko zenbait obra eta zerbitzu elkarrekin burutzeko, beste udalerri batzuekin mankomunitateetan elkartzeko eskubidea aitortzen zaie.

**2.** Mankomunitateek nortasun eta gaitasun juridikoak dituzte beren helburu zehatzak betetzeko, eta beren estatutuen bidez arautzen dira. Estatutuetan arautu behar dira erakundearen lurralde-eremua, xedea eta eskumena, gobernu-organoak eta baliabideak, iraunaldia eta beren jardunerako beharrezko diren beste arlo guztiak.
Nolanahi ere, gobernu-organoen ordezkaritza mankomunitatean bildutako udalen adierazgarri izan behar da.

**3.** Mankomunitateen estatutuak onartzeko prozedura autonomia-erkidegoetako legedian zehaztuko da, eta, nolanahi ere, arau hauetara egokitu behar da:

> **a)** Mankomunitatearen sustatzaile diren udalerri guztietako zinegotziei dagokie estatutuak egitea, batzarrean bilduta.
> **b)** Horretan interesa duten probintzietako diputazioek estatutuen proiektuari buruzko txostena emango dute.
> **c)** Udal guztietako osoko bilkurek onartuko dituzte estatutuak.

**4.** Pareko prozedura beteko da mankomunitateak aldatu zein ezabatzeko.

**5.** Autonomia-erkidego bat baino gehiagoko udalerriak bil daitezke mankomunitate batean, baldin eta autonomia-erkidego horietako araudiek hala egitea onartzen badute.

### 45. artikulua.

**1.** Autonomia-erkidegoetako toki-araubideari buruzko legeek arautuko dituzte udalerria baino lurralde-eremu txikiagokoak diren erakundeak, sakabanatutako biztanleguneen kudeaketa deszentralizatua egin ahal izateko, erakundeon ohiko izenak errespetatuz: baserri, parrokia, herrixka, auzo, elizate, kontzeju, alkate-auzo, alberriak eta antzeko beste batzuk, edo legeek ezar ditzatenak erabiliz.

**2.** Nolanahi ere, arau hauek bete behar dira:

**a)** Ekimena berdin proposa dezake interesa duen biztanleek zein bertako udalak. Nolanahi ere, udalari beti entzun behar zaio.
**b)** Zuzenean hautatutako kide bakarreko organo betearazle bat eta kide anitzeko kontrol-organo bat izango ditu erakundeak; azken horretako kide-kopurua ezin da bi baino gutxiago izan, ez eta udala osatzen duten zinegotzien kopuru osoaren herena baino gehiagokoa ere.
Kide anitzeko organoko kideen izendapena, kide bakarreko organoa aukeratzeko barrutia osatzen duten sail edo sailetan udalerako egindako hauteskundeen emaitzen arabera egingo da.
Hala ere, 29. artikuluko 1. paragrafoan aurreikusitako ezaugarriak dituzten erakundeei kontzeju irekiko araubidea ezarri ahal izango zaie.
**c)** Ondasunak xedatzeari, kreditu-eragiketei eta jabetza nahitaez kentzeari buruzko erabakiak udalak berretsi beharko ditu.

# V. TITULUA. TOKI-ERAKUNDEEI BURUZKO XEDAPEN OROKORRAK

## I. Kapitulua. Jardun-araubidea

### 46. artikulua.

**1.** Toki-erakundeetako kide anitzeko organoak ohiko bilkurak egingo ditu, aurrez ezarritako aldizkotasunez, eta bilkura bereziak ere bai; azken horiek presakoak izan daitezke.

**2.** Nolanahi ere, toki-korporazioen osoko bilkuren jarduna arau hauetara egokitzen da:

**a)** Osoko bilkurak hilero egingo du gutxienez ohiko bilkura 20.000 biztanle baino gehiagoko udalerrietako udaletan, eta probintziako diputazioetan; bi hilabetetik behin egingo du 5.001 biztanletik 20.000 biztanle arteko udalerrietako udaletan; eta hiru hilabetetik behin, 5.000 biztanle arteko udalerrietan. Osoko bilkurak, halaber, bilkura bereziak egingo ditu bai lehendakariak eskatzen duenean zein korporazioko kideen legezko kopuruaren laurden batek gutxienez eskatzen duenean, baina zinegotzi batek ere ezin izango du eskatu hirutan baino gehiagotan urtean. Bilkura berezien kasuan, bilkura egiteko eguna ezin izango da atzeratu hamabost egun baliodun baino gehiago, eskatzen denetik, eta gaia ezin izango da sartu osoko ohiko bilkura bateko gai-zerrendan, ez eta gai gehiago dituen bilkura berezi batean ere, azken bilkura hori eskatu dutenek berariaz onartzen ez badute.
Baldin eta goian aipatutako zinegotzi-kopuruak eskatutako osoko bilkura berezirako deialdirik adierazitako epean lehendakariak egiten ez badu, berez eta besterik gabe deia eginda geldituko da aipatutako epea amaitzen den egunaren hurrengo hamargarren egun baliodunerako, eguerdiko hamabietarako, eta hala jakinaraziko die korporazioko idazkariak bertako kide guztiei goian aipatutako epea amaitu eta biharamunean. Lehendakaria edo

legez bere ordezko dena bilkurara agertzen ez bada, osoko bilkura hori balio osoz eratuko da manu honetako **c)** idatz-zatian aipatutako quoruma batzen bada; halakoetan, bertaratutako kideen artean adinez nagusien den korporazioko kidea izango da buru.

**b)** Gutxienez bi egun baliodun aurretik egin behar da osoko bilkuretarako deia, presako bilkura berezien kasuan izan ezik, osoko bilkurak sendetsi beharko baitu presatasun hori. Gai-zerrendan sartutako gaien dokumentazio osoa zinegotzien edo diputatuen eskura egon behar da deialdiko lehenengo egunetik korporazioko idazkaritzan, eztabaidarako oinarri izango baita, eta hala badagokio, baita bozketarako ere.

**c)** Osoko bilkura balio osoz eratzeko, kideen legezko kopuruaren herena bertaratu behar da, beti ere, gutxienez hiru. Quorum hori bilkura osoan egon beharko da.

Nolanahi ere, beharrezkoa da korporazioko lehendakaria eta idazkaria bertaratzea, edo haiek legez ordezten dituztenak.

**d)** Ohiko bozketaz hartzen dira erabakiak, osoko bilkurak, kasu zehatzen baterako, izenezko bozketa bidez egitea erabakitzen ez badu behintzat. Botoa baiezkoa edo ezezkoa izan daiteke, eta korporazioko kideek bozketan abstentzioa aukeratu dezakete.

Behin gairen bati buruz eztabaidatzen hasi eta gero, zinegotzi edo diputaturen bat edo batzuk falta badira, gai horri dagokion bozketan abstentzioa aukeratzearen bestekoa izango da.

Bozketa egin eta berdinketa egonez gero, beste bozketa bat egingo da; eta berriz ere berdinketa balego, lehendakariaren kalitateko botoak ebatziko du.

**e)** Ohiko osoko bilkuretan korporazioko beste organoak kontrolatzeko jarritako parteak bere gorputz-zatia izan beharko du, erabakien partetik bereizita, benetan udaleko talde guztiei eskariak, galderak eta mozioak aurkezteko garaian beren parte hartzea bermatzeko, bai jarduteko moduan, bai arautzeko moduan ere.

### 47. artikulua.

**1.** Toki-korporazioen erabakiak, arau orokor moduan, bertaratutako kideen gehiengo soilaz hartzen dira. Baiezko botoak ezezkoak baino gehiago direnean gehiengo soila izango da.

**2.** Korporazioko legezko kide-kopuruaren gehiengo osoaren aldeko botoa behar da, jarraian agertzen diren arloetan erabakiak hartzeko:

**a)** Udalerriak sortu eta ezabatu, eta udal-mugarteak aldatzeko.

**b)** Lege honetako 45. artikuluan aipatutako erakundeak sortu, aldatu eta ezabatzeko.

**c)** Udal-mugartearen mugak onartzeko.

**d)** Udalerriaren izena eta udalerriburuaren kokalekua aldatzeko.

**e)** Bertako bandera, ikurra zein armarria onartu nahiz aldatzeko.

**f)** Korporazioaren erregelamendu organikoa onartu eta aldatzeko.

**g)** Mankomunitateak eta beste elkarte-antolakunde batzuk sortu, aldatu edo desegiteko, baita horiei atxiki, eta bertako estatutuak onartu eta aldatzeko ere.

**h)** Beren eginkizunak edo jarduerak beste herri-administrazio batzuei eskualdatzeko, baita beste administrazio batzuek emandako eskuordetzak zein kudeaketarako gomendioak onartzeko, legeak nahitaez ezarritakoak ez badira.

**i)** Herri-ondasunen aprobetxamendua edozein tituluz lagatzeko.

**j)** Ondasunak zein zerbitzuak bost urte baino gehiagorako emakidan ematea, beti ere, horien zenbatekoak aurrekontuko baliabide arrunten %20 gainditzen badu.

**k)** Monopolio-araubideko jarduerak udalak zein probintziak bere gain hartzeko, eta horiei dagokien zerbitzua kudeatzeko modu zehatza onartzeko.

**l)** Finantza-eragiketak zein kreditu-eragiketak onartzeko, eta kitak eta itxaroteak emateko, horien zenbatekoak aurrekontuko baliabide arrunten %10 gainditzen badu, baita Toki-ogasunak arautzen dituen abenduaren 28ko 39/1988 Legeko 158.5 artikuluan aurreikusitako kreditu-eragiketak onartzeko ere.

**ll)** Hirigintzako legedian plangintza orokorrerako aurreikusitako tresnak izapidetzen korporazioak hartu beharreko erabakiak hartzeko.

**m)** Ondasunak besterentzeko, horien kopuruak aurrekontuko baliabide arrunten %20 gainditzen badu.

**n)** Jabari publikoko ondasunen edo herri-ondasunen kalifikazio juridikoa aldatzeko.

**ñ)** Beste herri-administrazio edo erakunde batzuei ondasunak doan lagatzeko.o) Legean zehaztutako gainerako arloak.

**3.** Lege honetako 121. artikuluan aipatutako udalerrietan erabakiak hartzeko arauak 123. artikuluko 2. paragrafoan jasotakoak dira.

### 48. artikulua.

Estatu Kontseiluaren irizpena aginduzkoa den gaietan, autonomia-erkidego bakoitzeko lehendakariak egingo du eskabidea, Lurralde Administrazioko Ministerioaren bidez.
Zenbait autonomia-erkidegotako lurralde-eremukoak diren erakundeek batera eskatu behar dutenean irizpena, Administrazio Publikoetako Ministerioaren bidez egingo da eskabidea, biztanle gehien duen erakundeak eskatuta.

### 49. artikulua.

Toki-ordenantzak onartzeko prozedura hau bete behar da:

**a)** Udaleko osoko bilkurak hasierako onarpena ematea.

**b)** Gutxienez 30 egunean jendaurrean jarrita izatea eta interesdunei entzunaldia ematea, erreklamazioak eta iradokizunak aurkez ditzaten.

**c)** Epe barruan aurkeztutako erreklamazio eta iradokizun guztiak erabakitzea eta osoko bilkurak behin betiko onarpena ematea.

Inolako erreklamazio edo iradokizunik aurkezten ez bada, ordura arte behin-behinekoa zen erabakia behin betikoa dela ulertuko da.

### 50. artikulua.

**1.** Toki-korporazio baten menpeko organoen eta erakundeen artean sortutako eskumen-gatazkak hauek ebatziko dituzte:

**a)** Osoko bilkurak, gatazkok kide anitzeko organoei, bertako kideei zein 45. artikuluan aurreikusitako toki-erakundeei badagozkie.

**b)** Alkateak edo korporazioko lehendakariak, gainerako kasuetan.

**2.** Toki-erakundeen artean jarritako eskumen-gatazkak autonomia-erkidegoko administrazioak edo Estatuko Administrazioak ebatziko ditu, dagokien autonomia-erkidegoei entzunaldia eman ondoren, erkidego berekoak edo erkidego bat baino gehiagokoak diren kontuan hartuta, nahiz eta emandako ebazpenari administrazioarekiko auzien jurisdikzioan aurka egin ahal izango zaion gerora.

**3.** Autonomia-erkidego bat gehiagoko udalerrien artean beren udal-mugartea mugatzeari buruz sortutako auziak Estatuko Administrazioak ebatziko ditu, Geografia Institutu Nazionalaren txostena jaso, udalerri eta autonomia-erkidego interesdunei entzun eta Estatu Kontseiluaren irizpena jaso ondoren.

### 51. artikulua.

Toki-erakundeen egintzak berehala betearazi beharrekoak dira, legezko xedapenen batek aurkakoa ezartzen duen kasuetan edo legearen arabera haien eraginkortasuna eteten denean izan ezik.

### 52. artikulua.

**1.** Administrazio-bidea amaitzen duten toki-erakundeen egintzen eta erabakien aurka bidezkoak diren akzioak aurkeztu ahal izango dizkiote interesdunek eskumenak dituen jurisdikzioari; hala ere, aukerako berraztertzeko errekurtsoa jarri ahal izango da aldez aurretik.

**2.** Ondoren agertzen diren organoen eta agintarien ebazpenek amaitu egiten dute administrazio-bidea:

- **a)** Osoko bilkurarenek, alkate edo lehendakarienek eta gobernu-batzarrarenek, arlo jakinen bateko legeren batek Estatuko Administrazioaren edo autonomia-erkidegokoaren geroko onarpena eska dezan kasu berezietan, edo lege honetako 27.2 artikuluko kasuetan administrazio horiei errekurtsoa aurkeztu ahal zaienean izan ezik.
- **b)** Beheragoko agintari eta organoenak, alkatearen, lehendakariaren edo administrazio-bidea amaitzen duten beste organoen eskuordetzaz ebatzi dezaten kasuetan.
- **c)** Beste edozein agintari zein organorenak, legezko xedapen batean hala ezartzen bada.

### 53. artikulua.

Lege honetako 65, 67 eta 110. artikuluetan jasotako aurreikuspen zehatzen aurka jarri gabe, toki-korporazioek beren egintzak eta erabakiak berriro aztertu ahal izango dituzte administrazio-prozedura erkidea arautzen duen Estatuko legedian Estatuko Administrazioarentzat ezarrita dagoen bezala.

### 54. artikulua.

Toki-erakundeek zuzenean erantzungo dute administrazioaren erantzukizunari buruzko legedi orokorrean ezarritakoaren arabera, zerbitzu publikoen jardunaren ondorioz edo agintarien, funtzionarioen edo agenteen jardunaren ondorioz norbanakoei beren ondasun eta eskubideen gainean sorrarazitako kalte eta galerei dagokienez.

### 55. artikulua.

Administrazioen arteko koordinazioa benetakoa eta administrazioa eraginkorra izateko, Estatuko eta autonomia-erkidegoetako administrazioek alde batetik, eta toki-erakundeek bestetik, elkarren arteko harremanetan, hau egin behar dute:

**a)** Gainerako administrazioek beren eskumenak zuzenbidearen arabera erabiltzea eta horrek bakoitzari ekar liezazkiokeen ondorioak errespetatu.

**b)** Ongi neurtu, norberaren eskumenak baliatzerakoan, ukitutako interes publiko guztiak, eta, zehazki, gainerako administrazioei kudeatzeko gomendioan emandakoak.

**c)** Gainerako administrazioei beren kudeaketaren gainean, administrazioek beren eginkizunak egoki gara ditzaten, garrantzizkoa den informazioa eman.

**d)** Norberaren eremuan lankidetza eta laguntza aktiboak eman gainerako administrazioei, beren eginkizunak modu eraginkorrean betetzeko behar dituztenean.

### 56. artikulua.

**1.** Toki-erakundeek Estatuko eta autonomia-erkidegoetako administrazioei beren egintzen eta erabakien kopia bat edo laburpen bat igortzeko eginbeharra dute, erregelamenduz zehaztutako epeetan eta moduan. Korporazioetako lehendakariak eta, horien hurrena, idazkariak dira eginbehar hori betetzeko erantzukizuna dutenak.

**2.** Nolanahi ere, Estatuko eta autonomia-erkidegoetako administrazioek, hurrenez hurren estatuko eta autonomietako legediaren aplikazioan eraginkortasuna ikustearren, udal-jarduerari buruzko informazio zehatzak eskatzeko eta lortzeko ahalmena izango dute, eta espedienteak erakusteko eta txostenak egiteko ere eska dezakete.

**3.** Estatuko eta autonomia-erkidegoetako administrazioek erraztasunak eman behar dizkiete toki-erakundeetako legezko ordezkariei zuzenean eragiten dieten obren eta zerbitzuen plangintza, programazio eta kudeaketako tresnetara iristeko.

### 57. artikulua.

Toki-administrazioaren eta Estatuko eta autonomia-erkidegoetako administrazioen arteko ekonomia, teknika eta administrazioko arloetako lankidetza, bai toki-zerbitzuetan bai guztien intereseko gaietan, borondatez burutuko da, legeetan ohartemandako moduan eta erara; nolanahi ere, izenpetu ditzaten administrazio-mailako partzuergo edo hitzarmenen bidez ere burutu daiteke.
Administrazio horietako batek burututako lankidetza-erabaki bakoitzaren berri emango zaie akordio horretan parte hartu ez arren horretan interesa duten gainerako administrazioei, eten gabe elkarren berri izan dezaten.

### 58. artikulua.

**1.** Estatuko eta autonomia-erkidegoetako legeek, administrazioa koordinatzeko, administrazio horien eta toki-erakundeen arteko lankidetzarako organoak sortu ahal izango dituzte. Organo horiek eztabaida-gune edo aholku-emaile izango dira soilik, autonomia-erkidegoa edo probintzia izan dezakete eremu, eta orokorrak edo arlokakoak izan daitezke.
Inbertsioen arloan eta zerbitzuak emateari buruzko arloan Estatuko Administrazioaren eta toki-administrazioaren arteko lankidetza ziurtatzeko, toki-administrazioko lurralde-batzorde bat sortu

ahal izango du gobernuak autonomia-erkidego bakoitzean. Erregelamenduz ezarriko dira batzorde horren osaera, antolakuntza eta jarduteko modua.

**2.** Estatuko Administrazioak eta autonomia-erkidegoetako administrazioek bakoitzak bere aldetik ezarritako lankidetzarako organo bakoitzean bi administrazioek parte hartu ahal izango dute.
Nolanahi ere, plangintza-tresnak zehaztu eta onartzeko eskumena duten administrazioek partaidetza eman beharko diete besteei, eragindako herri-interesak harmonizatu ahal izateko moduan.
Udalerriek berei dagozkien herri-lanetako plan orokorrak egiten parte-hartzea, arloko legediak xedatutakoarekin bat etorriz egingo da. Era berean, beste administrazio batzuek, beren eskumeneko jabari publikoari buruzko emakiden eta baimenen gainean, erabilera erabakitzeko eta ebazpenak hartzeko, ezinbesteko baldintza izango da jabari publiko hori dagoen lurraldeko udalerrien aurretiko txostena onartzea, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legeko 82 eta 83. artikuluetan ezarritakoarekin bat etorriz.

## 59. artikulua.

**1.** Herri-administrazioen jardueran koherentzia ziurtatzearren, 10. artikuluaren 2. paragrafoan aurreikusitako kasuetan, eta aurreko artikuluetan jasotako prozeduraren bidez helburu hori lortu ezinekoa denean, zein dena delako eginkizun publikoaren ezaugarriengatik nabarmen agertzen bada prozedura horiek ez direla egokiak, herri-ekintzako arloak arautzen dituzten Estatuko legeek eta autonomia-erkidegotakoek Estatuko gobernuari edo gobernu-kontseiluari egotzi ahal izango diete toki-administrazioaren jarduera koordinatzeko ahalmena, batez ere probintzietako diputazioen jarduera beren eskumenak gauzatzerakoan.
Koordinazioa definizio zehatz baten bidez burutuko da eta interes orokor edo erkidegokoetako gai, zerbitzu edo eskumen jakin batzuei dagokienez, dagokion arloko helburuak finkatzeko eta herri-ekintzako lehentasunak zehazteko arlokako planen bidez. Plan horiek izapidetzean aurreko artikuluko 2. paragrafoan xedatutakoa bete beharko da.
Toki-erakundeek beren eskumeneko zerbitzuen edo jardueren programazio, plangintza edo antolamenduko ahalmenak aurreko lerroaldean aipatutako planen aurreikuspenaren esparruan burutuko dituzte.

**2.** Nolanahi ere, legeak zehaztu egin beharko ditu, nahikoa xehetasunez, koordinazioaren baldintzak eta mugak, eta Gorte Nagusiek edo dagokien legebiltzarrek berentzat gordeko dituzten kontrol-moduak.

## 60. artikulua.

Toki-erakunderen batek legeak zuzenean ezarritako betebeharrak beteko ez balitu, eta ez betetze horrek Estatuko Administrazioaren edo autonomia-erkidegoko administrazioaren eskumenen erabileran eraginik izango balu, eta betebeharren gaineko ekonomia lege edo aurrekontu bidez bermatuta balego, batak zein besteak, bakoitzak bere eskumen-esparruaren arabera, duen eginbeharra gogorarazi beharko dio toki-erakundeari, horretarako beharrezkoa den epea jarriz. Epe hori hilabetekoa izango da gutxienez, eta epea igaro arren betebeharra bete gabe jarraitzen badu, betebeharra toki-erakundearen kontura eta ordez betetzeko beharrezko neurriak hartuko dira.

### 61. artikulua.

**1.** Ministroen Kontseiluak, bere ekimenez eta dagokion autonomia-erkidegoko gobernu-kontseilua jakinaren gainean egonik, zein batzorde horren eskariz, beti ere Senatuak aldeko erabakia hartu ondoren, toki-korporazioetako organoak desegin ahal izango ditu errege-dekretu bidez, interes orokorrentzako guztiz kaltegarri den kudeaketa-kasuetan, Konstituzioan ezarritako betebeharrak ez betetzea balekarte.

**2.** Baldin eta, toki-korporazioetako organoen erabakiek zein jarduerek, terrorismoari zein hori gauzatzen parte hartzen dutenei, modu adierazian zein isilbidez, behin eta berriz eta larri, estaldura nahiz laguntza ematen badiete, hura goratu zein justifikatzen badute, eta biktimak zein beren familiakoak gutxietsi nahiz apaltzen badituzte, aurreko paragrafoan aurreikusi bezala interes orokorretarako guztiz kaltegarritzat jotzen dira.

**3.** Desegitea erabaki ondoren, hauteskunde-legedi orokorra aplikatuko da, hauteskunde partzialetarako dei egiteko, eta beti, korporazioaren behin-behineko ohiko administrazioa arautzeko araudia.

### 62. artikulua.

Jarduerаren izaera dela-eta alorrean erabakitzeko ahalmenei dagokienez izendapen berezi eta desberdin bat egitea oso zaila denean edo egokia ez den kasuetan, herri-ekintza arautzen duten legeek, horri dagokionez, nolanahi ere, zera ziurtatuko diete toki-erakundeei, Estatuko Administrazioarekin batera eta/edo dagokion autonomia-erkidegokoarekin batera jardunetan edo prozeduretan parte-hartzea edo esku-hartzea. Aipatutako administrazio horietako bati aitortuko diote azken erabakia hartzeko ahalmena.
Teknika horiek ez dute, inolaz ere, toki-erakundeak bere zerbitzuak bere kabuz antolatzeko duen ahalean eraginik izango.

## III. Kapitulua. Egintzei eta erabakiei aurka egitea, eta akzioak baliatzea

### 63. artikulua.

**1.** Administrazioarekiko auzi-prozesuaren araubide orokorrean legezkotutako pertsonekin batera, hauek ere toki-erakundeen egintzei eta erabakiei aurka egin ahal izango diete, erakundeok ordenamendu juridikoa hausten dutenean:

- **a)** Estatuko Administrazioak eta autonomia-erkidegoetakoak, kapitulu honetan aurreikusitako kasu eta moduetan.
- **b)** Egintza eta erabaki horien aurka botoa eman duten korporazioetako kideek.

**2.** Lurralde-mailako toki-erakundeak ere legezkotuta daude Estatuko Administrazioaren eta autonomia-erkidegoetakoen xedapenen eta egintzen aurka egiteko, beren autonomia kaltetzen badute, Konstituzioak eta lege honek ziurtatzen duten bestean.

**3.** Toki-erakundeak ere legezkotuta daude, Konstituzioan bermatutako toki-erakundeen autonomiari Estatuko legeek edo autonomia-erkidegoetakoek kalte egiten dietela uste dezatenean, lege honetako 119. artikuluan dioen moduan Konstituzio Auzitegian aurka egiteko.

### 64. artikulua.

Estatuko Administrazioak eta autonomia-erkidegoetakoak, bestalde, aurreko 56. artikuluko 1. paragrafoan aipatutako informazioa gehitzea eska dezakete, eta gehienez ere hogei egun baliodunkeko epean bidali beharko zaie, lege honetako 67. artikuluan aurreikusitakoa salbuespen dela, horretan bost egun baliodunekoa izango da eta. Kasu horietan eten egiten dira 65. artikuluko 2. paragrafoan eta 67. artikuluko 1. paragrafoan aipatutako epeak, eta eskatutako informazioa jasotzen denean hasten dira kontatzen berriro.

### 65. artikulua.

**1.** Estatuko Administrazioak zein autonomia-erkidegoetakoak, bakoitzari dagozkion eskumenen esparruan, toki-erakunderen baten egintza edo erabakiren batek ordenamendu juridikoa hausten duela uste badu, gehienez ere hilabeteko epean egintza edo erabaki hori deuseztatzeko errekerimendua egin ahal izango du artikulu hau berariaz aipatuta.

**2.** Errekerimendua arrazoitua izan beharko da eta ustez hautsitako araua adierazi beharko da bertan. Erabakiaren jakinarazpena jasotzen denetik hamabost egun baliodunekoa izango da errekerimendua egiteko epea.

**3.** Estatuko Administrazioak edo, hala balegokio, autonomia-erkidegokoak, egintzaren edo erabakiaren aurka egin lezake administrazioarekiko auzien jurisdikzioan, jurisdikzio hori arautzen duen legean administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jartzeko aipatutako epean, toki erakundeari bidalitako errekerimenduaren epea amaitzen den egunaren biharamunetik zenbatuta, edo errekerimendua atzera botaz toki-erakundeak egindako jakinarazpena hartzen denetik zenbatuta, horretarako adierazitako epean egiten bada.

**4.** Estatuko Administrazioak edo, hala balegokio, autonomia-erkidegokoak, egintzaren edo erabakiaren aurka zuzenean ere egin lezake administrazioarekiko auzien jurisdikzioan, errekerimendua egin beharrik izan gabe, jurisdikzio hori arautzen duen legean aipatutako epean.

### 66. artikulua.

Bai Estatuaren edo autonomia-erkidegoen eskumenei kalte eragin diezaieketen toki-erakundeen egintzak edo erabakiak, bai eskumenez baliatzen utzi ez edo aipatu erakundeen eskumenak gainditu ditzatenak, aurreko artikuluan aurreikusitako edozein prozedura erabiliz inpugnatu ahal izango dira.
Aurka egiten denean, zehaztu egin behar da zein den eskumenei egindako kaltea edo, hala balegokio, zein gainditu diren eskumenen mugak, eta aurka egiteko oinarri hartu diren hautsitako lege-arauak. Horrez gain, aurka egindako egintza edo erabakia eteteko berariazko eskaera jasoko balu, interes orokorraren edo erkidegoaren interesaren osotasunean eta eraginkortasunean arrazoituta, Auzitegiak, oinarririk baduela uste badu, egintza edo erabakia eteteko erabakia hartuko du aurka egitea aurkeztu eta hurrengo lehengo izapidean. Hala ere, toki-erakundeak eskaturik eta auzi-jartzailea den administrazioari entzun ondoren, Auzitegiak edozein momentutan altxa dezake, osorik edo zati batean, berak agindutakoa etetea, baldin eta agindu horren ondorioz tokiko interesari kalterik egingo balitzaio, eta aurka egitean arrazoitutako interes orokorraren edo erkidegoaren interesaren eskakizunetan egiaztatu ez bada.

### 67. artikulua.

**1.** Toki-erakunderen batek Espainiaren interes orokorraren kontrako eraso larri diren egintzak edo erabakiak hartuko balitu, Gobernuaren ordezkariak, egintza edo erabaki horiek jaso eta hurrengo hamar eguneko epean korporazioko lehendakariari horiek deuseztatzeko errekerimendua egin ondoren, horiek etetea erabaki lezake, eta esandako interesak babesteko bidezko neurriak hartu.

**2.** Eteteko eskabidean korporazioko lehendakariari emandako epea ezin da izan bost egunetik gorakoa. Eteteko ahalmena erabiltzeko epea hamar egunekoa izango da, errekerimenduaren epea amaitzen den egunaren edo korporazioko lehendakariaren erantzunaren egunaren biharamunetik kontatuta.

**3.** Egintza edo erabakiren bat etetea erabaki ondoren, hurrengo hamar egunetan inpugnatu beharko du Gobernuaren ordezkariak administrazioarekiko auzien jurisdikzioan.

### 68. artikulua.

**1.** Toki-erakundeek beren ondasunen eta eskubideen alde egiteko beharrezko akzioak baliatzeko betebeharra dute.

**2.** Bere eskubide zibilen eta politikoen gozamen osoan dagoen edozein auzotarrek eskatu ahal izango dio doakion erakundeari horiek betetzeko. Errekerimendu horren berri emango zaie akzioen eragina jaso ditzaketenei, eta errekerimenduak hogeita hamar egun baliodunez etengo du akzio horiek baliatzeko epea.

**3.** Toki-erakundeak, aipatu hogeita hamar eguneko epean, eskatu zaizkion akzioak baliatzea erabakitzen ez badu, auzotarrek toki-erakundearen izenean eta haren interesaren alde baliatu ahal izango dute delako akzio hori.

**4.** Akzioak aurrera egiten badu, auzi-jartzaileak eskubidea izango du prozesuko kostuak eta gertatu zaizkion kalte eta galera guztien ordaina toki-erakundearen aldetik jasotzeko.

## IV. Kapitulua. Herritarrei informazioa ematea eta beraien parte-hartzea

### 69. artikulua.

**1.** Toki-korporazioek ahalik eta informaziorik zabalena emango dute beren jarduerei buruz eta herriko kontuetan herritar guztien partaidetza bultzatuko dute.

**2.** Korporazioek beren burua antolatzeko ahalaz baliatuz ezar ditzaten partaidetzako moduek, baliabideek eta prozedurek inolaz ere ezin izango dituzte gutxietsi lege bidez arautatako ordezkaritza-organoei dagozkien erabakitzeko ahalmenak.

## 70. artikulua.

**1.** Toki-korporazioen osoko bilkurak jendaurrekoak dira. Hala ere, isilpekoak izan daitezke Konstituzioko 18.1 artikuluan aipatutako herritarren oinarrizko eskubideari eragin diezaioketen arazoei buruzko eztabaida eta bozketa, gehiengo osoak hala egiteko erabakia hartzen badu.
Tokiko gobernu-batzarraren bilkurak ez dira jendaurrekoak.

**2.** Toki-korporazioek hartutako erabakiak legean aurreikusi bezala argitaratu edo jakinarazten dira. Ordenantzak, hirigintzako planetako arauen artikulu-zatiak barne, baita hirigintzako planetako erabakiak ere horien behin betiko onarpena toki-erakundeen eskumenekoa denean, probintziako "Aldizkari Ofizialean" argitaratuko dira, eta ez dira indarrean jarriko testua osorik argitaratu eta 65.2. artikuluan aurreikusitako epea igaro arte; aurrekontuak eta ordenantza fiskalak salbuespen dira, Toki-ogasunak arautzen dituen abenduaren 28ko 39/1988 Legean ezarritako moduan argitaratu eta jarriko baitira indarrean. Hirigintza-arloan eskumenak dituzten herri-administrazioek beren lurralde-eremuan indarrean dagoen plangintzako kopia osoak izan behar dituzte eskatu nahi dituzten herritarren eskura.

**3.** Herritar guztiek dute toki-korporazioen erabakiak eta horien aurrekariak egiaztatzeko kopiak eta ziurtagiriak eskuratzeko eskubidea, baita artxibo eta erregistroetara jotzeko ere, Konstituzioko 105. artikuluko b) idatz-zatia garatzeko legedian xedatutako eran. Eskubide hori ukatzea edo mugatzea, Estatuaren segurtasun eta defentsari dagokienean, eta delituak ikertzeari edo pertsonen bizitza pribatuari ukitzen dienean, arrazoitutako ebazpenen bidez frogatu beharko da.

## 70 bis artikulua.

**1.** Udalek, arau organikoen bidez, tokiko bizitza publikoko gaietan auzotarrek benetako parte-hartzea izan dezaten egokitutako prozedurak eta organoak ezarri eta arautu behar dituzte, bai udalerri osorako zein barrutietarako, baldin eta udalerrian halako lurralde-banaketarik badago.

**2.** Udal-hauteskundeetan botoa emateko eskubidea duten auzotarrek herri-ekimena erabil dezakete, udalerrien eskumeneko gaiei buruzko erabaki-proposamenak zein jarduera-proposamenak, nahiz erregelamendu-proiektuak aurkeztuz. Udalerriko auzotarren ehuneko hauek gutxienez izenpetu behar dituzte ekimen horiek:

**a)** 5.000 bizilagun arteko udalerrietan, ehuneko 20k.
**b)** 5.001etik 20.000 bizilagun arteko udalerrietan, ehuneko 15ek.
**c)** 20.001 bizilagunetik gorako udalerrietan, ehuneko 10ek.

Ekimen horiek osoko bilkuran eztabaidatu eta bozkatu beharko dira, gaiaren arabera eskumenak dituen organoak erabaki ahal izango dituen arren. Nolanahi ere, udaleko idazkariaren aldez aurreko txostena eskatuko da legezkotasunari buruz, eta berdin kontu-hartzailearen txostena ere ekimenak udalaren ekonomiako eskubideei eta betebeharrei eragiten badie. Lege honetako 121. artikuluan aipatutako udalerrien kasuan, osoko bilkurako idazkari nagusiak egingo du legezkotasunari buruzko txostena, eta ekimenak ekonomiako eskubideei eta betebeharrei eragiten dienean udaleko kontu-hartzaile nagusiak egingo du txostena.

Idatz-zati horretan xedatutakoa ez doa gai honi buruzko autonomia-legediaren aurka.

Ekimen horiek tokian tokiko herri-galdeketarako proposamena har dezakete barruan, eta 71. artikuluan aurreikusitako prozeduraren eta eskakizunen arabera izapidetuko da kasu horretan.

**3.** Era berean, toki-erakundeek eta, bereziki, udalerriek, informazio eta komunikazioko teknologien erabilera interaktiboa bultzatu behar dute, auzotarren parte-hartzea eta komunikazioa errazteko, agiriak aurkezteko eta administrazioko izapideak, inkestak eta, hala denean, herri-galdeketak egiteko.
Udalerriek, ekonomiarako eta kudeaketarako gaitasun nahikorik ez dutelako, paragrafo honetan ezarritako eginbeharra maila nahikoan bete ezin badute, probintzietako diputazioek, kabildoek eta uharteetako kontseiluek jardungo dute haiekin lankidetzan.

### 71. artikulua.

Estatuko eta autonomia-erkidegoko legediaren arabera, estatutuan autonomia-erkidegoari horretarako eskumena aitortzen zaionean, osoko bilkuraren gehiengo osoak hala erabaki eta Estatuko Gobernuak baimena eman ondoren, auzotarren intereserako berebiziko garrantzia duten udalaren eskumeneko eta toki-izaerako arazoei buruzko herri-galdeketa egin ahal izango dute alkateek, toki-ogasunari dagokion arazoetan izan ezik.

### 72. artikulua.

Toki-korporazioek lagundu egiten dute auzotarren interes orokorren edo arlokoen alde egiten duten elkarteen garapena, beren jarduerei buruzko informaziorik ahalik eta zabalena ematen diete, eta beren ahalbideen baitan, baita herri-baliabideak erabiltzea eta beren jarduerak aurrera eramateko dirulaguntzetara iristea ere, eta korporazioaren kudeaketan auzotarren parte-hartzea bultzatzen dute, hori guztia 69. artikuluko 2. paragrafoan ezarritakoaren arabera. Esandakoaren ondorioetarako herri-onurako jo daitezke.

## V. Kapitulua. Toki-korporazioetako kideen estatutua

### 73. artikulua.

**1.** Hauteskunde-legedian arautuko dira toki-korporazioetako kideen kopurua zehaztea, kideok aukeratzeko prozedura, horien agintaldiaren iraupena, eta hautagai ez izateko kasuak eta bateraezintasun-kasuak.

**2.** Toki-korporazioetako kideek, behin karguaren jabetza hartutakoan, Estatuko edo autonomia-erkidegoetako legeak ezarri eta karguari darizkion ohore, prerrogatiba eta pribilegioak dituzte, eta karguak berarekin daramatzan eginbeharrak eta betebeharrak estu betetzera behartuta daude.

**3.** Korporazio bezala jarduteko, toki-korporazioetako kideak talde politikoetan eratuko dira, ezar daitezen eran eta eskubide eta betebeharrekin; salbuespen izango dira hautagai-zerrenda baten izenean hautatuak izan eta gero, zerrenda hori eratu duen talde politikoan sartu ez edo jatorrizko taldea utz dezatenak, atxiki gabeko kidetzat hartuko dira eta.
Korporazioko osoko bilkurak diru-zuzkidura bat izendatu dezake talde politikoentzat korporazioko urteko aurrekontuen kontura; osagai bat finkoa izango da, talde guztientzat berdina, eta beste osagaia aldakorra, talde bakoitzeko kide-kopuruaren arabera, Estatuko aurrekontu orokorren legeetan orokorrean ezar daitezen mugen barruan; eta ezin izango dira erabili korporazioaren zerbitzura diharduten ezelango langileen lansariak ordaintzeko, ez eta ondare moduan aktibo finkoak eratzeko balio dezaketen ondasunak eskuratzeko ere.

Atxiki gabeko kideen eskubide ekonomiko eta politikoak ezin dira izan jatorrizko taldean jarraitu izan balute egokituko zitzaizkienak baino handiagoak, eta korporazio bakoitzeko erregelamendu organikoan zehaztutako eran gauzatuko dira.
Aurreikuspen hori ez da aplikatuko hautagai-zerrendak hauteskunde-koalizio bezala aurkezten direnean, baldin eta koalizioa osatzen duten alderdi politikoetakoren batek koalizioa uztea erabakitzen badu.
Talde politikoek aparteko kontabilitatea eraman behar dute 3. paragrafoko bigarren idatz-zatian aipatutako zuzkidurari buruz, eta korporazioko osoko bilkuraren eskura jarri beharko dute hark eskatzen dienean.
Udal-talde politikoren bateko zinegotzirik gehienek, hauteskundeetara talde politiko horrek aurkeztutako hautagai-zerrendan joan arren, talde politiko hori uztea erabakitzen badute nahiz bertatik iraizten badituzte, aipatutako talde politikoan gelditzen diren zinegotziak izango dira talde politiko horren legezko ordezkariak ondorio guztietarako. Nolanahi ere, hautagai-zerrenda aurkeztu zuen alderdi politikoaren legezko ordezkariarengana jo dezake korporazioko idazkariak, aipatutako inguruabarrak egiazta ditzan.

## 74. artikulua.

**1.** Toki-korporazioetako kideak zerbitzu bereziko egoeran geratzen dira honako kasu hauetan:

**a)** Korporazio baterako aukeratuak izan eta bertako funtzionario direnean.
**b)** Beste herri-administrazio batzuetako karrerako funtzionarioak izan eta korporazioren baterako aukeratuak izan direnak, bertan ordaindutako eta arduraldi esklusiboko kargua betetzen badute.
Kasu biotan, egoera horretako korporazioek dagozkien nahitaezko mutualitateetako kotizazioak ordainduko dituzte, mutualitatean egotera behartzen zituen zerbitzua betetzeari utz diezaioten funtzionarioentzat, klase pasiboen kuotetara hedatuz.

**2.** Lan-kontratuko langileentzat ere arau berberak daude indarrean, beren legeri zehatzean aurreikusitakoaren arabera.

**3.** Toki-korporazioetako kideei, egoera horretan arduraldi esklusiborik ez badute, bermatu egiten zaie aukeratuak izan diren unean zerbitzua betetzen ari ziren lantoki publiko nahiz pribatuan jarraituko dutela beren agintaldian; horrela, ezin izango dira lekuz aldatu ez eta beste leku batzuetan hutsik dauden lanpostuetarako lehiaketetan parte-hartzera behartu ere.

## 75. artikulua.

**1.** Toki-korporazioetako kideek ordainsariak jasoko dituzte karguak betetzeagatik, arduraldi esklusiboan badihardute; kasu horretan alta emango zaie Gizarte Segurantzako erregimen orokorrean, eta korporazioek beren gain hartuko dute enpresaren parteko kuotak ordaintzea, aurreko artikuluan xedatutakoa salbuespen dela.
Ordainsari horien kasuan, horiek jasotzea bateraezina da administrazio publikoen eta administrazio horien menpeko ente, erakunde eta enpresen aurrekontuen konturako beste inolako ordainsariak hartzearekin; bateraezina da, halaber, beste jarduera batzuk garatzearekin ere; eta hori guztia Administrazio Publikoen Zerbitzuko Langileen Bateraezintasunen abenduaren 26ko 53/1984 Legeko baldintzetan.

**2.** Lehendakaritzako edo lehendakariordetzako eginkizunak egiteko, zein eskuordetzako eginkizunak betetzeko, arduraldi partzialeko karguak betetzen dituzten toki-korporazioetako

kideek, baita halako dedikazioa eskatzen duten erantzukizunak betetzen dituztenek ere, horretara benetan emandako denborari dagozkion ordainsariak jasoko dituzte; kasu horretan horiei ere alta emango zaie Gizarte Segurantzako erregimen orokorrean, kontzeptu horretarako, eta korporazioek beren gain hartuko dute enpresaren parteko kuotak ordaintzea, aurreko artikuluan xedatutakoa salbuespen dela. Ordainsari horiek inola ere ezin izango dituzte gainditu Estatuko aurrekontu orokorren legeetan finkatutako mugak, hala bada. Arduraldi partziala erantsita izango duten karguak eta horien ordainsariak zehazteko osoko bilkuretako erabakietan bertan jaso behar da aipatutako ordainsariak jasotzeko beharrezko gutxieneko arduraldia.

Administrazio publikoetako eta administrazio horien menpeko ente, erakunde eta enpresetako langile diren toki-korporazioetako kideek bakoitzak bere lantokiko lanalditik kanpo eginkizunak arduraldi partzialez betetzeagatik jaso ditzaketen ordainsariak, abenduaren 26ko 53/1984 Legeko 5. artikuluan aipatutako baldintzetan baino ezingo dira izan, artikulu honetako seigarren paragrafoan xedatutakoaren aurka jarri gabe.

**3.** Ez arduraldi esklusiborik ez arduraldi partzialik ez duten toki-korporazioko kideek baino ez dituzte jasoko beren korporazioko kide anitzeko organoetako bilkuretara benetan joatearren dagozkien laguntzak, korporazioko osoko bilkurak adierazitako kopurukoak.

**4.** Toki-korporazioetako kideek beren karguak betetzean benetan egindako gastuen kalte-ordainak jasoko dituzte, administrazio publikoetan orokorrean aplikatzekoak diren arauen arabera, eta haien garapenean korporazioko osoko bilkurak onar ditzan arauen arabera hain zuzen.

**5.** Toki-korporazioek beren aurrekontuetan jaso behar dituzte aurreko lau zenbakietan aipatutako ordainsariak, kalte-ordainak eta laguntzak, orokorrean ezar daitezen mugen barruan, hala bada. Probintziako “Aldizkari Ofizialean” argitaratu behar dira oso-osorik, eta korporazioko iragarki-oholean jarri, arduraldi esklusiboko eta partzialeko karguen ordainsariak eta arduraldi partzialeko karguen araubidea, kalte-ordainak eta laguntzak onartzen dituzten osoko bilkuretako erabakiak, eta arduraldi esklusiboz edo partzialez beren eginkizunak beteko dituzten kideak zehazteko korporazioko lehendakariak hartutako erabakiak.

**6.** Langileen Estatutuko 37.3. d) artikuluan eta 30/1984 Legeko 30.2. artikuluan xedatutako ondorioetarako, edozein toki-korporaziotako hautetsi-kargua betetzeko ezinbesteko denboratzat jotzen da korporazioko osoko bilkuretara edo batzordeetakoetara joateko eta interesduna parte izanik berak eskuordetzan betetzen dituen eginkizunei erantzuteko behar duen guztia.

**7.** Toki-korporazioetako kide guztiek aitorpena egingo dute bateraezintasuna sor dezaketen arrazoien gainean eta diru-sarrerak ematen dizkieten zein eman diezazkieketen jarduera guztiei buruz.

Era berean, beren ondare-ondasunen gaineko aitorpena ere egingo dute.

Aitorpen bi horiek osoko bilkurek onartutako ereduetan egingo dira, eta karguaz jabetu aurretik, kargua uzten denean eta gertakariak aldatzen diren bakoitzean egingo dira.

Toki-korporazio bakoitzean eratutako Interesen Erregistro bitan inskribatuko dira aitorpen horiek. Bateraezintasuna sor dezaketen arrazoien gaineko eta jardueren gaineko erregistroa publikoa izango da.

Betetzen duten karguaren eraginpean, beren segurtasun pertsonala zein beren ondasun edo negozioena, beren senideena, bazkideena, enplegatu zein berekin harreman ekonomiko-profesionalak dituzten pertsonena mehatxatuta ikusten duten toki-korporazioetako kideek interesen aitorpenak egin ditzakete, artikulu honetako aurreko paragrafoetan esandakoaren

arabera, probintziako diputazioko idazkariaren aurrean zein, kasua beste hau bada, bakoitzaren autonomia-erkidegoko organo eskudunaren aurrean. Aitorpen horiek Interesen Erregistro Berezian jasoko dira, horretarako sortuko baita esandako erakundeetan.
Kasu horietan, toki-korporazioetako kideek ziurtagiri soil eta laburra emango diote bakoitzaren korporazioko idazkariari beren aitorpenak egin dituztela eta aurreko paragrafoan aipatutako Interesen Erregistro Berezian jasota daudela egiaztatzeko, erregistroaren ardura duen funtzionarioak eginda.

### 76. artikulua.

Legean ezarritako bateraezintasun-arrazoien aurka jarri gabe, toki-korporazioetako kideek ez dute eztabaidetan, bozketan, erabakietan eta betearaztean parte hartuko gaia edozein dela ere, administrazio-prozeduraren eta herri-administrazioaren kontratazioen legedian aipatutako arrazoiren bat gertatzen denean. Arrazoi horiek tarteko direla toki-korporazioetako kideek jarduten badute, eta jarduera erabakigarria izan bada, beren partaidetzaz onartutako egintzak baliogabeak izango dira.

### 77. artikulua.

Toki-korporazioetako kide guztiek dute korporazioko zerbitzuen esku egon eta beren eginkizunak garatzeko beharrezko aurrekariak, datuak edo argibideak alkate edo lehendakariarengandik edo gobernu-batzordearengandik lortzeko eskubidea.
Aurreko lerroaldean jasotako eskubidea gauzatzeko eskabidea aurkeztu ondorengo hurrengo egutegiko bost egunetan ebatzi beharko da arrazoiak emanda.

### 78. artikulua.

**1.** Toki-korporazioetako kideak erantzukizun zibilaren eta zigor-erantzukizunaren menpean daude beren kargua betetzerakoan egindako egintza eta ez-egiteak direla-eta. Eskudun diren auzitegietan eskatuko dira erantzukizunak, eta aplikatzekoa den prozedura arruntaz izapidetuko dira.

**2.** Toki-korporazioen erabakien erantzule, bertan aldeko botoa eman duten kideak dira.

**3.** Toki-korporazioek erantzukizuna eskatu ahal izango diete bertako kideei, doloz edo erru larriz korporazioari edo besteri kalteak eta galerak sorrarazi badizkiete, eta korporazioak besteri kalte-ordainak eman badizkio.

**4.** Toki-korporazioetako lehendakariek isuna jarri ahal izango diete bertako kideei, baldin eta bilkuretara ez joateko arrazoirik ematen ez badute edo beren betebeharrak behin eta berriz bete gabe uzten badituzte, autonomia-erkidegoko legean eta, horren osagarri gisa, Estatukoan ezarritakoaren arabera.

# IV. TITULUA. ONDASUNAK, JARDUERAK ETA ZERBITZUAK, ETA KONTRATAZIOA

## I. Kapitulua. Ondasunak

### 79. artikulua.

**1.** Toki-erakundeen ondarea berenak diren ondasun, eskubide eta akzio guztien artean osatzen dute.

**2.** Toki-erakundeen ondasunak herri-jabarikoak edo ondarekoak dira.

**3.** Herri-jabariko ondasunak dira erabilera edo zerbitzu publikorako direnak. Herri-ondasunak dira, aldiz, beren aprobetxamendua auzotar guztiei dagokienean.

### 80. artikulua.

**1.** Herri-ondasunak eta gainerako herri-jabariko ondasunak besterenduezinak, enbargaezinak eta preskribaezinak dira eta ez daude inolako zergaren menpe.

**2.** Ondare-ondasunak beren berariazko legediaz arautzen dira, eta, halakorik ezean, zuzenbide pribatuko arauez.

### 81. artikulua.

**1.** Toki-erakundeen ondasunen kalifikazio juridikoa aldatzeko, hori egitearen egokitasuna eta legezkotasuna egiazta dezan espedientea behar da.

**2.** Hala ere, berez eta besterik gabe egiten da aldaketa kasu hauetan:

**a)** Hiri-antolamenduko planak eta obra eta zerbitzuetako proiektuak behin betiko onartzen direnean.
**b)** Ondare-ondasunak hogeita bost urte baino gehiagorako erabilera edo zerbitzu publikoren bati atxikitzen zaizkionean.

### 82. artikulua.

Toki-erakundeek, beren ondasunei dagokienez, prerrogatiba hauek dituzte:

**a)** Herri-jabariko ondasunen edukitza edonoiz berreskura dezaketela erakundeok beren kabuz; ondare-ondasunak, aldiz, urtebeteko epean.
**b)** Mugak jartzekoa. Estatuko Ondarearen Legedian eta, hala balegokio, mendien legedian ezarritakora lotuko da.

### 83. artikulua.

Amankomuneko herri-basoak beren berariazko legediaren bidez arautzen dira.

### 84. artikulua.

**1.** Toki-korporazioek bide hauei esker esku hartu ahal izango dute herritarren jardueran:

**a)** Ordenantzen eta bandoen bidez.
**b)** Aurretiazko baimenak eta aldez aurreko beste kontrol-modu batzuk ezarriz.
**c)** Banakoei dagokien agindu bidez, bai egintza bat betearazteko, bai galarazteko ere.

**2.** Esku-hartzea, beti ere, tratu berdinean, bidezkotasun-arrazoien eta helburuen arteko adostasunean eta norbanakoen askatasunarekiko errespetuan oinarritutako printzipioei lotuko zaie.

**3.** Beste herri-administrazio batzuek emandako lizentziek zein baimenek ez dituzte toki-erakundeetan dagozkien lizentziak lortzetik salbuesten titularrak, eta arloko legeetan xedatutakoa errespetatu beharko da beti ere.

### 85. artikulua.

**1.** Tokiko zerbitzu publiko dira toki-erakundeek beren eskumenen baitan betetzen dituztenak.

**2.** Toki-eskumeneko zerbitzu publikoak era hauetakoren batez kudeatu ahal izango dira:

**A)** Zuzeneko kudeaketaz:
**a)** Toki-erakundearen beraren kudeaketaz.
**b)** Tokiko erakunde autonomo baten bidez.
**c)** Tokiko enpresa-entitate publiko baten bidez.
**d)** Tokiko merkataritza-sozietate baten bidez, bere sozietatearen kapitala oso-osorik toki-erakundearena edo toki-erakundearen ente publikoren batena bada.
**B)** Zeharkako kudeaketaz, ekainaren 16ko 2/2000 Legegintzako Errege Dekretuaz onartutako Herri-administrazioen Kontratuen Legearen testu bategineko 156. artikuluan zerbitzu publikoen kudeaketa kontratatzeko aurreikusitako eretakoren baten bidez.

**3.** Ez zeharkako kudeaketaz, ez sozietatearen kapitala tokikoa soilik duen merkataritza-sozietate baten bidez, behin ere ezin izango da eman agintaritzaz baliatzea eskatzen duen zerbitzu publikorik.

### 85bis artikulua.

**1.** Toki-eskumeneko zerbitzuen zuzeneko kudeaketa, edo tokiko erakunde autonomoen bidez egiteko, edo tokiko enpresa-entitate publikoen bidez egiteko, Estatuko Administrazio Orokorraren Antolakuntza eta Jardueraren apirilaren 14ko 6/1997 Legeko 45tik 52ra arteko eta 53tik 60ra arteko artikuluetan xedatutakoaz arautuko dira hurrenez hurren, aplikagarriak zaizkien heinean, berezitasun hauek kontuan hartuta:

**a)** Toki-erakundeko osoko bilkurari dagokio erakunde eta entitate horiek sortzea, aldatzea, bategitea eta kentzea, eta berak onartuko ditu haien estatutuak ere. Toki-erakundeko zinegotzigo, eremu edo pareko organoren bati atxikita gelditu behar dira, nahiz eta, tokiko enpresa-entitate publikoen kasuan, tokiko erakunde autonomoren bati atxikitzea ere izango

duten. Salbuespenez, beren izaera bereko edo bestelako beste ente batzuk zuzendu edo koordinatzeko eginkizuna estatutu bidez aginduta duten tokiko enpresa-entitate publikoak ere egon daitezke.

**b)** Erakunde eta entitate horien zuzendaritzako organo goreneko titularra, edo herri-administrazioetako karrerako funtzionario bat zein lan-kontratupeko bat, edo arlo pribatutako profesional bat izan behar da, goi-mailako tituluduna kasu biotan, eta bost urte baino gehiagoko lanbide-aztura duena bigarrenaren kasuan. Lege honetako X. tituluan aipatutako udalerrietan, zuzendaritza-organotzat hartuko da.

**c)** Tokiko erakunde autonomoetan artezkaritza-kontseilu bat egon behar da, eta kontseilu horren estatutuetan zehaztuko da bere osaera.

**d)** Tokiko enpresa-entitate publikoetan administrazio-kontseilu bat egon behar da, eta kontseilu horren estatutuetan zehaztuko da bere osaera. Administrazio-kontseiluko idazkariak funtzionario publikoa izan behar du, eta goi-mailako titulazioa eskatu behar zaio funtzionario izateko; berak fede publikoaren zerbitzuak beteko ditu eta erakunde horietako kide bakarreko eta kide anitzeko organoen lege-aholkularitza egingo du.

**e)** Ordainsarien baldintzak zehaztu eta aldatzeko, bai zuzendaritza-taldekoenak zein gainerako langileenak, dagokionaren arabera osoko bilkurak edo gobernu-batzarrak hortaz onartutako arauetara egokitu behar da beti.

**f)** Toki-erakundeko zinegotzigo, eremu edo pareko organoen kontrolpean egongo dira zerbitzuak, berariaz langileen gaineko gastuen bilakaerari eta giza baliabideen kudeaketari buruz.

**g)** Urtero bidali behar diote beren ondasun eta eskubideen inbentarioa toki-erakundeko zinegotzigo, eremu edo pareko organoari.

**h)** Toki-erakundeko zinegotzigo, eremu edo pareko organoren bati atxikita egonik, horren baimena beharko da berak aurrez finkatutako zenbatekoen gainetiko kontratuak egiteko.

**i)** Toki-erakundeko zinegotzigo, eremu edo pareko organoren bati atxikita egonik, horren kontrolpean egongo dira eraginkortasunari buruz.

**j)** Apirilaren 14ko 6/1997 Legean eta aplikagarriak diren estatuko gainerako arauetan estatuko organoei egindako edozein aipamen toki-erakundeko organo eskumendunei egiten zaiela ulertu behar da.

Artikulu honetan gobernu-batzarrari egindako aipamenak, batzar hori ez dagoen udalerrietan osoko bilkurari egiten zaizkiola ulertu behar da.

**2.** Tokiko erakunde autonomoen eta tokiko enpresa-entitate publikoen estatutuetan puntu hauek jaso behar dira:

**a)** Erakundeko zuzendaritza-organo gorenak zehaztu egin behar dira, bai kide bakarrekoak bai kide anitzekoak, baita haiek izendatzeko modua ere, aurreko paragrafoan xedatutakoa errespetatuz beti, eta administrazio-bidea agortzen duten egintzak eta ebazpenak adierazita.

**b)** Erakundearen eginkizunak eta eskumenak, erakundeak erabil ditzakeen administrazioko ahal orokorrak adierazita.

**c)** Enpresa-entitate publikoen kasuan, estatutuetan zehaztu behar da, halaber, zein organoren eskuetan uzten den administrazioko ahalak gauzatzea.

**d)** Beren helburuak betetzeko izendatutako ondarea, eta erakundea finantzatzeko izango dituen baliabide ekonomikoak.

**e)** Giza baliabideei, ondareari eta kontratazioari buruzko araubidea.

**f)** Aurrekontuen, ekonomia-finantzen, kontabilitatearen, kontuhartzailetzaren, finantzen kontrolaren eta eraginkortasunaren kontrolaren araubideak; nolanahi ere, toki-ogasunei

buruzko legedian eta lege honetako X. tituluko III. kapituluan xedatutakoarekin bat etorri behar dira.

**3.** Kasuan kasuko erakunde publikoa benetan jardunean hasi aurretik onartu eta argitaratu behar dira estatutuak.

### 85ter artikulua.

**1.** Tokiko merkataritza-sozietateak, edozein dela ere beren izaera juridikoa, ordenamendu juridiko pribatuaz arautuko dira erabat, aurrekontuen, kontabilitatearen, finantzen kontrolaren, eraginkortasunaren kontrolaren eta kontratazioaren araubideak aplikatu behar zaizkien gaietan izan ezik, eta artikulu honetako hurrengo paragrafoan adierazitakoari kalterik eragin gabe.

**2.** Erantzukizun mugatuko merkataritza-sozietateen eratakoren bat hartu behar du sozietateak, eta eratzeko agirian agertu behar da kapitala, oso-osorik toki-erakundeak edo bere ente publikoren batek ekarritakoa izan behar dena.

**3.** Estatutuetan zehaztuko da batzar orokorra eta administrazio-kontseilua izendatzeko era eta beren jarduera, baita beren zuzendaritza-organo gorenak ere.

### 86. artikulua.

**1.** Toki-erakundeek, neurria komenigarria eta egokia dela egiaztatzeko espedientearen bidez, jarduera ekonomikoak egiteko ekimen publikoaz balia daitezke, Konstituzioko 128.2 artikuluaren arabera.

**2.** Lehia askeko araubidean burutzen bada jarduera, korporazioko osoko bilkurari dagokio behin betiko onarpena ematea; berak erabakiko du zerbitzuaren kudeaketa-modu zehatza.

**3.** Toki-erakundeen alde gordetzen dira funtsezko jarduera edo zerbitzu hauek: uraren hornidura eta arazketa; hondakinak bildu, tratatu eta aprobetxatzea; gasa eta berokuntza hornitzea; hiltegi, merkatu eta lonja nagusiak; bidaiarientzako garraio publikoa; hileta-zerbitzuak. Estatuak eta autonomia-erkidegoek, bakoitzak bere eskumenen esparruan, berdin gorde ditzakete beste jarduera eta zerbitzuak ere lege bidez.
Jarduera horiek monopolio-araubidean benetan gauzatu ahal izateko, artikulu honetako 2. paragrafoan xedatutakoaz gain autonomia-erkidegoko gobernu-organoaren onarpena behar da.

### 87. artikulua.

**1.** Toki-erakundeek partzuergoak eratu ditzakete beste herri-administrazio batzuekin, guztien intereseko helburuetarako, baita herri-intereseko helburuak lortu nahi dituzten irabazi-asmorik gabeko erakunde pribatuekin ere, helburuok herri-administraziokoekin bat badatoz.

**2.** Tokiko zerbitzu publikoak kudeatzeko erabil daitezke partzuergoak, Espainiako toki-erakundeek parte hartzen duten mugaz haraindiko lankidetzako hitzarmenen baitan, eta Espainiak gaiaren inguruan berretsitako nazioarteko hitzarmenetako aurreikuspenekin bat etorriz.

## III. Kapitulua. Kontratazioa

### 88. artikulua.

Lege honetako 5. artikuluko c) idatz-zatian ezarritakoari kalterik eragin gabe, toki-korporazioen kontratazioak berezitasun hauek izango ditu:

**1.** Organoek kontratatzeko daukaten eskumena, Lege honetan eta toki-araubideari buruz autonomia-erkidegoetako legedian ezarritakoaz arautuko da.
**2.** Toki-erakundeekin kontratatzeko ezgaitasun eta bateraezintasun kasuak, Estatuko oinarrizko legediaren bidez zehaztuko dira.
**3.** Zenbatekoa dela eta, obren, zerbitzuen eta hornikuntzen kontratazioetan bakarrik egin ahal izango da zuzeneko kontratazioa, kontratazio horiek aurrekontuaren baliabide arrunten %5 gainditzen ez badute. Inolaz ere ezingo da gainditu herri-administrazio guztiei aplikagarri zaizkien oinarrizko arauetan zuzeneko kontratazioetarako ezarritako muga.
**4.** Korporazio kontratugilearen kutxan jarri beharko dira fidantzak.

# VII. TITULUA. TOKI-ERAKUNDEETAKO LANGILEAK

## I. Kapitulua. Xedapen orokorrak

### 89. artikulua.

Toki-erakundeetako langileak hauek dira: karrerako funtzionarioak, lan-zuzenbidepean kontratatutakoak eta konfiantzako edo aholkularitza bereziko lanpostuak betetzen dituzten behin-behineko langileak.

### 90. artikulua.

**1.** Toki-korporazio bakoitzari dagokio urtero, aurrekontuaren bidez, plantilla onartzea. Zerrenda horretan funtzionarioen, eta lan-kontratuko eta behin-behineko langileen lanpostu guztiak jaso beharko dira.
Plantillak arrazoizkotasun-, ekonomia- eta eraginkortasun-printzipioen araberakoak izan behar dira, eta ekonomiaren antolamendu orokorraren arabera ezarri behar dira. Langileen gastuek ezin dituzte gainditu orokorrean ezarritako mugak.

**2.** Toki-korporazioek beren antolakuntzan dauden lanpostu guztien zerrenda egin behar dute, funtzio publikoari buruzko oinarrizko legedian aurreikusitakoaren arabera.
Lanpostuen zerrendak, eredu moduko lanpostuen deskribapena eta lanpostuak sortzeko beharrezko baldintzak prestatuko dituzten arauak ezartzea Estatuari dagokio; baita administrazioko karrerako oinarrizko arauak ezartzea ere, bereziki goragoko maila eta taldeetara funtzionarioak sustatu ahal izateko.

**3.** Toki-korporazioek, gainerako herri-administrazioekin koordinaturik, langileen erregistroak eratuko dituzte, Gobernuak onartutako arauen arabera. Erregistro horretako datuen arabera zehaztuko dira soldaten ordainagiriak, ordainsari guztiak egiaztatuta egon daitezen.

### 91. artikulua.

**1.** Toki-korporazioek jendaurrera argitaratuko dute beren lan-eskaintza, Estatuko oinarrizko araudian zehaztutako irizpideei lotuta.

**2.** Langile guztien aukeraketa, bai funtzionarioena nahiz lan-kontratukoena, lan-eskaintza publikoaren bidez egin behar da, deialdi publikoa eginez, lehiaketaz, oposizioaz edo lehiaketa-oposizio libreaz baliatuta, Konstituzioan ohartemandako berdintasun-, merezimendu-, gaitasun- eta publizitate-printzipioak bermatuta.

## II. Kapitulua. Karrerako funtzionarioentzako xedapen orokorrak

### 92. artikulua.

**1.** Toki-administrazioko funtzionarioak, lege honetan xedatu gabeko guztietan, Estatuko eta autonomia-erkidegoetako legediak arautzen ditu, Konstituzioko 149.1.18. artikuluan jartzen duenaren arabera.

**2.** Funtzionarioen estatutupeko langileek soilik betetzeko gordetako funtzio publikoak hauek dira: aginpideaz baliatzea eskatzen dutenak, fede publikokoak eta aginduzko lege-aholkularitzakoak, ekonomia-finantzen eta aurrekontuen kudeaketaren barneko kontrol eta ikuskapenekoak, kontabilitatekoak eta diruzaintzakoak eta, orokorrean, lege honen garapenean, jarduna betetzerakoan objektibotasuna, inpartzialtasuna eta independentzia hobeto bermatzeko funtzionarioentzat gorde daitezenak.

**3.** Toki-korporazio guztietan gaikuntza nazionaleko funtzionarioentzat gordetako administrazio-erantzukizuneko nahitaezko funtzio publikoak dira:

> **a)** Idazkaritzakoak, fede publikokoak eta aginduzko lege-aholkularitzakoak barne.
> **b)** Ekonomia-finantzen eta aurrekontuen kudeaketaren barneko kontrol eta ikuskapenekoak, eta kontabilitatekoak, diru-zaintzakoak eta diru-bilketakoak.

**4.** Kontabilitate, diruzaintza eta diru-bilketako funtzioen administrazio-erantzukizuna korporazioko kideei edo gaikuntza nazionalik gabeko funtzionarioei aitortu ahal izango zaie, Estatuko legedian hala zehaztutako salbuespeneko kasuetan.

### 93. artikulua.

**1.** Toki-administrazioetako funtzionarioen oinarrizko ordainsariek funtzio publiko osorako orokorrean ezarritakoen egitura bera eta zenbateko berdina izango dute.

**2.** Ordainsari osagarriak, era berean, gainerako funtzionario publikoen balioespen objektiborako egitura eta irizpideetara egokituko dira. Ordainsari horien guztizko kopurua korporazioko osoko bilkurak zehaztuko du Estatuak ezarritako gehieneko eta gutxieneko mugen barne.

**3.** Toki-korporazioek aurrekontuetan sartuko dute urtero bertako funtzionarioen ordainsarien zenbatekoa, funtzio publikoari buruzko oinarrizko legedian aurreikusitakoaren arabera.

### 94. artikulua.

Toki-administrazioko funtzionarioen urteko lanaldia guztira Estatuko Administrazio Zibileko funtzionarioentzat aplikatutako berbera izango da.
Arau berberak ezarriko zaizkie lanaldiaren baliokidetzeari eta laburtzeari buruz.

### 95. artikulua.

Funtzionarioek beren sindikatuen bitartez laneko baldintzak zehazten parte-hartzea, funtzio publikoaren oinarrizko estatutuan herri-administrazio guztientzat orokorrean ezarritako bera izango da.

### 96. artikulua.

Toki Administrazioko Ikaskuntza Institutuak hobekuntza, espezializazio eta sustapenerako ikastaroak antolatuko ditu toki-erakundeetan dihardüten funtzionarioentzat, eta autonomia-erkidegoetako funtzionarioen institutu edo eskolekin nahiz korporazioek beraiek eratzea erabaki ditzaten mota horretako erakundeekin elkarlanean arituko da jardun horietan.

### 97. artikulua.

"Estatuko Aldizkari Ofizialean" argitaratu behar dira tokiko funtzio publikora sartzeko probetarako eta lanpostuak betetzeko lehiaketetarako deialdien iragarkiak.
Oinarriak "Probintziako Aldizkari Ofizialean" argitaratuko dira, gaikuntza nazionala lortzeko hautaprobetarako deialdiak izan ezik, kasu horretan "Estatuko Aldizkari Ofizialean" argitaratuko dira eta.

## III. Kapitulua. Gaikuntza nazionaleko funtzionarioak hautatzea eta prestatzea, eta lanpostuak betetzeko sistema

### 98. artikulua.

**1.** Lege honetako 92. artikuluko 3. paragrafoan aipatutako funtzionarioak hautatzea, prestatzea eta gaitzea Toki Administrazioko Ikaskuntza Institutuari dagokio, erregelamenduz onartutako oinarrien eta programen arabera.
Halako biztanleria-maila jakina duten korporazioei dagokienez, prestakuntza-ikastaroetara sartzeko hautaprobak egitea lurraldez deszentralizatu ahal izango da, Estatuko Administrazioak ezarritako moduan.
Toki Administrazioko Ikaskuntza Institutuak, hitzarmen bidez, gaikuntza nazionala lortu behar duten funtzionarioen prestakuntza autonomia-erkidegoetako funtzionarioen institutu edo eskolei eman beharko die eskuordetzan, hala eskatzen badute.

**2.** Aurreko zenbakian aipatutako gaikuntza lortu dutenak tokiko funtzio publikoan sartuko dira eta toki-erakunde bakoitzeko plantilletan funtzionario horientzat gordetako lanpostuak betetzeko dei egindako merezimendu-lehiaketetan parte hartzeko zilegitasuna izango dute.

## 99. artikulua.

**1.** Lehiaketa izango da lanpostuak betetzeko sistema arrunta eta merezimendu orokorrak hartuko dira kontuan lehiaketetan. Besteak beste, bakoitzak norberaren maila zehatz bat izatea, egindako lana balioestea, gainditutako prestakuntza eta hobekuntzako ikastaroak, eta antzinatasuna; horiekin batera, autonomia-erkidego bakoitzeko lurralde-antolaketako eta autonomiako araudiko berezitasunak jakitea, eta lanpostuaren ezaugarriekin zuzenean lotutako berariazko merezimenduak.
Merezimendu orokorrak nahitaez balioetsi beharrekoak izango dira beti, Estatuko Administrazioak zehaztuko ditu, eta lor daitezkeen puntu guztien 100eko 65era iritsiko dira horien puntuak, dagokien baremoaren arabera. Muga hori ez da arau izango beste merezimendurik ezartzen ez denean.
Autonomia-erkidego bakoitzeko lurralde-antolaketako eta autonomiako araudiko berezitasunak jakiteari dagozkion merezimenduak autonomia-erkidego bakoitzak finkatuko ditu, eta lor daitezkeen puntu guztien 100eko 10era arte iritsiko dira horien puntuak.
Berariazko merezimenduak toki-korporazio bakoitzak zehaztu ahal izango ditu, eta lor daitezkeen puntu guztien 100eko 25era arte iritsiko dira horien puntuak.
Toki-korporazioek onartuko dituzte lehiaketako oinarriak, eta bakoitzaren autonomia-erkidegoak zehaztuta ezar ditzakeen berariazko merezimenduak sartuko dituzte, baita autonomia horretako berezko hizkuntza ofiziala jakitea ere, autonomia bakoitzeko legedian aurreikusitako moduan.
Toki-korporazioetako lehendakariek egingo dituzte lehiaketetarako deialdiak, eta bakoitzak bere autonomia-erkidegora bidaliko ditu aldizkari ofizialetan aldi batera argitara daitezen, erregelamenduz finkatutako epeen barruan. Era berean, Administrazio Publikoen Ministerioak “Estatuko Aldizkari Ofizialean” argitaratuko du deialdion laburpena, eta epeak zenbatzeko oinarri izango da hori.
Toki-korporazioek erabakiko dituzte lehiaketak eta Administrazio Publikoen Ministerioari bidaliko dizkiote, ministerioak erabakien koordinazioa egin dezan, lehiakide berberari aldi berean esleipen bat baino gehiago ematea saihesteko, eta gero izendapenei forma eman diezaien. Izendapenak autonomia-erkidegoetako aldizkari ofizialetan eta “Estatuko Aldizkari Ofizialean” argitaratuko dira.
Administrazio Publikoen Ministerioak, osagarri moduan, urtero egingo du deialdia lehiaketa bidez bete beharreko gaikuntza nazionaleko toki-administrazioko funtzionarioentzat gordetako lanpostu hutsak betetzeko, merezimendu orokorren eta autonomia-erkidegoetako balioespenen arabera eta hizkuntza-eskakizunari buruz autonomia-erkidegoekin bat etorriz, lanpostuok egoera hauetakoren batean aurkitzen badira:

**a)** Lanpostuok hutsik egonik, lehiaketa arruntean toki-korporazioek horietarako deialdirik egin ez badute.
**b)** Lehiaketa arruntean deialdia egin arren, lanpostuok inork ere bete ez baditu.
**c)** Lehiaketa arruntean sartu arren, toki-korporazioak beste arrazoi batzuk medio esleitu gabe utzi baditu.
**d)** Toki-korporazioek sartzeko berariaz eskatutakoak, nahiz eta lehiaketa arrunterako deialdiaren ondoren bete gabe geldituatkoak izan. Baterako deialdian lanpostu berriak sartzeko eskabidea korporazioko lehendakariak egingo du eta Administrazio Publikoen Ministerioko Toki Administraziorako Zuzendaritza Nagusiari bidaliko dio.

**2.** Salbuespenez, gaikuntza nazionaleko kasuan kasuko azpi-eskala eta kategoriako funtzionarioek izendapen askez bete ahal izango dituzte lanpostuen zerrendan zehaztuta haientzat gordetako lanpostuak. Sistema hori lanpostuen eginkizunen zuzendaritza-izaera edo bereganatutako erantzukizun bereziaren arabera bakarrik onartu ahal izango da, baldin eta

probintzietako diputazioetako, uharteetako kabildo eta kontseiluetako, udaletako, autonomia-erkidegoetako edo probintzietako hiriburuetako eta ehun mila biztanle baino gehiagoko udalerrietako lanpostuei buruz, destino-osagarriko 30. maila izendatuta badute.

Kontu-hartzailetza eta diruzaintzako lanpostuen kasuan, aurreko eskakizunez gain, korporazioko aurrekontu arrunteko gutxieneko kopurua hiru mila milioi pezetatik gorakoa izan behar da.

Lanpostu horiek uztera behartutako funtzionarioei azpi-eskala eta kategoriako lanpostu bat bermatuko zaie korporazioan, eta korporazio horretako lanpostuen zerrendan agertu behar da lanpostu hori.

Korporazioko lehendakariak onartuko ditu lanpostuok betetzeko deialdiko oinarriak, eta lanpostuon izena eta lanpostuok betetzeko ezinbesteko eskakizunak jaso behar dira oinarrietan.

Korporazioko lehendakariari dagokio deialdia egitea, horretarako, lehiaketen publikotasun-eskakizuna betez; bai eta lehiaketa ebaztea ere, behin deialdian eskatutako baldintzak betetzen direla egiaztatu ondoren. Halaber, korporazioko lehendakariari dagokio osoko bilkurari ebazpenaren berri ematea.

**3.** Lanpostuaz jabetzearekin batera hartzen ditu izangaiak funtzionarioei jardunean egoteagatik darizkien eskubideak eta eginbeharrak, eta kasuan kasuko korporazioaren menpeko funtzionario bihurtzen da, nahiz eta Estatuko Administrazioak kargugabetzeko eta zerbitzutik behin betiko kentzeko diziplinazko ahalmena berea izan beti.

**4.** Nolanahi ere, gaikuntza nazionaleko tokiko funtzionarioen erregistroa egingo du Estatuko Administrazioak, eta erregistro horretan idatzi beharko dira, eraginkorrak izateko, funtzionario horien gorabehera eta egoera guztiak.

## IV. Kapitulua. Gainerako funtzionarioen hautaketa eta lanpostuak betetzeko arauak

### 100. artikulua.

**1.** Toki-korporazio bakoitzarena da lege honetako 92. artikuluko 3. paragrafoan aipatzen ez diren funtzionarioak hautatzeko eskumena.

**2.** Hala ere, Estatuko Administrazioari dagokio erregelamenduz hauek finkatzea:

> **a)** Funtzionario horien hautaketa eta prestakuntzako prozeduran bete beharreko oinarrizko arauak eta gutxieneko programak.
>
> **b)** Hautaprobetan parte hartzeko eskatutako ikasketa-tituluak, nahiz horietan parte hartzeko eskatu ahal diren Toki Administrazioko Ikaskuntza Institutuak eta autonomia-erkidegoetako funtzionarioen institutu edo eskolek emandako diplomak, ikasketa-tituluen osagarri bezala.

### 101. artikulua.

Aurreko artikuluan aipatutako funtzionarioek bete beharreko lanpostu hutsak betetzeko, deialdi publikoa egingo da merezimenduen lehiaketako edo izendapen askeko prozeduren bidez, administrazio publiko guztietan prozedura horiek arautzeko arauekin bat etorriz.

Lanpostuak betetzeko deialdi horietan, deialdia egiten duen erakundeko funtzionarioek parte hartzeaz gain, edozein administrazio publikoko funtzionarioek parte hartu ahal izango dute; hala ere, kasu horretan parte hartu ahal izateko, lanpostuen zerrendetan ezarritakoa bete beharko da.

### 102. artikulua.

**1.** Korporazioko lehendakariak onartutako oinarriez arautuko dira kapitulu honetan lanpostuak betetzeko aipatutako hautaprobak eta lehiaketak; lehendakariari dagokio horietarako deialdia egitea.

**2.** Hautaprobetan, epaimahaiak edo horretarako jarritako organoak emango dio gainditu dutenen zerrenda korporazioko lehendakariari, izendapena egin dezan; berari dagokio, halaber, lanpostuak betetzeko lehiaketak arrazoietan oinarrituta ebaztea, hautaketa-organoek aurrez proposamena eginda.

## V. Kapitulua. Lan-kontratuko eta behin-behineko langileak

### 103. artikulua.

Lan-kontratuko langileak korporazioak berak aukeratuko ditu; nolanahi ere, 91. artikuluan xedatutakoari lotu behar zaio, eta eskatutako betekizunak bildu ditzaten guztiei aukera berdinak emateko printzipioa errespetatuz.

### 104. artikulua.

**1.** Behin-behineko langileen kopurua, ezaugarriak eta ordainsariak korporazio bakoitzeko osoko bilkurak erabakiko ditu, agintaldiaren hasieran. Erabaki horiek urteko aurrekontuak onartzen direnean bakarrik aldatu ahal izango dira.

**2.** Funtzionario horiek izendatzea eta kargutik kentzea askea da eta kasuan kasuko toki-erakundeko alkateari edo lehendakariari dagokio. Nolanahi ere, berez eta besterik gabe kenduko zaie kargua konfiantzako edo aholkularitza bereziko funtzioa betetzen dutenei, funtzio hori agindu dieten agintariak kargutik kendu zein agintarion agintaldia amaitzen denean.

**3.** Enpleguko funtzionarioen izendapenak, beren ordainsarien araubidea eta beren dedikazioa probintziako "Aldizkari Ofizialean" argitaratuko dira eta, hala badagokio, korporaziokoan.

## VII. Kapitulua. Toki-ogasunak

### 105. artikulua.

**1.** Lege honetako 5. artikuluan aurreikusitako legediaren arabera, toki-erakundeen helburuak betetzeko nahikoa baliabidez hornituko dira toki-ogasunak.

**2.** Toki-ogasunak tributu propioez eta Estatuko eta autonomia-erkidegoetako tributuetan onartutako partaidetzez elikatzen dira, legeak aurreikusitako beste baliabideez gain.

### 106. artikulua.

**1.** Toki-erakundeek tributuak ezarri eta eskatzeko autonomia izango dute, toki-ogasunak arautzen dituen Estatuko legedian eta legedi horrek berariaz adierazitako kasuetan autonomia-erkidegoek emandako legeetan aurreikusitakoarekin bat etorriz.

**2.** Zerga-arloan toki-erakundeek erregelamenduak egiteko duten ahala beren tributuak arautzeko ordenantza fiskalen eta kudeaketa, bilketa eta ikuskapeneko ordenantza orokorren bidez beteko da. Ordenantza horiek ondo ulertzeko eta argitzeko xedapenak eman ditzakete toki-korporazioek.

**3.** Toki-erakundeen eskumenekoa da beren tributuen kudeaketa, bilketa eta ikuskapena, esparru zabalagoko toki-erakundeei zein beren autonomia-erkidegoei eskuordetzan eman badiezazkiekete ere, eta beste toki-erakunde batzuekin, autonomia-erkidegoekin zein estatuarekin lankidetza-moduak lotu baditzakete ere, beti ere Estatuko legedian ezarritakoarekin bat etorriz.

### 107. artikulua.

**1.** Tokiko tributuak arautzen dituzten ordenantza fiskalak probintziako edo, bestela, probintzia bakarreko autonomia-erkidegoko “Aldizkari Ofizialean” behin betiko argitaratzen diren unean hasiko dira aplikatzen, ordenantzetan bertan bestelako datarik adierazten ez bada.

**2.** Ordenantza fiskalek toki-erakunde bakoitzaren lurraldean behartzen dute, eta benetako bizilekua eta lurraldetasuna printzipiotzat hartuta ezartzen dira kasuen arabera.

### 108. artikulua.

Tokiko tributuen aplikazioari eta eraginkortasunari buruzko egintzen aurka, eta toki-erakundeen zuzenbide publikoko gainerako sarreren aurka, esaterako tributu-izaerakoak ez diren ondare-prestazio publikoen, prezio publikoen, eta isun eta zehapen ekonomikoen aurka, berraztertzeko errekurtsoa jarri ahal izango da, berariaz horretarako aurreikusita baitator Toki-ogasunak arautzen dituen Legean. Errekurtso hori aukerakoa izango da lege honetako X. tituluan aipatutako udalerrietan.

### 109. artikulua.

Estatuak, autonomia-erkidegoek, erakunde autonomoek, Gizarte Segurantzak eta zuzenbide publikoko beste edozein erakundek toki-erakundeekin izan ditzaten zorrak, nahiz alderantziz, guztiz eta zati batean kentzea adostu dezakete, konpentsazioz, baldin eta zorrak mugaeguneratuak, likidoak eta eskagarriak badira.

### 110. artikulua.

**1.** Korporazioko osoko bilkurari dagokio zerga-kudeaketaren bidean emandako egintzen erabateko deuseztasuna aldarrikatzea eta egintzak berrikustea, Zerga Lege Orokorreko 153 eta 154. artikuluetan ezarritako kasuetan eta prozeduraren arabera.

**2.** Gainerako kasuetan, toki-erakundeek ezin izango dituzte deuseztatu eskubideak aitortzen dituzten beren egintzak. Egintza horiek berrikusteko, herri-interesen kontrako direlako

kaltegarritzat jo behar dira aldez aurretik eta administrazioarekiko auzibidean inpugnatu, jurisdikzio horretako legearen arabera.

### 111. artikulua.

Tokiko tributuak ezartzeko, kentzeko eta antolatzeko erabakiak, baita horiei dagozkien ordenantza fiskalak aldatzeko ere, tokiko tributuak ezarri eta antolatzeko arau berezietan xedatutakoaren arabera onartu, argitaratu eta indarrean jarriko dira, eta ez zaie aplikatuko lege honetako 70.2. artikuluan 65.2. artikuluari buruz aurreikusitakoa.

### 112. artikulua.

**1.** Toki-erakundeek aurrekontu bakarra onartzen dute urtero. Aurrekontu horretan, zenbakitan adierazten dira, batera eta sailkatuta, urte horretako ekonomia-ekitaldian gehienez onar ditzaketen obligazioak eta epe-muga duten edo eskuratu nahi diren eskubideak. Aurrekontua bat dator urte naturalarekin, eta bertan sartzen dira bai erakundearena, bai nortasun juridikoa izan eta bere menpeko diren organismoenak eta toki-enpresenak ere.

**2.** Estatuko Administrazioak zehaztuko du orokorrean toki-erakundeen aurrekontuen egitura.

**3.** Hasiera batean aurrekontua onartuta, jendaurrean jarriko da aztergai toki-ogasunak arautzen dituen Estatuko legedian adierazitako epean, interesdunek aurrekontuaren gaineko erreklamazioak egin ditzaten. Aurkeztutako erreklamazioak erabaki ondoren, legean aurreikusi bezala, korporazioko "Aldizkari Ofizialean" argitaratuko da behin betiko onartutako aurrekontua, aldizkaririk badu, baita probintziakoan ere, laburtuta.

**4.** Aurrekontua ezarri behar den ekitaldiaren aurreko urteko abenduaren 31 baino lehen onartu beharko du behin betiko korporazioko osoko bilkurak.

**5.** Baldin eta aurrekontua kasuan kasuko ekonomia-ekitaldiko lehenengo eguna baino lehen onartzen ez bada, aurrekoaren indarraldia luzatuko da berez eta besterik gabe.

### 113. artikulua.

**1.** Aurrekontuei, tributuen ezarpenari, aplikazioari eta eraginkortasunari, zein ordenantza fiskalak onartu eta aldatzeari buruz korporazioek hartutako erabakien gainean jarritako erreklamazioei amaiera ematen dieten egintzen aurka interesdunek zuzenean jar dezakete administrazioarekiko auzi-errekurtsoa.

**2.** Aurka egiteak aurrekontuen berdinketari eragiten badio edo horri buruzkoa bada, Kontu Auzitegiak, nolanahi ere, txosten bat egin beharko du.

**3.** Lehenengo paragrafoan aurreikusitako errekurtsoa eta 49, 108 eta 112.3. artikuluetan ezarritako erreklamazioak egin arren, ez da berez etengo inpugnatutako egintza edo erabakiaren eraginkortasuna.

### 114. artikulua.

Kontabilitate publikoaren araubideari lotuta daude toki-erakundeak. Estatuko Administrazioak ezarriko du, orokorrean, toki-erakundeen kontu-plana.

### 115. artikulua.

Kontu Auzitegiari dagokio toki-erakundeen kontuen eta ekonomia-kudeaketaren kanpoko ikuskapena, bera arautzen duen lege organikoak ezarritako irispide eta baldintzekin, eta eskuordetza emateko bertan aurreikusitako kasuen kontra jarri gabe.

### 116. artikulua.

Toki-erakundeko kontuen batzorde bereziaren irizpenera jarriko dira urteko kontuak ekainaren 1a baino lehen, eta korporazioa osatzen duten talde politiko guztien kideez osatuko da batzorde hori. Kontuak, osoko bilkurari onartzeko aurkeztu baino lehen, jendaurrean jarriko dira aztergai, erreklamazioak, eragozpenak eta oharrak egin ahal izateko. Guztiarekin ere, ekonomia-kudeaketan eta onartutako kontuetan araugabekeriarik ote dagoen salatu ahal izango zaio Kontu Auzitegiari.

## IX. TITULUA. TOKI-ADMINISTRAZIOKO GAIAK DIRELA-ETA, HERRI-ADMINISTRAZIOREN ARTEKO LANKIDETZARAKO ANTOLAKUNDEAK

### 117. artikulua.

**1.** Toki Administrazioko Batzorde Nazionala da Estatuko Administrazio Orokorraren eta toki-administrazioaren arteko lankidetzarako organo iraunkorra.

**2.** Batzordeak Administrazio Publikoetako ministroa izango du lehendakari eta kopuru berdinean izango dira kide toki-erakundeen eta Estatuko Administrazio Orokorraren ordezkariak. Toki-erakundeen ordezkariak izendatzea, nolanahi ere, toki-administrazioko erakundeen estatu mailako elkarterik hedatuenari dagokio.
Batzordearen osaera, jarduera eta erabakiak hartzeko araubidea erregelamenduz zehaztuko dira, Administrazio Publikoetako ministroaren proposamenez Ministroen Kontseiluak onartutako errege-dekretu bidez.

**3.** Lehendakariak bere ekimenez edo toki-ordezkaritzak eskatuta dei egindakoan biltzen da batzordea. Autonomia-erkidegoetako ordezkariak ere joan daitezke batzordearen bilkuretara, lehendakariak dei egiten badie.

**4.** Toki Administrazioko Batzorde Nazionaleko osoko bilkurak bertako azpibatzordeei eskuordetzan eman diezazkieke zenbait egiteko, gai hauen gaineko lege-aurreproiektu txostena salbuespen dela:

- **a)** Toki-araubidearen oinarrizko araudiarena.
- **b)** Toki-ogasunena.
- **c)** Toki-administrazioari dagozkion lege organikoena.

### 118. artikulua.

**1.** Batzordeari dagokio:

**A)** Ondorengo kasu hauetan txostenak egitea:

**a)** Toki-administrazioarekiko gaietan Estatuaren eskumeneko lege-aurreproiektuak eta administrazioko xedapen-proiektuak, esaterako toki-administrazioaren antolakuntzako eta jarduteko araubidea; bere funtzio eta zerbitzuen funtsezko araubidea –eskumenak ematea eta kentzea barne-; bere funtzionarioen estatutu bidezko araubidea; administrazio-prozedura, kontratuak, emakidak eta zerbitzuko publikoak betetzeko gainerako moduak, jabetza kentzea eta ondarezko erantzukizuna; eta bere ondasunen eta toki-ogasunen araubidea egitean.

**b)** Toki-korporazioen zorpetze-eragiketetarako baimena emateko irizpideak ezartzean.

**c)** Lege honetako 61. artikuluan xedatutakoa aplikatzea Ministroen Kontseiluak erabaki dezan kasuetan eta aurretik.

**B)** Gobernuari proposamenak eta iradokizunak egitea, toki-administrazioaren arloari dagokionean, bereziki:

**a)** Toki-erakundeen alde eskumenak aitortzean eta eskuordetzan ematean.

**b)** Estatuak toki-administrazioari ematen dizkion dirulaguntzak, kredituak eta eskualdaketak banatzean.

**c)** Estatuaren tributuetan toki-ogasunek parte-hartzean.

**d)** Toki-erakundeei eragin diezaioketen Estatuko aurrekontu orokorren aurreikuspenen kasuan.

**2.** Batzordeak, bere eginkizunak betetzeko, azterlanak eta txostenak egiteko eska diezaioke Toki Administrazioko Ikaskuntza Institutuari.

### 119. artikulua.

Konstituzioak bermatutako toki-autonomiarentzat kaltegarri direla uste ditzan Estatuko eta autonomia-erkidegoetako legeei Konstituzio Auzitegian aurka egiteko eska diezaieke batzordeak, hain zuzen Konstituzioak horretarako legezkotutako organoei.
Eskabide bera egin dezake toki-erakundeek batzordean duen ordezkaritzak ere.

### 120. artikulua.

**1.** Toki Administrazioko Ikaskuntza Institutua, Lurralde Administrazioko Ministerioari atxikia, zuzenbide publikoko erakundea da, eta nortasun eta gaitasun juridikoaz gain, bere ondare propioa du; bere helburuak betetzearren jarduteko autonomia osoa du.
Institutuaren helburu nagusienak dira toki-administrazioarekin zerikusirik duten arloei buruzko ikerketak eta azterlanak egitea, informazioa eta zabalkundea egitea, eta toki-erakundeetako funtzionarioak hautatu, prestatu eta hobetzea.

**2.** Institutuko gobernu-organoak zuzendaria eta artezkaritza-kontseilua dira. Zuzendariak bere gain hartzen ditu ordezkari izan, betearazte, programazio eta koordinazioko zereginak, zerbitzuen zuzendaritzakoekin batera. Artezkaritza-kontseiluari dagozkio aurrekontua onartzea, jardueren programazioa eta urteko txostena egitea; eta kontseilua osatu, zuzendariak, bertako buru baita, Estatuan hedapenik zabalena duten toki-erakundeen elkarteak izendatutako zortzi ordezkarik, autonomia-erkidegoen hiru ordezkarik, urtebeterako izendatuta autonomia-

estatutuak onartu ziren hurrenkera kronologikoaren arabera, eta Lurralde Administrazioko Ministerioak izendatutako Estatuko Administrazioaren bost ordezkarik osatzen dute.

**3.** Institutua 1958ko abenduaren 26ko Estatuko Entitate Autonomoen Legeko 5. artikuluan aipatutako erakundeen artean dago, eta administrazio-izaerako erakunde autonomotzat hartuko da 1977ko urtarrilaren 4ko Aurrekontuen Lege Orokorreko 4. artikuluan ezarritakoaren ondorioetarako.
Barne-erregelamenduak arautzen du institutuaren antolakuntza eta jarduteko modua, eta Lurralde Administrazioko Ministerioak onartuko du, artezkaritza-kontseiluak proposatuta.

**120bis artikulua.**

Estatuak autonomia-erkidegoekiko elkarlana bultzatuko du toki-araubideari buruz lankidetza-organo bateratuak sortzeko, arloko batzarren izaera juridikoa zein besteren bat hartuta, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legeko 5. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz.

# X. TITULUA. BIZTANLE-KOPURU HANDIKO UDALERRIEN ANTOLAKUNTZAKO ARAUBIDEA

## I. Kapitulua. Aplikazio-eremua

**121. artikulua. Aplikazio-eremua.**

**1.** Titulu honetan aurreikusitako arauak hauei aplikatuko zaizkie:

**a)** 250.000 bizilagun baino gehiagoko biztanleria duten udalerriei.
**b)** Probintziako hiriburuei, 175.000 bizilagun baino gehiagoko biztanleria duten udalerriak badira.
**c)** Probintziako hiriburu, autonomietako hiriburu edo autonomia-erakundeen egoitza diren udalerriei.
**d)** Baita 75.000 bizilagun baino gehiagoko biztanleria duten udalerriei ere, ekonomia, gizarte, historia zein kulturaren aldetik inguruabar bereziak badituzte.
Goiko c) eta d) idatz-zatietan aurreikusitako kasuetan, udal bakoitzaren ekimenez bertako legebiltzarrek horrela erabakitzea eskatuko da.

**2.** Udalerriren batek, bertako udalak agintaldi bakoitza hasi aurreko urteko urtarrilaren 1a erreferentzia hartuta udal-errolda berrikusi ondoren Gobernuak onartutako biztanleria-kopuru ofizialekin bat, titulu honetan aurreikusitako araubidea aplikatzeko eskatutako biztanleria lortzen badu, korporazio berriak, eratzen denetik, sei hilabeteko epea izango du bere antolakuntza titulu honetako xedapenen edukira egokitzeko.
Ondorio horietarako, aipatutako errolda-berrikuspenetik ateratako biztanleria baino ez da kontuan hartuko, eta ez agintaldi bakoitzeko beste urte batzuei dagokiena.

**3.** Titulu honetan aurreikusitako araubidea aplika dakiekeen udalerriek araubide bera izango dute arautzaile gero ere, gerora bertako biztanleriaren kopuru ofiziala lege honetan ezarritako mugatik behera jaitsi arren.

**122. artikulua. Osoko bilkuraren antolakuntza.**

**1.** Alkateak eta zinegotziek osatuta, osoko bilkura da herritarrek udal-gobernuan duten ordezkaritza politikoaren organo gorena.

**2.** Alkateak egingo du osoko bilkurarako deia eta bera izango da buru, Lege honetan eta hauteskunde-legedi orokorrean aurreikusitako kasuetan izan ezik, eta berari dagokio kalitateko botoarekin berdinketak erabakitzea. Alkateak zinegotziren bati utz diezazkioke eskuordetzan osoko bilkurarako deia egitea eta bertako buru izatea soil-soilik, berak egoki irizten dionean.

**3.** Osoko bilkurak erregelamendua egingo du beretzat, eta organikoa izango da. Hala ere, udal-erregelamendu organikoan ere jaso daiteke osokoaren antolakuntzaren eta jardueraren arauketa.
Nolanahi ere, osoko bilkurak idazkari nagusi bat izango du, eta batzordeak edukiko ditu, talde politikoek osoko bilkuran duten zinegotzi-kopuruaren ehunekoan taldeok izendatutako kideez osatuta.

**4.** Batzordeei eginkizun hauek dagozkie:

**a)** Osoko bilkuraren erabakira jarri behar diren gaien azterketa, txostena zein kontsulta.
**b)** Alkatearen eta haren gobernu-taldearen kudeaketaren jarraipena, osoko bilkurari orokorrean dagozkion goi-kontrola eta ikuskapena baztertu gabe.
**c)** Lege honetan xedatutakoaz bat, osoko bilkurak eskuordetzan emandakoak.
Nolanahi ere, osoko bilkurari buruz 46.2. artikuluko b), c) eta d) idatz-zatietan jasotako aurreikuspenak aplikatuko zaizkie batzorde horiei.

**5.** Osoko bilkurako idazkari nagusiari, bera izango da batzordeetakoa ere, eginkizun hauek dagozkio:

**a)** Aktak idatzi eta zaintzea, baita horiek ikuskatu eta baimentzea ere, osoko bilkurako lehendakariak ontzat emanda.
**b)** Osoko bilkurako lehendakariak ontzat emanda, onartutako egintzen eta erabakien ziurtagiriak egitea.
**c)** Osoko bilkurako lehendakariari laguntza ematea bilkuretarako deialdiak, eztabaidetako ordena eta bozketak zuzen egitea bermatzeko, eta osoko bilkurako eta batzordeetako lanak normaltasunez garatzeko lankidetza ematea.
**d)** Osoko bilkuretako erabakiak jakinarazi, argitaratu eta betearaztea.
**e)** Osoko bilkurari eta batzordeei lege-arloko aholkularitza ematea; nahitaezkoa izango da kasu hauetan:
**1.** Lehendakariak agintzen duenean, nahiz gaia eztabaidatzeko bilkura egin baino nahiko lehenago bertako kideen heren batek hala eskatzen duenean.
**2.** Eztabaidatutako puntuak gehiengo berezia eskatzen duten gaiei buruzkoak direnean.
**3.** Legeren batek hala eskatzen duenean, osoko bilkuraren eskumeneko gaietan.
**4.** Gobernu-organoen kontrol eta ikuskapeneko eginkizunak betetzerakoan, lehendakariak zein zinegotzien laurden batek gutxienez hala eskatzen duenean.
Gaikuntza nazionala duten toki-administrazioko funtzionarioentzat gordetzen dira eginkizun horiek. Lehendakariari dagokio horiek izendatzea zortzigarren xedapen gehigarrian aurreikusitako baldintzetan, eta lege honetako 130. artikuluan

aurreikusitako zuzendaritza-organoen parean jarriko dira, osoko bilkura arautzen duten arau organikoek horri buruz zehazten dutenaren aurka jarri gabe.

**123. artikulua. Osoko bilkuraren eskumenak.**

**1.** Osoko bilkurari eskumen hauek dagozkio:

**a)** Gobernu-organoak kontrolatzea eta ikuskatzea.
**b)** Alkateari ezar liezaiokeen zentsura-mozioari buruzko eta alkateak berak jarritako konfiantza-galdekizunari buruzko bozketak egitea; bozketak publikoak izango dira, eta kasu guztietan bakoitzari izenetik deituta egingo dira. Horiek hauteskunde-legedi orokorrean xedatutakoarekin arautuko dira puntu guztietan.
**c)** Erregelamendu organikoak onartzea eta aldatzea. Organikoak izango dira beti:
Osoko bilkuraren arauketa.
Hiriko gizarte-kontseiluaren arauketa.Iradokizun eta Erreklamazioen Batzorde Bereziaren arauketa.
Organo osagarrien eta herritarren partaidetzako prozeduren arauketa.
Udalerria barrutietan banatzea, barrutietako organoak eta bertako ordezkaritza eta partaidetzako organoen eskumenak zehaztea eta arautzea, alkateak administrazio betearazlearen antolakuntza eta eskumenak zehazteko dituen eskumenen kontra aritu gabe.
Udal-antolakuntzaren funtsezko mailak zehaztea; halakoak dira, batetik, gobernuko arlo nagusiak, bestetik, koordinatzaile orokorrak, tokiko gobernu-batzarreko kideen menpeko dira-eta zuzenean, zuzendaritza nagusien edo gobernu-arlo berean bildutako antzeko organoen koordinazio-funtzioekin eta funtzio horien zein antzeko beste funtzio batzuen zerbitzu erkideen kudeaketako funtzioekin, baita zuzendaritza nagusiak edo administrazio-antolakuntza burutzen duten antzeko beste organo batzuk ere, alkateak organo horietako bakoitzaren kopurua zehazteko eta beheragoko maila osagarriak ezartzeko dituen eskumenen kontra aritu gabe.
Erreklamazio ekonomiko-administratiboak ebazteko organoaren arauketa.
**d)** Udaleko ordenantzak eta erregelamenduak onartu eta aldatzea.
**e)** Udal-mugartea zehaztu eta aldatzeari buruzko erabakiak hartzea; lege honetako 45. artikuluan aipatutako erakundeak sortzea edo ezabatzea; udalerriburua aldatzea eta udalerriaren edo erakunde horien izena aldatzea, eta bertako bandera, ikurra edo armarria onartzea edo aldatzea.
**f)** Udalerriaz gaindiko antolakundeetan parte-hartzeari buruzko erabakiak.
**g)** Tributu-izaerako baliabide propioak zehaztea.
**h)** Aurrekontuak eta langileen plantilla onartzea, eta bere eskumeneko gaietan gastuak baimentzea. Berak onartuko du, halaber, ekitaldi bakoitzeko kontu nagusia.
**i)** Plangintza orokorrari hasierako onarpena ematea, eta hirigintza-legedian aurreikusitako antolamenduko planen eta gainerako tresnen gaineko udal-izapideen amaiera onartzea.
**j)** Bere eginkizunak edo jarduerak beste herri-administrazio batzuei eskualdatzea, baita beste administrazio batzuek emandako eskuordetzak zein kudeaketarako gomendioak onartzea, legeak nahitaez ezarritakoak ez badira.
**k)** Zerbitzuen kudeaketa-erak zehaztea, udal-eskumeneko zerbitzuak kudeatzeko erakunde autonomoak, enpresa-entitate publikoak eta merkataritza-sozietateak sortzeko erabakia hartzea, eta udalekotze-espedienteak onartzea.
**l)** Bere egintza eta xedapen orokorrak ofizioz berrikusteko ahalmenak.
**m)** Akzio judizialak eta administratiboak baliatzea eta osoko bilkuraren defentsa juridikoa egitea bere eskumeneko gaietan.

**n)** Osoko bilkurako kideen, bertako idazkari nagusiaren, alkatearen, tokiko gobernu-batzarreko kideen eta udaleko zuzendaritza-organoen ordainsarien araubidea ezartzea.

**ñ)** Beste toki-erakunde batzuei eta gainerako herri-administrazioei eskumen-gatazkak jartzea.

**o)** Lege honetako 121.1. artikuluko azken puntuan aurreikusitako ekimena onartzea, lege honetako X. tituluaren aplikazio-eremuan udalerria sartu ahal izateko.

**p)** Legeek berariaz emandako gainerakoak.

**2.** Osoko bilkurako kideen legezko kopuruaren gehiengo osoaren aldeko botoa behar da, c), e), f), j) eta o) idatz-zatietan aipatutako erabakiak hartzeko eta hirigintza-legedian plangintza orokorrerako aurreikusitako tresnak izapidetzerakoan osoko bilkurak hartu beharreko erabakiak hartzeko.
Gainerako erabakiak botoen gehiengo soilez hartuko dira.

**3.** Goiko d), k), m) eta ñ) idatz-zatietan aipatu eta osoko bilkurarenak diren eskumenak aurreko artikuluko 4. paragrafoan aipatutako batzordeen esku baino ezin izango dira utzi eskuordetzan.

**124. artikulua. Alkatea.**

**1.** Alkateak du udalerriaren ordezkaritzarik gorena.

**2.** Alkatea kudeaketa politikoaren erantzule da osoko bilkuraren aurrean.

**3.** Alkateari txit gorenaren tratua emango zaio.

**4.** Zehazki, eginkizun hauek betetzea dagokio alkateari:

**a)** Udalaren ordezkari izatea.

**b)** Udalerriko politika, gobernua eta administrazioa zuzentzea, lege honek tokiko gobernu-batzarrari egotzitako eginkizun betearazleak eta administraziokoak burutuz batzar horrek zuzendaritza politikoan kide anitzeko organo moduan egin dezan lankidetza baztertu gabe.

**c)** Udal-gobernuaren ekintzaren jokabide nagusiak ezartzea eta ekintza horrek jarraituko duela ziurtatzea. **d)** Osoko bilkuretarako eta tokiko gobernu-batzarraren bilkuretarako deia egin eta bertan buru izatea, eta berdinketetan kalitateko botoarekin horiek erabakitzea.

**e)** Alkateordeak eta barrutietako lehendakariak izendatzea eta kargutik kentzea.

**f)** Udaleko organo betearazleen erabakiak argitaratzeko agintzea, eta erabakiok bete eta betearaztea.

**g)** Bandoak, dekretuak eta jarraibideak ematea.

**h)** Kasu berezi eta oso presakoetan beharrezkoak eta egokiak diren neurriak hartzea, eta osoko bilkurari berehala jakinaraztea.

**i)** Udal-administrazioaren zerbitzura dauden langileen goi-zuzendaritza betetzea.

**j)** Udaltzaingoaren buruzagitza betetzea.

**k)** Udal-administrazio betearazlearen antolakuntza eta egitura ezartzea, 123. artikuluko 1. paragrafoko **c)** idatz-zatian xedatutakoarekin bat etorriz osoko bilkurak udal-antolakuntzaren gainean egotzita dituen eskumenen aurka joan gabe.

**l)** Bere eskumeneko gaietan akzio judizialak eta administratiboak baliatzea, baita osoko bilkuraren eskumeneko gaietan ere presako kasuetan; kasu horretan lehenengo bilkuran jakinarazi beharko dizkio osokoari hark berretsi dezan.

**m)** Bere egintzak ofizioz berrikusteko ahalmenak.

**n)** Bere eskumeneko gaietan gastuak baimendu eta xedatzea.

**ñ)** Legeek berariaz aitortzen dizkioten gainerakoak, eta Estatuko legediak edota autonomia-erkidegoetakoak udalerriari esleitutakoak izanik udaleko beste organoei aitortu ez dizkietenak.

**5.** Alkateak dekretu bidez utzi ahal izango dizkie lehen esandako eskumenak tokiko gobernu-batzarrari, bertako kideei, gainerako zinegotziei, baita koordinatzaile nagusiei, zuzendari nagusiei zein antzeko beste organo batzuei, puntu honetako **b), e), h)** eta **j)** idatz-zatietan aipatutakoak izan ezik, eta tokiko gobernu-batzarretarako deia egin eta bertan buru izatea, kalitateko botoarekin berdinketak erabakitzeko eta bandoak emateko eskumenak izan ezik. Goiko **c)** eta **k)** idatz-zatietan aurreikusitako eskumenak tokiko gobernu-batzarrari baino ezin izan zaizkio eman eskuordetzan.

**125. artikulua. Alkateordeak.**

**1.** Alkateak alkateordeak izendatu ahal izango ditu tokiko gobernu-batzarra osatzen duten zinegotzien artetik; eta bere ordezkoa egingo dute, izendapen hurrenkeraren arabera, hark kargua hutsik laga nahiz bera kanpoan aurkitu zein gaixorik dagoenean.

**2.** Alkateordeei txit argiaren tratua emango zaie.

**126. artikulua. Tokiko gobernu-batzarraren antolakuntza.**

**1.** Tokiko gobernu-batzarrak, alkatearen lehendakaritzapean, alkateari dagokion zuzendaritza politikoan laguntzen dio kide anitzeko organo moduan, eta lege honetako 127. artikuluan aipatutako eginkizun betearazle eta administratiboak betetzen ditu.

**2.** Alkateari dagokio tokiko gobernu-batzarreko kideak askatasunez izendatzea eta kargutik kentzea; kideon kopurua ezin da izan osoko bilkurako kideen legezko kopuruaren herenetik gorakoa, alkateaz gain.
Zinegotzi ez diren pertsonak izenda ditzake alkateak tokiko gobernu-batzarreko kide izateko, alkatea zenbatu gabe batzarreko kideen heren batetik gorakoa ez bada beren kopurua. Beren eskubide ekonomikoak eta gizarte-prestazioak kide hautetsien berak izango dira.
Nolanahi ere, tokiko gobernu-batzarra balioz eratzeko, tokiko gobernu-batzarreko kideen artean zinegotzi direnak zinegotzi ez diren kideak baino gehiago izan behar dira batzarrean.
Tokiko gobernu-batzarreko kideak osoko bilkuretara joan daitezke eta bertako eztabaidetan parte hartu, baina bertako lehendakariari dagozkion ahalmenei eragin gabe.

**3.** Tokiko gobernu-batzarrak bere kudeaketaren erantzukizun politikoa du solidario osoko bilkuraren aurrean, bertako kide bakoitzak bere kudeaketaz duen zuzeneko erantzukizuna alde batera utzi gabe.

**4.** Tokiko gobernu-batzarreko idazkaritza, alkateak izendatuta, zinegotzi den kideren batena izango da; bilkuretako aktak idatziko ditu eta bertako erabakiak ziurtatuko ditu. Tokiko gobernu-batzarrari eta bertako zinegotzi-idazkariari laguntzeko organo bat egongo da; eta bertako titularra gaikuntza nazionala duten toki-administrazioko funtzionarioen artetik izendatuko da. Hona organo horren eginkizunak:

**a)** Tokiko gobernu-batzarreko zinegotzi-idazkariari laguntzea.
**b)** Tokiko gobernu-batzarreko kideei deialdiak bidaltzea.
**c)** Batzarretako deialdiak, gai-zerrendak eta aktak artxiboan jarri eta jagotea.

**d)** Erabakien jakinarazpena zuzen eta zehatz egiteko arduratzea.

**5.** Tokiko gobernu-batzarraren eztabaidak isilpean gorde behar dira. Batzarrekoak ez diren zinegotziak eta zuzendaritza-organoetako kideak bilkuretara joan daitezke, kasu biotan ere alkateak berariaz dei egin badie.

**127. artikulua. Tokiko gobernu-batzarraren eskumenak.**

**1.** Tokiko gobernu-batzarrari hauek dagozkio:

**a)** Ordenantzen eta erregelamenduen proiektuak onartzea, organikoak barne, osoko bilkura eta bertako batzordeak arautzeko arauak salbuespen direla.
**b)** Aurrekontu-proiektua onartzea.c) Hirigintza-antolamenduko tresnen proiektuak onartzea, horien behin betiko zein behin-behineko onarpena osoko bilkurari dagozkionean.
**d)** Osoko bilkurari berariaz egotzi gabeko plangintza orokorra garatzeko plangintzako tresnak onartzea, baita hirigintza-kudeaketako tresnak eta urbanizazio-proiektuak onartzea ere.
**e)** Edozein lizentzia-mota ematea, arloko legediak berariaz beste organoren bati egotzitakoa ez bada.
**f)** Kontratazioak eta emakidak, urte anitzekoak barne, urtealdiak gehitzea eta urte anitzetako gastuen ehunekoak aldatzea, baita ondarea kudeatu, eskuratu eta besterentzea, eta kreditu-eragiketak ituntzea ere, eta guztia aurrekontuarekin eta aurrekontua egiteko oinarriekin bat etorriz.
**g)** Ekonomiaren kudeaketa garatzea, bere eskumeneko gaietan gastuak baimendu eta xedatzea, osoko bilkurak aurrez baimendutako gastuak xedatzea, eta langileen kudeaketa.
**h)** Lanpostuen zerrenda, osoko bilkurak onartutako aurrekontuarekin bat datozen langile-ordainsariak, enplegu publikorako eskaintza, lanpostuak betetzeko hautaketa-deialdietako oinarriak, eta behin-behineko langileen kopurua eta araubidea onartzea, udaleko funtzionarioak zerbitzutik kentzea, lege honetako 99. artikuluan xedatutakoa errespetatuz, lan-kontratupeko langileak iraiztea, diziplina-araubidea, eta berariaz beste organoren bati egotzi gabeko gainerako erabakiak langileei buruzko gaietan.
Nagusiki teknikoa izango da oposizioetako epaimahaien osaera, eta deialdiko lanpostuetan sartzeko eskatutako tituluaren maila bereko edo goragokoa eduki beharko dute epaimahaiko kide guztiek. Epaimahaiko lehendakaria korporazioko kideen artetik izendatuko da, edo herri-administrazioen zerbitzura dauden langileen artetik.
**i)** Udal-administrazioko zuzendaritza-organoetako titularrak izendatzea eta kentzea, gaikuntza nazionala duten toki-administrazioko funtzionarioentzat zortzigarren xedapen gehigarrian xedatutakoaren aurka jarri gabe.
**j)** Bere eskumeneko gaietan akzio judizialak eta administratiboak baliatzea.
**k)** Bere egintzak ofizioz berrikusteko ahalmenak.
**l)** Zehatzeko ahala baliatzea, legez beste organoren bati egotzita dagoenean izan ezik.
**m)** Dagozkion gainerakoak, indarrean dauden lege-xedapenekin bat etorriz.

**2.** Tokiko gobernu-batzarrak alkateordeei, tokiko gobernu-batzarreko gainerako kideei, kasua bada, gainerako zinegotziei, koordinatzaile nagusiei, zuzendari nagusiei zein antzeko beste organo batzuei eskuordetzan eman diezazkieke aurreko paragrafoko e), f), g) eta h) idatz-zatietan aipatutako eginkizunak, salbuespen direla lanpostuen zerrenda onartzea, langileen ordainsariak, enplegu publikorako eskaintza, behin-behineko langileen kopurua eta araubidea zehaztea, eta funtzionarioak zerbitzutik kentzea; eta horiekin bat, l) idatz-zatikoak ere eman diezazkieke.

**128 artikulua. Barrutiak.**

**1.** Udalek barrutiak sortu behar dituzte, beren lurralde-atal izateko, kudeaketa deskontzentratuko organoz hornituta, udal-gaien kudeaketan herritarren partaidetza bultzatu eta garatzeko eta kudeaketa bera hobetzeko, udalerriaren gobernu eta kudeaketaren batasuna hautsi gabe.

**2.** Udalbatzaren osoko bilkurari dagokio barrutiak sortu eta arautzea, 123. artikuluan aurreikusitako eran eta irispidearekin, baita, arau organiko baten bidez, barruti guztien artean kudeatu beharko dituzten udalbatzaren aurrekontu-baliabideen gutxieneko ehunekoa zehaztea ere.

**3.** Zinegotzi bati dagokio nolanahi ere barrutiaren lehendakaritza.

**129 artikulua. Aholkularitza juridikoa.**

**1.** Lege honetako 122. artikuluko 5. paragrafoko e) idatz-zatiak osoko bilkurako idazkariarentzat gordetako eginkizunen aurka jarri gabe, alkateari, tokiko gobernu-batzarrari eta zuzendaritza-organoei aholkularitza juridikoa emateko administrazio-organo bat egongo da, udalaren aholkularitza juridikoa eta epaiketan udalaren ordezkaritza eta defentsa egiteko, Botere Judizialaren uztailaren 1eko 6/1985 Legeko 447. artikuluko bigarren paragrafoan xedatutakoaren aurka jarri gabe.

**2.** Tokiko gobernu-batzarrak izendatu eta kenduko du aholkularitzako titularra, baldintza hauek betetzen dituzten pertsonen artetik:

- **a)** Zuzenbideko lizentziadun-titulua izatea.
- **b)** Gaikuntza nazionala duen toki-administrazioko funtzionario izatea, edo Estatuko, autonomia-erkidegoetako edo toki-erakundeetako karrerako funtzionario izatea, baldin eta horretan sartzeko doktore, lizentziadun, ingeniari, arkitekto edo balio bereko beste tituluren bat eskatu izan bazaie.

**130.artikulua. Goi-organoak eta zuzendaritza-organoak.**

**1.** Hauek dira udaletako goi-organoak eta zuzendaritza-organoak:

- **A)** Goi-organoak:
  - **a)** Alkatea.
  - **b)** Tokiko gobernu-batzarreko kideak.
- **B)** Zuzendaritza-organoak:
  - **a)** Eremu edo zinegotzigo bakoitzeko koordinatzaile nagusiak.
  - **b)** Eremu nagusi zein zinegotzigo bakoitzaren barruan administrazio-antolakundea burutzen duten zuzendari nagusiak nahiz horien pareko organoak.
  - **c)** Tokiko gobernu-batzarraren eta bertako zinegotzi-idazkariaren laguntza-organoko titularra.
  - **d)** Aholkularitza juridikoko titularra.
  - **e)** Osoko bilkurako idazkari nagusia.
  - **f)** Udaleko kontu-hartzaile nagusia.
  - **g)** Badago, zerga-kudeaketako organoko titularra.

**2.** Zuzendaritza-organotzat hartuko dira, halaber, erakunde autonomoetako eta tokiko enpresa-entitate publikoetako zuzendaritza-organo gorenetako titularrak, 85 bis artikuluko b) idatz-zatian ezarritakoarekin bat etorriz.

**3.** Koordinatzaile nagusien eta zuzendari nagusien izendapena Estatuko, autonomia-erkidegoetako edo toki-erakundeetako karrerako funtzionarioen artetik zein gaikuntza nazionala duten toki-administrazioko funtzionarioen artetik egin behar da, doktore, lizentziadun, ingeniari, arkitekto nahiz balio bereko titulua eskatu bazaie funtzionario sartzeko; salbuespen izango da, ordea, osoko bilkurak, 123.1 c) artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, udal-antolakundeko funtsezko mailak zehazterakoan, zuzendaritza-postuko ezaugarri bereziak kontuan hartuta, horko titular izateko funtzionario izaterik eskatzen ez badu. Kasu horretan, arrazoietan oinarrituta egin beharko dira izendapenak, lanbide-gaitasuna irizpide dela, eta kudeaketa publiko zein pribatuan erantzukizuneko postuak betetzen izandako eskarmentua kontuan hartuta.

**4.** Herri-administrazioen zerbitzura diharduten langileen bateraezintasunen abenduaren 26ko 53/1984 Legean eta aplikatzekoak diren Estatuko zein autonomietako beste arau batzuetan ezarritako bateraezintasunen araubidearen menpe daude goi-organoak eta zuzendaritza-organoak.

**131. artikulua. Hiriko gizarte-kontseilua.**

**1.** Titulu honetan aipatutako udalerrietan hiriko gizarte-kontseilu bat egongo da, ekonomiaren, gizartearen, profesionalen eta auzotarren erakunderik esanguratsuenetako ordezkariz osatuta.

**2.** Kontseilu horri, osoko bilkurak arau organikoen bidez zehaztutako eginkizunez gain, tokiko ekonomiaren garapenerako txostenak, azterlanak eta proposamenak, hiriko estrategia-plana eta hiriko proiektu nagusiak egitea dagokio.

**132. artikulua. Auzotarren eskubideen defentsa.**

**1.** Udal-administrazioaren aurrean auzotarren eskubideak defendatzeko, osoko bilkurak Iradokizun eta erreklamazioaren batzorde berezi bat sortuko du, eta arau organikoz arautuko da bere jarduera.

**2.** Osoko bilkura osatzen duten talde guztietako ordezkariz eratuko da Iradokizun eta erreklamazioen batzorde berezia, taldeok bilkuran duten kide-kopuruaren ehunekoaren arabera.

**3.** Esandako batzorde horrek udal-administrazioaren jarduera ikuskatu ahal izango du, eta, urteko txostena eginez, udal-zerbitzuen funtzionamenduan ikusitako akatsen eta aurkeztu diren kexen berri eman beharko dio osoko bilkurari, udal-administrazioak onartu ez dituen iradokizunak zein gomendioak zehaztuta. Hala ere, ohiz kanpoko txostenak ere egin ditzake, gertaeren larritasunak zein presakotasunak hala egitea komenigarri jotzen duenean.

**4.** Udaleko gobernuko eta administrazioko organo guztiak behartuta daude Iradokizun eta erreklamazioen batzordeari lankidetza ematera, bere eginkizunak bete ditzan.

**133. artikulua. Ekonomiaren eta finantzen kudeaketako irizpideak.**

Ekonomiaren eta finantzen kudeaketak irizpide hauek bete behar ditu:

**a)** Helburu bezala aurrekontuaren egonkortasuna zaintzea, hori arautu dezan legedian xedatutakoarekin bat etorriz.
**b)** Ekonomiaren eta finantzen kudeaketaren kontabilitatea eta ikuskapena banatuta izatea.
**c)** Toki-ogasunak arautzen dituen abenduaren 28ko 39/1988 Legean kontabilitateari buruz jasotako aurreikuspenetara lotu behar da nolanahi ere kontabilitatea.
**d)** Ikuskapena eta aurrekontuaren legezkotasunaren kontrola egiteko eremua aurrekontua bera izango da, edo sarreren eta gastuen aurreikuspen-orria, kasu bakoitzari dagokion bezala.
e) Zerbitzuen kostuen jarraipena eskakizun bezala sartzen da.
f) Baliabideak izendatzea eraginkortasunaren eta eragimenaren printzipioak kontuan hartuta egingo da, zehaztutako helburuen arabera eta helburuak betetzeko behar diren heinean.
**g)** Gaindikin likidoak administratu eta errentagarri bihurtzea eta diruzaintzako eragiketak ituntzea aurrekontua eta onartutako finantza-plana betetzeko oinarriekin bat etorriz egingo dira.
**h)** Udal-administrazioaren eta bere menpeko erakunde guztien egintza, dokumentu eta espediente guztiak, erakundeon izaera juridikoa edozein dela ere, bertatik eduki ekonomikoko eskubideak eta betebeharrak sortzen badira, lege honetan zehaztutako organoaren kontrolari eta barne ikuskapenari lotuta egongo dira, Toki-ogasunak arautzen dituen abenduaren 28ko 39/1988 Legeko 194. artikulutik 203.era artekoetan ezarritako erara.

**134. artikulua. Ekonomiaren, finantzen eta aurrekontuaren kudeaketako organoa edo organoak.**

**1.** Udal-erregelamendu organikoan zehaztutako organoak edo organoek beteko dituzte aurrekontu, kontabilitate, diruzaintza eta diru-bilketako eginkizunak.

**2.** Aipatutako organoko edo organoetako titularra edo titularrak gaikuntza nazionala duten toki-administrazioko funtzionario izan behar dira, aurrekontuko eginkizunak betetzen dituen organoaren kasuan izan ezik.

**135. artikulua. Zerga-kudeaketako organoa.**

**1.** Udal-zergen sistemaren kudeaketa integrala lortzeko, eragimena, nahikotasuna, arintasuna eta kudeaketaren batasuna printzipio arautzaile direla, biztanle-kopuru handiko udalerrietako udaletako osoko bilkurari gaitasuna ematen zaio zerga-kudeaketako organo bat sortzeko, zerga-legediak toki-zergen administrazioari emandako eskumenak bereak bailitzan baliatzeko erantzukizuna izan dezan.

**2.** Zerga-kudeaketako organo horri eskumen hauek dagozkio gutxienez:

**a)** Udaleko zerga-egintzen kudeaketa, kitapena, ikuskapena, bilketa eta berrikustea.
**b)** Udaleko zuzenbide publikoko gainerako sarrerak betearazte-aldian biltzea.

**c)** Zergen gainean kudeatzeko eskumena egotzita duenean, horiei buruzko zehapen-espedienteak izapidetu eta ebaztea.

**d)** Udalaren zerga-sistemari buruzko sarrera publikoen politika orokorra analizatu eta diseinatzea.

**e)** Udalaren beraren zerga-arauak proposatu, egin eta interpretatzea.

**f)** Zerga-sarrerei dagokienez, sarreren aurrekontuaren jarraipena egitea eta aurrekontua betetzeko agintzea.

**3.** Goiko 1. paragrafoan aurreikusitako gaikuntza erabiltzen badu osoko bilkurak, organo horri atxikiko zaizkio diru-bilketako eginkizuna eta titularra bera, eta ez du ondoriorik izango 134.1. artikuluan xedatutakoak diru-bilketako eginkizunari dagokionez.

**136.artikulua. Kontrolaren eta barruko ikuskapenaren organo arduraduna.**

**1.** Ekonomiaren, finantzen eta aurrekontuen kudeaketaren kontroleko eta barruko ikuskapeneko funtzio publikoa, kontuhartze-funtzioa denez, finantzen kontrol-funtzioa denez eta eraginkortasunaren kontrol-funtzioa denez, administrazio-organo bati dagokio, eta bere izena Udal-kontuhartzailetza nagusia izango da.

**2.** Udal-kontuhartzailetza nagusiak udaleko organo eta erakundeekiko eta zuzendaritza-karguekiko autonomia osoz beteko ditu bere funtzioak beren kudeaketa ikuskatzen duenean, eta sarbide osoa izango du kontabilitatera eta bere funtzioak betetzeko beharrezko diren agiri guztietara iristeko.

**3.** Gaikuntza nazionala duten toki-administrazioko funtzionarioen artetik izendatuko da bertako titularra.

**137. artikulua. Erreklamazio ekonomiko-administratiboak erabakitzeko organoa.**

**1.** Organo espezializatu bat egongo da eginkizun hauek betetzeko:

**a)** Udal-eskumenekoak diren zuzenbide publikoko zergen eta sarreren kudeaketa, kitapen, bilketa eta ikuskapeneko egintzen gaineko erreklamazioez arduratzea eta horiek erabakitzea.

**b)** Ordenantza fiskalen proiektuen gaineko irizpena ematea.

**c)** Zerga-gaietan eskumenak dituzten udal-organoek eskatzen badute, gaiari buruzko azterlanak eta proposamenak egitea.

**2.** Emandako ebazpenek amaitu egiten dute administrazio-bidea, eta horien aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa baino ezin izango da jarri.

**3.** Hala ere, interesatuek aukeran izango dute Toki-ogasunak arautzeko abenduaren 28ko 39/1988 Legeko 14. artikuluan arautako berraztertzeko errekurtsoa aldez aurretik jartzea artikulu honetako 1.a) paragrafoan aurreikusitako egintzen kontra. Aipatutako berraztertzeko errekurtsoaren gaineko ebazpenaren aurka, erreklamazio ekonomiko-administratiboa jarri ahal izango zaio artikulu honetan aurreikusitako organoari.

**4.** Organoko kideen kopurua bakoitia izango da; gutxienez hiru izango dira kideak, onartutako gaitasun teknikoa duten pertsonen artetik izendatuta, legez osoko bilkura osatzen duten kideen gehiengoaren aldeko botoarekin; eta arrazoi hauek daudenean kargua utziko dute:

**a)** Bakoitzak berak eskatuta.

**b)** Izendatzeko besteko gehiengoarekin osoko bilkurak kargutik kentzea erabakitzen duenean.

**c)** Dolozko delitua dela eta, epai irmoz kondenatzen dituztenean.

**d)** Diziplinazko hutsegite oso larri edo larriren bat egiteagatik ebazpen irmoz zehatzen dituztenean.

Osoko bilkurak bakarrik erabaki lezake diziplinazko espediente bat hastea eta ebaztea; diziplinazko araubideari dagokionez udaleko funtzionarioei aplikagarri zaien araudiaren arabera egingo da espedientea bere alde guztietan.

**5.** Organoaren jardueraren oinarrizko irizpideak independentzia teknikoa, bizkortasuna eta doakoa izatea dira. Organoaren osaera, eskumenak, antolakuntza eta jarduera, erreklamazioen prozedurarekin batera, osoko bilkurak onartutako erregelamenduz arautuko dira, nolanahi ere Zerga Lege Orokorrean eta erreklamazio ekonomiko-administratiboak arautzen dituen estatuko araudian ezarritakoarekin bat etorriz, eta organoaren jardueraren eta funtzionamenduaren eremua kontuan hartuta beharrezkoak diren egokitzapenen aurka jarri gabe.

**6.** Artikulu honetan araututako erreklamazioa ez doa legean Estatuko auzitegi ekonomiko-administratiboetan erreklamazio ekonomiko-administratiboa jartzeko aurreikusitako kasuen aurka.

## IV. Kapitulua. Hirien batzarra

### 138. artikulua.

Tokiko gaietarako arloko batzarraren barruan hirien batzarra egongo da Estatuko Administrazio Orokorrak, autonomia-erkidegoek eta lege honetako X. tituluaren aplikazio-eremuan sartzen diren udalerrietako alkateek osatuta.

## V. Kapitulua. Zenbail gairi buruzko arau-hausteak eta zehapenak toki-erakundeek tipifikatzea

### 139. artikulua. Zenbait gairi buruzko arau-hausteak eta zehapenak tipifikatzea.

Toki-erakundeek toki-intereseko elkarbizitza-harremanak eta beren zerbitzuen, ekipamenduen, azpiegituren, instalazioen eta espazio publikoen erabilera egoki antolatzeko, arloan berariazko araudirik egon ezik, hurrengo artikuluetan ezarritako irizpideekin bat arau-hausteen sailkapena finkatu ahal izango dute, baita zehapenak ezarri ere, kasuan kasuko ordenantzetan jasotako eginbeharrak, debekuak zein murrizpenak ez betetzeagatik.

### 140.artikulua. Arau-hausteen sailkapena.

**1.** Aurreko artikuluan aipatutako toki-ordenantzei buruzko arau-hausteak oso larriak, larriak eta arinak izango dira.

Oso larriak dira arau-hausteak honakoren bat dakartenean:

**a)** Elkarbizitzaren nahasmendu nabarmena, hain zuzen beste pertsona batzuen lasaitasuna edo beren legezko eskubideez baliatzea larri, berehala eta zuzenean eragozten duenean, eta aplikatzekoa den araudiarekin bat datozen era guztietako jardueren ohiko garapenari zein osasungarritasun edo apaindura publikoei eragiten dienean, baldin eta Herritarren Segurtasuna Babesteko otsailaren 21eko 1/1992 Legeko IV. kapituluan aurreikusitako jokaera-motetan sartu ezin direnak badira.

**b)** Beste pertsonaren batek edo batzuk zerbitzu publikoren bat erabiltzeko eskubidea izan arren hori eragoztea.

**c)** Zerbitzu publikoren baten ohiko jarduera eragotzi edo larri eta nabarmen oztopatzea.

**d)** Zerbitzu publikoren bateko ekipamenduak, azpiegiturak, instalazioak edo osagaiak larri eta nabarmen hondatzeko egintzak.

**e)** Beste pertsonaren batek edo batzuk espazio publikoren bat erabiltzeko eskubidea izan arren hori eragoztea.

**f)** Espazio publikoak zein bertako instalazioak eta osagaiak, bai higigarriak zein higiezinak, larri eta nabarmen hondatzeko egintzak, herritarren segurtasuna nahastetik sortu ez badira.

**2.** Gainerako arau-hausteak larriak edo arinak izango dira, irizpide hauen arabera:

**a)** Jardueren zein beste pertsona batzuen eskubideen bakezko erabileran edo lasaitasunean eragindako nahasmenduaren indarraren arabera.

**b)** Osasungarritasun edo apaindura publikoei eragindako nahasmenduaren indarraren arabera.

**c)** Zerbitzu zein espazio publikoak erabiltzeko eskubidea duten pertsonen aldetik horietan eragindako nahasmenduaren indarraren arabera.

**d)** Zerbitzu publikoren bateko ohiko funtzionamenduan eragindako nahasmenduaren indarraren arabera.

**e)** Zerbitzu zein espazio publikoren bateko ekipamendu, azpiegitura, instalazio zein osagaietan eragindako kalteen indarraren arabera.

### 141 artikulua. Zehapen ekonomikoen mugak.

Legeetan bestelako aurreikuspenik egin ezik, toki-ordenantzen arau-hausteen isunen kasuan kopuru hauek errespetatu behar dira:
Arau-hauste oso larrietan: 3.000 euro arte.Arau-hauste larrietan: 1.500 euro arte.
Arau-hauste arinetan: 750 euro arte.

## XEDAPEN GEHIGARRIAK

### Lehenengoa.

**1.** Bakoitzaren estatutuetan ezarritakoaren arabera Asturietako Printzerriko, Kantabriako, Errioxako, Murtziako, Aragoiko, Gaztela-Mantxako, Gaztela eta Leongo, Balear Uharteetako, Extremadurako eta Madrilgo autonomia-erkidegoek toki-araubideari buruzko Estatuko legediari dagokionez beren gain hartutako legegintzako edo garapeneko eskumenak, kasuak kasu, lege honetako 13. artikuluan eta IV. tituluan ezarritakoaren esparruan beteko dituzte, nahiz, hala balegokio, lege bereko 20.2, 32.2, 29 eta 30. artikuluetan aurreikusitako moduetan eta irispenarekin.

**2.** Lege honek autonomia-erkidegoei aitortzen dizkien administrazio-eginkizunak aurreko lerroaldean aipatutakoei eskualdatutzat jotzen dira. Autonomia-erkidego horiek, era berean, lege honetako lehenengo azken xedapenean ezarritakoaren arabera eman behar den Estatuko legediak eskualdatu diezaien izaera bereko beste eginkizun guztiak ere edukiko dituzte.

**Bigarrena.**

Lege honetako xedapenak, Konstituzioaren eta Euskal Herriko Autonomia Estatutuaren arabera, Araba, Gipuzkoa eta Bizkaiko lurralde historikoetan ondorengo berezitasunei kalterik eragin gabe ezarriko dira:

**a)** Konstituzioko lehen xedapen gehigarrian eta Euskal Herriko Autonomia Estatutuko 3, 24.2 eta 37. artikuluetan ezarritakoaren arabera, Araba, Gipuzkoa eta Bizkaiko lurralde historikoek askatasunez antolatuko dituzte beren erakundeak eta erakundeon jardunerako beharrezko arauak emango dituzte, lege honetan probintzien antolakuntzari buruz jasotakoak aplikatu beharrik gabe.
**b)** Euskal Herriko Autonomia Estatutuak eta bera garatzeko eta aplikatzeko emandako autonomia-erkidegoko barne-legediak aitortutako eskumenak gauzatuko dituzte Araba, Gipuzkoa eta Bizkaiko lurralde historikoek, baita lege honek orokorrean probintzietako diputazioei aitortzen dizkietenak ere.
**c)** Estatutuak eta bera garatzeko eta aplikatzeko emandako autonomia-erkidegoko legediak aitortutako eskumenak burutzerakoan, lurralde historikoetako foru-erakundeei dagokie Estatuko oinarrizko legedia garatzeko arauak egitea eta legedi hori betearaztea dagokien arloetan, horrela aitortzen bazaie.
**d)** Lurralde historikoetako foru-erakundeek Estatuko Administrazioaren edo autonomia-erkidegoaren eskumeneko alorretan jarduten badute, probintzietako diputazioen eta Estatuko Administrazioaren eta, hala bada, autonomia-erkidegoko administrazioaren arteko harremanak arautzen dituen lege honetako arauak aplikatuko zaizkie, baldin eta jarduera horiek probintzietako diputazio arrunt bezala burutzen badituzte, eta ez beren araubide bereziaren arabera foru-erakunde bezala, ezin izango baitzaizkie aplikatu arau horiek, Estatuko oinarrizko legedia garatzen edo aplikatzen ari direnean nahiz Estatuaren eskumenetan sartzen ardi direnean izan ezik.
**e)** Ogasunaren arloan, Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Itunaren Legean ezarritakoari atxikiko zaizkio lurralde historikoen eta Estatuko Administrazioaren arteko harremanak.
**f)** Euskal Herriko lurralde historikoek araubide bereziarekin jarraituko dute udal-arloan ekonomiaren eta finantzaketaren araubideari dagokionean Ekonomia Itunaren Legean esandakoaren arabera. Horrek ez du esan nahi euskal toki-korporazioek gainerako toki-korporazioek dutena baino autonomia-maila txikiagoa dutenik, nahiz eta lege honetako 115. artikuluan xedatutakoa eta gai honi dagokionean autonomia-erkidegoari dagozkion eskumenak aplikatu.
**g)** Konstituzioko lehenengo xedapen gehigarriaren eta Euskal Herriko Autonomia Estatutuaren 10.4. eta 37. artikuluen arabera, lurralde historikoetako foru-erakundeei dagokie 99.1. artikuluko lehenengo paragrafoan aipatutako lehiaketen deia egiteko ahalmena, beren lurraldeetarako baino ez direnean, eta bertako lanpostu hutsetarako. Deialdi horiek bakoitzaren lurralde historikoko "Aldizkari Ofizialean" eta "Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian" argitaratu ahal izango dira.
Era berean, aurreko paragrafoan aipatutako xedapenen arabera, lurralde historikoetako foru-erakundeei dagokie 92.3. artikuluan aipatu eta funtzionarioen izendapenari buruz 99.1. artikuluaren azken aurreko paragrafoan aurreikusitako ahalmena.

**h)** Lege honetako 99.1 artikuluan Estatuarentzat gordetako baremoaren ehunekoa %65 da. Eta lor daitekeen guztiaren %10 Euskal autonomia Erkidegoari egozten zaio, bere eskubide historikoetatik eta bereziki Ekonomia Itunetik darizkion berezitasun juridiko eta ekonomiko-administratiboak jakiteari dagozkion merezimenduak finkatu ditzan.

Gainerako %25aren barruan, delako toki-erakundeak askatasunez ezarri ahal izango ditu tokiko ezaugarrien arabera egoki iruditzen zaizkion berariazko merezimenduak.

**i)** Lege honetako 98. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, lege-testu bereko 92. artikuluko 3. paragrafoan aipatutako funtzionarioak Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak (HAEEk) presta ditzan, erakunde horren eta Toki Administrazioko Ikaskuntza Institutuaren artean (IEAL) ezarriko den itunean bere berezitasunei dagozkien gaiak edo jakintzagaiak sartu ahal izango ditu Euskal Autonomia Erkidegoak. Estatu osoan eskakizun arrunteko gaietarako orokorrean ezarritako ikasketa-mailako gutxieneko eskakizunak betetzea da baldintza bakarra, eta inola ere ez dira Toki Administrazioko Ikaskuntza Instituturako indarrean daudenak baino goragokoak izango.

**j)** Foru-aldundien ekonomiaren, finantzaketaren eta aurrekontuen kudeaketaren barruko kontrola eta ikuskapena eta kontabilitatea, diruzaintza eta diru-bilketa askatasunez antolatuko dituzte foru-aldundiek, Ekonomia Itunaren esparruan, lege honetako 92.3 artikuluan xedatutakoa aplikatu gabe.

### Hirugarrena.

Nafarroan lege hau egongo da indarrean Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoko 46. artikuluan bertako toki-administraziorako ezartzen den araubideari kontrajartzen ez zaion guztian. Horren ondorioetarako, adierazitako aginduan aipatutako legeekin bat etorriz, Nafarroan indarrean dagoen Estatuko araudia lege honetako xedapenek aldatutzat joko behar da.

Aipatutako 46. artikuluko 1. paragrafoan xedatutakoarekin bat etorriz, lege honetako lehenengo xedapen gehigarriko 2. zenbakian ezarritakoa aplikatuko da Nafarroako Foru Komunitatean.

### Laugarrena.

Lege honetako 42. artikuluko 2. paragrafoan aurreikusitakoa aplikatzeko, autonomia-erkidegoaren lurralde osoa zati batean eta gutxiengo baten eraginez eskualdetan antolatzea eragotziko balitz, Kataluniako Generalitateak, lehendik ere lurralde osorako eskualde-mailako antolakuntza bat onartuta izan duelako eta bere estatutuak, halaber, eskualdekako antolakuntza orokor bat aurreikusten duelako, bere lurralde-eremu osora antolakuntza hori hedatzeko falta den edo diren eskualde edo eskualdeak eratzea erabaki lezake legebiltzarraren gehiengo osoz onartutako lege baten bidez.

### Bosgarrena.

**1.** Elkarren interes erkideak babestu eta bultzatzeko estatu osoko edo autonomia-erkidegoko mailako elkarteak eratu ditzakete toki-erakundeek. Elkarte horiei beren berariazko araudia ezarriko zaie; eta bertan aurreikusi gabekoetan, elkarteen alorreko Estatuko legedia.

**2.** Elkartutako erakundeen ordezkariek onartutako estatutuen bidez arautuko dira toki-erakundeen elkarteak. Estatutu horiek elkarteko zereginetan bertako kideen parte-hartzea eta gobernu-organoen ordezkagaitasuna ziurtatu beharko dituzte. Estatutu horietan, era berean, ohiko batzar nagusiak egiteko aldizkakotasuna adierazi behar da, baldin eta aldizkakotasun hori

Elkartzeko Eskubidea arautzen duen martxoaren 22ko 1/2002 Lege Organikoko 11.3. artikuluan orokorrean aurreikusitakoa baino handiagoa bada.

**3.** Elkarte horiek, beren eginkizunen esparruaren baitan, hitzarmenak egin ditzakete edozein herri-administraziorekin.

**Seigarrena.**

**1.** Madrilgo udalerriaren araubide bereziak, uztailaren 11ko 1674/1963 Dekretuak onartutako testu artikulatuan jaso eta abuztuaren 22ko 2482/1970 Dekretuak aldatuak, indarrean jarraituko du harik eta Madrilgo Erkidegoaren Autonomia Estatutuaren otsailaren 25eko 3/1983 Lege Organikoko 6. artikuluan aurreikusitako Legea eman arte, lege honetan ezarritakoarekin aurka egon, kontraesanean izan edo bateraezinak diren kasuetan izan ezik. Berariaz indargabetuta uzten dira aipatutako lege bereziko horretako 2. artikuluko c) idatz-zatia, 4. artikuluko 2. paragrafoko azken puntua eta 11, 12, 13 eta 39.2 artikuluak, baita lege honetan aurreikusitakotik bestelakoa den administrazioen arteko harremanen sistema osatzen duten beste guztiak ere.

**2.** Bartzelonako udalerriaren araubide bereziak, maiatzaren 23ko 1166/1960 Dekretuak onartutako testu artikulatuan jasotakoak, abuztuaren 24ko 5/1974 Lege-dekretuak eta Bartzelonako Metropoli-erakundea eratu eta garatzeari buruzko azaroaren 28ko 3276/1974 Dekretuak eta horrekin bat datozen xedapenek indarrean jarraituko dute, lege honetan ezarritakoarekin aurka egon, kontraesanean izan edo bateraezinak diren kasuetan izan ezik.

**3.** Aurreko paragrafoetan ezarritakoaren aurka jarri gabe, bakoitzaren autonomia-erkidegoko lege bidez, araubide berezi horiek eguneratu egin ahal izango dira; horretarako, toki bakoitzaren autonomia-printzipioa errespetatuz eta udal bakoitzaren eskariz, lege honetan aurreikusitako udal-antolakuntzaren araubide orokorrari berezitasun hauek ezarri ahal izango zaizkio:

**1)** Aldatu egin daiteke lege honetako 20.1 artikuluan ohartemandako nahitaezko organoen izena.
**2)** Osoko bilkurak edo horren pareko organoak batzorde bidez ere jardun lezake. Kasu horretan, lege honetako 20.1 c) artikuluan organo osagarrientzat aurreikusitako eginkizun hauez gain. Osoko bilkurak erabakitzeko jarriko diren gaiak aztertu, horiei txostena eman zein horietaz aholkua emateko eginkizunez gain, batzordeoi osoko bilkurak egotzi edo eskuordetzan emandako eginkizunak ere izango dituzte batzordeek, 47. artikuluko 2 eta 3. paragrafoetan jasotakoak eta lege honetako 22. artikuluko 3. paragrafoan jasotako eskumenak salbuespen direla.
**3)** Lege honetako 23. artikuluan aurreikusitako gobernu-batzordeari berezkotzat egotzi ahal izango zaizkio gai hauen gaineko eskumenak:
**a)** Lege honek, eskuordetzan emateko modukoak direlako edo erabakiak hartzeko gehiengo berezirik behar ez dutelako, osoko bilkurarentzat esklusiban gorde gabekoak.
**b)** Legeak alkateari egozten dizkionak hirigintzari, kontratazioari, langileei eta ondasunak eskuratu eta besterentzeari buruz.
**c)** Erregelamenduen eta ordenantzen proiektuak eta aurrekontu-proiektua onartzea.

**4.** Alkateari berezkotzat egotzi ahal izango zaizkio, eskuordetzan emateko modukoak direlako edo erabakiak hartzeko gehiengo berezirik behar ez dutelako, lege honek osoko bilkurarentzat esklusiban gorde gabeko eskumenak.

**Zazpigarrena.**

Atzerritarrek Espainian dituzten Eskubide eta Askatasunen eta atzerritarrak gizarteratzeko Lege Organikoan ezarritako eskumenak gauzatzeko soil-soilik, hain zuzen Espainian dauden atzerritarrak kontrolatzeko eta bertan egotearen gaineko eskumenak, udalerrietako erroldetan dauden atzerritarren errolda-inskripzioetako zehaztasunetara atzipenak egin ahal izango ditu Poliziako Zuzendaritza Nagusiak, batez ere bide telematikoak erabiliz.

Zehaztasun pertsonalak babesteko legedia estu-estuan beteko dela ziurtatzeko, segurtasun-neurririk handienak erabiliz egin beharko dira atzipenak. Ondorio horietarako, atzipen bakoitza erasota geldituko da Poliziako Zuzendaritza Nagusian, baita erabiltzailea nor izan den, eta zein egun eta ordutan egin den ere, kontsultatuko zehaztasunekin batera.

Udalerrietako erroldetan agertzen diren atzerritarren errolda-inskripzioetako zehaztasunak eguneratuta eduki ahal izateko, Poliziako Zuzendaritza Nagusiak hilero jakinaraziko dizkio Estatistikako Institutu Nazionalari Atzerritarren Erregistro Nagusian idatzitako atzerritarren zehaztasunak, institutu horrek bere eskumenak gauzatu ditzan.

Ekonomiako ministroari eta Barne ministroari ahalmena ematen zaie Atzerritarren Erregistro Nagusian idatzitako atzerritarren zehaztasunak bide elektronikoz, informatikoz edo telematikoz Estatistikako Institutu Nazionalari jakinarazteko erak arautzeko xedapenak eman ditzaten.

**Zortzigarrena. Gaikuntza nazionala duten toki-administrazioko funtzionarioei dagozkien eginkizunen berezitasunak, X. tituluaren aplikazio-eremuko udalerrietan eta hamalaugarren xedapen gehigarrian araututako Kanariar Uharteetako kabildoetan.**

Lege honetako X. tituluaren aplikazio-eremuko udalerrietan eta hamalaugarren xedapen gehigarrian araututako Kanariar Uharteetako kabildoetan arau hauek aplikatuko dira:

**a)** Gaikuntza nazionala duten toki-administrazioko funtzionarioentzat titulu horretan gordetako eginkizunak kasuan kasuko azpi-eskaletako funtzionarioek beteko dituzte, bertako erregelamenduzko arauetan xedatutakoarekin bat etorriz.

**b)** Funtzionario horientzat gordetako lanpostuak betetzea lege honetako 99. artikuluan eta garapeneko erregelamenduzko xedapenetan aurreikusitako sistemen bidez egingo da; beti ere deialdi publikoa egin beharko da aurrez.

**c)** Hauteskunde-legedi orokorrak udaletako idazkariei egintzen dizkien eginkizunak eta korporaziko kideen interesen erregistroa arteztea eta zaintzea osoko bilkurako idazkariak egingo ditu.

**d)** Kide bakarreko organoen egintzen eta erabakien gaineko fede publikoaren eginkizunak eta fede publikoko gainerako eginkizunak, osoko bilkurako idazkari nagusiari, tokiko gobernu-batzarreko zinegotzi-idazkariari eta tokiko enpresa-entitate publikoetako administrazio-kontseiluko idazkariari egotzitakoak salbuespen direla, tokiko gobernu-batzarreko idazkariaren laguntza-organoko titularrak beteko ditu, nahiz eta udaleko beste funtzionario batzuei eskuordetzan eman utzi ahal izango dizkien.

**e)** Herri-administrazioen kontratuei buruzko legediak udaletako idazkariei agindutako eginkizunak aholkularitza juridikoko titularrari egokituko zaizkio, kontratuak administrazioko agirietan gauzatzea salbu utzita.

**f)** Osoko bilkurako idazkari nagusiak eta tokiko gobernu-batzarreko idazkariaren laguntza-organoko titularrak, bakoitzak bere jardun-eremuaren baitan, udaleko organo erabakitzaileen egintzen eta erabakien kopia edo, hala bada, laburpena bidaliko beharko diete Estatuko Administrazioari eta autonomia-erkidegokoari.

**Bederatzigarrena. Hiri-behatokia.**

Erregelamenduz zehaztuko diren adierazleen jarraipena eginez, lege honetako X. tituluan araututako udalerrietako bizi-kalitatearen bilakaera ezagutu eta analizatzeko, Gobernuak Hiri-behatoki bat sortuko du, eta Administrazio Publikoetako Ministerioaren menpean egongo da.

**Hamargarrena. Udaltzaingoa.**

Botere Judizialaren uztailaren 1eko 6/1985 Lege Organikoan, Estatuko Segurtasun Indarren eta Gorputzen martxoaren 13ko 2/1986 Lege Organikoan, Herritarren Segurtasuna Babesteko otsailaren 21eko 1/1992 Lege Organikoan, eta toki-araubidea arautzen duten legezko xedapenetan xedatutakoaren esparruan, herritarren segurtasuna mantentzeko, udaltzaingoen parte-hartzea indartuko da, bai hurbileko polizia bezala, bai polizia judizialaren eginkizunak betetzeko ere; horretarako, parte-hartze horren esparru materiala mugatu eta zehazteko arau bat egiteko beharrezko jarduerak sustatuko ditu Estatuko Gobernuak.

**Hamaikagarrena. Biztanle-kopuru handiko udalerrien araubide berezia.**

Lege honetako X. tituluan biztanle-kopuru handiko udalerrientzat jasotako xedapenek lehentasuna izango dute maila bereko edo beheragoko beste arauen gainetik, haien aurka zein kontraesanean badaude nahiz bateraezinak badira.

**Hamabigarrena. Merkataritza-sozietateak berrantolatzea**.

**1.** Tokiko merkataritza-sozietateen izaerako beste ente batzuk zuzendu edo koordinatzeko tokiko enpresa-entitate publikoren bat eratzen den kasuetarako, udaleko osoko bilkurak erabakiko du, hala bada, korporazioaren edo korporazioko ente publikoren baten titulartasuneko akzio-partaidetzat tokiko enpresa-entitate publikoan sartzea, edo azken horretakoak beste hartan sartzea. Titulartasuna aldatzeko eragiketek eraginkortasun osoa izango dute osoko bilkuraren erabakiaren unetik bertatik, eta erabaki hori titulartasun berriaren egiaztagiri izango da ondorio guztietarako. Jasotako akzio-partaidetzat titular berriaren kontabilitatean erregistratuko dira, erabaki horren egunean aurreko titularrarenean zeukaten kontabilitateko balio berberarekin.

**2.** Era berean, titulartasuna aldatzeko eragiketa horiek ez dira balioen merkatuko legediaren menpe egongo, ez eta eskuratzeko eskaintza publikoaren araubidearen menpe ere, eta ez dute lehentasunez erosteko edo atzera eskuratzeko eskubiderik sortuko, ez eta eskualdatutako partizipazioak bere zituzten sozietateetako beste akziodun batzuk partizipazio horien gainean estatutuz edo kontratuz lehentasunez eskuratzeko izan ditzaten beste ezelako eskubiderik ere, ez sozietate horiekiko hirugarren direnen kasuan. Horiez gain, arau hau aplikatuz sozietateetako partizipazioak eskualdatze eta berrantolatze soila ezin izango da ulertu sozietate horiek dituzten harreman juridikoak aldatzeko edo eteteko arrazoitzat.

**3.** Xedapen honetan aurreikusitakotik sortutako sozietate-eragiketak, titulartasun-aldaketak eta egintza guztiak Estatuko tributu guztietatik salbuetsita daude, baita autonomia-erkidegoei utzitako tributuetatik zein tokikoetatik ere, eta azken kasu horretan ez da bidezkoa izango Toki-ogasunak Arautzeko abenduaren 28ko 39/1988 Legeko 9. artikuluko 2. paragrafoko lehenengo idatz-zatian aipatutako konpentsazioa.
Arau hau betetzetik sortutako egintzetan parte har dezaten fede-emaile publikoen, jabetza-erregistratzaileen eta merkataritzako erregistratzaileen tarifak ehuneko 90 gutxituko dira.

**Hamahirugarrena.**

Tokiko eskumenei zuzenean eragiten dieten erkidegoko politika guztiak egiteko prozesuan behetik gorako aldian borondate nazionala sortzerakoan estatu osoko ordezkaritzarik zabaleneko elkartearen bidez toki-erakundeen parte-hartzea benetakoa izateko beharrezko neurriak hartuko ditu Gobernuak.

**Hamalaugarrena. Kanariar Uharteetako kabildoen antolakuntzako araubide berezia.**

**1.** Lege honetako X. tituluko II. eta III. kapituluetan jasotako arauak aplikatuko zaizkie, 128, 132 eta 137. artikuluak salbu, hauei:

> **a)** Kanariar Uharteetako kabildoei, 175.000 bizilagun baino gehiagoko biztanleria duten uharteen kasuan.
> **b)** 75.000 bizilagun baino gehiago duten uharteetako gainerako kabildoei, kabildo bakoitzeko osoko bilkuren ekimenez Kanarietako Parlamentuak lege bidez horrela erabakitzen duenean.

**2.** Kabildoetan nahitaezko uharte-organo izango dira osoko bilkura, lehendakaria eta uharteko gobernu-kontseilua.

**3.** Lege honetako 122, 123, 124, 125 eta 126. artikuluetan alkateari buruz egindako aipamenak kabildoko lehendakariari egiten zaizkiola ulertu behar da; 124, 125 eta 127. artikuluetan alkateordeei buruz egindakoak lehendakariordeei egiten zaizkiela; 123, 126, 127, 129 eta 130. artikuluetan tokiko gobernu-batzarrari egindakoak uharteko gobernu-kontseiluari egiten zaizkiola; eta 122, 124 eta 126. artikuluetan zinegotziei egindakoak kontseilariei egiten zaizkiela.

**4.** Aurreko paragrafoan aipatutako organoei egotzitako eskumenak kabildoaren barruan dagokion uharte-organoak bereganatuko ditu, eskumenok bete-betean udal-gaietakoak ez badira.

**5.** Aholkularitza juridikoak, zuzendaritza eta goi-organoek eta uharteko gizarte-kontseiluak 129, 130 eta 131. artikuluetan izendatu zaizkien eskumenak izango dituzte. Aholkularitza juridikoko eta zuzendaritza-organoetako titularren izendapena 129 eta 130. artikuluetan eskatutako betekizunak kontuan hartuta egingo da.

## XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Lege honetako xedapenekin aurka egon, kontraesanean izan edo bateraezinak diren heinean, indargabetuta uzten dira:

> **a)** Toki-araubideari buruzko Legea, 1955eko ekainaren 24ko Dekretuaz onartutako testu artikulatu eta bategina.
> **b)** Toki-araubidearen Estatutuaren Oinarriei buruzko 41/1975 Legearen testu artikulatu partziala, urriaren 6ko 3046/1977 Errege-dekretuak onartua.
> **c)** Toki-korporazioen Araubide Juridikoari buruzko urriaren 28ko 40/1981 Legea, hamargarren xedapen iragankorrean aurreikusita dagoen bezala, erreklamazio ekonomiko-administratiboen araubidearen aldi baterako indarraldiari kalterik eragin gabe.

**d)** Maiatzaren 12ko 11/1960 Legea, Toki Administrazioaren Aurreikuspeneko Mutualitate Nazionala sortu eta arautzen duena.
**e)** Xedapen honen lehen lerroaldean aipatutako moduan, lege honetako xedapenekin aurka egon, kontraesanean izan edo bateraezinak diren maila bereko edo beheragoko beste arau guztiak.

## XEDAPEN IRAGANKORRAK

### Lehenengoa.

Lege honetako azken xedapenetako lehenengoak ematen dion baimena erabiliz Gobernuak bateratu behar dituen xedapenek osatzen dute 5. artikuluko idatz-zatietan jartzen duenaren arabera Estatuak iragankor ezarri beharreko legedia. Hori dela eta, Estatuko oinarrizko araudia izango da legedi hori, edo bestela, autonomia-erkidegoek onar ditzaketenen osagarri, artikulu horretan bertan ohartemandako kasuen arabera.

### Bigarrena.

Harik eta lege honetako 5. artikuluko B) idatz-zatiko a) letran, 25. artikuluko 2. paragrafoan eta 36. artikuluan ezarritakoaren arabera eman dadin Estatuko eta autonomia-erkidegoetako legediak beste zerbait erabakitzen ez duen bitartean, udalerriek, probintziek eta uharteek gorde egingo dituzte lege hau indarrean jartzean indarrean dagoen arloko legediak aitortzen dizkien eskumenak.
Horrez gain, lege honetako 28. artikuluan aipatutako gaietan, arloko legedi horrek beste herri-administrazio batzuei eman gabeko betearazteko eskumen guztiak udalerriek izango dituzte.

### Hirugarrena.

Toki-hauteskundeei buruzko uztailaren 17ko 39/1978 Legearen arabera eratutako udal-batzorde iraunkorrek eta probintzietako diputazioetako gobernu-batzordeek utzi egingo dituzte beren eginkizunak, korporazioko lehendakariak kasuan kasuko gobernu-batzordeak izendatzen dituenean. Hori egiteko epea gehienez ere hiru hilabetekoa da, batzorde hori izatea beharrezkoa duten udal eta diputazio guztietan, lege hau indarrean jartzen denetik kontatuta.

### Laugarrena.

Lege honetako 29. artikuluko 1. paragrafoko a) idatz-zatian jartzen denak udalerriren bati bere egungo antolakuntzan eragingo balio, udalerri horrek antolakuntza berarekin jarraituko du hurrengo toki-hauteskundeak egin arte.

### Bosgarrena.

Lege hau indarrean jarri eta sei hilabeteko epean, 14. artikuluan aurreikusitako erregistroa antolatuko du Estatuko Administrazioak, lege honetan aipatutako toki-erakunde guztien izena bertan jasoz lehenik, beren gaur egungo izenekin.

### Seigarrena.

**1.** Lege hau indarrean jarri eta bost hilabeteko epean Toki Administrazioko Batzorde Nazionalaren Antolaketa eta Jarduera Erregelamendua onartuko du Gobernuak.

**2.** Aurreko zenbakian aipatutako epe horretan bertan, Toki Administrazioko Ikaskuntza Institutuaren Erregelamendua onartuko du Lurralde Administrazioko ministroak.

**3.** Aurreko zenbakietan aipatutako erregelamenduak indarrean jarri eta hiru hilabeteko epean, Toki Administrazioko Batzorde Nazionala eta Toki Administrazioko Ikaskuntza Institutuko Artezkaritza Kontseilua osatu beharko dira, beren aurreikuspenetan eta lege honetan ezarritakoaren arabera.

**Zazpigarrena.**

**1.** Gaikuntza nazionala behar duten funtzionarioentzat lege honetan xedatutakoa garatzen ez den bitartean, indarrean dagoen estatutu-araubidea aplikatuko zaie egungo Toki Administrazioko Kidego Nazionalak osatzen dituztenei, bateragarria den guztian eta lege honek eta funtzio publikoaren arloan Estatuko legedi orokorrak indargabetzen ez duenetan. Idazkari, Kontu-hartzaile eta Gordailuzainen Kidego Nazionala osatzen dutenek egungo lege honek araututako gaikuntza nazionala izango dute ondorio guztietarako.

**2.** Lurralde Administrazioko ministroaren ekimenez eta Lehendakaritzako ministroaren proposamenez kidego batzuk ezabatzeko baimena du Gobernuak arrazionalizazio-prozesu orokorrak edo lege hau egoki betetzeak hala eskatzen duenean; horretarako, kidego horietako funtzionarioak beste kidego batzuetan sartzeko irizpideak, eskakizunak eta baldintzak ezarriko ditu.

**3.** Lege honetan ezarritakoaren arabera ezabatuta geratzen den Musika Banda Zibiletako Zuzendarien Kidego Nazionaleko funtzionarioak bakoitzaren korporazioko plantillan dira bertako funtzionario gisa. Aurreko legediaren babespean sortutako eskubideak eta egoera juridikoa osorik errespetatuko zaizkie, baita beste toki-korporazioetara aldatu ahal izatea ere, eta horretarako lehentasun osoa izango dute toki-korporazioek halako lanpostuak betetzeko deitutako lehiaketetan.

**Zortzigarrena.**

**1.** Toki-administrazioek ezin izango dute administrazio-zuzenbideko araubidean lankidetza iragankorreko kontraturik egin, ez eta lehendik daudenak berritu ere.

**2.** Lege hau indarrean jartzen den egunetik kontatzen hasi eta sei hilabeteko epean, administrazioko kontratuko langileek momentu horretaraino egindako funtzioak sailkatuko dituzte toki-administrazioek.
Sailkapen horrek zehaztuko ditu, kasuen arabera, funtzionarioek zein lan-kontratuko langile finkoek nahiz aldi baterakoek bete beharreko lanpostuak.
Aipatu sailkapenetik aterako dira plantillan egin beharreko aldaketak.

**3.** Lankidetza iragankorreko administrazio-kontratatu edo enpleguko bitarteko funtzionario bezala lan egin duen langile orok dagozkion lanpostuak betetzeko sarrera-probetan parte hartu ahal izango du.
Nolanahi ere, sarrera-probetako deialdietan errespetatu egin behar dira merezimenduaren eta gaitasunaren gaineko irizpideak, erregelamenduz zehaztutako hautaprobak eginez, langile horiek benetan egindako zerbitzuak balioetsita.

**4.** Edozein herri-administraziotan administrazioko kontratuak eta enpleguko funtzionarioen izendapenak indarrean dauden bitartean, horietako norbaitek toki-korporazioren batean ordainsaria eta arduraldi esklusiboa duen hautetsi-karguren bat betetzen badu, kargu horretan jarraitzen duen bitartean eten egingo da horren kontratua edo izendapena. Baldintza hauetan kargua utzi eta hurrengo hogeita hamar egunetan, kontratatu eta funtzionario horiek aurreko harremana eten arte bete dituzten lanpostuetan jarraitzeko eskubidea izango dute, harremanok osorik berrezartzeko lege-baldintzak gertatzen badira.
Era berean, harremanak eten arte irabazitako eskubideak gorde egin dituzte, eta etenaldian xedapen orokorrak aplikatuta eskuratu dituztenak aitortu egingo zaizkie, pertsonalki.

### Bederatzigarrena.

Lege hau indarrean jarri eta gehienez ere urtebeteko epean, Gobernuak, errege-dekretu bidez, Araubide Erkideko Diputazioen Mankomunitatea desegitea erabakiko du, bertako ondarearen, obligazioen eta langileen likidazioa egiteko beharrezkoa ezarriz.

### Hamargarrena.

**1.** Lege hau indarrean jarri eta urtebeteko epearen barruan, toki-korporazioek onartu edo emandakoak diren aurrekontuak onartzeko eta tokiko tributuak aplikatu eta antolatzeko ordenantza fiskalak onartzeko erabakiei, eta ordenantza horiek aplikatu eta betearazteko egintzei, egun indarrean dagoen erreklamazio ekonomiko-administratiboen araubidea aplikatuko zaie.

**2.** Era berean, probintzietako auzitegi ekonomiko-administratiboetan egindako erreklamazioek eta Auzitegi Ekonomiko Administratibo Nagusian aurkeztutako gora jotzeko errekurtsoek bide ekonomiko-administratiboan izapidetzen jarraituko dute, aurreko paragrafoan adierazitako epea baino lehen aurkeztutakoak badira eta orduan oraindik ebatzi gabe bazeuden.

## AZKEN XEDAPENAK

### Lehenengoa.

Urtebeteko epean, eta testu bakar batean, indarrean dauden lege-xedapenak bategiteko baimena ematen zaio Estatuko Gobernuari, xedapen indargabetzailean ezarritakoaren arabera. Bategite horretan xedapen horiek arauzkotu, argitu eta harmonizatu ere egin behar dira.
Gobernuak, epe horretan bertan, indarrean jarraitzen duten erregelamendu mailako arau guztiak eta, batez ere, honako erregelamendu hauek xedapen hartan xedatutakoaren arabera eguneratuko ditu eta bertara egokituko:

**a)** 1952ko maiatzaren 17ko Dekretuaz onartutako Toki-erakundeen Biztanleria eta Lurralde Mugaketari buruzko Erregelamendua, geroko xedapenek sorrarazitako aldaketekin batera.
**b)** 1952ko maiatzaren 17ko Dekretuaz onartutako Toki-korporazioen Antolaketa, Jarduera eta Araubide Juridikoari buruzko Erregelamendua, geroko xedapenek sorrarazitako aldaketekin batera.
**c)** 1952ko maiatzaren 30eko Dekretuaz onartutako Toki-administrazioko Funtzionarioei buruzko Erregelamendua, geroko xedapenek sorrarazitako aldaketekin batera.
**d)** 1953ko urtarrilaren 9ko Dekretuaz onartutako Toki-korporazioen Kontratazioari buruzko Erregelamendua, geroko xedapenek sorrarazitako aldaketekin batera.

**e)** 1955eko maiatzaren 27ko Dekretuaz onartutako Toki-erakundeen Ondasunei buruzko Erregelamendua, geroko xedapenek sorrarazitako aldaketekin batera.
**f)** 1955eko ekainaren 17ko Dekretuaz onartutako Toki-korporazioen Zerbitzuei buruzko Erregelamendua, geroko xedapenek sorrarazitako aldaketekin batera.

### Bigarrena.

**1.** Estatuko Administrazioko funtzionario publikoek duten gizarte-babes berbera edukiko dute toki-administrazioko funtzionario publikoek ere, hedapenari eta intentsitateari dagokionean, eta Gizarte Segurantzaren sistemaren barruan sartuta egongo da.

**2.** Gizarte Segurantza finantzatzeko toki-administrazioko funtzionarioek egingo duten ekarpena Estatuko Administrazioko funtzionario publikoentzat ezarritako berbera izango da, babes-ekintza berdina bada.

**3.** Toki-administrazioko funtzionarioen Gizarte Segurantzaren kudeaketa MUNPALen gain egongo da. Bere helburuak betetzeko gaitasun juridiko osoa eta bere ondarea dituen zuzenbide publikoko pertsona juridikoa da, eta organikoki Lurralde Administrazioko Ministerioari atxikita dago, berorri baitagozkio haren goi-zuzendaritza eta babesa.
Gizarte Segurantzaren erakunde kudeatzaileari aitortutako pobreziaren, posta eta telegrafiako jaretasunaren eta zerga-salbuespenen onura berberak izango ditu MUNPALek ere, Gizarte Segurantzaren Lege Orokorrean ezarritakoaren arabera; gainerakoetan 11/1960 Legea aplikatuko da, lege honen eta bere garapen-arauen aurka ez daudenetan.

### Hirugarrena.

Udaltzainek eta suhiltzaileek berariazko estatutu bat edukiko dute, erregelamenduz onartuta; udaltzainei dagokienez Estatuko Segurtasun Indarren eta Gorputzen legea hartuko da kontuan.

### Laugarrena.

**1.** Berariaz indargabetuta uzten dira Toki-korporazioen Ikuskapen eta Aholkularitzako Estatuko Zerbitzuari buruzko 1955eko ekainaren 24ko Toki-araubidearen Legeko 344. artikulutik 360.era bitartekoak, biak barne.

**2.** Lege hau indarrean jarri eta hiru hilabeteko epean, aipatu zerbitzuari lehen atxikitako langileen antolakuntza eta jardueraren araubidearen berezitasunak arautuko ditu Gobernuak, eta zerbitzua Estatuko funtzionario zibilen legediaren arabera arautuko da.

**3.** Toki-erakundeei buruz Estatuko Administrazioari dagozkion eginkizunak behar bezala betetzeko, Gobernuak toki-korporazioetako funtzionarioak atxiki ahal izango ditu bere zerbitzura.

### Bosgarrena.

Lege hau indarrean jartzen denean, epaitegi-barrutiko buru izanda espetxerik ez duten udalerriek, eskuordetutako eskumen-araubidean, beren gain hartu behar dute epaileen eskueran jarritako atxilotuak gordetzeko ardura, eta udaltzainei dagokie, polizia judizialaren eginkizunak betez, atxilotuak zaintzea.
Espetxe-arloko eskumena duen administrazioak aurreko lerroaldean aipatutako udalen esku jarriko ditu, esandako zerbitzua betetzeko behar besteko baliabide ekonomiko, arloko legediak ohartemandako modu eta neurrietan.

***EZ DAGO EUSKARAZKO BERTSIORIK***

## *EZ DAGO EUSKARAZKO BERTSIORIK*

***EZ DAGO EUSKARAZKO BERTSIORIK***